

Genero-ikuspegia egiaren batzordeetan

Latinoamerikako eta Afrikako esperientziak


Irantzu Mendia Azkue (argtz.)



Genero-ikuspegia egiaren batzordeetan

Latinoamerikako eta Afrikako esperientziak

Irantzu Mendia Azkue (argtz.)



Argitalpen hau *Trantsiziozko justizia eta kritika feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoriozko zigorgabetasun patriarkalaren aurkako baliabideak* proiektuaren esparruan egin da. PRO-2018K30031. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Argentiaren (GLEA) laguntzarekin.



Genero-ikuspegia egiaren batzordeetan. Latinoamerikako eta Afrikako esperientziak

Argitaratzailea:

Irantzu Mendia Azkue

Egileak:

Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Julie Guillerot, iker zirion landaluze, Diana Marcela Gómez Correal

2020



www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU • Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 **Bilbao**

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 **Donostia**

Tel.: 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU • Campuseko Liburutegia

Nieves Cano, 33 • 01006 **Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

Azaleko marrazkia: Sergio Daneri M. Guzmán

Itzultzaileak: Iñigo Gallastegi Zorrilla eta Maku Florentino Garbizu

Imprimatzailea: Printheus, S.L.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege gordailua: BI 01814-2020

ISBN: 978-84-16257-64-5



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopia, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

Aurkezpena	9
<i>Irantzu Mendia Azkue</i>	
I. Kapituluua. Generoaren txertaketa Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean	17
<i>Irantzu Mendia Azkue</i>	
1. Sarrera	19
2. Testuingurua	20
3. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen berezitasunak	23
3.1. Baldintzapeko amnistia	23
3.2. Adiskidetzea azpimarratzea	26
3.3. Entzunaldi publikoak	27
4. Genero-ikuspegia Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean	28
4.1. Emakumeen lekukotzak eta entzunaldi publikoak	30
4.2. Sexu-indarkeriaren gaia	31
4.3. Genero-indarkeriaren dimentsio estrukturala ez aipatzea	33
4.4. Erreparazioak eta berriro gertatuko ez delako bermeak	35
5. Ondorioak	38
Bibliografia	40
II. Kapituluua. Historia Argitzeko Batzordea Guatemalan. Egiaren eta genero-justiziaren aldeko bide luzerako oinarriak	45
<i>Gloria Guzmán Orellana</i>	
1. Sarrera	47
2. Testuinguruari buruzko elementu laburrak	48
3. Historia Argitzeko Batzordea	50
3.1. Mandatua eta ezaugarri nagusiak	50
3.2. <i>Guatemala, isiltasunaren memoria</i> txostena: aurkikuntza nabarmenak	52
4. Memoria Historikoa Berreskuratzeko Diozesi arteko proiektua (REMHI) eta <i>Guatemala: berriro inoiz ez</i> txostena	56
4.1. REMHIk dokumentatutako emakumeen aurkako indarkeria	57
5. Generoa Historia Argitzeko Batzordean	59
5.1. Kontzeptuzko eta ikuspegiko alderdiak	60

5.2. Sexu-indarkeria eta emakumeen giza eskubideen beste urraketa batzuk	61
5.3. Gomendioak: zehaztasun eskasa	67
6. Amaierako hausnarketak	68
Bibliografia	70
Eranskina	71
Historia Argitzeko Batzordeak erabiltzen duen giza eskubideen urraketan eta indarkeria-egitateen tipologia	71
III. Kapitulua. “Emakumeen egia entzun egin behar da”. Erronkak eta arrakastak Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan	73
<i>Julie Guillerot</i>	
1. Sarrera	75
2. Testuingurua	76
3. Genero-azterketa	79
3.1. Generoa Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean sartzearen faktoreak	79
3.2. Genero-dimentsioa Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen lanean	83
3.2.1. Organigrama, taldeak eta gaikuntza	83
3.2.2. Zabalkundea eta komunikazioa	84
3.2.3. Entzunaldi publikoak	86
3.2.4. Ikerketa eta kapitulu espezifikoak: egiaren generoa	87
3.2.5. Gomendioen generoa	90
4. Amaierako hausnarketak	95
Bibliografia	98
IV. Kapitulua. Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea: egia bilatzean genero-analisia txertatzeko lehenengo urrats bat	101
<i>iker zirion landaluze</i>	
1. Sarrera	103
2. Gatazka armatuaren testuinguru laburra	104
3. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordeari buruzko ideia nagusiak	105

4. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen genero-analisia	109
4.1. Mandatua: sexu-indarkeriari lehentasuna	109
4.2. Genero-ikuspegia EABren metodologian	110
4.3. Emakumeei eta gatazka armatuari buruzko kapitulu espezifikoa	114
5. Generoari buruzko beste ekarpen batzuk EABren amaierako txostenean	119
5.1. Emakumeen aurkako indarkeria- <i>continuum</i> a	119
5.2. Emakumeen esperientzia-heterogeneotasuna	120
6. Amaierako gogoetak	123
Bibliografia	125
V. Kapitulua. Emakumeak eta genero-ikuspegia Kolonbiako Egiaren Batzordean: egia argitzeko aurrerapenak eta erronkak	129
<i>Diana Marcela Gómez Correal</i>	
1. Sarrera	131
2. Kolonbian emakumeek pairatutako indarkeriak argitzeko aurrekariak	132
3. Genero-ikuspegia Egiaren Batzordearen mandatuan eta funtzionamenduan	137
4. Egiaren Batzordean genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak	141
5. Genero-ikuspegia Egiaren Batzordearen lanean txertatzeko erronkak	146
5.1. Emakumeen parte-hartzearen zentzuak	146
5.2. Egiaren Batzordearen dimentsio instituzionalak eta generoarekiko harremana	150
5.3. Barne gatazka armatuaren azalpen-esparruak	153
5.4. Egiaren Batzordea ezartzeko testuinguru nazionala: generoko ideologiaren, negazionismoaren eta argitzearen artean	156
6. Ondorioak	158
Bibliografia	159

Egileak

Irantzu Mendia Azkue. Garapenari buruzko ikasketetan doktorea da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea. Hegoako kidea da, UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, bai eta euskal unibertsitate-sistemako (IT1037-16) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldekoa (2016-2021) ere. Bere lanaren ardatza gatazka armatuen, bakearen eraikuntzaren, trantsiziozko justiziaren eta memoria historikoaren analisi feminista da. Hona hemen bere argitalpenetako batzuk: *Generoa eta trantsiziozko justizia: emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka* (2017), Gloria Guzmán Orellanarekin eta Iker Zirion Landaluzerekin batera, eta *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina* (2014).

Gloria Guzmán Orellana. Hezkuntza Zientzietako lizentziatua El Salvadorreko Unibertsitatean. Genero-ikerketetan espezializatua dago Universitat de Girona Innovació i Formació Fundazioan, eta Globalizazio, Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Diplomatuia da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hegoako kide da, UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. Aktibista, feminista eta El Salvadorren dagoen memoria-eremu garrantzitsuena sustatu zuen Giza Eskubideen Urraketan Biktimen oroimenezko Monumentuaren aldeko Batzordearen sortzaileetako bat da. Argitaratu dituen bere lanetako batzuk hurrengoak dira: *En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental* (2016) eta *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador* (2013), Irantzu Mendia Azkuerekin batera.

Julie Guillerot. 2000. urteaz geroztik Perun bizi den jurista frantziarra da; bertan, Giza Eskubideen aldeko Elkarteko (APRODEH) ikerlari jardun izan du, bai eta Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordeko erreparazioei buruzko talde teknikoko kide ere. Trantsiziozko Justiziarako Nazioarteko Zentroarekin (ICTJ) lankidetzan dihardu 2002. urteaz geroztik, hainbat arlotan: Peruko tokiko kidea, Erreparazioarako Unitateko aholkularia, Europako Programakoa, Genero Unitatekoa eta Ikerketa Unitatekoa. Aholkulari independente gisa, erreparazio, genero eta trantsiziozko justiziarari buruzko aholkularitza eskaini die aktibistei, gizarte zibilari eta legegileei Boli Kostan, Malin, Kolonbian, Nikaraguan eta Kongoko Errepublika Demokratikoan, hainbat erakunderen

bidez; hala nola, Mugarik Gabeko Abokatuak, Oxfam, OEA-CIDH, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa edo Mukwege Fundazioa. Egia, justizia, erreparazioa eta berriz gertatuko ez delako bermeak sustatzeko Nazio Batuetako Errelatore Bereziaren aholkularia da. Hainbat liburu eta artikuluren egile eta egilekidea da; eta, batik bat, Peruko erreparazio-prozesuei eta generoa eta erreparazioei buruz idatzi du.

iker zirion landaluze. Nazioarteko Ikasketetan doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea da. Hegoako kidea da, UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, bai eta euskal unibertsitate-sistemako (IT1037-16) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldekoa (2016-2021) ere. Interesgune ditu: bakearen eraikuntza eta generoa; borrokalari ohien armagabetzea, desmobilizazioa eta gizarteratzea; justizia feminista eta maskulinitate berriak. Beste argitalpen batzuen artean, *Pax Crítica. Aportes teóricos a las perspectivas de paz posliberal* (2019) liburuaren egilekidea da eta *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo* (2018) liburuaren egilea.

Diana Marcela Gómez Correal. Antropologoa eta Historiako Magisterra. Antropologiako doktorea Ipar Carolinako Unibertsitatean; Chapel Hill, Estatu Batuak. Andeetako Unibertsitateko Garapenari buruzko Ikerketen Diziplinarteko Zentroko (CIDER) irakasle laguntzailea da. Bakeari, trantsiziozko justiziar, eraldaketa sozialari, garapenaren alternatibei, genero-ikerketa eta ikerketa feministei buruzko ikerlanak egiten ditu. Hainbat argitalpenen artean, *Mujeres, género y el Acuerdo de La Habana* (2017, LASAFORUM) artikulua eta *Tejiendo de otro modo: Feminismo, epistemología y apuestas descoloniales en Abya Yala* (2014, Caucaoko Unibertsitatea) liburuaren baterako argitalpena aipa ditzakegu.



Aurkezpena

Aurkezpena

Irantzu Mendia Azkue

Mundu osoan, giza eskubideen urraketa larrien biktimen egia-, justizia- eta erreparazio-eskubideen arloan egindako aurrerapenak urraketa horiek pairatu eta bizirik iraun duten pertsonen pertseberantziaren emaitza izan dira. Izan ere, biktima zuzen hauek edo hauen senideek etengabe eskatu dute gertatutakoa publikoki aitortzea eta ezagutzea, erantzukizun penal eta politikoak exijitzea, eta egindako kaltea erreparatzea.

Giza eskubideen urraketa horiek hainbat pertsonak pairatzen dituzte, batez ere talde edo herri diskriminatu, pobretu edo kriminalizatuetakoko kide diren biztanle zibilek. Hala, urraketa horietako askoren atzean Estatuaren praktika errepresiboak eta gatazka armatuak aurkitzen ditugu. Gainera, giza eskubideen urraketen aurrean erantzuleak ezkutatzeke eta errugabetzeko politikak nagusitu ohi dira, normalean amnistiako legeen bitartez. Baina indarkeria horren larritasunaren, biktimen eskaeren zilegitasunaren eta giza eskubideak babesten dituzten erakundeen laguntzaren eraginez, zigorgabetasunaren aurkako borroka agindu bihurtu da demokratizazio- edo bake-prozesuak abiarazi dituzten herrialdeetan.

XX. mendeko 1990ko hamarkadan, Nazio Batuen Erakundeak inpunitatearen aurkako borrokaren funtsezko printzipioak sistematizatzeko eta estandarizatzeko prozesu bat abian jarri zuen. Gai horren gaineko ardura Vienan 1993an ospatutako Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren Deklarazioan eta Ekintza Plataforman ageri da: “Gobernuek giza eskubideen urraketa larrien (esaterako, tortura) erantzuleen inpunitatea sustatzen duten legeak indargabetu behar dituzte eta bortxaketa horiek zigortu, horrela legearen inperioaren oinarriak sendotuz” (Nazio Batuen Erakundea, 1993).

Harrezkeroztik, Giza Eskubideen Batzordea bezalako erakundeek (egun Giza Eskubideen Kontseilua) paper proaktiboa izan dute inpunitatearen aurkako borrokaren hiru oinarriak pixkanaka finkatzen: egia jakiteko eskubidea, justizia lortzeko eskubidea eta erreparazio eskubidea. Egia jakiteko eskubideari dagokionez, Joinet Txostenak (1997) hura ulertzeko jarraibide garrantzitsu bat ezarri zuen; izan ere, txostenak biktimek eta haien senitartekoek zer eta zergatik gertatu zen jakiteko duten eskubide indibidualtzat ez ezik, eskubide kolektibotzat ere hartu zuen, “jatorria historian duena, etorkizunean

bortxaketak berriro gerta ez daitezzen”. Hori herrien eskubide besterenezin bat da Estatuak behartzen dituen; izan ere, Estatuari dagokie “memoriaren betebeharra”¹.

Hala, egia, justizia eta erreparazioa dira trantsizioko justiziaren kontzeptuaren eta praktikaren oinarrian dauden funtsezko hiru printzipioak. Trantsizioko justizia Nazioarteko Zuzenbidean sendotzen ari da eta honela definitu izan da: “gizarte batek eskala handiko abusuko iraganaren ondorioz sortutako arazoak konpontzeko egiten dituen saiakerekin lotutako prozesu eta mekanismo multzoa, erantzuleek beren ekintzen kontuak emateko, justiziarri zerbitzatzeko eta adiskidetzea lortzeko”. Mekanismo horiek judizialak edo judizios kanpokoak izan daitezke eta nazioarteko partaidetza-maila desberdinak izan ditzakete (edo inolako parte-hartzerik ez izan), baita honako hauek barne hartu ere: pertsonak auzipetzea, kalte-ordaina, egia bilatzea, erreforma instituzionala, aurrekarien ikerketa, kargutik kentzea edo horiek guztiak konbinatzea (Nazio Batuen Erakundea, 2004).

Trantsizioko justizia-prozesuetan ezarritako mekanismoen artean, egiaren batzordeak dira egia jakiteko eskubidea bermatzeko tresna nagusia. Sikkinkek eta Booth Waillingek (2008: 19-20) trantsizioko justiziaren hainbat mekanismoren erabilerari buruz egindako azterlan orokorraren arabera, 1979tik 2004ra bitartean, 34 herrialdek egiaren batzordeak erabili zituzten: “trantsizioan dauden herrialdeetan egiaren batzordeak edo giza eskubideen arloko epaiketak erabiltzea ez da gertaera isolatua edo marjinala, baizik eta herrialde gehienetan gertatzen den gizarte-praktika oso hedatua”. Gainera, batzordeak zenbait eskualdetan kontzentratzen direla ikusi zuten; izan ere, “Afrikan eta Ameriketako beste eskualde batzuetan baino gehiago dira. Hala, bi eskualde horietako bakoitzak batzorde guztien % 37 ditu”.

Priscilla B. Hayner adituaren arabera (2014: 48), egiaren batzordea honela defini daiteke: “iraganean egindako giza eskubideen urraketak ikertzeko eta txosten bat egiteko autoritate ofiziala duen aldi baterako taldea”. Haynerren ustez, EBak ezaugarri zehatz hauek ditu: 1) iraganeko gertakariak aztertzen ditu, ez gaur egungoak; 2) denboraldi batean egindako abusuen patroia aztertzen du; 3) modu zuzen eta zabal batean lan egiten du kaltetutako biztanleekin, haien esperientziei buruzko informazioa bilduz; 4) aldi baterako erakundea da

1 Louis Joineten txostena (NBE E/CN.4/Sub.2/1997/20/Rev.1) 2005ean eguneratu zuen Diane Orentlicherrek. Hark “Inpunitatearen aurka borrokatuz giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio-multzo eguneratua” idatzi zuen (NBE E/CN.4/2005/102/Add.1). Gero, Nazio Batuen Erakundearen hainbat ebazpenek gaien sakontzen jarraitu dute.

eta haren lana txosten publiko batekin amaitzen da; eta 5) ikertutako Estatuak berak ofizialki eskuesten eta ahalduntzen du egiaren batzorea.

Trantsizioko justiziaren arloan, emakumeen mugimendu feministaren lorpenetako bat da nazioartean onartzea inpunitatearen aurkako borrokan hartutako neurriek diskriminazio ezaren printzipioa barne hartu behar dutela, biktima guztien esperientzia behar bezala jasoko dela bermatzeko. Ondorioz, gaur egun, ez da ohikoagoa da batzordeen aginduetan emakumeen giza eskubideen urraketak sartzea, ezta bortxaketa horiek posible egiten dituzten testuinguru sozial eta politikoak ez aztertzea ere.

Dena den, ezin dugu ahaztu honaino iristeko bidea luzea eta oso zaila izan dela. Emakumeen aurkako indarkeria egiturazkoa da -ez salbuespena-. Hala, indarkeria hori normalizatzearen eta Nazioarteko Zuzenbidearen “genero-neutraltasunaren” presuntzioaren ondorioz, azterketa-kategoria hura ez da urte askoz kontuan hartu egia ezagutzeko ikerketen parametroetan, ezta biktimentzako justizia- eta erreparazio-neurriak ezartzean ere. Honako faktore hauek, bada, emakumeek egia jakiteko duten eskubidea mugatzen dute historikoki: sexu- eta genero-indarkeria sistematikoki erregistratzeko mekanismorik ez izatea; indarkeria horiek sozialki eta juridikoki aintzat ez hartzea; genero-dinamikek ezartzen dituzten kultura-, gizarte-, ekonomia- eta segurtasun-baldintzatzaileak, emakumeen lekukotza oztopatzen dituztenak; edo emakumeek Estatuko justizia-erakundeengan dituzten itxaropen urria.

Egiaren lehenbiziko batzordeek ez zuten generoa azterketa-aldagai garrantzitsutzat hartu beren mandatuetan. Geroagoko esperientzietan ikuspegi hori txertatu bada ere, hori ez da oraindik sakontasun nahikoaz egin. Vasuki Nesiya adituaren ustez (2006: 2), emakumeen mugimenduak identifikatu du arazo hori: “Egiaren batzorde gutxik landu dute sakontasunez generoaren gaia, bereziki giza eskubideen urraketek emakumeengan eta gutxiengo sexualetan izan duten eragina. Hortaz, sarritan, emakume-taldeek egiaren batzordeak kritikatu dituzte, hauek ez dituztelako generoan espezifikoki oinarritutako indarkeria politikoaren ondorio nabarmenak ikusi. Historikoki, egiaren batzordeen prozesuek emakume askori huts egin diete”.

Mugak eta desengainuak gorabehera, ezin da ukatu egiaren batzordeek genero-justizia exijitzeko tresna gisa duten potentziala, izan ere, “aukera paregabea eskaintzen dute kontuan hartu ez diren urraketak argitzeko, generoan oinarritutako urraketak erraztu dituzten baldintzak ikertzeko, biktimentzako gune bat eskaintzeko, bidegabekeriak konpontzeko erreparazioak iradokitzeko

eta emakumeen historiari eta erreformak bilatzeari irekita dagoen epe luzeko ondarea uzteko” (*ibid.*).

Hain zuzen ere, ahalmen horren aintzatespena izan da argitalpen hau egitera eraman gaituena. Bertan, beren ikerketen eta gomendioen maila desberdinetangenero-aldagaia txertatu duten egiaren batzordeak aztertuko ditugu. Horren bitartez emakumeen mugimendu feministak egindako ekarpenei baliabide berri bat gehitu nahi diegu, egia, justizia eta erreparazioa lortzeko formula barneratzaileak moldatzeko.

Liburu honek Latinoamerikako eta Afrikako herrialde hauetako egiaren batzordeei buruzko kapituluak ditu, horien eraketaren dataren arabera ordena kronologikoan azalduta: Hegoafrika (1995), Guatemala (1997), Peru (2001), Sierra Leona (2002) eta Kolonbia (2017). Jakina, ez dira gai honen inguruan azter daitezkeen esperientzia bakarrak, baina hautatutako kasuak egiaren batzordeetan genero-ikuspegia txertatzeko egindako aurrerapena erakusten dute.

Nahiz eta haien mandatuek hori aurreikusten ez zuten, Hegoafrikako, Guatemalako eta Peruko batzordeek ordurarte aurreko esperientzietan izan ez zuen arreta eskaini zioten genero-ikuspegiari. Sierra Leonan, batzordearen mandatuak argi eta garbi aipatzen zuen beharrezkoa zela gatazka armatuan gertatutako sexu-indarkeria ikertzea. Kolonbiako batzordea ikerketa-fasean dago oraindik eta horretan, genero-ikuspegia zeharka aplikatzen da eta emakumeen eta LGBTI pertsonen giza eskubideen urraketetan jartzen da arreta.

Perspektiban baloratuta, liburu honetan jasotzen diren esperientziak pilatutako ikaskuntzen dinamika islatzen dute. Izan ere, batzorde bakoitzak hurrengo esperientzietarako jarduera-ildoak proposatu zituen; baina ez da alde batera utzi batzordeen helburuak, egitura eta eginkizunak testuinguruaren berezitasunak kontuan hartuta diseinatu behar direla. Hori dela eta, uste dugu kasu bakoitzaren arrakasten, okerren, lorpenen eta zailtasunen gainean eskuratutako ezagutzak eta kontzientzia hartzeak irakaskuntzarako balio dezaketeela horrelako tresnetara jotzea erabakitzen duten herrialdeentzat eta, batez ere, diskriminaziorik ezaren printzipioa eta biktima guztien babesa bete nahi duten horientzat, generoagatiko hierarkiarik eta bazterketarik gabe.

Bibliografia

- Hayner, Priscila B. (2014): *Verdades silenciadas. La Justicia transicional y el reto de las Comisiones de la Verdad*, Institut Catalá Internacional per la Pau eta Bellaterra, Bartzelona.
- Nazio Batuen Erakundea (2004): *El Estado de derecho y la justicia de transición en las sociedades que sufren o han sufrido conflictos*, Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Batzordearen Idazkari Nagusiaren txostena, abuztuak 3, Doc. S/2004/616, <https://undocs.org/es/S/2004/616>.
- (1993): *Declaración y Plataforma de Acción de la Conferencia Mundial de Derechos Humanos*, Viena, ekainaren 14tik 25era, Doc. A/CONF.157/23, <https://undocs.org/es/A/Conf.157/23>.
- Nesiah, Vasuki (2006): *Comisiones de la Verdad y género: principios, políticas y procedimientos*, Centro Internacional para la Justicia Transicional (ICTJ), Serie Justicia de Género, New York, https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-COL-Genero_Comisiones_de_la_verdad-20130228.pdf.
- Sikkink, Kathryn eta Carrie Booth Walling (2008): “La cascada de justicia y el impacto de los juicios de derechos humanos en América Latina”, Cuadernos del CLAEH, 96-97. zkia., 15-40. https://scholar.harvard.edu/files/ksikkink/files/la_cascada_de_justicia.pdf.



I. Kapitula
Generoaren txertaketa Hegoafrikako
Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean

I. Kapitulu

Generoaren txertaketa Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean

Irantzu Mendia Azkue

1. Sarrera

Apartheidaren erregimenak sustatutako indarkeriari aurre egiteko eta demokraziarako trantsizioa ahalbidetzeko Hegoafrikan erabilitako formula hurbilketa paregabe eta berritzailetzat hartu izan zen, trantsizio-prozesuetan murgilduta zeuden beste herrialde batzuetako esperientzien aldean. Horren arrazoi nagusietako bat bertako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen (aurrerantzean EAB¹) izaera bera izan zen; izan ere, sarritan adierazi izan da hura “egiaren batzorde baten eredurik aipatuena” eta “arrakastatsuenetako bat” izan dela (Michel eta Del Mar, 2014: 851 eta 852). Batzorde horrek estaldura handia izan zuen estatuko eta nazioarteko hedabideetan, eta sortu zenetik izan zuen akademiaren arreta.

1995. urtean eratu zuten, apartheid sistemak iraun zuen bitartean (hau da, 1960tik 1994ra bitartean) egindako giza eskubideen urraketa larrien izaera, arrazoiak eta hedapena ikertzeko. Hegoafrikako EAB izan zen baldintzapeko amnistiak emateko eskumena izan zuen lehena, adiskidetzan bereziki eragin zuena eta biktimen lekukotzak zuzenean entzuteko entzunaldi publikoak sustatu zituen. Berezitasun horiek argitzen dute Hegoafrikako kasua hirugarren bidearen eredu gisa aurkeztu izana; beste bi bideak honako hauek baitziren: alde batetik, Latinoamerikako esperientzia, “justiziarik gabeko egia”ren adierazgarria izan zena; izan ere, eskualde horretan amnistia-legeen orokortzeak indartu egin zuen egiaren batzordeek egindako krimenengatik erantzukizun penalak eskatzeko ezintasuna konpentsatzeko balio zutelako ideia; eta, bestetik, Ruandakoa bezalako esperientziak, “adiskidetzetik gabeko justizia” lehenetsi zutenak; hau da, krimenen erantzuleak epaitzeko prozesuetan zentratu ziren aldi berean gizartearen adiskidetzea ahalbidetzeko neurri garrantzitsurik aplikatu gabe².

1 TRC, ingeleseko siglekin.

2 Ruandako esperientziaren irakurgai horri buruzko informazioa zabaltzeko, honako hau ikus daiteke: Sarkin (2001) eta Amnistía Internacional (2002).

Baina, hala ere, Hegoafrikako kasua eztabaidagaia ere izan da; batez ere EABren Amnistiaren Batzordearen eskumenei eta betebeharrei dagokienez. Geroago beste herrialde batzuetan eratu diren egiaren batzordeetan ez dira amnistiarako programak txertatu eta, gaur egun, zenbait azterketaren arabera, Hegoafrikako eredia gorai patua eta, sarritan, beste leku batzuetarako eredugarria izan zen arren, “dagoeneko ez da trantsizioaren osteko urteetan, Mandelaren sasoian, bereziki, izan zen eredu aipagarri hura” (Sarkin, 2017: 11).

Hegoafrikako batzordeari buruz egin diren azterketa gehienetan, ordea, ez da haren berezitasuna balioesten, ezta haren izaera berritzailea edo genero-ikuspegia txertatzeagatik izandako “arrakasta” ere. Aldagai hori kontuan hartu izan balitz, Hegoafrikako Batzordearen eredugarritasunari beste ñabardura batzuk gehitu beharko litzaizkioke, eta, hasteko, zalantzan jarri beharko litzateke haren mandatuak ez zuela genero-analisiarekin lotutako inolako alderdirik jaso.

Hegoafrikako EABk generoa lantzeko modua hainbat feministek aztertu dute, hain zuzen ere, egiaren ikerketa eta bilaketa-prozesuek genero-justiziaren irizpideak ere kontuan hartzearekin konprometiturik dauden horiek (Goldblatt eta Meintjes, 1998). Izan ere, herrialde hartako aktibista eta talde feministen presioei esker, Batzordeak, bere mandatuan hutsuneak izan arren, bere jardueretako zenbaitetan genero-ikuspegia kontuan hartu zuen eta, izan ere, lehena izan zen hori egiten.

Kapitulu honen xedea da Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea generoarekin loturiko ekintzen eta emaitzen arabera aztertzea, kasuari buruzko dokumentuen azterketatik abiatuta. Testuaren abiapuntua EABren sorreraren testuinguruari buruzko azalpen labur bat da; ondoren, Batzordearen ezaugarri edo berezitasun garrantzitsuenak azalduko dira eta, azkenik, aztertuko da genero-ikuspegia zergatik eta nola txertatu zen haren zereginetan.

2. Testuingurua

Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen mandatuak zen 1960tik 1994ra bitarteko aldia ikertzea; hau da, apartheid erregimenaren kontrako erresistentzia armatua hasi zenetik Nelson Mandelak herrialdeko lehenengo presidente hautatu bihurtu zen artekoa.

Hala ere, testuingurua egoki zehazteko, aipatu beharra dago apartheidia 1948an hasi zela, Alderdi Nazionalak boterea hartu zuenean, hain zuzen. Alderdi Nazionala buruzagi afrikanerrez³ osaturik zegoen, eta beste mutur batera eraman zituen aurretiko gobernu kolonial, herbeheretar eta britainiarren politika arrazista eta supremazistak (Goldblatt, 2006; Healy-Clancy, 2017). Apartheidaren ezaugarrietako bat da arraza-diskriminazio, mendekotasun eta segregazio sistema bati lege-marko berria eman ziola; sistema horren azken helburua herrialdeko gutxiengo zuriaren nagusitasun historikoa bermatzea eta betikotzea zelarik.

Bertako biztanleak lau taldetan –afrikarrak, koloredunak (mestizoak), asiarrak eta europarrak– banatzen zituen sailkapenean oinarrituta eman zituen legeak Alderdi Nazionalak, honako helburu hauekin: eremu segregatuak edo bereziak sortzea (auzo osoak, ikastegiak, ospitaleak, autobusak, hondartzak, parkeak eta, oro har, zerbitzu mota guztiak), biztanle ez-zurien mugitzeko askatasuna mugatzea eta arraza desberdinen arteko sexu-harremanak eta ezkontzak debekatzea. Apartheidaren barruan emandako legeek hegoafrikar herritartasuna –eta, ondorioz, boto-eskubidea ere bai– ukatu zien beltz guztiei, nahiz eta une hartan biztanle guztien % 80 ziren, eta inolako azpiegiturarik edo bizitzeko baliabiderik gabe, landa-eremuetara mugitzera behartu zituen ia denak. Hala, Estatuak *homeland*⁴ deitutako eremuetan gaizki-bizitzera behartu zituen gehiengo beltzak (pobrezia-, gabezia- eta pilaketa-egoeran) eta, aldi berean, legeak ematen zituen, haien baztertze ekonomikoa eta laneko esplotazioa instituzionalizatzeke.

Apartheidaren erregimenak oposizioko alderdi politikoak debekatu zituen eta Hegoafrikako askapen-mugimendua osatzen zuten taldeen –Afrikako Kongresu Nazionala (ANC) eta Kongresu Panafrikarra, kasu– erresistentzia-ekintzak bortizki erreprimitu zituen: “Apartheidia, aurretiko beste menperatze-eta kontrol-modu batzuk bezala, indarkeriaren bidez eratu eta sendotu zen” (Goldblatt eta Meintjes, 1998: 30).

3 Hitz horrekin izendatzen dira Hegoafrikako kolono herbeheretarren ondorengo diren biztanle zuriak.

4 1960ko hamarkadaz geroztik, eta populazio afrikarrak ustez jatorria zuen erreserba natiboetan bizi behar zuelako argudiopean, milioika pertsona afrikarren nahitaezko desplazamenduari ekin zion apartheidaren gobernuak, *township*etatik (biztanle ez-zuriak bizi ziren hiri-eremu barreiatuak) *homeland* izeneko landa-eremuetara. Eremu horietatik kanpo, hau da, Hegoafrikaren gainerakoan, pertsona horiek atzeritarrak ziren, eta gobernu populazio afrikarrari migrazio-baimenak eskatzeraino iritsi zen, zurien hirietara sartu eta bertan egoteko. “Tribalizazio (eta landatartze) politika” izenaz ezagutzen den prozesua da (Cabanillas, 2013: 100-101).

Apartheidak biztanle beltzen gainean izan nahi zuen erabateko kontrolaren oinarria arraza-ideario supremazista bat zen, baita patriarkala ere. “Genero-proiektu” bat izan zen; izan ere, honako hau lortu behar zuen: gizon beltzek hirietan, industria-eremuetan eta meatzetan zurien interes ekonomiken zerbitzura esanbidez lan egitea eta emakumeak lan-esku merke horren erreprodukzio sozialaren bermatzaile izatea (Healy-Clancy, 2017). Apartheidaren barruan, familia-egitura patriarkalaren eredia gogorrago ezarri zen, eta *homeland*etako emakume beltzak erreprodukzio-lana betetzera behartzen zituzten; hirietan, berriz, emakume horietako gehienek familia zurienean etxeetan zerbitzatzeko soilik egin zezaketen lan.

Apartheidak hasi zenetik, emakume askok erresistentzia-taldeetan, talde politiko, sindikal eta armatuetan parte hartu zuten eta, ondorioz, gogor erreprimitu zituzten eta jazarpenak, hilketak, nahierako atxiloketak, tortura, kartzela eta erbesteak pairatu zituzten, gizonak bezala (Goldblatt, 2006). Aldi berean, emakumeen mugimendua apartheidaren kontrako indar gisa nabarmendu zen, baina erresistentzian izan zuten eginkizuna gizonena baino askoz gutxiago dokumentatu da: “1994an apartheidak amaitu zenetik, erregimenaren kolapsoaren kontra emakumeek egindako ekarpenek gizonen egindakoek baino arreta gutxiago jaso dute herritarrengandik eta akademiatik bertatik” (Healy-Clancy, 2017: 2).

Indarkeria bereziki gogorra izan zen 1980ko hamarkadan; aldi horretan, Hegoafrikako askapen-mugimenduak antolakuntza maila eta jarduteko gaitasuna indartu zituen eta, aldi berean, Estatuak gogortu egin zuen errepresioa, *township*ak militarizatuz eta jarduera parapoliziala areagotuz (Cabanillas, 2013: 102).

1990ko hamarkadaren hasieran, Alderdi Nazionalako gobernuak apartheid-politikan aldaketak egiten hasteko arrazoen artean, honako hauek daude: gatazkaren gogortzea eta barne-erresistentziaren handitzea; isolamendu diplomatikoa, nazioarteko presioa eta zehapenak, eta herrialdea bizitzen ari zen krisialdi ekonomikoa (Rigby, 2001). 1990ean, artean presidente zen F.W. de Klerkek lege diskriminatzaileen indargabetzea, alderdi politikoaren eta oposizioko erakundearen aurkako debekuak altxatzea eta 27 urte preso zeramatzan ANCren buruzagi Nelson Mandelaren askapena iragarri zituen. Orduetik aurrera hasi ziren Alderdi Nazionalaren eta ANCK ordezkatzen zuen askapen-mugimenduaren arteko negoziazioak, eta 1993ko abenduan amaitu ziren, behin-behineko konstituzioa onartuta eta 1994an lehenengo hauteskunde demokratikoak deituta. Hauteskunde horietan, Nelson Mandela hautatu zuten presidente.

3. Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen berezitasunak

Batzordea Nazio Batasuna eta Adiskidetzeara Sustatzeko 1995eko uztailaren 19ko 34. Legearen arabera sortu zen eta horrek eman zion bere mandatuaren, egituraren eta ezaugarrien lege-egitura. Erakunde horrek apartheidak iraun zuen bitartean egin ziren giza eskubideen urraketak ikertu zituen, 1995etik 1998ra bitartean. Txosten osoak zazpi liburuki ditu; lehenengo bostak 1998an aurkeztu zituzten, eta azkeneko biak 2003an⁵. Oro har, 21.000 lekukotza jaso zituen Batzordeak, eta horien bidez, giza eskubideen 38.000 urraketa larri jakinarazi ziren. Lekukotzak herrialde osoan zehar jaso ziren, Batzordeari buruzko informazio-kanpaina zabal baten ondoren, eta herrialdean ofizialak diren hamaika hizkuntzak hartu zituzten kontuan.

Batzordeak 700 langile inguru izan zituen eta hiru organo nagusitan egituratu zen: Giza Eskubideen Urraketen Batzordea (GEUB); Amnistiaren Batzordea eta Erreparazio eta Errehabilitazio Batzordea. Gainera, beste organo lagungarri batzuk ere izan zituen, hala nola; hiru Batzordeak laguntzeko ikerketa-unitate bat; komunikazio-sail bat, lege-sail bat eta lekukoak babesteko sail bat. Organo horiek guztiak eskualdeka banatu zituzten; bulego nagusia Johannesburgen, eta eskualdeko lau bulego Lurmutur Hirian, Durbanen, East Londonen eta Johannesburgen.

3.1. Baldintzapeko amnistia

1990ko hamarkadako lehenengo urteetan, Alderdi Nazionalaren eta ANCren arteko negoziazioetan eztabaidagai izan zen apartheid garaiko indarkeria nola tratatu behar zen. Hala, F.W. de Klerken gobernuak *de facto* amnistia txertatu nahi zuen 1993ko behin-behineko Konstituzioa onartu aurreko dekretuetan, baina ANC eta beste gizarte-erakunde batzuk horren aurka agertu ziren⁶. Egindako krimenengatiko amnistiaren gaia Hegoafrikako trantsizioko punturik gatazkatuena da, eta prozesu politikoa etenarazteko

5 Txosten osoa hemen kontsulta daiteke: <https://www.justice.gov.za/trc/report>.

6 ANCK bultzatu zuen Hegoafrikako lehenengo egiaren batzordearen sorrera 1992an, Skweyiya Batzordea izenekoa, eta bigarrena 1993an, Motsuenaye Batzordea izenekoa, ANCK berak, atzerrian zegoen askapen-mugimenduak antolatutako gerrillariaren entrenamendurako kanpalekuetan gauzatutako giza eskubideen urraketak ikertzeko, batez ere Angolan eta Mozambiken.

zorian egon zen (Michel eta Del Mar, 2014; Hayner, 2014; Nerín, 2018). Hala ere, azkenean, gobernuak eta ANCK amnistiari zirrikitu bat zabaltzea erabaki zuten behin-behineko Konstituzioan honako hau jasotzen zuen xedapen gehigarria txertatuta: “Amnistia bat emango da helburu politikoekin lotutako eta iraganeko gatazketan egindako egintza, ez-egite eta delituetarako”.

Hegoafrikako prozesuan erabakigarria izan zen Konstituzioko xedapen horren inguruan, Haynerrek (2014: 73-74) dio: “geroago baino ez zen lotu amnistia hau egia bilatzeko prozesu batekin”. Huysek (2001: 358), berriz, modu esplizituagoan azaltzen du: “1994rako argi geratu zen agindutako amnistiaren operazionalizazioa Egiaren eta Adiskidetzearen Batzorde baten bidez etorriko zela”⁷.

Hortaz, Hegoafrikako kasuaren berezitasun nagusietako bat, eta nazioarteko arretra erakarri zuena halako aurrekaririk ez zegoelako, izan zen Amnistiaren Batzordearen bidez EABk beretzat hartu zuela apartheid garaian egindako krimenen egileei *baldintzapeko banakako amnistia* emateko eskumena. Amnistiaren Batzordeko zuzendari izan zen Martin Coetzee halaxe dio: “Hegoafrikako Batzorde horren eta beste batzuen arteko aldea da banakako egileei amnistia eman zien lehena izan zela. Beste ezein Estatutan ezin izan dute botere hori egia bilatzen duen erakunde baten ikerketa-gaitasunekin bateratu” (Coetzee, 1999: 207).

Gertatutako guztia azaltzearen truke errudunei amnistia eman ziezaiekeen Batzorde horrek; jendaurreko entzunaldian egin behar zuten giza eskubideen urratze larriak ziren kasuetan, eta horretarako ezarrita zeuden irizpideak bete behar zituen: egitateak 1960ko martxoaren 1 eta 1993ko abenduaren 5aren artean gertatu izana (aldi hori luzatu egin zuten geroago 1994ko maiatzaren 10era arte); eskatzaileak gertaeren kontaketa osoa eskaintzea eta gertaera

7 Amnistiaren inguruko eztabaida horien inguruan, Huysek (2001) eta beste analista batzuek azaltzen dute, ANCKren barruan, modu bateko edo besteko amnistiaren aldekoa zela gehiengo. Beste analisi batzuek, ordea, azaltzen dute amnistia eman izan ez balitz ez litzatekeela posible izango trantsiziorako akordio negoziatua; hau da, “ordaindu beharreko prezioa zela” (Rigby, 2001: 124), testuinguru hartan, apartheidaren krimenetako askoren arduradunak artean botere-posizio garrantzitsuetan eta Estatuaren segurtasun indarretan zeudelako. EAB honela deskribatu izan dute: “moralki ideala eta politikoki posible denaren arteko konpromisoa” (Graybill, 2006: 62), negoziazio-prozesu ahul hartan porrota eragiteak indarkeria politikoaren jarraipena ekarriko lukeela jakitun.

horien arrazoia politikoa izatea⁸. Ustea zen “egiaren truke amnistia eskaintze hori auzipetuak izateko arrazoiak zituztenek soilik onartuko zituztela” (Hayner, 2014: 76) eta amnistiaren iguripenak ahalbidetu egiten zuela krimenen egileek egia argitzea.

Zalantzarik gabe, Amnistiaren Batzordea EABko organoen arteko gatazkatsuena izan zen. EABko kide batek, Yasmin Sookak (2015) gogoratzen du apartheidaren ostean jende askok espero zituela Bigarren Mundu Gerraren ostean Nurenbergen egin zirenen antzeko epaiketak eta, aitzitik, EABren bidez adostu eta gauzatu zen amnistiaren bideak iguripen horiei traizioa egin zuela. Era berean, giza eskubideen urratze larrien erantzule nagusiek oztopo asko jarri zizkieten Batzordeari eta zalantzan jarri zuten; Alderdi Nazionaleko gobernuak lortu zuen haren erabakiak herrialdeko Auzitegi Gorenak atzera botatzea.

Presio askoren artean, eta ikerketa-botere ia-judizialak izan zituen arren, Amnistiaren Batzordeak oso gutxitan erabili zituen bere eskumen guztiak; hala nola, miaketak egiteko eta frogak atzitzeko eskumena edo lekukoak deitzeko eskumena (Hayner, 2014: 75). Gainera, herrialdeko epaiketarik garrantzitsuenetako batean⁹ Magnus Malan Defentsa ministro ohia eta beste 19 pertsona absolbitu ondoren, goi mailako egile askok –batez ere apartheideko buruzagi politikoak eta armadako goi karguak– ez zuten beharrezkotzat jo Batzorde horri amnistia eskatzea eta, beraz, ez eta haien krimenei buruzko egia argitzea ere. Bestela esanda, giza eskubideen urraketa larrien egile askorentzat auzipetuak izateko arriskuaren pertzepzioa oso txikia zen, eta ez zuten Batzordeari¹⁰ amnistia eskatzeko premia sentitu, eta, ondorioz, ez zuten lekukotzarik eman, ez zuten haien ardura bere gain hartu eta ez zuten askatasuna galdu.

8 Batzordeak kontuan hartu eta moldatu egin zituen “Norgaard Printzipioak”, ekintza bat motibazio politikoko delitutzat hartzeko irizpideak ezartzeko. Namibian, 1989an, independentziarako akordioen esparruan, Carl Norgaardek, Giza Eskubideen Europako Batzordearen presidente ohiak, proposatu zituen jarraibideak dira aipatutako printzipio horiek.

9 Epaiketa 1996ko martxoan egin zen, eta auzipetuei leporatzen zitzairen 1987an ANCKo 13 kideren hilketa eta heriotzaren eskuadroiak sortzen lagundu izana.

10 Batzordeak 7.115 amnistia-eskaera jaso zituen; horietatik, 4.500 baztertu zituen, motibazio politikoa egiaztatu ez zutelako. Eskaera gehienak poliziako kideek egin zituzten, armadako kideen aldetik, aldiz, askoz gutxiago. Batzordeak 1.167 laguni eman zien amnistia, eta beste 145 laguni, amnistia partziala.

3.2. Adiskidetzea azpimarratzea

Hegoafrikan adiskidetzeari eman zitzaion garrantzi handia EAB sortzeko bidea eman zuen 34. Legean islatzen da argi. Bertan azaltzen da Batzordearen helburuak izango zirela “nazio batasuna eta adiskidetzea sustatzea, iraganeko gatazkak eta zatiketak gaindituko dituen elkar-ulertzeko giroan” (34. Legea, 1995: 2. kap., 3. art.).

Yasmin Sooka (2015) komisioko kideak adierazi zuen Batzordearen beraren sorrerari buruzko hasierako eztabaidetan, hari “Egiaren eta Justiziaren Batzordea” izena eman nahi ziotela, baina azkenean, Justizia hitzaren ordeztu, Adiskidetzea erabili zutela. Cabanillasen (2013: 103) iritziz, “adiskidetzearen azpimarratzea eta apartheidaren onuradun eta kaltetu arrazializatuen ahanztura ere prozesuaren parte izan zen, eta EABen esparruetan eraiki zen”. Eragin sinboliko gehigarri gisa, Batzordeko kideak 1995ko azaroaren 15ean elkartu ziren lehenengoz, eta ez zen ustekabea izan; izan ere, “Adiskidetzearen Egunaren” ostean izan zen, herrialdean jai egun ofizial izendatua (Huyse, 2001: 359). Hala ere, zenbait hilabete geroago arte ez zen hasi Batzordea lanean.

Batzordearen printzipioetan, prozeduretan eta aitzindaritzan ere erabateko eragina izan zuen adiskidetzearen nozioak izaera erlijioso sakona zuen. Desmond Tutu artzapezpikua¹¹ EABren presidente izan zen, eta honela azaldu zuen Batzordearen izaera: “Ikuspegi politiko argia eta lege-inplikazio sakonak ditu. Aldi berean, sakonean oso ekimen teologiko eta etikoa da. Fededunentzat, zintzotasunaren esperientzia eta errukia, aitormena eta barkamena, justizia eta bakea, damua eta adiskidetzea egiaren eta adiskidetzearen esanahiaren erdigunean daude” (Botman eta Petersenen aipatua, 1996: 7). Buruzagi erlijiosoen eta elizen parte-hartzea handitzen joan zen EABen prozesuan, eta, hortaz, “egikera eta sinbolismo erlijiosoak ardura politikoak eta giza eskubideen gainekoak ordeztu zituzten” (Du Toit, Minowen aipatua, 1998: 55).

Adiskidetzearen adiera erlijiosoaren zentraltasunarekin batera, EABen orientazioa bideratu zuen beste elementu garrantzitsu bat Ubunturen filosofia afrikarra izan zen; hau da, Afrikako justizia tradizionalaren nozioaren funtsa, pertsonen arteko loturan oinarritzen dena. Biktimagileak gizarteratzean jartzen du indarra, ez horrenbeste zigorrean; eta pertsonen arteko harreman

11 Herrialde honetako biztanleen gehiengoak kristautzat dauka bere burua.

normalizatuak berreskuratzea sustatzen du. Justiziarako hurbilpen horren atzean dagoen logika da biktimek ez ezik biktimagileek ere errehabilitazioa behar dutela, eta erkidegoan berriro txertatzeko aukera ematen die (Mendia Azkue, 2012). Justizia leheneratzailearen nozioarekin lotzen den ikuspegia da, ordainsari-justiziaren zenbait muga gainditzeko xedea duena. Hori dela eta, Hegoafrikako prozesuari buruz hedatuta dagoen irakurketa bat da herrialde horretan izan ziren trantsizioko justiziarari buruzko eztabaidak bide bat aurkitzen saiatu zirela giza eskubideen urraketan erantzuleentzako zigorraren, justizia leheneratzailearen eta adiskidetzearen artean (Meintjes, 2012).

Hala ere, biktimek eta giza eskubideen aldeko erakundeek adierazi zuten justiziarik gabe ezinezkoa zela adiskidetzea, eta kritikatu egin zuten apartheid garaian egindako giza eskubideen urraketengatik lege-erantzukizunak eskatzeari uko egin izana¹². Horren ildo berean, azterketa batzuetan kritikatu egin zuten justiziaren eta adiskidetzearen arteko harremanean sortutako tentsioa, bai eta herrialdeko gutxiengo zuriak gehiengo beltza “haserrean, gorrotoan eta erasoetan ez jauzteka espero zutela, zenbateraino esplotatzen edo traumatizatzen zituzten kontuan hartu gabe (Botman eta Petersen, 1996: 67-68).

3.3. Entzunaldi publikoak

Hegoafrikako batzordearen beste berezitasun bat Giza Eskubideen Urraketa Larrien Batzordeak antolatutako entzunaldi publikoak izan ziren; bera izanik herrialde osoan lekukotzak jasotzeko ardura zuena. Batzordearen mandatuan jasota zegoen biktimek Batzordearen aurrean eta modu publikoan adierazpenak egiteko aukera izatea, haien lekukotza eskaintzeko eta jasotako kaltearengatik nolabaiteko erreparazioa lortzeko proposamenak jasotzeko. Entzunaldiak bi urtez (1996-1997) luzatu ziren eta hedapen zabala izan zuten irratian, telebistan eta prentsa idatzian, haien edukia herrialde osora eta mundu osora irits zedin.

Jendearen parte-hartzerik gabe jardun izan zuten nazioarteko egiaren batzordeen lehenengo esperientziek ez bezala, Hegoafrikako prozesuak ildo berri bat ezarri zuen entzunaldi publikoekin; hartara, geroago eratu ziren batzordeek –Peru edo Sierra Leonakoak, kasu, biak 2002koak- euren

12 Besteak beste, Steve Bikoren familia, Kontzientzia Beltza Mugimenduko kide izanik, 1977an atxilotuta zegoela hil zena poliziaren torturen ondorioz. Apartheidaren biktimek ez-konstituzionaltasun errekurtsua aurkeztu zuten Konstituzio Gortean amnistia eragozteko, baina errekurtsua ezetsi egin zuten.

zereginen artean txertatu zituzten. Aldi berean, gero eta ohikoagoa izan da egiaren batzordeek hedapen-jarduerak sustatzea komunikabide, webgune edo bestelako bideen bitartez, EABk egin zuen bezalaxe: “Entzunaldi publikoek erakutsi dute hedapen-jarduera garrantzitsua direla, biktimei aurrez aurre hitz egiteko aukera eta errebindikazio pertsonal moduko bat eskaintzen zaizkielako eta, aldi berean, entzuleak hezi egiten direlako” (González eta Varney, 2013: 28).

Entzunaldi publikoetan 2.000 biktimak hartu zuten parte; hau da, batzordeari lekukotza eskaini zioten pertsona guztien % 10 baino zertxobait gutxiago. Pertsona ez-zuri oro, nola edo hala, apartheidaren biktima izan zen arren, 34. Legeak jasotzen duen definizioaren arabera, apartheidaren kontrako askapen-mugimenduren batean antolatu eta horregatik erreprimitu zituztenak jo zituen, batik bat, EABk biktimatzat (Cabanillas, 2013: 103). Entzunaldietan jaso ziren lekukotzek apartheidak biztanle gehienei eragindako sufrimendu izugarriaren parte txiki bat baino ez zuten islatzen; baina, hala ere, entzunaldi publiko horiek eragin sinboliko handikotzat jo dira, afrikar ugariri ahalbidetu dietelako euren lekukotzak ezagutzera emateko espazioa, estatuaren erakunde baten babespean. Hori “izan zen, berez, apartheidarekiko aldaketa, Estatuaren eta talde arrazializatuen arteko harremana, alegia”, eta “aurrez ezarrita zeuden arraza-hierarkiei eragin zien” (*ibid.*: 105).

EABk egin zituen entzunaldi bereziak, sektorialak eta gaikakoak ere. Entzunaldi sektorialetan aztertu ziren alderdi politikoek, enpresek eta sindikatuek, epai-sistemak, kartzelek, indar armatuek, medikuen kolektiboek, erkidego erlijiosoek, komunikabideek, GKEek, eta abarrek apartheid garaian izan zuten papera. Eta gaikako entzunaldietan, esaterako, honako gai hauek izan ziren: aurkarien kontra arma kimiko eta biologikoak erabiltzea, nahitaezko soldadutza, alderdien politikak eta indarkeriak nola eragin zien gazteei eta emakumei (Hayner, 2014: 75), aurrerago ikusiko dugun bezala.

4. Genero-ikuspegia Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean

EABren mandatuaren barruan ez zegoen genero-azterketarekin loturiko alderdi bakar bat ere. Herrialdeko aktibista eta talde feministen kritikak jaso zituzten horregatik; erakundearen abiapuntua androzentrikoa eta generoarekiko itsua zela adierazi zuten haiek, eta Batzordearen mugapen hori zuzentzeko gomendio zehatzak egin zizkieten. Nesiahren (2006) iritziz,

horrek argi erakusten du nola gizarte zibilak zeregin kritikoa izan dezakeen, egiaren batzordeak kontuan hartzen ez dituen arazoak agerian jartzeko. “Hegoafrikan funtsezkoa izan zen emakumeen eskubideen aldeko emakume akademikoen eta erakundeetako aktibisten eragina; gogoeta eragin zutelako eta EABri idatzizko dokumentazioa helarazi ziotelako genero-ikuspegia kontuan har zezan”¹³. Hala eta guztiz ere, Beth Goldblattek (2006: 56) adierazi du emakumeen erakundeek ez zutela zeregin nagusirik izan Batzordearen prozesuan; bai une hartan garrantzitsuagotzat jo zutelako gobernu-egituren eta genero-politiken garapenean zentratzea, bai trantsizio garaian gizarte zibilaren desmobilizazio orokorra gertatu zelako.

Batzordekideetako¹⁴ batzuek hartutako konpromisoa zela eta, EABk behar besteko ulermena izan zuen jasotako kritikei arreta eskaintzeko eta, horrela, generoari loturiko egin beharreko kontsultak egiten zituen (Emakumeen Nazio Koalizioarekin¹⁵, aniztasun sexualaren inguruko taldeekin eta alderdi politikoetako emakumeekin) eta helarazi zizkioten gomendioetako batzuk onartu zituen (EAB, 1996). Horri esker, jatorrian zuen mandatuaren gainetik, apartheid garaian emakumeek izan zituzten esperientziei arreta eskaini ahal izan zien Batzordeak; horrela, jendaurreko entzunaldi bereziak egin zituen eta horiek, bada, generoan oinarrituriko giza eskubideen urraketek buruz hitz egiteko espazio ikusgarriena bilakatu ziren (Kusafuka, 2009). Halaber, EABk entzunaldi horietako lekukotzetan oinarrituriko kapitulu bat ere idatzi zuen (EAB, 4. libk., 10. kap.).

13 Aipatzekoak dira Witwatersrandeko Unibertsitateko Lege Ikasketa Aplikatuaren Zentroak antolatutako bi mintegi; EAB eta emakumeen erakundeak elkartu zituztenak, eta Beth Goldblatt eta Sheila Meintjesen lana ere bai, genero-ikuspegia kontuan hartzeko gakoak jasotzen zituen txostena helarazi baitzioten Batzordeari. Ikus txosten horren bertsio laburtua Goldblatt eta Meintjesen (1998).

14 Batzordea 17 kidek osatzen zuten: 10 gizon eta 7 emakume. Emakume horien artean, Yasmin Sookak eta Glenda Wildschutek oso paper proaktiboa izan zuten talde eta aktibista feministekiko solaskidetzan eta Batzordearen barruan genero-ikuspegiaren alde eragiten.

15 Cabanillasi (2013: 102-103) jarraiki, Emakumeen Nazio Koalizioa, indar politiko guztietako partaideez osaturiko aliantza zena, trantsiziorako negoziazioetan esku hartzeko eratu zen, emakumeak nahita kanpoan utziko zirela ikusita, eta nazio mailako eragina izatera iritsi zen. 1994an argitaratu zen Benetako Berdintasunerako Emakumeen Gutuna (Women’s Charter for Gender Equity), apartheid osteko garaian emakumeen eskubideak bermatzeko.

4.1. Emakumeen lekukotzak eta entzunaldi publikoak

Batzordearen amaierako txosteneko datuen arabera, lekukotza eskaini zuten pertsona gehienak emakume beltzak izan ziren (% 55,9), batez ere 37 eta 60 urte artekoak. Haiek, beste pertsona batzuen kontra eragindako giza eskubideen urraketak salatu zituzten, batez ere senitarteko gizonen aurka (semeak, senarrak, nebak...). Izan ere, “Batzordera joan ziren gizon gehienek eurek jasandako giza eskubideen urraketak salatu zituzten; emakumeek, aldiz, beste batzuek jasandako urraketak aipatu ohi zituzten. Horrek ez du esan nahi emakumeek eurek jasan izan ez zituztenik –egiaz ere jasan zituzten eta–, baina emakumeen lekukotzen ardatza beste pertsona batzuk izaten ziren sarritan, eta biktima horiek gizonak izan ohi ziren” (EAB, 1998).

Hegoafrikako kasuak agerian uzten du, beste kasu batzuetan gertatu izan den bezala, emakumeek beti ezin izaten dutela –edo ez dutela nahi– euren kontrako giza eskubideen urraketan lekukotza eman. Generoa alderdi oso garrantzitsua da lekukotzak jaso eta hartzean, lekukotza ematearen inplikazio pertsonal, familiar, sozial eta kulturalak ez direlako berdinak gizona edo emakumea izan. Emakumeek euren kontra egindakoaren aurretik beste pertsona batzuen aurkako indarkeria salatzeke joera horren arrazoiak hainbat izan daitezke: historian zehar eta estrukturalki emakumeen esperientziak gutxietsi izana; gizartearen eta kulturaren ikuspegitik normalizatuta daudenez, emakumeen kontra erabiltzen diren zenbait indarkeria giza eskubideen urraketa gisa identifikatzeko zailtasuna; eta, batez ere sexu-indarkeria kasuetan, krimen horrekin batera doazen beldurra, lotsa eta estigmatizazio sakona (Mendia Azkue, 2012: 23).

Hegoafrikako kasuan, Meintjesek (2012) uste du emakumeentzat tabua dela euren esperientziei buruz jendaurrean hitz egitea, eta horrek gizonen indar eta kontrol soziala islatzen duela. Emakumeen kontrako erasoak gizonen euren familiak eta erkidegoan babesteko ezintasunaren ondorio gisa interpretatzen dira; beraz, horretaz hitz egitea gizon horiek umiliatzea izango litzateke. Beste argudio batzuen arabera, genero-indarkeria bera indarkeria politikoa ulertzeko EABk ezarritako muga normalizatuetatik kanpo geratu izanak emakume afrikar askoren isiltasuna eragin zuen (Cabanillas, 2013: 106).

Lekukotzek emakumeen esperientziak islatzen ez zituztela konturatzean, EABk emakumeen entzunaldi bereziak egiteko gomendioa onartu egin zuen: “beharrezkoa da emakumeak hitz egitera animatzea, isiltasuna urratu behar da. Testuinguru politikoa emakumeen kontrako gehiegikerien ebidentzia asko dago, baina eremu pribatuan geratzen da hori” (EAB, 1996). Entzunaldi

horien helburua zen lekukotza ematen zuten emakumeek euren izenean egin zezaten; hau da, zuzenean euren giza eskubideen urraketak kontatu zituzten.

1996tik 1997ra bitartean hiru entzunaldi antolatu ziren, emakumeentzat bereziki, Lurmutur Hirian, Johannesburgen eta Durbanen¹⁶. Emakume batzordekideak izan zituzten buru, eta horrek entzunaldi publikoetarako hasieran ezarritako metodologia aldatzea ekarri zuen (Nesiah, 2006), lekukotza emango zuten emakumeei segurtasun eta konfiantzazko espazioa eskaini nahi zitzaielako.

4.2. Sexu-indarkeriaren gaia

Generoa Batzordearen prozesutik baztertu izanaren arrazoietakoa bat izan zen giza eskubideen urraketa larriaren definizioaren interpretazio mugatua (Meintjes, 2012; Kusafuka, 2009). Izan ere, Nazio Batasuna eta Adiskidetzeari sustatzeko 34. Legeak (34. Legea, 1. kap., 1. art.: 3) adierazten duen bezala, Batzordeak bere mandatuan “hilketa, bahiketa, tortura eta tratu txar gogorrak” kategoriak soilik hartu zituen kontuan. Ez zituen berariaz aipatu, ez genero-krimenak, ez sexu-krimenak, eta gizarte zibileko hainbat sektoretatik –feministen kolektiboak barne– jasotako kritiken ondorioz soilik lortu zen Batzordeak “tratu txar gogorra” kategorian hainbat gehiegikeria sartzea, hala nola bortxaketa eta generoan oinarritutako beste indarkeria modu batzuk.

Emakumeen entzunaldi publikoetan eskainitako lekukotzak aztertuta, Antjie Krogék (2001: 203-207) ondorioztatu du emakume aktibista politikoen kontra eragindako gehiegikerietan sexu-indarkeriako eredu sistematiko bat egon zela. Estatuko agenteek, egindako atxiloketa eta torturatan, etengabe gutxien zituzten emakume aktibistek askapen-mugimenduetan zuten zeregin politikoa, eta umiliazio horren xedea zen emakume horiengan ausardia, independentzia edo feminismo arrasto oro desagerraraztea. Hainbat modutan egin zieten sexualki eraso emakume haien gorputzei, haien duintasuna eta aktibista-izaera zapuzteko. Era berean, zenbait emakumek salatu zuten Hegoafrikako askapen-mugimenduko euren kideek sexualki bortxatu zituztela, haienganako botere-erakustaldi gisa eta/edo autonomoagoak edo euren iritzi edo ekintzetan sendoagoak agertzen ziren emakumeengan diziplina ezartzeko.

16 Batzordeak onartzen du Lurmutur Ekialdean –lana antolatu zuen lau eskualdeetako bat– berezia antolatu ez izanak egia nahasi ahal izan zuela; izan ere, eskualde horretan, kartzelaturako pertsonen –emakumeak barne– kontrako torturak bereziki ankerrak izan ziren (EAB, 4. libk., 10. kap.: 285).

Hala ere, EABren aurrean, oso emakume gutxi eman zuten sexu-indarkeriari buruzko lekukotza. Batzordeak 446 kasu soilik jaso zituen “sexu-abusu” gisa kodifikatuta, eta biktimaren sexua jaso zen kasuetatik, % 40 emakumeak ziren. Bortxaketa 140 kasutan (Goldblatt, 2006) soilik aipatu zuten. Seguru asko, gertatu ziren sexu-indarkeriako kasu guztien zati txiki bat baino ez da, eta horrek erakusten du krimen horren inguruan dagoen isiltasuna orokorra dela. Azpi-erregistro horrek, lehen azaldu dugun bezala, zerikusia du sexu-indarkeria jasan eta bizirik iraun duten emakume askorentzat horri buruz jendaurrean hitz egiteak eragiten duen eragozpen psikosozial eta kulturekin baina, aldi berean, zerikusia du Batzordearentzat genero- eta sexu-krimenak aztertzeak lehentasuna ez izatearekin ere.

Gainera, sexu-indarkeriaren trataerari dagokionez, generoaren ikuspuntutik erabakirik eztabaidagarrienetako bat hartu zuen EABk. Batzordeak zio politikoengatik indarkeria-gertaerak oso-osorik jakinaraztearen truke amnistia emateko eskumena zuenez, Amnistiaren Batzordeak erabaki egin behar izan zuen bortxaketa ekintza politikotzat hartuko zuen ala ez. Azkenik, erakunde horrek, bere mandatuaren interpretazioan oinarrituta, sexu-indarkeria ez zela auzi politikoa erabaki zuen. Amaierako txostenean Batzordeak adierazi zuenez, eratu aurretik, “laido politikoak” definitzeko gomendioak eman behar zituen lan-taldea Norgaard Printzipioetan oinarritu zen: “Horiek honako hauek hartzen zituzten kontuan: laidoaren zioa, testuingurua, helburu politikoaren izaera, izaera legal eta faktuala (esate baterako, bortxaketa ezin izango zen, inoiz, laido politikotzat hartu), laidoaren xedea eta egintza bera agindu bat betetzeko eta dagokion erakundearen onespenearekin gauzatu zen” (EAB, 1. libk., 11. paragrafoa: 51).

Balorazio horrek Hegoafrikako mugimendu feministaren ahalegina ahuldu zuen, sexu-indarkeriaren politikaren, politika horrek emakumeen zapalkuntzan zuen paperaren eta apartheidaren arraza-politikekin duen loturaren onarpen handiagoa lortzeko helburua zuena (Nesiah, 2006). Izan ere, mundu osoko borroka feministak emakumeen kontrako indarkeria –sexu-indarkeria barne– politika- eta gizarte-arloko arazo gisa kokatzen du eta ez arlo pribatu edo intimoko auzi gisa. Horren ildoan, Rita Lausa Segatok eta erreferentziako beste egile batzuek ekarpen handia egin dute bortxatzailea plazer sexual hutsagatik bortxatzen duen subjektua delako ideia gainditzeko: “Bortxaketaren funtsa ez da sexu-desioa, ez da gizonen libido kontrolik gabea, premiaduna. Izan ere, bortxaketa ez da ekintza sexuala ere: botere-ekintza bat da, nagusitasun-ekintza, ekintza politikoa. Bere intimitatea atzemanetz, emakumea mendean hartzen, kontrolatzen eta murrizten duen ekintza da”. Logika horri berari jarraituz, sistema patriarkala ez litzateke sistema kulturala

izango, sistema politikoa baizik: “Patriarkatua emakumeen kontrolean, diziplinamenduan eta zapalkuntzan oinarritzen den ordena politikoa da”, eta horren baitan, “bortxaketa emakumea harrapatzen eta muga bat ezartzen dion moral zapaltzaile horren parte bat da, bere gorputzaren muga, alegia” (Segato, Pichelen aipatua, 2019).

Gerra-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeria ildo beretik doa; ez baita modu isolatu edo puntualean gertatzen den krimena, alderdi gehienen helburu politiko eta militarren plangintzaren arabera baizik. Izan ere, Hegoafrikako Batzordeak sexu-indarkeria ekintza politikotzat ez hartzeko erabakia hartu zuenean, nazioarteko zuzenbideak, jada, gerra-krimen, gizateriaren aurkako krimen eta genozidiotzat hartzen zuen hura, eta hala jasotzen zuten Jugoslavia ohiko (1993) eta Ruandako (1994) nazioarteko auzitegien estatutuek eta, geroago, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren estatutuek ere (1998)¹⁷.

4.3. Genero-indarkeriaren dimentsio estrukturala ez aipatzea

Batzordeak, bere txostenean, onartu zuen apartheidaren berez giza eskubideen urraketa zela; gizateriaren kontrako krimena, hain zuzen ere. Hala ere, baztertu egin zuen apartheidaren zapalkuntza-sistema bezala ikertzea eta, horren ordean, giza eskubideen urraketa larrien erantzukizun indibidualean ardaztu zen haren mandatua, eta ikusi dugun bezala, horiek hilketa, bahiketa, tortura edo tratu txar gogorretara mugatzen ziren. Hori dela eta, Batzordeak, eratu zenetik, oso mugatuta zuen iker zezakeena, eta apartheidaren politika multzoa –alderdi sozio-ekonomikoak barne– bere eskumenetik kanpo geratu zen. Horregatik, apartheidaren garaiko eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketak “tratu txar gogor”-gisa ikertzeko eskatu zioten Batzordeari zenbait GKEk (GKEen Koalizioa [1997], Kusafukan aipatua, 2009), horiek bere mandatuan jasota zeuden eskubide zibil eta politikoen garrantzi berberaz hartuak izan zitezten.

34. Legeak berak apartheidari buruzko aipamenik jaso ez izanak eta, horren ordean, “iraganeko gatazkak” esamoldea erabili izanak argi adierazten du Batzordearen zeregina banakako egile material batzuei egotz dakizkiekeen giza

17 Era berean, benetan eztabaidagarria da sexu-indarkeria, motibazio politikoko ekintzat hartua izan balitz, amnistia-xede izan zitekeela pentsatzea ere. Krogen (2001) arabera, emakumeen taldeek eskatu zuten Batzordeak sexu-indarkeriako delituengatik amnistiarik ez ematea.

eskubideen urraketa kopuru mugatua ikertzeraz mugatzen zuen erabaki politiko hori. Aipamenik eza are deigarriagoa da testuinguru hau kontuan hartuta: “giza eskubideen abusuen erantzule zuzen gutxi egon ziren, hainbeste herritar pobretu, zapaldu eta kaltetu zituen apartheid sistemaren egiturazko indarkeriaz aprobeztatu zen jende kopuru handiaren aldean” (Rigby, 2001: 130).

Horri dagokionez, interesgarria da Yasmin Sooka EABko batzordekidearen jarrera; haren ustez, Batzordeak “apartheidaren kanpoko adierazpenak jorratu zituen, hala nola tortura, tratu txar larriak eta desagertzeak” baina “gutziz onik” utzi zuen abusu horiei esker mantentzen zen sistema ekonomikoa; eta gehitzen du, prozesua berregiteko aukera izatekotan: “era guztiz desberdinean egingo nuke. Apartheidaren sistemetan zentratuko nintzateke: lurraren auzia aztertuko nuke, multinazionalen papera ikertuko nuke, zalantzarik gabe; meatzaritzak bere garaian egin zuenari erreparatuko nioke (eta luze gainera), nire ustez hori baita Hegoafrikaren benetako gaitza. (...) Apartheid politiken eragin sistematikoak aztertuko nituzke, eta saio bakarra emango nioke torturari, uste baitut torturan zentratzen garenean –eta ez zerbitzatzen zituen interesetan– benetako historia aldatzen hasten garela (Sooka, Kleinen aipatua, 2007: 284).

Apartheida zapalkuntza sistema orokor gisa ikertzea saihestu izanak eragotzi egin zuen Batzordeak erregimen horren egiturazko eraginaren genero-azterketa egitea ere. Mugapen horrek esanahi berezia hartzen du indarkeria bizi-baldintzetatik eta lan-baldintzetatik guztiz bereizten den testuinguru batean ikertu nahi denean; izan ere, Batzordeak berak azken txostenean onartzen duenaren arabera, “apartheidak iraun zuen bitartean, emakumeek gizonen baino murrizketa gehiago izan zituzten eta, ekonomiaren ikuspuntutik, haiek baino gehiago sufritu zuten. Desberdintasunaren neurri zuzenena pobrezia da, eta lotura argiak daude pobrezia banaketaren eta apartheidaren politiken artean. Emakume beltzak dira bereziki kaltetuak; eta antzinako *homelandetan* bizi diren emakume beltzak dira denetan kaltetuenak” (EAB, 1998, 4. libk., 10. kap.: 290).

Horrela, Batzordea zenbait eskubide zibil eta politikoren urraketa –gizonengan eragin handiagoa izan zuena– ikertzean zentratu zen eta apartheidaren genero-indarkeriako kasu gehienak baztertu zituen. Nesiakh (2006) azaltzen duen bezala, Batzordeak gehiago erreparatu zion torturaren “aparteko” indarkeriari eta desagertzei apartheidaren neurri politiko eta sozioekonomikoek ohiko bihurtu zuten indarkeria “arruntari” baino; horrek emakumeengan zuen eragina –emakume afrikar eta pobreengan bereziki– oso handia zen arren. Hortaz, honako hau berretsiko luke Hegoafrikako kasuak:

“Giza eskubideei buruzko ikerketa batean ‘indarkeria arruntaren’ eta ‘aparteko indarkeriaren’ arteko bereizketa egitea da emakumeen bizi-baldintzak iluntzen dituen faktoreetako bat. Aparteko indarkeria, oro har, trantsizioko justiziako ekimenen katalizatzaile izan ohi den arren, emakumeen kontrako indarkeria ahalbidetzen duten baldintza estruktural eta ideologikoei kasu egiteak erakusten du, sarritan, indarkeriaren erroak aurreko aldi bateraino heltzen direla eta haren eragina etorkizuneraino proiektatu daitekeela ere, haren ondorioetaraino” (*ibid.*: 27).

Gainera, “aparteko indarkeria” horren parte gisa, EABren mandatuaren barruan zenbait eskubide zibil eta politikoren urraketa lehenetsi izanak ekarri zuen ikerketaren ardatza gorputzaren kontrako indarkerian, osotasun fisikoan eta sufrimenduaren ondorio ikusgarrietan jartzea (Ross, 2003). Generoaren ikuspuntutik, horrek hainbat ondorio ditu: alde batetik, emakumeen indarkeria-eta diskriminazio-esperientzia ugariak ezkututzen lagundu zuen, gorputzeko kalteez harago doazenak; eta, bestetik, sendotu egin zuen emakumeek pairatzen duten giza eskubideen urraketa bakarra sexu-bortzaketa delako ideia murriztailea. “Gerra-sistemek edo errepresio-erregimenek sortutako muturreko ahultasunak eta desberdintasun estrukturalak kopuru izugarrietan eragiten diete emakumeei eta haien giza eskubideetan oso inplikazio sakonak dituzte” (Nesiah, 2006: 10). Horrek guztiak adierazten du egiaren bilaketan ikuspegi zabal, konplexu eta ulerkorra behar dela, indarkeriaren kalte fisikoei ez ezik, kalte psikosozialei, ekonomikoei, kulturelei eta ingurumenekoei ere heltzeko gai izango dena.

4.4. Erreparazioak eta berriro gertatuko ez delako bermeak

Hegoafrikako Egiaren Batzordeko Erreparazio eta Errehabilitazio Batzordeak biktimen premiak ikertzeko eta gobernuari erreparazio-politika bat sortzeko gomendioak egiteko agindua jaso zuen, erreparazioa “edozein ordain, *ex gratia* ordainketa, leheneratze, errehabilitazio edo aintzatespen mota” gisa definitu zuen mandatu baten bitartez. oinarrituta (34. Legea, 1. kap. 1. art.: 3).

Batzordeak lan egin zuen erreparazioa jasotzeko eskubidea zuten biktimen zerrenda bat berresteko eta erreparazio-premia larriei –eta epe luzerako horiei– erantzuteko programa bat proposatzeko. Horren guztiaren oinarria zen “erreparazio- eta errehabilitazio-neurri egokirik gabe ezin dela osatzerik ez adiskidetzetik egon, ez norbanako gisa ez komunitate gisa” (Tutu, 2000: 55).

Bere zereginen barruan, Erreparazio eta Errehabilitazio Batzordeak zenbait eztabaida-gune antolatu zituen; eztabaida-gune horietan hainbat emakumek hartu zuten parte, batzuetan, emakumeen erakundeetako kide gisa, baina, batez ere, banakako aktibista gisa eta biktimen erakundeetako kide gisa, azken hauetan gehienak emakumeak baitziren.

Erreparazio eta Errehabilitazio Batzordeak ez zuen generoaren gaia kontuan hartu, nahiz eta, lanean hainbat hilabete zeramatzanean, onartu zuen “erreparazio-politikak ez lukeela generoarekiko itsu izan behar” (EAB, 1996) eta hainbat proposamen egin zituen horren inguruan. Hala, Indarkeria Aztertzeko eta Adiskidetzeko Zentroak (CSVR) gomendatu zuen erreparazio sinbolikoko proiektu guztiek apartheidak emakumeengan izandako eragina eta haiek erregimenaren kontrako borrokan izandako papera onar zezaten. Beste emakume akademiko eta aktibista batzuek etorkizunean lekukotza gehiago hartzeko mekanismoak ezartzea gomendatu zuten, kontuan izanda urteak igaro ahal izango zirela emakume batzuk apartheid garaian jasandako indarkeriari buruz hitz egiteko prest sentitu arte. Hala ere, ez zituzten jasotako gomendioak EABren erreparazio-proposamenetan sartu (Goldblatt, 2006: 57-58).

Emakume askok egindako erreparazio-eskaeren artean honako hauek jaso zituzten: laguntza psikologikoa; desagertuta zeuden senitarteko eta hurbileko pertsoneri buruzko informazioa; eta laguntza ekonomikoa, senitarteko gizonen galeraren ondorioz diru-sarrerarik gabe geratu zirelako eta mendeko senitartekoen zaintza eta mantenuaren arduraren zutelako. Hala ere, EABk ez zuen sexuaren arabera bereizitako daturik aurkeztu biktimen eskaeren azterketan; oro har, azaldu zuen % 38k laguntza ekonomikoa eskatu zuela bere bizitza-kalitatea hobetzeko eta % 90k zenbait zerbitzu eskatu zituela; hezkuntza, arreta medikoa eta etxebizitza, kasu (*ibid.*: 58).

Biktimen iguripenen aurrean, gobernuaren gelditasun luzeak (eta gainera, Batzordeak egindako erreparazio-gomendioak eta berrikuntzak abian jartzeko konpromisorik hartu ez izanak) etsipena eta frustrazioa eragin zituen¹⁸. Gomendio horien artean, EABk gutxiengo zuriaren jabetzapeko enpresa hegoafrikarrek (nekazaritza eta abeltzaintzako negozioak, meatzaritza, banka, etab.) biktimen erreparazioak ordaintzen lagun zezaten iradoki zuen,

18 Deigarria da: EABren azken txostena 1998an eman zen arren, presidenteak ez zuen Parlamentura helarazi 2003. urtera arte. Goldblattek (2006) iradokitzen du gobernuak horrenbeste denboran saihestu ahal izan zuela gai hori biktimen erakundeetako buruak, gehienbat, emakumeak zirelako.

“aberastasunaren zerga”ren bidez (EAB, 1998, 6. libk., 2. sekzioa: 141-142); izan ere, enpresa horiek apartheidaren politiken onuradun nagusietako batzuk izan ziren. Hala ere, ANCren gobernuak baztertu egin zuen eskaera hura eta, azkenik, 2003an, Estatuak ordaindu zituen –atzerapen handiarekin– EABk apartheidaren biktimatzat onartutako 19.000 pertsoneri egokitutako baliabide urriak. Hala, biktima bakoitzaren familiari 3.890 euro eman zioten, ordainketa bakar batean.

Erreparazio-eskubidearen marko zabalean nekez esan daiteke EAB errepikatuko ez delako bermeak lortzeko tresna izan denik, batez ere herrialdeko biztanle beltzen gehiengoaren bizi-baldintza material eta laboralei dagokienez; izan ere, apartheidida amaitu eta 25 urte geroago, eta trantsizioan zehar gutxiengo zuriak ezarritako politika neoliberalen ondorioz (Klein, 2007), pobrezia, prekaritatea eta diskriminazioa ekonomiko eta sozial handia pairatzen jarraitzen dute gehiengo beltz horiek. “Gehienek ez dute euren bizitza-mailan, hezkuntzan, osasun eta zerbitzu publikoetan inolako hobekuntzarik ikusi. (...) Diru-sarreraren, aberastasunaren eta lurra lortzeko aukeren arteko desberdintasunak muturrekoak dira oraindik” (Roberts, 2019).

Apartheid osteko testuinguruan, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak izugarriak izaten jarraitzen dute: feminizidio- eta sexu-indarkeria tasak oso altuak dira. Amnistia Internacional erakundeak Hegoafrikako giza eskubideei buruz egindako azken txostenaren (2019) arabera, genero-indarkeria lehen mailako arazoa da, eta larriagotzen ari da: herrialdean zehar hilketak eta desagertzeak gertatzen dira, emakumeen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketak (adibidez, sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea) eta Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) intzidentzia oso handia da. Hegoafrikako Genero Berdintasunerako Batzordeak zigorgabetasuna, Estatuak inolako neurri zehatzik ez hartzea, genero-indarkeria kasuen auzietan gertatzen diren atzerapen luzeak eta bizirik irteten direnei laguntzeko baliabiderik eza salatzen jarraitzen du (*ibid.*).

Erreparazio-politika ahula da, ia eskusiboki ordainsariak ematera bideratzen da eta iraganeko eta gaur eguneko genero-indarkeriaren arteko loturari muzin egiten dio. Ondorioz, EABk apartheid garaian emakumeek bizi izan zituzten esperientziak –bereziki haien kontrako indarkeria– bistartzeko egin zuen ahalegina, aurrerapauso bat izan zen, aurreko Egiaren Batzordeekin alderatuta, baina ez zen inondik inora nahikoa izan herrialdean esanguratsua den genero-desberdintasun izugarria zuzentzeko. Borerek (2009) dioen bezala, hain zuzen ere, trantsizio-testuinguru batean, egiaren ezagutzak genero-harremanen iragana eta etorkizuna lantzeko potentzialik handiena

eskaintzen du; eta “egia generizatua” jakinarazteko porrotak eragin negatiboa du gobernuen erreparazio-politikan eta emakumeek “bake sasoiari” pairatzen duten indarkerian.

5. Ondorioak

Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea auzitegi baten antzeko eskumenak eta baldintzapeko amnistiak emateko eskumena izan zituen. Hala, eskumen horiek zituen egia ikertzeko lehen organoa izan zen. Amnistia emateko baldintzetako bat egindako krimenak erabat argitzea izan zen eta horrek ahalbidetu egin zuen amnistiaren iguripen hori gabe jakin ezin izango ziren indarkeria-egitateen xehetasunak ezagutzea. Hori adierazgarria da; egia osoa jakitea baita giza eskubideen urraketa larrien biktimen premia eta eskaeretako bat. Aldi berean, gizarte osoak duen jakiteko eskubidearen ikuspuntutik ere, horrek biktimagileak ahazteko eta ukatzeko estatu-politika hain ohikoei aurre egiten laguntzen du.

Hala ere, baldintzapeko amnistiaren ifrentzu gisa, giza eskubideen urratze larrien biktima askok esperantza zuten apartheidaren amaieran erantzule zuzen edo zeharkakoek justiziaren aurrean erantzungo zutela; baina etsipenez ikusi zuten ez zela horrela izan, erregimenak egin zituen basakeria gehienak zigorrik gabe geratu baitziren, eta, gainera, aldi berean, izugarriko presioa bizi izan zuten biktimek “batasun nazionala eta adiskidetzea”ren eraikuntzan bat egin zezaten. Hegoafrikako kasuan, estatu-krimenak egin diren beste herrialde batzuetan bezala, legezko eta bidezko erantzukizunak ezartzeko biktimek egindako eskakizunen eta haien ustezko “mendeku grinaren” arteko baliokidetasun interesatua gailendu zen¹⁹; baina, aldiz, biktima ia gehienen motibazio nagusi eta bidezkoa justizia egitea zen eta egia jakitea erantzukizunen bilaketaren osagarri izatea, eta ez haren ordezkia.

19 1993ko behin-behineko Konstituzioan aipatzen zen iraganeko zatiketarik honako honetan oinarrituta jorratu behar zirela: “beharrezkoa da elkar ulertzea eta ez mendekua; beharrezkoa da ordaina, baina ez zigorra” (Burton, 1998: 15). EABren zentzuari buruzko adierazpenetan, batzordearen presidente Desmond Tutu artzapezpikuak azpimarratu egin zuen ideia hori *ubuntu* kontzeptuaren azalpenean oinarritzen zela: “adierazten du ni gizakia naizela, zu gizakia zarelako. Zure gizatasuna suntsitzen badut, ni neu ere gizatasunik gabe geratzen naiz. Harmonia handi horri eusteko ahal duzun guztia egin behar duzu; hura uneoro erasotzen baitute erresuminak, gorrotoak eta mendeku nahiak. Horrexegatik, hain zuzen, Afrikako justizia, zigortzailea baino gehiago, birsortzailea da” (Graybillen aipatua, 2006: 47).

Hegoafrikako kasua bereziki nabarmentzen da egia bilatzeko eta ezartzeko prozesuetan lekukotzek izan zuten garrantziagatik; eta gaur egun guztiz onartuta dago lekukotzen papera. Biktimen lekukotzei emandako garrantzia Hegoafrikako Batzordearen ezaugarri izan zen; izan ere, entzunaldi publikoak antolatu zituen, hainbat komunikabidek eman zituztenak, eta hori aurrekaria izan zen egiaren batzordeen ondorengo esperientzietarako.

EABn abiapuntuko premisa izan zen lekukotzak ahaldundu egiten dituela eta “osatzen” laguntzen diela indarkeria kasu larrien biktimei, euren esperientziei buruz hitz egiteko aukera ematen baitie (Moser eta Clark, 2001: 11). Baina batzordearen mandatuan generoa ez aipatzea da lekuko emaileek euren buruari buruz hitz egin nahi ez izatearen arrazoia, gehienak emakumeak izan arren. Aktibista eta kolektibo feministen mobilizazioen eraginez Batzordeak huts hori onartu zuen eta, lanean hasita zegoela, aldagai horri ere arreta jartzen hasi zen. Funtsean, EABk apartheid garaian emakumeek izan zituzten esperientziak azaleratzeko urratsak eman zituen gaiari buruzko lehenengo entzunaldi espezifikoak antolatuz –halako erakundeetan lehenengo aldiz–, eta horien emaitzak azken txosteneko kapitulu batean jasoz.

Batzordeak genero-ikuspegia ulertzeko moduari egindako kritika nagusiak haren azalekotasunari dagozkio. Meintjesen (2012) ustez, generoa ez zen ulertu ez dimentsio teorikoan ez praktikoan; eta horrek “zabarkeria eta isiltasuna ekarri zituen apartheidaren eta apartheid-osteko esperientziaren funtsezko alderdi estruktural bati buruzko azken txostenean; alegia, generoa aldagai osagarri gisa, arrazarekin eta klasearekin batera, erabat baztertu zuten”.

Horren ildoan, Scanlon eta Mundellen (2009) arabera, herrialdearen iraganean genero-dimentsioa oso azaletik jasota zegoen, ez zen Batzordearen prozesu osoan zeharkakotasunez aplikatu eta, gainera, ez zen generoan aditua zen ikerketa-unitaterik ere sortu. Horren ordez, *ad hoc* neurriak hartu ziren prozesuaren zenbait alderditan generoa kontuan hartzeko, hala nola, emakumeen lekukotzak jasotzeko entzunaldi publikoak, baita bere emaitzetan ere; hala nola, emakumeen esperientziei buruzko kapitulu espezifikoa. Ikuspegi kritiko batetik hau ere, Ayumi Kusafukaren (2009) iritziz, genero-ikuspegia modu tangenzialean eta ez modu funtsezko eta sistematikoan txertatu izanaren ondorioz, apartheidaren genero-politika azaleratzeko aukera galdu zen. Izan ere, azkenean hura ez zen egiaren parte gisa agertu. Azken finean, kritika horiek agerian uzten dute zer dakarren hasieratik eta egiaren batzorde baten mandatuan generoa ikerketa lanaren funtsezko alderditzat ez hartzeak.

Ez zen inoiz espero izan Batzordeak apartheidaren erregimen politiko eta sozio-ekonomiko gisa aztertzea eta horrek ere eragin zuen Batzordeak kanpoan utz zezan sistema horren genero-indarkeriaren funtzio eta mekanismoak. Ikertu beharreko giza eskubideen urraketan definizio mugatuegi batek –zenbait eskubide zibil eta politikotara mugatzen zena eta indarkeriaren ondorio fisikoetan arreta berezia jartzen zuena– eragotzi egin zuen biktimei eta gizarte osoari egia osatuagoa eskaintzea Hegoafrikako arrazakeriaren, klasismoaren eta patriarkatuaren antolaera eta mekanismoei buruz. Horrek, bada, erreforma instituzional sakonak ekar zitzakeen trantsizioan, errepikatuko ez delako bermeen parte gisa.

Beraz, generoaren ikuspuntutik, Hegoafrikako kasuak argi erakusten du honako hauek ikerketa-prozesuetan duten garrantzia: gatazka-testuinguruetan egia osoa ezagutzea eta funtsezko arrazoiak, indarkeriaren izaera sistemikoa eta haren hedadura kolektiboak aztertzea. Izan ere, alderdi horiek ez aipatzeak generoan oinarrituriko indarkeria ulertzeko gure gaitasunean eragiten du; horrek ikuspegi holistikoa, diakronikoa eta multifazetikoa eskatzen baitu. Aldi berean, EABk agerian jartzen du ikertzeko interesgarritzat jotzen diren indarkeria-egitateen hierarkizazioak ondorio negatiboak dituela; izan ere, kasu honetan, eskubide sozio-ekonomiko eta kulturalen urraketak albo batera uztearen ondorioz, apartheidak bultzatutako eta batez ere emakumeak kaltetutako genero-indarkeria eta diskriminazio guztia Batzordearen aztergaietatik kanpo geratu zen.

Bibliografia

- Amnistía Internacional (2019): *Sudáfrica 2019*, Giza eskubideen egoerari buruzko txostena, <https://www.amnesty.org/es/countries/africa/south-africa/report-south-africa>.
- (2002): *Rwanda: Gacaca-gambling with justice*, Prentsa-agiria, <https://www.amnesty.org.uk/press-releases/rwanda-gacaca-gambling-justice>.
- Borer, Tristan Anne (2009): “Gendered War and Gendered Peace: Truth Commissions and Postconflict Gender Violence: Lessons From South Africa”, *Violence Against Women*, 15. libk., 10. zkia, 1169-1193, <https://journals.sagepub.com/doi/10.1177/1077801209344676>.
- Botman, H.R. eta R.M. Petersen (argtz.) (1996): *To Remember and To Heal. Theological and Psychological Reflections on Truth and Reconciliation*, Human and Rousseau, Lurmutur Hiria.

- Burton, Mary (1998): “The South African Truth and Reconciliation Commission: Looking back, moving forward-revisiting conflicts, striving for peace”, in Hamber, Brandon (argtz.): *Past Imperfect*, INCORE, 13-24.
- Cabanillas, Natalia (2013): “Incorporando la nación: mujeres africanas ante la Comisión de la verdad y reconciliación sudafricana”, *Nómadas* (Col), 38. zkia., apirila, 99-113, <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=105127475007>.
- Coetzee, Martin (1999): *Sudáfrica*, Memorias de Seminario Internacional “Verdad y Justicia en Procesos de paz o transición a la democracia”, Santa Fé de Bogotá, irailaren 1-3.
- Du Toit, André (1997): “Human Rights Program”, in *Truth Commissions: A Comparative Assessment*, Harvard Law School eta World Peace Foundation, Cambridge, Massachusetts.
- Gobierno de Sudáfrica (1995): Ley 34 para la Promoción de la Unidad Nacional y la Reconciliación, 19 de julio. Nazio Batasuna eta Adiskidetzea sustatzeko 34. Legea*
- Hegoafrikako gobernuia (1995): *34. Legea, uztailearen 19koa, Nazio Batasuna eta Adiskidetzea Sustatzeko*.
- Goldblatt, Beth (2006): “Evaluating the Gender Content of Reparations. Lessons from South Africa”, in Rubio Marín, Ruth (argtz.): *What happened to the women? Gender and Reparations for Human Rights Violations*, Social Science Research Council, New York.
- Goldblatt, Beth eta Sheila Meintjes (1998): “South African Women Demand de Truth”, Turshen, Meredith eta Clotilde Twagiramariya (argtz.): *What Women Do in Wartime. Gender and conflict in Africa*, Zed Books, Londres eta New York, 27-61.
- González, Eduardo eta Howard Varney (2013): En busca de la verdad. Elementos para la creación de una commission de la verdad eficaz, Trantsizioko Justiziarako Nazioarteko Zentroa, New York, <https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-Book-Truth-Seeking-2013-Spanish.pdf>.
- Graybill, Lyn S. (2006): “South Africa’s Truth and Reconciliation Commission: Ethical and Theological Perspectives”, *Ethics and International Affairs*, 12. libk., 43-62, <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/j.1747-7093.1998.tb00037.x>.

- Hayner, Priscila B. (2014): *Verdades silenciadas. La Justicia transicional y el reto de las Comisiones de la Verdad*, Institut Catalá Internacional per la Pau eta Bellaterra, Bartzelona.
- Healy-Clansy, Meghan (2017): *Women and Apartheid*, Oxford Research Encyclopedia, African History, Oxford University Press.
- Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (1998): *Amaierako txostena*, <https://www.justice.gov.za/trc/report>.
- (1996): *South Africa: TRC and Gender*. Truth and Reconciliation Commission Statement, abuztuaren 15, http://www.africa.upenn.edu/Urgent_Action/apic_823.html.
- Huyse, Luc (2001): “Dealing with the Past in South Africa”, in Reychler, Luc eta Thania Paffenholz (argtz.): *Peace-building. A Field Guide*, Lynne Rienner, Boulder eta Londres, 358-364.
- Klein, Naomi (2007): *La doctrina del shock. El auge del capitalismo del desastre*, Paidós, Bartzelona.
- Krog, Antjie (2001): “Locked into Loss and Silence: Testimonies of Gender and Violence at the South Africa Truth Commission”, in Moser, Caroline O.N. eta Fiona C. Clark (argtz.): *Victims, Perpetrators or Actors? Gender, Armed Conflict and Political Violence*, Zed Books, Londres eta New York, 203-216.
- Kusafuka, Ayumi (2009): *Truth commissions and gender. A South African case study*, 9. libk., 2. zkia., 45-67, <https://www.ajol.info/index.php/ajcr/article/view/52172>.
- Meintjes, Sheila (2012): *South Africa's Truth and Reconciliation Commission and Gender Justice*, Heinrich Böll Institute, Feminism and Gender Democracy, <https://www.gwi-boell.de/en/2012/03/12/south-africa%E2%80%99s-truth-and-reconciliation-commission-and-gender-justice>.
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): “Trantsitziozko justizia: dilemak eta kritika feminista”, Hegoako Lan Koadernoak, 59. zkia., Bilbo, <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publicaciones/300>.
- Michel, Nicolas eta Katherine Del Mar (2014): “Transitional Justice”, in Clapham, Andrew eta Paula Gaeta (argtz.): *The Oxford Handbook of International Law in Armed Conflict*, Oxford University Press, 840-883.

- Minow, Martha (1998): *Between vengeance and forgiveness: facing history after genocide and mass violence*, Beacon Press, Boston.
- Moser, Caroline O.N. eta Fiona C. Clark (2001): "Introduction", in Moser, Caroline O.N. eta Fiona C. Clark (argtz.): *Victims, Perpetrators or Actors? Gender, Armed Conflict and Political Violence*, Zed Books, Londres eta New York, 3-12.
- Nerín, Gustau (2018): "Apartheid", in Vinyes, Ricard (zuz.): *Diccionario de la memoria colectiva*, Gedisa, Bartzelona.
- Nesiah, Vasuki (2006): *Comisiones de la Verdad y género: principios, políticas y procedimientos*, Trantsizioko Justiziarako Nazioarteko Zentroa (ICTJ), Genero-justizia Seriea, New York, https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-COL-Genero_Comisiones_de_la_verdad-20130228.pdf.
- Pichel, Mar (2019): Rita Segato, la feminista cuyas tesis inspiraron 'Un violador en tu camino': "La violación no es un acto sexual, es un acto de poder, de dominación, es un acto político", *BBC News*, abenduaren 11. <https://www.bbc.com/mundo/noticias-50735010>.
- Roberts, Michael (2019), "Sudáfrica: el sueño de Mandela se desvanece", *Sin Permiso*, maiatzaren 11, <https://www.sinpermiso.info/textos/sudafrica-el-sueno-de-mandela-se-desvanece>.
- Rygby, Andrew (2001): *Justice and reconciliation: after the violence*, Lynne Rienner, Boulder eta Londres.
- Ross, Fiona (2003): *Bearing Witness. Women and the Truth and Reconciliation Commission in South Africa*, Pluto Press, Londres eta New York.
- Sarkin, Jeremy (2017): "La interrelación entre la construcción de la nación, la reconciliación y las garantías de no reincidencia (o no repetición) de las violaciones de los derechos humanos a la luz del ejemplo de la transición en Sudáfrica: cómo mejorar la satisfacción de los derechos y necesidades de las víctimas", *Revista de Victimología*, 5. zkia, 9-32, <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6053618>.
- (2001): "The tension between justice and reconciliation in Rwanda: politics, human rights, due process and the role of the Gacaca courts in dealing with the genocide", *Journal of African Law*, 45. libk., 2. zkia., 143-172.
- Scanlon, Helen eta Kelli Muddell (2009): *Gender and transitional justice in Africa. Progress and prospects*, ACCORD, <https://www.accord.org.za/ajcr-issues/gender-and-transitional-justice-in-africa>.

Sooka, Yasmin (2015): “On Transitional Justice”, Elkarrizketa, School of Public Policy, Central European University, https://www.youtube.com/watch?v=_3o0E-_gL5o.

Tutu, Desmond (2000): “What about justice”, in *No Future Without Forgiveness*, Rider, Londres, 47-60.



II. Kapituluia

**Historia Argitzeko Batzordea Guatemalan.
Egiaren eta genero-justiziaren aldeko
bide luzerako oinarriak**

II. Kapituluia

Historia Argitzeko Batzordea Guatemalan. Egiaren eta genero-justiziaren aldeko bide luzerako oinarriak

Gloria Guzmán Orellana

1. Sarrera

Guatemalako Egiaren Batzordea Historia Argitzeko Batzorde (CEH gaztelaniazko sigletan) izenez eratu zen, Gobernuaren eta Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalaren (URNG) arteko bake-negoziazioen markoan adostuta. Negoziazioek Nazio Batuen Erakundearen babesaren zuten eta horien ondorioz 1996an Bake Sendoa eta Iraunkorrerako Akordioa sinatu zen. Hala, Batzordearen lanak *Guatemala. Isiltasunaren memoria* txostena eman zuen, 1999an ezagutzera eman zena. Horretan, Batzordeak gatazka armatuko hiru hamarkadatan gertatutako giza eskubideen urraketa eta indarkeria-egitateak jaso zituen.

CEHk landu zuen ikerketa-galderetako bat hau izan zen: *Zergatik eragin zien indarkeriak, bereziki Estatutik zetorrenak, gizarte zibilari eta batez ere maiei, herri horretako emakumeak gerra-harrapakinak izan eta indarkeria antolatua gogortasuna pairatu zutelarik?* Batzordeak Guatemalan genozidioa izan zela ondorioztatu zuen; giza eskubideen urraketaren % 90 hiriburutik eta departamenduetako hiri nagusietatik kanpo gertatu ziren, hain zuzen, maiak bizi ziren komunitateetan. Haien aurka ehunka sarraski, desagertze behartu, tortura, sexu-bortxaketa, desjabetze eta beste hainbat giza sufrimendu modu gauzatu zituzten, modu planifikatuan estatuaren matxinoen aurkako estrategien parte bezala eta Segurtasun Nazionalako Doktrinaren barruan¹. Izaera arrazista eta patriarkala duen estatu horrek indarkeria erabili

1 Segurtasun Nazionalako Doktrinak (DSN) Ekialdea-Mendebaldea gatazkaren barruan Estatu Batuek Latinoamerikan aplikatu zituzten mekanismo eta gorputz ideologikoari egiten die erreferentzia, komunismoaren aurkako Estatuaren erabateko gerraren parametroen pean. CEHren ustez, Guatemalako DSN izan zen militarizazioaren fenomenoaren sostengatu zuen esparru teoriko eta politikoa, zeinaren bidez bizitza sozial eta politiko zibilarren gaineko kontrol militarra sustatu baitzen (CEH, 1999: I. kapituluia, 39 eta II. kapituluia, 73).

zuen eliteen interesak babesteko eta emakumeen eta batez ere gizartearen maila baxuenean dauden emakume indigenen aurkako indarkeria betikotzen duen sistema baztertzaileria mantentzeko.

Kapitulu honek, bada, CEH aztertzen du, hori baita Bake Akordioa sinatu zuten alderdiek adostutako mekanismo ofiziala. Alabaina, beste ikerketa batek, hain zuzen ere, Memoria Historikoa Berreskuratzeko Diozesi arteko proiektuak (REMHI) bi urte lehenago egindako ikerketak egindako ekarpenak ere aintzat hartzen ditu batzordeak. Proiektu hori Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoak sustatu zuen eta horren emaitza *Guatemala: berriro inoiz ez txostena* izan zen. Hala, egindako ikerketa hori gerran gertatutakoari buruzko egia ezagutzeko lan sakona egiten du eta, gainera, arreta berezia jartzen du emakumeen aurkako indarkerian.

Kapitulu honetan, beraz, testuinguruari buruzko zenbait adibide eman ostean, Egiaren Batzordearen izaera, mandatua, irismena eta mugak eta bere ikerketaren emaitza nagusiak deskribatuko ditugu. Halaber, laburrago, REMHI proiektuaren zenbait emaitza jasoko ditugu. Ondoren, Batzordeak garatutako eta txostenean jasotako genero-analisiari erreparatuko diogu. Interes horretatik, erabilitako ikuspuntuarekin eta emakumeen giza eskubideen urraketari eta hauen kausei eta ondorioei buruzko aurkikuntza kuantitatibo eta kualitatiboekin lotutako alderdiak aurkitzen ditugu.

2. Testuinguruari buruzko elementu laburrak

Guatemalako gatazka armatua (1960-1996) ezin da bereizi herrialdean nagusi den eta nagusiki indigenei eragiten dien sistema baztertzaileria, arrazista eta pobrezia-sortzaileraren izaera historikotik². Sistema hura Espainiaren inbasioak ezarri zuen eta, ondorengo aldietan, elite kreole eta ladinoen botere estamentuek hura betikotu dute; izan ere, estamentu hauek estatua erabili izan dute indarkeria estrukturala eta esplotazioa legitimatzeko. Hala, XIX. mendean kafea hedatu zenean, Estatua “lursailentzako lan-eskaintza eta -ordena bermatu zuen eta horrek militarizazio instituzionalizatua ekarri zuen, ez estatuan bakarrik, baizik eta gizartean ere” (CEH, 1999: I. kapituluak,

2 CEHren arabera, “Guatemalako biztanleria indigenaren ehunekoa Latinoamerikako altuena da”, eta 1949-1951 aldian, populazio horren jaiotzako bizi-itxaropena 39 urtekoa zen (CEH, 1999: I. kapituluak, 267 eta 79).

84). Horrek lurraren banaketaren desberdintasun sakona ekarri zuen funtsean nekazaria zen herrialde horretara³.

1944ko urriaren Iraultzaren eraginez, 1945ko Konstituzio berriak formalki indargabetu zuen indigenak lursailetan lan egitera behartzen zituen legea eta, lehen aldiz, herri indigenen eskubide espezifikokoak aitortu zituen. Gero, Jacobo Arbenz presidentearen agintaldian Nekazaritza Erreformaren Legea onartu zen, mirabetza- eta esklabotza-modu guztiak ezabatu zituen. Hala, Lege horrek nekazarien, morroi kolonoen eta nekazaritza-langileen doako prestazioak, lurraren alokairua lanaren bitartez ordaintzea eta indigenen banaketak edo errepartimenduak debekatu zituen. Legearen helburua herrialdea industrializatzea zen, landaren jabetza feudala gaindituz eta nekazaritza-ekoizpenaren ustiaketa-modu eta metodo kapitalistak garatzeko. Baina 1954an, AEBk sustatutako estatu-kolpe batek⁴ Arbenzen gobernuarekin eta Udaberri Demokratiko (1944-1954) deiturikoarekin amaitu zuen. Horren ondorioz, bortxazko lan- eta desjabetze-modu asko berrezarri zituzten.

Gatazka armatuaren berehalako faktoreak estatuaren autoritarismo sutsuari, espazio politikoak ixteari eta protesta sozialen aurrean emandako erantzun errepresiboei lotuta daude. Hala, AEBk Gerra Hotzaren markoan sustatutako Segurtasun Nazionalako Doktrinari jarraituz⁵, Guatemalako estatuak “barneko etsaia” sortuz joan zen, hain zuzen ere, estatuaren zapalkuntzaren ondorio guztiak pairatu zituzten biztanle guzti horien aurka. Testuinguru horretan, beraz, bide armatua aukeratu zuten hainbat talde matxino sortu ziren. Talde horiek indarrak batuz joan ziren eta, azkenik, 1982an, Guatemalako Batasun

3 Gatazka armatuaren arrazoi historikoen azterketak erakusten duenez, “1950eko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zentsuak, herrialdeko estatistika modernoan barruan fidagarritzat jotzen den lehenak, honako hau erakusten du: 516 latifundiok lurraren jabetzaren % 40 baino gehiago biltzen zuten, eta (7 hektareatik beherako) nekazaritza-unitateen % 88k nekazaritza-azaleraren % 14 baino ez zuten hartzen. Horrek jabetza, errentamendua, migodoina eta kolonia ez bezalako edukitza- eta jabetza-forma zaharkituak sortzen eta sendotzen zituen” (CEH, 1999: I. kapituluua, 84).

4 AEBk CIAren bitartez estatu-kolpean izan zuen eginkizun erabakigarria ezagutzeko, ikus Batzordearen txostenaren “Arbenz kargutik kentzea eta 1954ko esku-hartze militarra” atala (CEH, 1999: I. kapituluua, 105-108).

5 CEHren txostenaren arabera, 1961-1963an Kennedy administrazioan egindako Itsasoz haraindiko Defentsa Politikak honako hau ezartzen zuen: “Iraultza latentea edo hasiberria den herrialdeei laguntza ematea, mehatxu hori garaitzeko, matxina sortu aurretik horren kausak desagertuz”. Hala, Ameriketako Estatu Batuez gain, Israelek ere Guatemalako gerran parte hartu zuen; izan ere, 1982an, Guatemalan segurtasunean eta telekomunikazioetan espezializatutako 300 aditu israeldar egon ziren gutxienez, matxinoen aurkako gobernuaren estrategiari laguntza emanez.

Iraultzaile Nazionala (URNG) sortu zuten. Batasuna honako hauek osatzen zuten: Guatemalako Lanaren Alderdia (PGT), Indar Armatu Errebeldeak (FAR), Herri Armatuaren Erakundea (ORPA) eta Pobrean Armada Gerrillaria (EGP). Gerrak 36 urtez iraun zuen eta 1996an amaitu zen gobernuak eta URNGk Bake Sendoa eta Iraunkorraren Akordioa sinatzearekin batera.

Guatemalako gizarte zibilak parte-hartze nabarmena izan zuen gatazka armatuaren amaiera bilatzeari dagokionez. 1994an Gizarte Zibilaren Batzarra (ASC) sortu zen eta hau etengabeko foru bat izan zen non Bake Akordioaren negoziazioan funtsezkoak ziren gaiak eztabaidatu ziren. Batzarraren esparruan, *Emakumeen Sektorea* sortu eta indarra hartzen joan zen. Hura herrialde osoko emakume-erakundeek osatzen zuten eta funtsezkoa izan zen negoziazioen puntuen artean emakumeen eskakizun bereziak sartzeko⁶.

3. Historia Argitzeko Batzordea

3.1. Mandatua eta ezaugarri nagusiak

Bake-negoizazioen prozesuaren parte bezala, 1994ko ekainaren 23an, Norvegiako Oslo hirian, Guatemalako gobernuak eta URNGk honako akordio hau sinatu zuten: *Guatemalako biztanleei sufrimendua eragin dieten Giza Eskubideen Urraketan eta Indarkeria Egitateen Historia Argitzeko Batzordea ezartzeko Akordioa* (CEH,1999: I. kapitulua, 23). Akordioak CEHren hiru helburu hauek zehaztu zituen: gatazka armatuan 1962ko urtarriletik 1996ko abenduaren 29ra bitartean gertatutako giza eskubideen urraketak eta indarkeria-egitateak⁷ argitzeko ikerketa egitea⁸; ikerketa horien emaitzak biltzen dituen

6 Guatemalako Lan eta Gizarte Aurreikuspeneko Ministerioari atxikitako Emakumearen Bulego Nazionalak berak aitortu zuenez, parte-hartze horregatik izan ez balitz, “Bake Akordioaren edukian ez lirateke kontuan hartuko emakumeen behar bihotzekoenak” eta “Emakumeen Sektoreak lortutako espazioak, historikoki, izugarri garrantzitsuak dira emakumeek arazo nazionalak euren ikuspegi berezitik konpontzen parte hartzeko, baita Guatemalako gizarte zibilaren baitan beti izan duten parte-hartzea aitortzeko ere” (ONAM,1997: 10).

7 Batzordearen agintaldian kontzeptu biak bereizten dira, hau da, “Giza eskubideen urraketak” eta “indarkeria-egitateak”. Lehenengoak Estatuko agenteek edo, estatuaren ezagutzarekin edo onarpenarekin, partikularrek egindako egintzei dagozkie; eta bigarrenak, berriz, URNGko kideek egindakoei dagozkie (CEH, 1999: I. kapitulua, 47).

8 CEHk 1962. urtea hartzen du ikerketarako denbora-esparruaren hasiera gisa, urte horretan hasi baitzen aurkako helburu politikoak zituzten taldeen arteko borroka armatua, besteak beste, azaroaren 13ko Mugimendu Iraultzailearen (MR-13) altxamendua oinarritzat hartuta (CEH, 1999: I. kapitulua, 126).

txosten bat egitea; eta biktimen memoria gordetzeko, giza eskubideen kultura sustatzeko eta prozesu demokratikoa indartzeko gomendioak egitea. Horretarako, bada, Batzordeak hamabi hilabeteko gehienezko epea izango zuen (gerora epe hori 7 hilabetez luzatuko zen).

Bestalde, gizarte zibilaren papera ezinbestekoa izan zen CEH ezartzeko; izan ere, hark etengabe aldarrikatu zuen gerran gertatutako giza eskubideen urraketek buruzko egia jakitzeko eskubidea. Marcie Mersky⁹ CEHko ikertzailea eta txostena idazteaz arduratutako taldeko kidea izan zen. Bere ustez, gizarte-sektore antolatuek historikoki ukatutako egia bat eskatzen zuten. Gainera, CEH sortu aurretik gizarte zibilak egindako dokumentatze-lanaren garrantzia aintzat hartzen du Merskyk. Horretan azpimarratzekoa da geroago aztertuko dugun REMHI proiektua, honek egindako landa-lan izugarriagatik eta *Guatemala: berriro inoiz ez* txostenaren balioagatik. Era berean, alde aurreko beste dokumentatze-lan batzuk ere azpimarratzen ditu; hala nola, Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionalak (CONAVIGUA), Guatemalako Atxilotuen eta Desagertuen Senideen Elkarteak (FAMDEGUA), Giza Eskubideen arloko Ekintza Legalerako Zentroak (CALDH) eta Elkar Laguntzeko Taldeak (GAM) egindakoak. Gainera, batzordekideek eurek onartzen dutenez, “giza eskubideen aldeko hainbat erakundek, instalazioa prestatzeko momentutik ere, ekarpen oso baliagarriak egin zizkieten Guatemalako gizarte zibilaren lanari, giza eskubideei, biktimei, indigenei, emakumeei eta beste arlo batzuei dagokienez, eta etengabe lagundu zuten Batzordeari agindutako lana”¹⁰.

CEHren jardueraren esparru juridiko nagusia Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta giza eskubideak babesten dituzten nazioarteko itunen multzoa izan zen, Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa barne. Gainera, Batzordeak zuzenbide nazionala kontuan hartu zuen; izan ere, horren arabera, estatua derrigortuta dago bizitzarako eskubidea errespetatzera eta are babestera.

Batzordearen ahalmen juridikoei dagokienez, honako bi muga hauek aurkitzen ditugu bere mandatuan: alde batetik, giza eskubideen urraketan edo indarkeria-egitateen erantzukizuna indibidualizatu ez izana, amaierako txostenean ez baitira agertzen erantzuleen izenak; eta bestetik, ikerketen asmo edo efektu judizial eza (CEH, 1999: I. kapituluua, 44). Hala ere, Batzordeak berak adierazi zuenez, nahiz eta bere mandatuak asmo judizialik ez izan,

9 Trantsizioko Justiziaren Nazioarteko Zentroaren (ICTJ) gaur egungo zuzendaria.

10 Adibidez, 1998ko maiatzaren 27an CEHk deitutako Gomendioei buruzko Foro Nazionalan gizarte zibileko 139 erakundetako 400 pertsonak parte hartu zuten.

baizik eta historia argitzeko asmoa besterik ez, estatuko erakundeek, eta batez ere justizia administratzen dutenek Batzordearen txostenean oinarritu dezakete euren eginkizuna. Eta arrazoibide hori bera biktimentzat edo hauen senideentzat ere erabilgarria dela gehitzen du; izan ere, haiek txostenean jasotzen diren kasuengatik justizia exijitzeko eskubide osoa izango dute.

CEH 1997ko uztailaren 31an instalatu zen formalki eta data horretan bertan bere lanaldia hasi zen. Txostena, aldiz, 1999ko otsailaren 25ean argitaratu zuen. Batzordearen zuzendaritza bi gizonen eta emakume batek osatu zuten eta, guztira, 269 profesional lan egin zuten bertan; horietatik, 142 Guatemalakoak eta 127 beste 31 nazionalitatekoak. Bere aurrekontua 9.796.167 dolarrekoa izan zen¹¹ (CEH, 1999: I. kapitulua, 29). CEHk hamar eskualde-bulego ireki zituen herrialdeko toki desberdinetan, gatazkak kaltetutako eskualde batzuk lehenetsiz. Bestalde, ikerketa taldeek 2.000 komunitate inguru hainbat aldiz bisitatu zituzten eta 20.000 pertsona baino gehiagorekin aritu ziren zuzenean; horietatik 1.000 baino gehiago funtsezko lekukoak ziren¹². Batzordearen txostenak 12 liburuki ditu, eta horietan zehatz aztertzen dira borroka armatuaren kausak eta jatorriak, indarkeriaren estrategiak eta mekanismoak eta horien ondorioak, eta gomendio batzuk ematen dira. Gainera, txostenak dokumentatutako kasuei eta ikerketarekin lotutako beste alderdi batzuei buruzko eranskin ugari ematen ditu.

3.2. Guatemala, *isiltasunaren memoria* txostena: aurkikuntza nabarmenak

Txostenaren sarreran, Batzordekideek onartzen dute CEHn sartzekoan bazekitela gaingiroki Guatemalan gertatutakoa baina, hala ere, inork ez zuela imajinatu gertatutakoaren larritasun ikaragarria. Batzordeak emandako datu dokumentalak Guatemalako indarkeria politikoari buruzko beste ikerketa zorrotz batzuen datuekin uztartzean, CEHk 160.000 exekuzio eta 40.000 desagertze behartu baino gehiago gertatu zirela kalkulatu zuen (CEH, 1999:

11 Baliabide horiek honako hauetatik etorri ziren: Guatemala, Alemania, Austria, Belgika, Kanada, Danimarka, AEB, Italia, Japonia, Norvegia, Herbehereak, Erresuma Batua, Suedia, Suitza eta Europar Batasuna.

12 Funtsezko lekukoaren artean honako hauek zeuden: Armada Nazionaleko eta Autodefentsa Zibileko Patruiletako elementuak, mandatari militarak, gerrillako borrokalari ohiak, politikoak, sindikatu-tako buruak eta gizarte zibileko hainbat erakunde. CEHk iturrien, lekukoaren eta informatzaileen sekretutasuna bermatzeko agindua zuen.

I. kapituluua, 72)¹³. Matxinoen aurkako politika Guatemalan, Segurtasun Nazionaleko Doktrinaren arabera diseinatua, AEBk Gerra Hotzaren markoan sustatutako eta babestutako estrategia baten parte izan zen. Horren ondorioz, “barruko etsaiaren” nozioaren eraikuntza estatuaren politiken eta armadaren jardueraren izateko arrazoi bilakatu zen. Horiek batez ere maia herriaren aurka erabili zituzten. Hala, estatuaren indarrek, batez ere armadak gauzatutako 626 sarraski erregistratu zituen Batzordeak. Horietan, maiz, egitura paramilitarrek ere partu hartu izan zuten, hala nola Autodefentsa Zibileko Patruilak (PAC) eta mandatari militarrek (CEH, 1999: III. kapituluua, 252). Azken hauek, adibidez, hainbat ekintza anker egin zituzten biktimak exekutatu aurretik.

Gainera, Guatemalaren kasuan, lekualdatze behartuen izaera masiboa eta hauen ondorioak nabarmentzen dira. Lekualdatze horiek, bada, armadak ezarritako “lur suntsitu”¹⁴ izeneko operazioek sortutako terrorearen parte izan ziren. Batzordearen estimazioen arabera, gatazkaren une gorenean (1981-1983), 500.000-1.500.000 pertsonak pairatu zituzten lekualdatze behartuak (CEH, 1999: V. liburukia, 38). Horiek heriotzak, senideak galtzea eta ondasunak suntsitzea ekarri zuen, azken hauek, oro har, belaunaldiz belaunaldi batutako ondare osoa zirelarik. Lekualdatzera behartuak izan ziren zenbait pertsona edo komunitate beste departamendu batzuetara ihes egin zuten, maiz, hirietara. Biztanle askok, aldiz, Mexikora igaro ziren eta bertan babeslekuak antolatu zituzten. Biztanleen beste zati bat, bizirik irauteko, euren jaioterrietatik gertu zeuden mendietan barrena sartu ziren, gose egoera larriak, gaixotasunak, hotza, beldurra eta jazarpena pairatuz. Denborarekin, komunitate horiek Erresistentzian dauden Biztanleen Komunitate (CPR) izena hartu zuten¹⁵.

Bere dokumentatze-lanari dagokionez, Batzordeak urraketen tipologia bat definitu zuen, zazpi kategoria handi hauek zituena: heriotza eragiten duten giza eskubideen urraketak eta indarkeria-egitateak; lesio larriak eragiten dituzten giza eskubideen urraketak eta indarkeria-egitateak; desagertzea; torturak eta tratu krudel, anker eta apalesgarriak; sexu-bortxaketa; bahiketa;


13 Ikus CEHren txosteneko “Biktimen kopuruari buruzko datuak” atala.

14 *Lur suntsituko* operazioetan armadak sarraskiak egin zituen eta herrien bizitzarako euskarri izan zitekeen edozein elementu (uztak, animaliak, etxebizitzak) suntsitu zuen. Operazio horiek ustez matxinoekin kolaboratzen zuten komunitateetan egin zituzten.

15 Txostenaren arabera, “bai CPRen esperientzian, bai Mexikon babesa bilatzeko esperientzian, emakumeen erakundeak eta haien genero-aldarrikapenak asko garatu ziren. Baina jatorrizko herrira itzultzean, emakumeek ezin izan dute beti mantendu lehenengo erakunde haien bizitasuna; neurri batean, pentsatu izan delako urte haiek apartekoak izan zirela eta, herrialdea normaltasunera itzultzean, genero-eskarietiko sentikortasun gutxi duen aurretiko antolamendu-motara itzuli behar zela” (CEH, 1999: III. kapituluua, 162).

eta beste batzuk. Aldi berean, horiek beste azpi-kategoria batzuetan banatu zituen (ikus eranskina).


Batzordeak 7.338 lekukotasun jaso zituzten eta testigantzak eman zituztenek 7.517 urraketa edo indarkeria-egitate salatu zituzten. Testigantza bakoitzak, bada, urraketa bat edo gehiago azaltzen zuen, pertsona baten edo gehiagoren aurkakoak eta, hortaz, 42.275 biktima eta 61.648 urraketa erregistratu ziren (batez beste, 1,5 urraketa biktima bakoitzeko) (CEH, 1999: II. kapitulua, 317). Halaber, CEHk 85 kasu adierazgarri osatutako lagin bat aztertu zuen¹⁶ (CEH, 1999: I. kapitulua, 64), eta hori lagungarria izan zen indarkeria-ereduen azterketa globalean. Exekuzio arbitrarioak dokumentatutako urraketa nagusia dira, % 38,40, alegia. Horien atzetik askatasuna kentzea dugu, % 22,39arekin, eta torturak, % 18,81arekin. Desagertze behartua ia % 10 da eta sexu-bortxaketak % 2,38. Alabaina, Batzordeak berak onartzen duenez, azken datu hori benetako kopuruaren zati txiki bat baino ez du islatzen (ikus 1. Grafikoa).



Iturria: CEH (1999: II. kapitulua, 319).

¹⁶ Honako hauek izan ziren kasu adierazgarriak hautatzeko ezarritako irizpideetako batzuk: gatazka armatuan alderdi batek erabilitako estrategia edo taktiketan aldaketa garrantzitsu bat ezarri izana; euren larritasunagatik, kontzientzia nazionalean eragin berezia izana; edo eskualde edo garai jakin batean gatazka armatuari lotutako giza eskubideen urraketen edo indarkeria-egitateen jarraibideak adierazi izana.

Jasotako testigantzen edukiak eta Batzordearen Analisi Historikoko Taldeak¹⁷ indarkeriaren kausa eta ondorioen gainean egindako azterketek honako ondorio hau ekarri zuten: indarkeria nagusiki estatuak erabili zuela biztanle pobreen aurka -batez ere Maia herrien aurka-, baita justiziaren eta gizarte-berdintasunaren alde borrokatzen zuten beste sektore batzuen aurka ere. Beraz, erantzukizuna estatuarena da (Armada, Autodefentsa Zibileko Patruilak, mandatari militarrek, estatuaren beste segurtasun-indar batzuk eta heriotzaren eskuadroiak barne) kasuen %93tan; gerrillari, aldiz, indarkeria-egitateen % 3 leporatzen zaizkio eta % 4 identifikatu gabeko beste talde batzuei leporatzen zaie (ikus 2. Grafikoa).



Iturria: CEH (1999: XII. liburukia, III. eranskina, 211).

CEHk ondorioztatu zuenez, arrazakeria, estatuak adierazitako nagusitasun-doktrina bezala, funtsezko faktorea da Armadak maia herrien aurka egindako operazioen ankerkeria eta izaera indiskriminatua azaltzeko (CEH, 1999: IV. kapituluua, 29). Izan ere, Batzordeak erregistratutako giza eskubideen urraketen eta indarkeria-egitateen biktimen % 83,3 maia etnietako kideak ziren, % 16,5 ladinoak ziren eta % 0,2 beste talde batzuetakoak. CEHk zehaztu zuen bezala, kasu gehienetan, estatuak, nahita, maia komunitateak matxinoekin identifikatu

17 Txostenaren arabera, Taldea goi-mailako eta hainbat eremuko akademikoek osatu zuten.

eta, hala, indarkeria justifikatu zuen, esate baterako, maia buruzagiak eta arima-gidariak hiltzea, bahiketak, lur suntsituko operazioak eta giza eskubideen beste hainbat urraketa. Horren bitartez, estatuak, gerrillaren oinarriak hausteaz gain, komunitateen kohesioa eta ekintza kolektiboa bermatzen zuten balio kulturalak desegituratu nahi izan zituen (CEH, 1999: IV. kapitulua, 29). Dokumentatutako gertakari larriak ikusita eta argudiaketa juridiko zabal baten ostean, Batzordeak honako hau ondorioztatu zuen: Guatemalako estatuak genozidioa egin zuen maia herriaren aurka (*ibid.*: 51).

4. Memoria Historikoa Berreskuratzeko Diozesi arteko proiektua (REMHI) eta *Guatemala: berriro inoiz ez txostena*

REMHI proiektua 1995ean hasi zen, gatazka armatuan zehar izandako giza eskubideen urraketak ikertzeko asmoz. Hala, sortuko zen Historia Argitzeko Batzordearen lanerako informazioa biltzea zen proiektuaren helburuetako bat. Bere lanak hiru urte iraun zuen eta horretatik sortutako ikerketa-txostena 1998ko apirilaren 24an argitaratu zuen¹⁸. Proiektuak herrialde osoko pertsona-sare handi batekin lan egin zuen eta, hala, Guatemalako gizarte zibilak eta gizarte zibilarantzat egindako dokumentatze-lantzat hartu izan da hura, giza eskubideen urraketak biltzen baititu.

Horretarako, bada, metodologia zorrotza sortu eta erabili zen, non landa-lana eta testigantzak jasotzea funtsezkoa izan zen. Halaber, proiektuak kasu-ikerketa paradigmaticoak egin zituen sarraskiak eta beste indarkeria mota batzuk pairatutako zenbait eremutan eta 200 lekuko baino gehiago elkarrizketatu zituen. Bestalde, berrikuspen bibliografikoa oso garrantzitsua izan zen historia eta testuingurua aztertzeko. Gainera, 100 diagnostiko komunitario baino gehiago egin zituzten, indarkeria pairatutako herrietan tailerrak eginez. Diagnostiko horiek hainbat mapa sortzeko oinarria izan ziren, hala nola sarraskiak gertatutako tokienak edo militarren eta gerrillaren presentzia erakusten zutenak. Hala, gizarte-eragile desberdinei buruzko hamabi bat bibliografia egin zituzten, inteligentzia militarrek, elizak edo enpresariak, besteak beste, gatazka armatuan izandako papera zehazte aldera,

18 Bi egun geroago, 1998ko apirilaren 26an, Indar Armatuak kideek modu basatian hil zuten Gerardi Monsinorea. Hura izan zen, hain zuzen ere, Guatemalako Artzapezpikutzako Giza Eskubideen Bulegoaren bitartez REMHI proiektua sustatu zuen gotzaina.

bai eta AEBko Inteligentzia Agentzia Zentralak (CIA) eta Defentsaren Inteligentzia Agentziak izandako papera ere (Martin Beristain, 2013).

REMHI proiektuak 600 pertsona inguru trebatu zituen landa-lana egiteko eta lau ikerketa-talde sortu ziren, guztira 21 lagunez osatuak. Ikerketarako zehaztatutako gai eta ikuspegiak lantzeko bost lantalde hauek sortu ziren: psikosoziala, kulturala, generokoa, juridikoa eta sozio-historikoa. Horien bitartez, besteak beste, indarkeria motekin, eragileekin, ondorioekin eta biktimen eskaerekin lotutako 250 azterketa-kategoria zituen datu-basea sortu zen.

REMHI proiektuaren amaierako txostenak 1.400 orrialde ditu, lau liburukitan banatuta. Horretan, 5.465 testigantza jasotzen dira, 52.427 biktimaren aurkako 14.291 indarkeria-egitate deskribatzen dituztenak. Hilketak, indibidualak zein kolektiboak, gehien salatutako egitateak dira (% 48). Horien atzetik honako hauek ditugu: mehatxuak (% 16), atentatuak (% 10), torturak eta beste tratu krudel, anker eta apalesgarri batzuk (% 10), legez kontrako atxiloketak (% 9,2), desagertze behartuak (% 7,1), bahiketak (% 1,3) eta erregistratutako 152 sexu-bortxaketa. Azken datu hori, CEHk emandakoa bezalaxe, benetako kopuruaren oso azpitik dago. REMHIk azpimarratu bezala, maiz, indarkeriak talde eta komunitateen aurkako izaera kolektiboa izan zuen (ODHAG, 1998: 371).

Txostenak, beraz, estatuari (Armada, polizia, PAC, mandatari militarrek eta heriotzaren eskuadroiak) leporatu zion dokumentatutako kasuen % 89,45. Talde gerrillariei, ordea, % 4,81 leporatu zien (*ibid.*: 372). Sarraskiaren definizioan oinarrituta (“Komunitatearen suntsipenari lotutako eta izuaren edo ankerkerien erakusgarri diren hilketa kolektiboak”), REMHIk 422 sarraski dokumentatu zituen, eta gehienak (% 70) 1981 eta 1982 artean gertatu ziren. Hildakoak eta desagertuak kontuan hartuta, batez beste, sarraskiek 14.000 biktima izan zituzten. Armada agertzen da sarraskien % 90,52ren erantzule gisa, eta gerrilla %3,79rena (ODHAG, 1998: 188-189).

4.1. REMHIk dokumentatutako emakumeen aurkako indarkeria

REMHI proiektuak emakumeen aurkako indarkeria kasuak ikertu eta dokumentatu zituen eta, hala, *Guatemala: berriro inoiz ez* txostena oso aurrekari garrantzitsua izan zen gero CEHk egindako ikerketarako.

REMHIren ikerketa-taldeko kide izandako Yolanda Aguilar feminista guatemalarraren ustez¹⁹, txostenak “egiaren txostenen historian lehen aldiz identifikatu zuen Guatemalako gatazka armatuan emakumei gertatutakoa”.

Hala, generoari buruzko lantalde bat eratu zen eta txostenean *Indarkeriatik emakumeak sendotzera* izeneko kapitulua sartu zen. Izenburuak aditzera ematen du ikuspegi berri bat, indarkeriak emakumeengan, biktima gisa, izandako eragina azpimarratzen duena eta emakumeak erresistentzia-ahalmen handia duen subjektu politikotzat hartzen dituen. Gertatutakoa dokumentatzeko REMHI proiektuak erabilitako tresna nagusietako bat testigantza izan zen. Azpimarratzekoa da, izan ere, jasotako testigantzen erdia emakumeenak direla. Dena den, gatazka armatuko beste testuinguru batzuetan ere gertatu ohi den bezala, emakumeen testigantzak, euren giza eskubideen urraketak barik, euren senideen eta komunitateen aurkako indarkeria izan zuten hizpide. CEHk jasotako testigantzetan ere joera bera ikusten da.

REMHI txostenaren arabera, zenbait sarraskitan, hurrez gain, emakumeak bakarrik hil zituzten, gizonak herrixkatik kanpo edo dagoeneko hilda baitzeuden. Kontaketa desberdinek egoera izugarriak eta beldurgarriak deskribatzen dituzte (ODHAG, 1998: 113):

“San Franciscotik itzultzean emakumeak bi behi kozinatzen behartu zituzten. Gero lurrean zulo handi bat egin eta bonbak sartu eta erre zituzten. Gizonak patruilatzen ari ziren eta, hortaz, herrixkan emakumeak eta haurrak besterik ez zeuden. Zarata handiz, emakumeak eta haurrak ihesi joan ziren baina soldaduek haiei jarraitu eta hil egin zituzten”.

“Erasotzaileak goizeko seietan heldu ziren Rio Negrora. Herrixkan emakumeak, haurrak eta pertsona adinduak besterik ez zeuden ia (aurreko sarraskien ondorioz). Guztiak euren etxeetatik atera eta eskolan batu zituzten. Emakumeak haienzako janaria prestatzera behartu zituzten. Gero, Pacoxomera eraman zituzten eta patruilariekin eta militarrekin dantzatzera behartu zituzten. Emakumeak bortxatzen hasi ziren, gazteenekin hasita. Gero biktima guztiak hil zituzten, emakumeekin hasita. Haurrak ere hil zituzten baina gutxi batzuei bizia barkatu zieten eta adoptatu zituzten. Zenbait emakumek eta umek ihes egin ahal izan zuten”.

19 Ikus Yolanda Aguilari egindako elkarrizketa hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=fOTjnMomvYQ>.

Sexu-bortxaketari dagokionez, REMHIk 92 salaketa eta 149 biktima erregistratu zituen eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kapituluak gai horri buruzko atal espezifikoak du. Hala ere, REMHIren txostenean eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, CEHren txostenean ere, indarkeria-mota hori oso azpi-erregistratuta dago, neurri batean hori salatzea oztopatzen duten baldintza sozial eta kulturalen ondorioz.

5. Generoa Historia Argitzeko Batzordean

REMHI proiektuak bezala, Historia Argitzeko Batzordeak ere gatazka armatuko emakumeen aurkako indarkeria dokumentatzeko ikerketa-ardatzak ezarri zituen, nahiz eta bere mandatuak ez zuen hori berariaz aipatzen.

Hiru batzordekide izan ziren CEHren zuzendari gorenak²⁰, horietako bat, bada, Guatemalako Otilia Lux maia kitxea izan zen, nazio mailan eta nazioartean aintzatespen handia zuena²¹. CEHren mandatuak ez zuen genero-kuotarik ezarri Batzordea osatzeari dagokienez; alabaina, maia etniako emakume horren parte hartzea oso esanguratsua izan zen, Guatemala etnia, kultura eta hizkuntza anitzeko herria baita²².

Emakumeen Sektorearen sortzaile den Sandra Morán feminista guatemalarraren arabera²³, CEHk generoaren arloan egindako lana emakume-erakundeek garai hartan egindako lanari esker izan zen. Erakunde horiek, gainera, Batzordeko talde teknikoko emakumeekin zubiak egitea lortu zuten. Hala, txostenak mugak badiu ere, Moránen ustez, garrantzitsua da memoria historiko ofizial bihurtzen delako eta horretan, Bake Akordioetan ez bezala, emakumeen aurkako indarkeria -eta bereziki sexu-indarkeria- gerrako arma gisa erabili zela aitortzen delako.

20 Mandatuak ezarri zuen honako hauek osatuko zutela CEH: a) bake-negoiazioen moderatzailea, Nazio Batuetako idazkari nagusiak izendatua; b) jokabide akasgabea duen herritarra, moderatzaileak izendatua eta alderdiekin adostua; eta c) moderatzaileak unibertsitateko errektoreek proposatutako hiruko batetik hautatutako akademikoa, alderdiekin adostua.

21 Kargu hauek izan ditu: Emakume Indigenen Nazioarteko Foroko zuzendari exekutiboa eta Nazio Batuetako Herri Indigenen Foro Iraunkorreko aditu indigena.

22 Maia Hizkuntzen Akademiaren arabera, 21 komunitate linguistiko daude talde etniko banari dagozkionak.

23 2019ko urrian egindako elkarrizketa pertsonala.

5.1. Kontzeptuzko eta ikuspegiko alderdiak

Batzordearen arabera, bizitzaren, osotasun fisiko edo mentalaren edo askatasunaren aurkako edozein indar-ekintza indarkeria da; eta ekintza horiek emakumeen aurkakoak direnean, emakume izate hutsagatik, edo batez ere haiei eragiten dietenean, genero-indarkeria da. Ikuspegi orokor horretatik, txostenen dauden genero-ikuspegiko zenbait funtsezko alderdi azpimarratu nahi ditugu²⁴:

- Emakumeen aurkako indarkeria gizonen nagusitasuna duten gizarte-egitura guztietan ematen da eta horietan oinarritzen da; eta Guatemalako estatua, bada, botere patriarkaleko egitura horien parte da.
- Genero-indarkeria, estrukturala izan arren, gatazka armatuko testuinguruetan eta egoeretan larriagotzen da, emakumeak kalteberago bihurtuz. Hala ere, kalteberatasun hori ez da emakumeen nortasunaren berezko ezaugarria; aitzitik, diskriminazio, esplotazio eta zapalkuntza baldintzetan errotzen da.
- Gerrak paradigma maskulino batean gainulertutako balioak goraiatzeko dituzte, paradigma horrek emakumeen aurrean gizonaren nagusitasuna eta indarkeria botere adierazpen gisa onartzen dituelarik.
- Txostenak emakumeen mugimenduek nazioartean egindako ekarpen historikoa aintzat hartzen du eta haien borrokek genero-indarkeria giza eskubideen urraketatzat hartua izatea ahalbidetu dutela nabarmentzen du.
- Emakumeen eskubideak giza eskubideak direla azpimarratzen du eta hauek babesteko marko juridiko zabala balioesten du, batez ere sexu-indarkeriaren aurrean babesa emateko eta hura zigortzeko. Hain zuzen ere, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan kokatzen diren zortzi aitorten, itun eta konbentzio aipatzen ditu txostenak, baita Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari eta gatazka egoeretan dauden emakumeen eskubideei buruzko zazpi hitzarmen, protokolo, aitorten, batzar eta auzitegi ere.

24 Txostenaren generoari buruzko eduki gehiena II. kapituluko *Emakumeen aurkako sexu-indarkeria* izeneko XIII. atalean (13-55) ikus daiteke. Lan horretarako, ordea, txostenaren beste atal askotan aurkitzen diren elementuak hartu dituzte kontuan.

- Militarizazioak eragin handia izan zuen gizarte zibilaren bizitzan²⁵ eta, hala, eguneroko bizitzan larderiako “balioak” errotzen lagundu zuen. Eragile armatuen kopuruak gora egitearekin batera emakumeen aurkako indarkeria-mailak ere gora egin zuen.

5.2. Sexu-indarkeria eta emakumeen giza eskubideen beste urraketa batzuk

Datuak sexu arabera bereizita biltzea erabaki zuen Batzordeak eta horrek indarkeriak eragiteko duen moduari dagozkion genero-desberdintasunei buruzko oinarriko informazio kuantitatiboa lortzen lagundu zuen²⁶. Hala ere, emakumeen giza eskubideen urraketak erregistratzeko zailtasun handiak izan ziren, hainbat arrazoiengatik; hala nola emakume maiek estatuko erakundeekiko duten mesfidantza -erakunde horiek historikoki haien aurkako indarkeriaz eta zigorgabetasunez jokatu izan baitu-; edo biktima askok, batez ere sexu-indarkeria kasuetan, isilean bizi izan zituzten mina eta erruduntasun-eta lotsa-sentimenduak, horrek haien isolamendua bultzatu zuelarik²⁷.


CEHk jasotako testigantzen % 48 biktima zuzenak izandako emakumeenak dira. Alabaina, gehienek beste pertsona batzuei gertatutako egitateak kontatu zituzten, ez eurek pairatutakoak. Izan ere, genero-identitateen eraikuntza sozialaren ondorioz, emakumeek euren burua gutxiesten dute eta, hortaz, emakume askorentzat besteek -normalean gizonek- pairatutako indarkeria eurek pairatutakoa baino garrantzitsuagoa da.

Zailtasunak gorabehera, Batzordeak gatazka armatuaren lau biktimatik bat emakumea izan zela dokumentatu zuen. Guztira, bada, 9.411 emakume biktima zuzenak izan ziren (ikus 3. Grafikoa).

25 Armadak herrialde osoan duen presentzia sendoaz gain, CEHk kalkulatu zuen gatazka armatuaren intentsitate handieneko aldirako (1982), Guatemalako bi gizon helduetatik bat Autodefentsa Zibileko Patruiletako (PAC) kidea zela. Armadak pertsona horiek behartuta errekrutatzen zituen, herriak kontrolatzen parte har zezaten. Datu hori 1982an armadak berak emandako zifretatik abiatuta (milioi bat patruilari) kalkulatu zuen CEHk, datu horiek 1981eko errolda nazionalako gizonezkoen populazio helduaren datuekin gurutzatuz. Ikus CEH (1999: II. kapituluua, 226).


26 Jarraibide hori gorabehera, kasuen % 38tan soilik lortu ziren bereizitako datuak; % 62tan ez da biktimaren edo testigantza ematen duenaren adina eta/edo sexua jasotzen.

27 Biktimen senideek ez zituzten sexu-indarkeria egitate asko ezagutu, edo, ezagutu bazituzten, isilarazi edo ukatu egin zituzten, sexu izaerako gertaerek komunitatean eragin zezaketen estigmaren ondorioz.



Iturria: CEH (1999: XII. liburukia, III. eranskina, 210).

CEHk ezarritako giza eskubideen urraketen tipologiari jarraituz, emakumeen kasuan, ehuneko handiena exekuzio arbitrarioei dagokie (% 33); horren atzetik, sarraskiak (% 19), askatasun-gabetzea (% 18), sexu-bortxaketak (% 14), desagertze behartua (% 6) eta lekualdatzearen ondoriozko heriotzak (% 4) ditugu²⁸ (ikus 4. Grafikoa).



Iturria: CEH (1999: XII. liburukia, III. eranskina, 221).

28 Lekualdatze behartuen esparruan heriotza ugari gertatu zirenez, Batzordeak "lekualdatze behartuaren ondoriozko heriotza" ezarri zuen dokumentatua izateko kategoria gisa, eta kasuen % 51tan biktimak emakumeak izan zirela ikusi zuen.

Batzordeak ezarri zuen exekuzio arbitrarioen biktimen bosten bat emakumeak izan zirela eta hura ehuneko handia dela ondorioztatu zuen horrelako, gatazketan biktima izaten diren emakumeen beste ehuneko batzuekin alderatuta (CEH 1999, II. kapitulum, 376). Gainera, datu hori sarraskiekin lotzea garrantzitsua da²⁹; izan ere, Batzordeak honako kasu hauetan sarraskiak zeudela onartu zuen: leku berean bost lagun baino gehiago hiltzen zituztenean, operatibo berean, eta biktimek itxura guztiz edo nolabait babesgabea zutenean. Aipatu bezala, estatuaren indarrei leporatutako 626 sarraski dokumentatu ziren, 1982tik 1983ra bitartean. Batzordeak dokumentatutako exekuzio arbitrarioen % 69 aldi horretan gertatu ziren (CEH, 1999: II. kapitulum, 256).

Hala ere, ezin ditugu sarraskiak zenbakien bitartez soilik ulertu. Izan ere, sarraskiei buruzko testigantza lazgarriek esker, exekuzio arbitrarioak beste egitate izugarri batzuekin batera eman zirela jakin zen, hala nola, gorpuak mutilatzea, torturak, ondasun materialak suntsitzea, etab. (CEH, 1999: II. kapitulum, 271 eta 288-289).

“Dena ikusten zen, txakurrak gorpuak jaten ari ziren, emakumeen ilekordak ikusten ziren”.

“27 emakume eta 20 ume bildu zituzten. Etxe handi batean sartu zituzten guztiak. Barruan zeudenean, tirokatu eta hil egin zituzten. Gero etxeari sua eman zioten. Gorpu guztiak erre ziren. Hurrengo egunean dena topatu genuen zabor eginda. Emakumeak gure erruz hil zituzten. Ez genekien horrelakorik gertatuko zenik”.

“Armadak kontrolak jarri zituen herriaren kanpoaldean... 18 emakume eta euren seme-alabak herritik irten ziren, asto, saski eta poltsekin. Rio Secotik bueltatzean soldadu talde batek haiek geldiarazi eta atzeman zituzten. Astoak eta erositako gauzak kendu zizkioten eta emakumeak eta umeak gertuko leku batera eraman zituzten. Emakumeak biluztu eta torturatu zituzten eta gero urkatu zituzten makilak genitaletan sartuta, mundu guztiak ikus zitzan. Hurrei burua hautsi zieten”.

29 CEHk kategoria juridikoak erabili zituen giza eskubideen urraketak dokumentatzeko, hala nola exekuzio arbitrarioak, tortura, atxiloketa arbitrarioa, etab. Hala ere, Batzordeak, sarraski terminoa hartu zuen bere gain, nahiz eta berez kontzeptu juridikoa ez izan; izan ere, historia argitzeko agindua zuen eta horrek gatazkan emandako indarkeria-modalitate eta -eredu guztien azterketa integrala egitea eskatzen zuen. Ikus: CEH (1999: II. kapitulum, XX. atala, 249).

Genozidioaren eremuan sarraskiak ohikoak izan ziren eta horiek aztertutakoan, Batzordeak honako hau ondorioztatu zuen: exekuzioen aurretik biktimak sexu arabera banatzeak frogatzen du errepresioaren sexu araberako planifikazioa egon zela; izan ere, gizonak zein emakumeak hil zituzten baina emakumeek, alde aurretik, sexu-indarkeria eta beste hainbat krimen pairatu behar izan zituzten³⁰. Hau da, genozidioaren politikak anker jokatu zuen emakumeekin, hauek haurdun zeudenean ere, “barne etsaiaren hazia” ezabatu nahi baitzuten. Guatemalako emakume indigenek pairatutako bazterkeria eta gabetze historikoa gatazka armatuan sakondu eta ankerkeria handiagoz gauzatu zen.

Batzordeak sexu-indarkeria egitateak honela definitu zituen: generoagatik gutxietsitako pertsonen aurka indarkeriaz erabilitako botere-praktikak. Hala, sexu-indarkeria matxinoen aurkako estrategiaren parte izan zen heinean, hura estatuaren praktika orokortua eta sistematikoa izan zela ondorioztatu zuen CEHk, baita Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larria ere (CEH, 1999: II. kapitulua, 13-19).

CEHk, 1.465 sexu-indarkeria egitate erregistratu zituen; hala ere, bai kopuru absolutuetan eta bai giza eskubideen beste urraketa batzuei dagokienez, horiek azpi-erregistratuta daudela onartzen du. Talde etnikoari buruzko informazioa zuten sexu-bortxaketen biktima guztietatik % 88,7 maiak ziren, % 10,3 ladinoak eta % 1 beste talde batzuetakoak. Biktimen adinei buruzko informazioa zegoen kasuetan, datuek oso tarte handia erakusten dute: % 35k 0tik 17ra bitarteko adina zuten (neska/adin txikiko bezala sailkatuak), % 62k 8tik 60ra bitarteko adinak (heldu bezala sailkatuak) eta % 3k 60 urte baino gehiago (adineko bezala sailkatuak) (CEH,1999: II. kapitulua, 23).

Honako hauek izan ziren sexu-indarkeria gehien pairatutako eskualdeak: Quiché departamendua (bortxaketen % 55), Huehuetenango (% 25), Alta Verapaz (% 7), Chimaltenango (% 3) eta Baja Verapaz (% 3). Bestalde, honako hauek izan ziren talde etniko kaltetuenak: Kitxea, Kanjobala, Mama, Kektxia, Ixila, Txuja, eta Kaktxikela.

30 Sexu-indarkeria, terrorea hedatzeko tresna gisa, operazio militarren plangintzaren parte izan zen, hau da, herrialdearen erabateko militarizazioa diseinatu eta indarkeriaren mekanismoak ezarri zituen kanpaina-planen zati. Sexu-indarkeria Guatemalako estrategia militarren partetzat hartzen duen ikerketa interesgarri bat Asturias Valenzuelan (2012) ikus daiteke.

Sexu-indarkeriaren egile material gehienak Armadako kideak izan ziren, hain zuzen, erregistratutako kasu guztien % 89. Horien atzetik PACak ditugu (% 15,5), mandadari militarrek (% 11,9) eta beste segurtasun-indar batzuk (% 5,7) (CEH, 1999: II. Kapituluua, 25). Sexu-bortxaketa gehienak 1980tik 1983ra bitartean gertatu ziren, baina une gorena 1982ko lehen seihilekoa izan zen. Izan ere, horretan “lur suntsitu” izeneko politika aplikatu zen, Armadak batez ere Quiché departamenduan eta aipatutako besteetan gauzatu zuena.

Batzordeak ondorioztatu zuen sexu-indarkeria Armadaren plangintza estrategikoaren parte izan zela eta arma gisa erabili zela matxinoen aurkako borrokan. Heziketa eta entrenamendu militarren parte ere izan zen (*ibid.*: 55). Halaber, lehen aipatu bezala, sexu-bortxaketa sistematikoki erabili zuten, beste indarkeria batzuekin batera, batez ere emakumeak askatasunaz gabetzea eta sarraskiak. Erregistratutako datuen arabera, desagertuta zeuden atxilotutako emakumeen heren batek sexu-bortxaketa pairatu zuten eta kasuen %25tan hori exekuzio arbitrarioen bezpera izan zen. Batzordeak emakumeen aurkako indarkeria-egitateen ankerkeria ere azpimarratu zuen. Izan ere, horrek, hein batean, zigor zentzagarria izan nahi zuen herritarren artean ikara instalatzeko.

Batzordeak egindako azterketa zabalak sexu-indarkeriaren patrioiak ezartzeko aukera eman zion eta, testuinguruaren arabera, honela sailkatu zituen: emakume maien aurkako sexu-bortxaketa masiboak eta sexu-bortxaketak errepresio selektiboko testuinguruetan. Emakume maien aurkako sexu-bortxaketen jokabide-eredu hauek azpimarratzen ditu txostenak (CEH, 1999: II. kapituluua, 28-29):

- Emakumeen aurkako sexu-bortxaketak euren komunitateetan edo Armadak eta PACek 1981 eta 1982 artean sistematikoki egindako sarraskien ondoriozko lekualdatze- edo babes-eremuetan.
- Armadak eta PACetako kideek mendietan babestutako emakumeak harrapatzean gauzatutako sexu-bortxaketak.
- Armadak eta PACetako kideek militarrek okupatutako eraikin publiko eta erlijiosoetan egindako atxiloteta kolektiboetan gauzatutako sexu-bortxaketak. Egitate horiek batez ere 1982ko bigarren seihilekotik aurrera gertatu ziren.
- Sexu-bortxaketak destakamentu militarrek zituzten komunitateetan.
- Sexu-bortxaketak Armada etxeetan indarrez sartzean.

- Mandatari militarrek eta PACetako buruek euren komunitateetan gauzatutako sexu-bortxaketak.
- Harreman behartuaren baitan hainbat sexu-bortxaketaren biktima izandako emakumeak.

Errepresio selektiboko testuinguruetan emakumeen aurka egindako sexu-bortxaketei dagokienez, biktimak alde zuzenetik identifikatzen zituzten. Kasu honetan, honako hauek dira jokabide-ereduaren zenbait ezaugarri (CEH, 1999: II. kapitulua, 51-55):

- Liderrak ziren, erakunde desberdinetan parte hartzen zuten (gizarte erakundeak, sindikatuak, erakunde politikoak, ikasle-erakundeak edo giza-eskubideen aldeko erakundeak), gerrillako kideak ziren edo gerrilla lagun zezaketen emakumeen aurkako sexu-bortxaketak.
- Indarkeria hori pairatu zuten emakume gehienek exekuzio arbitrarioak edo desagertze behartuak ere pairatu zituzten.
- Sexu-indarkeria destakamentu militarretan atxilotutako emakumeen aurkako torturetan militarrek erabilitako elementu espezifikoak izan zen. Bortxaketak behin eta berriz eta hainbat gizonak egiten zituzten.
- Gerrillari edo lider sozial edo politikoen emazte, alaba edo arreben aurkako sexu-bortxaketak egin zituzten.
- Bortxaketa selektibo gehienak hiri-eremuan gertatu ziren.

Erasotzaileek sexu-bortxaketa beste egitate batzuekin parekatzen zuten, hala nola arpilatzearekin³¹, eta askotan, krimen horretarako erabiltzen zuten jargoiak emakumeen gorputzak gauza bihurtzen zituen, “*gaur okela dago*” eta antzeko esaldiak erabiliz. Halaber, egitateen lekukoek eta biktimek eurek sexu-indarkeriari buruz hitz egitean honelako esaldiak erabili izan zituzten: “*hainbat hilabetez erabili zituzten*”, “*haietatik igaro ziren*” “*arropa kendu zidaten eta denak igo ziren*”. Armadak, noizbait, honela hitz egin izan du giza eskubideen urraketa horri buruz: “*tropek egindako akatsak ziren, esate baterako, bandalismoa, bortxaketak, lapurretak eta uztak suntsitzea*”³².

31 CEHk Armadako kideen testigantzak jaso zituen, eta honelako esaldiak entzun zituzten hitzez hitz: “Tropak ez zuen gehiegikerietan pentsatzen, bortxatu eta lapurtu nahi zuten... arpilatzea eta bortxatzea zen axola zitzaiena”.

32 CEHren arabera, armadak egindako “akatsen” aitorpen hori jasota dago, adibidez, Victoria 82 Planean, F eranskinean.

Erasotzaileek erabilitako eufemismoak eta, batzuetan, lekukoek eta biktimek eurek sexu-bortxaketa behar bezala, hau da, giza eskubideen urraketa bezala aipatzeko izan duten zailtasunak, bada, emakumeen gorputza erabiltzeak historikoki gizartean izan duen permisibitatearen parte dira.

5.3. Gomendioak: zehaztasun eskasa

Amaierako txosteneko gomendioen artean Batzordeak honako hauek erabaki zituen: a) biktimen memoria gordetzeko neurriak; b) biktimak erreparatzeko neurriak; c) elkar errespetatzeko eta giza eskubideak betetzeko kultura sustatzeko neurriak; e) prozesu demokratikoa indartzeko neurriak; f) bake eta elkartasun nazionala sustatzeko beste gomendio batzuk; eta g) gomendioak betetzen direla bermatzeko eta sustatzeko erakunde bat sortzeko gomendioa.

Gomendioak orokorrak izan ziren, eta generoko erreferentziak urriak. Gure iritziz, CEHk egindako ikerketa-lan handi eta zorrotzak nahikoa argudio eta eduki sor zitzakeen genero-espezifikotasun handiagoko gomendioak ezartzeko. Erreferentzia aipagarrienak honako hauek dira: Erreparazio Programa Nazionalaren Zuzendaritza Batzordean emakumeen parte-hartzea eta ordezkartza bermatzea (CEHk erreparazio-neurrien parte bezala hura sortzea gomendatu zuen) eta kalte-ordain ekonomikoa dagokion kasuetan onuradunei lehentasuna ematea; giza eskubideen urraketaren larritasuna, egoera ekonomikoa eta ahultasun egoera kontuan hartuta eta “pertsonei adinekoei, alargunei, adingabeei eta beste babesgabetasun-egoera batzuetan dauden pertsonen arreta berezia eskainiz” (CEH, 1999: V. kapituluua, 64).

Guatemalako gobernuak Kalteak Ordaintzeko Programa Nazionala (PNR) sortu zuen 2003an³³. Haren helburua zen “gatazka armatuko giza eskubideen urraketan biktimei kalteak ordaintzea indibidualki zein kolektiboki”. Programa sortu eta hamarkada bat geroago, Impunity Watch erakundeak (2014) txosten bat argitaratu zuen. Horretan erreparazio-politika publikoaren hutsak identifikatzen zituen genero-azterketatik. Dokumentuak emakumeei mesede egin dieten zenbait ekintza aipatzen ditu, hala nola sexu-indarkeriaren biktima izandako zenbait emakumerentzako kalte-ordain ekonomikoa,

33 258-2003 Gobernu Akordioaren bidez sortu zen, eta 2004, 2005 eta 2013an berritu zen. PNR Guatemalako Errepublikako Presidentetzako Bakerako Idazkaritzaren menpe dago. Ikus: <https://www.pnr.gob.gt>

edo Chimaltenangon sexu-indarkeriaren biktima izandako emakume talde bati emandako laguntza psikosoziala. Hala ere, txostenak ondorioztatzen du PNRan ez dagoela gatazka armatuko biktima diren emakumeentzako erreparazio integrala bermatzen duen genero-politkarik.

6. Amaierako hausnarketak

CEHk aurrekari historikoa ezarri zuen Guatemalako gerran genozidioa gertatu zela ondorioztatu zuenean. Horretan, maia herriak desagertzeko saiakerak emakumeen aurkako indarkeria hainbat formatan ematea ahalbidetu zuen: exekuzio arbitrarioak, desagertze behartuak, torturak, sexu-bortxaketa, bortxazko haurdunaldiak, lekualdatze behartuak, askatasun-gabetzea, ondasunak suntsitzea edo kentzea, etab.

Gerra eremu ideologiko eta materiala izan zen, non arrazakeria ankerkeria eta zigorgabetasun osoz agertu zen emakume indigenen kontra. Testuinguru horretan, genealogia kolonialistak bat egin zuen ideologia militar gaizkiagotuarekin, eta, horri esker, basakeria ekintzak egin zituzten emakume maien aurka, hauek hierarkia sozialen kateko azken katebegizat hartzen baitzituzten. Arrazakeriarekin batera, indarkeria erabat patriarkala den instituzionaltasun baten markoan eman zen. Estatua, Armadaren, poliziaren eta egitura paramilitarren bidez (PAC, mandatari militarrek eta heriotzaren eskudroiak), emakumeen aurkako indarkeriaren egile nagusi bilakatu zen.

CEHren txostena, oso zabala izan arren, ez du jasotzen gerran gertatutako emakumeen giza eskubideen urraketari buruzko egia osoa. Gatazka armatuan gertatutako emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinen azpi-erregistroari egindako kritika feminista gero eta handiagoa izan da azken hamarkadetan³⁴. Izan ere, CEHren txostenean jasotako datu kuantitatiboek ezin dute gertatutako guztia islatu, are gutxiago sexu-bortxaketari dagokionez, 1.465 kasu baino ezin izan baitziren erregistratu. Batzordeak berak txostenean argi eta garbi adierazten du emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren eta giza eskubideen beste urraketa batzuen azpi-erregistro bat dagoela.

Trantsizioko justizia-prozesuen azterketan ikuspegi feministak eman ditzakeen emaitzak gaur egun ulertzeak eragina du Guatemalako gatazka armatua argitzeko tresna izan zen Batzordeari buruzko atzera begirako

34 Ikus: Mendia Azkue (2012).

irakurketan. Hortaz, hein batean behintzat, CEHren ikerketan dauden hutsuneak edo genero-joerak ikerketa horren une historikoan koka daitezke, hori justifikazioa ez bada ere.

Hutsune eta joera horiekin ere, Batzordeak genero arabera bereizitako inpaktuei buruzko ekarpen garrantzitsuak egin ahal izan zituen. Gainera, argi utzi zuen bizitako gertaerak kontatzeko izan zuten ausardiagatik aintzat hartzen zituela biktimak, baita emakumeak subjektu politiko aktibotzat hartzen zituela ere. CEHk –aurretik gizarte zibilak eta hainbat emakume-erakundek egindako ikerketa-ahaleginei esker ere– emakumeen giza eskubideen urraketak dokumentatzeko lan baliotsua egin zuen. Zentzu horretan, bada, txostenak ematen duen genero-analisia aurrerapen garrantzitsua izan zen aurreko beste txosten batzuen aldean, adibidez, El Salvadorreko Egiaren Batzordeak urte gutxi lehenago egindakorekin alderatuta. Genero-ikuspegia kapitulu guztietan zeharkakoa ez bada ere, txostena, zalantzarik gabe, dokumentu historiko bat da. Izan ere, ofizialtasunetik indarkeriari buruzko egiak berretsi zituen, eta egia hauek ezin ziren geratu indarkeria pairatu zuten horien artean bakarrik. Bereziki, sexu-indarkeria matxinoen aurkako estrategiaren gerra-arma gisa seinalatzen lagundu zuen Batzordearen lanak eta, azterketa kualitatiboko lan merezigarri baten bidez, jokabide-ereduen, erantzukizunen eta eragin indibidual eta kolektiboen berri eman zuen.

Bi hamarkada baino gehiago igaro dira Guatemalan CEHren txostena argitaratu zenetik, eta gizarte zibilak, orduz geroztik, gatazka armatuan egindako gerra krimenengatik, gizateriaren aurkako krimenengatik eta genozidioengatik justizia exijitzeko ekimenak bultzatu ditu. Giza eskubideen aldeko mugimenduak, mugimendu indigenak eta emakumeen mugimenduak sustatutako prozesuak dira horiek, herrialdean nagusi den zigorgabetasunaren logika apurtzen saiatzen direnak.

Emakumeen mugimenduek eta mugimendu feministak Batzordearen txostenean erregistratutako emakumeen giza eskubideen urraketak aipatzen dituzte, gertatutakoaren oinarri gisa. Herrialdeko hiri- eta landa-eremuko emakume-erakunde askok egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko egin duten lanari begira, txostena funtsezkoa da salaketa-tresna bezala; batez ere sexu-indarkeria egitateei dagokienez, hauek zigorrik gabe jarraitzen baitute.

Zailtasunak gorabehera, hainbat erakunde feministak eta giza eskubideen aldekoak egindako auzi estrategikoari esker, azken urteotan aurrerapen nabarmenak lortu dira gerran egindako sexu delituen judizializazioan; Rios Montt eta Sepur Zarco kasuetan, adibidez. Lehenengo kasuan, borroka-

ibilbide bihurri baten ondoren, 2018an Guatemalako auzitegi batek bigarren aldiz berretsi zuen (lehenengoa 2013an izan zen) gerran Ixil herriaren aurkako genozidioa egon zela. Epaiak adierazi zuenez, Guatemalako estatuak, Armadaren bitartez, Ixil herriaren % 33 sarraskitu zuen sufrimendu-modu basatiak erabiliz. Modu horien artean emakumeen aurkako indarkeria aipatzen zuen. Bigarren kasuan, 2016an auzitegi nazional batek militar ohi bat eta mandatari militar ohi bat kondenatzea lortu zen Zepur Zarco komunitateko emakume maien esklabotza sexualagatik. Bertan Armadak destakamendu bat izan zuen 1982 eta 1988 artean.

Bibliografia

- Asturias Valenzuela, Sandino (2012): “Peritaje de estrategia militar”, in: Mendia Azkue, Irantzu eta Gloria Guzmán Orellana (argtz.): *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado* en Guatemala, Hegoa Institutua eta UNAMG, Bilbo eta Guatemalako hiria, 55-75. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/279>.
- Casaús Arzú, Marta Elena (2000): “La metamorfosis del racismo en la élite del poder en Guatemala”, *Nueva Antropología*, XVII. liburukia, 58. zkia., 27-72.
- Chirix García, Emma Delfina (2019): *Estudio sobre racismo, discriminación y brechas de desigualdad en Guatemala*, CEPAL, Mexico.
- Emakumearen Bulego Nazionala (1997): *Las obligaciones legislativas a favor de las mujeres derivadas de los Acuerdos de Paz*, Lan eta Gizarte Aurreikuspen Ministerioa, Guatemala.
- Historia Argitzeko Batzordea (CEH) (1999): *Guatemala, memoria del silencio*. Nazio Batuen Erakundeko Proiektuentzako Zerbitu Bulegoa UNOPS, Guatemala. <http://www.centrodememoriahistorica.gov.co/descargas/guatemala-la-memoria-silencio/guatemala-memoria-del-silencio.pdf>.
- Impunity Watch (2014): *Reparaciones con perspectiva de género, una apuesta para contribuir al cambio de las estructuras y discriminación en Guatemala*.
- Lux, Otilia (2019): “Vivimos una Guatemala llena de mucho dolor”, *Prensa Comunitaria*, Elkarrizketa, Guatemala. <https://www.youtube.com/watch?v=27PkQ1ZTcWI>.

- Martín Beristain, Carlos (2000): *Metodología de investigación del REMHI*, Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoa, Guatemala. <http://www.remhi.org.gt/portal/metodologia-de-investigacion>.
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): “Trantsiziozko Justizia: Dilemak eta kritika feminista”, *Hegoa Lan-koadernoak*, 59. zkia. http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/237/Lan_Koaderno_59.pdf?1488539793.
- Mersky, Marcie (2015): “No es posible pedir la amnistía a cambio de la verdad”, *Plaza Pública*, Oswaldo J. Hernándezek egindako elkarrizketa, Guatemala. <https://www.plazapublica.com.gt/content/no-es-posible-pedir-amnistia-cambio-de-la-verdad>.
- Palencia Prado, Tania (2017): *CERO PUNTO CERO. Estado de los derechos de los pueblos indígenas en Guatemala a 20 años de la firma de la Paz*, Guatemala.
- ODHAG (1998): *Guatemala, nunca más*, Memoria Historikoa Berreskuratzeko Diozesi arteko proiektua (REMHI), Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoa, Guatemala.
- Tz’ununija’ (2019): *Diagnóstico sobre formas contemporáneas del racismo en Guatemala. Un breve esbozo sobre el racismo en Centroamérica y en México*. Emakume Indigenen Mugimendua, Guatemala.

Eranskina

Historia Argitzeko Batzordeak erabiltzen duen giza eskubideen urraketen eta indarkeria-egitateen tipologia

Zehaztutako kategoriak:

1. Heriotza eragiten duten giza eskubideen urraketak eta indarkeria-egitateak
 - 1.1. Exekuzio arbitrarioak
 - 1.2. Sarraskiak
 - 1.3. Lekualdatze behartuaren ondoriozko heriotza
 - 1.4. Liskarretan hildako zibila
 - 1.5. Bereizi gabeko erasoan hildako zibila
 - 1.6. Minen erabileragatik hildako zibila
 - 1.7. Giza ezkutu izateagatik hildakoa

2. Lesio larriak eragiten dituzten giza eskubideen urraketak eta indarkeria-egitateak
 - 2.1. Atentatua zauritua
 - 2.2. Lekualdatze behartuaren ondorioz zauritua
 - 2.3. Liskarretan zauritutako zibila
 - 2.4. Bereizi gabeko erasoan zauritutako zibila
 - 2.5. Minen erabileragatik zauritutako zibila
 - 2.6. Giza ezkutu izateagatik zauritua
3. Desagertzea
 - 3.1. Desagertze behartua
 - 3.2. Arrazoi ezezagunengatik desagertzea
4. Torturak, tratu krudel, anker eta apalesgarriak
5. Sexu-bortxaketa
6. Bahiketa
7. Beste batzuk
 - 7.1. Mehatxua
 - 7.2. Milpa erretzea
 - 7.3. Askatasun-gabetzea
 - 7.4. Errekrutatze behartua
 - 7.5. Hildako borrokalariak



III. Kapitula

**“Emakumeen egia entzun egin behar da”.
Erronkak eta arrakastak Peruko Egiaren
eta Adiskidetzearen Batzordean genero-
ikuspegia txertatzeko prozesuan**

III. Kapituluia

“Emakumeen egia entzun egin behar da”¹. Erronkak eta arrakastak Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan

Julie Guillerot

1. Sarrera

Louis Joinet adituak “Inpunitatearen aurka borrokatu bitartez giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio-multzo”² dokumentua egin zuen. Horretan, egiarako eskubide ukazina eta jakiteko eskubidea (1. eta 3. printzipioak) aldarrikatzen ditu³. Eskubide horien aurrean, Estatuari dagokio gogoratzeko betebeharra (2. printzipioa)⁴. *Egiarako eta jakiteko eskubideak* eta *gogoratzeko betebeharra* gorpuzteko, Joinetek honako hau proposatzen du: “epaiz kanpoko ikerketa-batzordeak ahalik eta lasterren sortzea”. Larderiazko erregimenetatik eta gatazka armatuetatik sortzen diren estatuen praktikak, bada, proposamen hori indartu du⁵, horri itxura polifazetiko eta multidimentsional bat emanez: batzorde berri bakoitza aurrekoen desberdina da; izan ere, batzorde bakoitza berezko dinamika eta testuinguru -historiko, politiko, soziokultural- batetik sortzen da.

1 Aipamena Egiaren eta Adiskidetzearen batzordeak bere komunikazio-kanpainan erabilitako lelo batetik dator.

2 E/CN.4/Sub.2/1997/20/Rev.1, 1997ko urriaren 2koa.

3 *Egiarako eskubidearen eta jakiteko eskubidearen* arteko aldea honako hau da: lehenengoa “biktima guztiek edo haien senideek zer gertatu zen jakiteko duten eskubide indibidualari” dagokio; bigarrena, berriz, Historian sustraiak hondoratzen dituen eskubide kolektiboari, etorkizunean [giza eskubideen] urraketak errepika ez daitezen”.

4 *Gogoratzeko betebeharra* “oroimen kolektiboa ahanzturatik babestea da, besteak beste, tesi errebisionista eta ukatzailerik sor ez dadin”.

5 Amerikako Estaturen Erakundearen (AEE) Batzar Nagusiaren eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluarenaes azken ebazpenek –AG/RES. 2509 (XXXIX-O/09) eta A/HRC/12/L.27, hurrenez hurren– epaiz kanpoko edo *ad-hoc* mekanismo nazionalak eratzea babesten dute, hala nola egiaren batzordeak.

Giza eskubideen urraketa masibo eta/edo sistematikoak gainditu nahian, gizarteek gero eta arreta handiagoa eskaintzen diote biktimei, egiaren batzordeen mekanismoaren bitartez. Hala ere, biktimen artean, emakumeak ahaztuak izan dira duela gutxira arte. Izan ere, egiaren lehen batzordeek, esate baterako, Argentinako Pertsonen Desagertzeari buruzko Batzorde Nazionalak edo Chileko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzorde Nazionalak ez dituzte emakumeak edo generoaren arabera sexu-indarkeria espezifikoki aipatzen. Hegoafrikako eta Guatemalako batzordeak, aldiz, desberdinak dira zentzu horretan; izan ere, horiek, beren mandatueta horri buruzko erreferentzia espliziturik ez zuten arren, genero-indarkeria ahal izan zuten neurrian bistaratu zuten. Joera hori, bada, indarra hartuz joan da eta ondorengo batzordeen mandatueta, esate baterako, Sierra Leonakoan edo Ekialdeko Timorrekoan, nolabait, genero-ekitateari buruzko erreferentziak sartu dituzte, dimentsio horretan arreta jartzera behartuz.

Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (aurrerantzean, EAB) egiaren batzordeen bigarren belaunaldikoa da. Hura, bada, oso hezigarria izan zen; izan ere, bere oldez, hau da, bere mandatuan agertu ez arren, genero-ikuspegia sartu zuen eta horren ondorioz sortutako zailtasunei aurre egin behar izan zien. Kapitulu honetan esperientzia hori aztertuko dugu⁶, horren lanak eta amaierako txostenak garrantzitsuak izan baitira herrialdeko emakumeen historian. Izan ere, lehenbiziko aldiz, ofizialki onartu zen indarkeria politikoak gizonengan eta emakumeengan eragin desberdina izan zuela eta emakumeek pairatutako giza eskubideen urraketa espezifikoko nabarmendu ziren. Hemen, bada, EABren prozesuaren benetako aurkikuntzak aurkeztu eta aztertuko ditugu, antolaketa zein emaitzei dagokienez. Gure helburua, izan ere, horietatik ikastea eta egiaren batzorde prozesu berriei ekarpena egitea da.

2. Testuingurua

Peruk 1980 eta 2000 artean izandako gatazka armatua errepublikaren historian izandako odoltsuena eta luzeena izan zen eta, EABren arabera, 69.280 hildako utzi zituen. *Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen Amaierako Txostenaren* (aurrerantzean EABAT) esanetan, gatazkak testuinguru jakin

6 EAB giza eskubideen aldeko erakundeen eta biktimen erakundeen eraginaren ondorioz hasitako prozesu zabalago baten zati da, oraindik ezartzeko prozesuan dagoena. Hala, urteetan zehar egindako lan isila da, batez ere informazioa biltzekoa, eta EABren bidez Estatutik zabaltzeko baldintza politikoak eman zirenean, aukera eman zuen egia ezagutzeko prozesua elikatzeko.

bat izan zuen, non XX. mendearen bigarren erditik aurrera Peruko estatuak ekonomian, gizartean eta politikan izandako hedapen arinak ez zituen ekarri azpiegitura eta zerbitzu gehiago gune marjinaletan, esate baterako, Andeetako landa-eremuan. Izan ere, landa-eremu horren eta estatuaren arteko harremana derrigorrezko soldadutzara edo lehen hezkuntzara mugatzen da. Aplikatutako politika ekonomikoek, bada, aberatsen eta pobreen arteko aldea areagotu zuten, pobreen kopurua handituz, batez ere aipatutako Andeetako landa-eremu horietan. Horrez gain, herrialdearen ezaugarri esanguratsu hau dugu: integrazio nazional ahula eta aniztasun etnikoaren balioespen falta. Hori hainbat alderditan sumatzen da, esate baterako, mendebaldeko kultura-ereduaren inposaketan edo landa-eremuko indigenak marjinezeko joeran. Azkenik, hazkunde ekonomikoak ez zuen biztanleak lan-merkatu formalean sartzea ziurtatu eta, beraz, “aurrerapenaren mitoa” agerian utzi zuen (IFCVR, 2003, I. liburukia: 73).

Testuinguru horretan, gatazka piztearen berehalako eta funtsezko arrazoia Partido Comunista de Perú-Sendero Luminoso (PCP-SL) alderdi komunistak Peruko estatuaren aurka gerra hasteko hartu zuen erabakia izan zen (*ibid.*). Latinoamerikako beste barne-gatazka batzuetan ez bezala, SL hilketa eta suntsipen selektiboen nahiz sarraski eta suntsiketen egile nagusia da, batez ere herrialdeko zonalde pobreenetako komunitate eta herri nekazariena (EAB, 2004: 436). SLren indarkeria areagotu egin zen 1984an Tupac Amaru Mugimendu Iraultzailea (MRTA) gatazkan sartu zenean. Azken honek, hilketa selektiboak eta bahiketak ere egin zituen, baina SLk baino neurri txikiago batean.

Estatuaren botereek eta aparatuek ez zuten marko demokratikoen barruan estrategia integral bat aplikatu talde matxinoen indarkeriari aurre egiteko. Hala, gobernu desberdinek beren eskumenak utzi eta, pixkanaka-pixkanaka, matxinoen aurkako borrokaren zuzendaritza Indar Armaturen eskuetan utzi zituzten (IFCVR, 2003, I. liburukia: 71). Terrorismoaren aurkako marko legala inpunitatea sustatzen zuen eta, hala, Indar Armatuek hainbat estrategia aplikatu zituzten gatazkan, errepresio masibotik errepresio selektibora igaroz, eta giza eskubideen urraketa ugari egin zituzten. Urraketa horiek sistematikoak eta orokorrak izan ziren zenbait leku eta momentutan eta ez zuten inoiz behar bezalako erantzun judiziala izan (*ibid.*: 442).

Indarkeria politikoaren beharakada nabarmena gertatu zen SLko eta MRTAko buruen atxilotetarekin batera, baita Alberto Fujimoriaren erregimenaren autoritarismo politikoaren hasierarekin batera ere, 1992an. Fujimoriaren erregimenean, bada, gertatutakoaren bertsio ofizial bat sortu zen

eta honek ustez “terrorismoari irabazi” izanak politikoki profitatu nahi izan zuen. Hala, aparatu normatibo berri bat sortu zen, defentsa-sistema nazionala, inteligentzia-zerbitzu nazionala eta egoera militarri buruzko legea aldatu zituen. Aparatu honek, gainera, prozesuaren bermeak urratzen zituzten prozedurak eta zigorrak ere sartu zituen, zigorgabetasuna bermatuz (*ibid.*: 446).

Alberto Fujimoriren diktadura ustela porrot egindakoan (2000) eta Valentin Paniaguraren gobernu hastearekin batera, demokraziarako trantsizio-prozesu bat abiatu zen. Honek iraganeko abusuen kontzientzia nazional berri bat sortzeko eta giza eskubideak errespetatuko zituen marko politiko-normatibo bat finkatzeko aukera ekarri zuen. Testuinguru horretan sortu zen, hain zuzen ere, egiaren batzordea.

Trantsizio-gobernu indarrean zegoelarik, beraz, Egiaren Batzordea sortu zen, 2001ean, ekainaren 4ko 065-2001-PCM Dekretu Gorenaren bitartez. Gero, Alberto Toledo errepublikako presidente berriak hura berretsi zuen, abuztuaren 31ko 101-2001-PCM Dekretu Gorenaren bitartez. Toledok, gainera, Egiaren eta *Adiskidetzearen* Batzordea (EAB) izena eman zion eta batzordekide kopurua handitu zuen, zazpitik hamabira. Horietatik bi emakumeak ziren, baina ezin da ziurtatu hori batzordea paritarioago egiteko ahalegin bat izan zenik. Emakume horietako lehena Beatriz Alva Hart abokatu laboralista eta Alberto Fujimoriren gobernuko ministrorde ohia izan zen; bestea, batzordea handitzean izendatua, Sofia Macher Batanero soziologoa izan zen. Batanerok lan-ibilbide ezaguna du giza eskubideen arloan eta Giza Eskubideen Koordinakunde Nazionaleko (CNDDHH) Idazkari Exekutibo ohia da.

EABren mandatua honako hau zen: “erakunde terroristei eta Estatuari leporatutako indarkeria terroristaren eta 1980ko maiatza eta 2000ko azaroa arteko giza eskubideen urraketan prozesua, gertakariak eta erantzukizunak argitzea eta Peruko bitanleen artean bakea eta adiskidetasuna sendotzeko ekimenak proposatzea”. Gainera, EABk “adiskidetze nazionala, justiziaren inperioa eta erregimen demokratiko konstituzionala indartzeko” joera izango zuela aurreikusten zen⁷. EABk, bere lanaren emaitza gisa, *Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen Amaierako Txostena* eman zuen 2003ko abuztuan. Bederatzi liburukiz osatutako txosten honek Peruko barne gatazka armatuaren kausak eta ondorioak aztertzen ditu eta horretan gertatutako giza eskubideen urraketa larrien garrantzia agerian uzten du. Gainera, hainbat gomendio egiten dizkio Peruko estatuari horrelakorik berriro gerta ez dadin.

7 2001eko ekainaren 4ko 065-2001-PCM Dekretu Gorenaren 1. artikulua.

3. Genero-azterketa

EAB sortu eta bere mandatua ezarri zuen 2001eko ekaineko 065-2001-PCM Dekretu Gorenak adierazi zuen bezala, batzordearen argitze-lana honako hauei zegokien: “hilketak eta bahiketak; desagertze behartuak; torturak eta beste lesio larri batzuk; Andeetako komunitateen eta komunitate natiboen eskubide kolektiboen urraketak; eta pertsonen eskubideen aurkako beste krimen eta urraketa larri batzuk”. Mandatuak ez zituen berariaz aipatzen genero-indarkeriarekin edo sexu-indarkeriarekin lotutako bortxaketak. Era berean, ez zuen zehazten arreta berezia eskaini behar zitzaizaien genero-harremanei eta indarkeriak harreman horietan dituen ondorioei. Hala ere, dekretuaren huts hori ez zen erabakigarria gertatu; izan ere, EABk gatazka armatuan izandako sexu- eta genero-indarkeriaz jabetu zen eta indarkeria jori bistaratzen saiatu zen. Hala, Salomon Lerner Batzordeko presidentek, EABATaren aurkezpenean egindako diskurtso historikoan, emakumeen aurkako sexu-indarkeria giza eskubideen urraketan patroietako bat zela aipatu zuen⁸.

3.1. Generoa Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordean sartzearen faktoreak

EABren lanean generoa sartzea erraztu zuen kanpo-faktore nagusia honi lotuta egon zen: Batzordea sortu zenean nazioarteko erkidegoa lan handia egiten ari zen generoa nazioarteko agenda publikoetan instituzionalizatzeko.

Giza Eskubideen Bigarren Mundu Konferentzia Vienan ospatu zen 1993an. Horretan, esplizituki aitortu zuten “emakumeen eta neskatoen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen zati besterenezin, integratzaile eta bereizezina” direla, eta “nazioko, eskualdeko eta nazioarteko planoetan

8 “Perutarrok hau esateagatik lotsatuta sentitzen gara, baina egia da eta ezagutzera emateko betebeharra dugu. Hainbat urtez, ordenaren indarrek ahaztu egin zuten ordena horren helburu gorena pertsona zela, eta perutarren eskubideak masiboki urratzeko estrategia hartu zuten, bizitzeko eskubidea barne. Epaiz kanpoko exekuzioak, desagertzeak, torturak, sarraskiak, emakumeen aurkako sexu-indarkeria eta era berean gaitzesgarriak diren beste delitu batzuk, behin eta berriz gertatzen diren eta hedapen handia duten heinean, giza eskubideen urraketan eredu dira eta Peruko Estatuak eta bere agenteek horiek zuzendu behar dituzte”. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen Azken txostena aurkezteko hitzaldia, Liman, 2003ko abuztuaren 28an, ikus: http://www.cverdad.org.pe/informacion/discursos/en_ceremonias05.php.

emakumeek bizitza politikoan, zibilean, ekonomikoan, sozialean eta kulturean berdintasunez parte hartzea eta sexuan oinarritutako diskriminazio mota guztiak desagerraraztea nazioarteko erkidegoaren helburu nagusiak” direla (Nazio Batuak, 1993: 18. paragrafoa). Halaber, Konferentziak honako hau azpimarratu zuen: “Itunen arabera sortutako zaintza-organismoek emakumearen izaeraren eta emakumearen giza eskubideen gaia txertatu behar dute eztabaidetan eta ondorioetan, sexuaren arabera banakatutako datu zehatzak erabiliz” (*ibid.*: 42. paragrafoa).

Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunak garrantzia hartu zuen 1995ean Beijingen egindako Nazio Batuen Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian onartutako Ekintzarako Adierazpen eta Plataforman genero-berdintasuna sustatzeko estrategia global gisa. Bertan, paragrafo berezi bat sartu zuten gatazka armatuetan emakumeek bizi duten egoerari buruzkoa. Horren arabera, emakumeak “gizartean duten egoeratik eta beren sexuagatik kaltetuak dira” eta “gatazketako alderdiek askotan zigorgabetasunez bortxatzen dituzte emakumeak, batzuetan bortxaketa sistematikoa gerra- eta terrorismo-taktika gisa erabiliz”. Era berean, gatazka armatuetan gutxiengoetako eta herri indigenetako emakumeak sexu-krimenen aurrean bereziki kalteberak direla nabarmendu zuten (Nazio Batuen Erakundea, 1995).

Nazioarteko Zigor Zuzenbidean, funtsezkoa izan zen 1993an Yugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegia (ICTY ingelesezko siglen arabera) eta 1994an Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (ICTR ingelesezko siglen arabera) ezartzea. Funtsezkoa da, halaber, 1998an ezarritako Nazioarteko Zigor Auzitegia (ICC, ingelesezko siglen arabera), zeinaren estatutuek sexu-indarkeriako krimenen tipifikazioa finkatu zuten⁹.

Amerika arteko sistemaren testuinguruan, Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) organo politiko nagusia den Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrari emakumeak beren jardueretan aintzat hartzen hasteko eskatu zion eta, hala, genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatu zuen¹⁰. 1994an, beste pauso bat eman zen, Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Amerikako Konbentzioa (Belem do Paráko Konbentzioa) onartu zenean. Konbentzio horren arabera, estatuek, luzamendurik gabe, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzera,

9 Ikus ICTY, ICTR eta ICCren estatutuak, baita ICTYren Tadic, Cebelici eta FOCA eta ICTRren Acayesu epaiak ere.

10 AG/RES 1112 (XXI-0-91).

zehaztera eta desagerraraztera bideratutako politikak onartu behar dituzte¹¹, baita indarkeria-ekintzak ikertu eta zehaztu ere.

Ikus dezakegunez, 1990eko hamarkada osoan, generoaren gaiak garrantzi handia izan zuen eta nazioarteko eta eskualdeko komunitatearen hainbat instantziatan eragina izan zuen. Horrek, bada, esparru arauemaile nazionaletan genero hori aintzat hartzeko moduko egoera ekarri zuen¹².

Barne faktore bezala, funtsezkoa izan zen generoaren arloan espezializatutako eta sentsibilizatutako pertsonen eragina (intelektualak, akademikoak, profesionalak, ekintzaileak), hauek generoa instituzionalizatzen eta zeharkako bihurtzen lagundu baitzuten. Peruren kasuan, Egiaren Batzordea sortu zuen Dekretu Gorena ofizialki argitaratu eta egun gutxira, Julissa Mantilla akademiko feministak iritzi-artikulu bat argitaratu zuen herrialdeko egunkari nagusietako batean, dekretuak emakumeei eta haien aurkako indarkeriari buruzko aipamenik egiten ez zuela salatuz. Artikulu horrek hausnarketa bat eragin zuen Batzordearen barruan eta kanpoan; alde batetik, Sofia Macher batzordekidearengan oihartzuna izan zuen, hura batzordearen barruan generoaren dimentsioa sartzearen defendatzaile eta sustatzaile bihurtu zelarik, eta, bestetik, giza eskubideen mugimenduan eta mugimendu feministan hausnarketa-ekintza prozesu bat sortu zuen.

11 Konbentzioak jasotzen du emakumearen aurkako indarkeria honako hau dela: “bere generoan oinarritutako edozein ekintza edo jokabide, emakumeari heriotza, kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten diona, bai esparru publikoan bai pribatuan”. Konbentzio hau berrestean nazioartean dituzten betebeharrak betetzeko, estatuek ez dute emakumearen aurkako indarkeriarik erabili behar; emakumearen aurkako indarkeria prebenitu, ikertu eta zehatzeko jardun behar dute; eta beren barne-legerian horretarako beharrezkoak diren arauak sartu behar dituzte.

12 1997an, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak honela definitu zuen genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna (gender mainstreaming): “Planifikatutako edozein ekintzak (legeria, politikak eta programak barne) arlo guztietan eta maila guztietan emakumeentzat eta gizonentzat dituen inplikazioak ebaluatzeko prozesua da. Honako helburua duena estrategia bat da: arlo politiko, ekonomiko eta sozial guztietan emakumeen eta gizonen kezak eta esperientziak politika eta programen diseinuaren, inplementazioaren, ikuskapenaren eta ebaluazioaren dimentsio integral gisa sartzea, emakumeek eta gizonen onura bera izan dezaten eta desberdintasuna betikotu ez dadin. Helburu nagusia genero-berdintasuna lortzea da” (ECOSOC, 1997).

Horrela, 2002ko maiatzean, Batzordekideen Akordioaren bidez zera adierazten dute: “[oso garrantzitsua denez] egia eta adiskidetzea bilatzeko lanean genero-ikuspegia txertatzea, [EABk] bere funtzionarioei alderdi hori eguneroko lanean kontuan izateaz arduratzeko eskatzen die”. Horretarako, Batzordeak arreta bereziz bete beharreko estrategia orokor batzuk iradoki zituen (EAB, 2002a):

1. Gogoan izatea gizonak eta emakumeak indarkeria bizitzeko izan zuten eta duten modu desberdina.
2. Geure buruari honako hau galdetzea: gure ondorioak eta irismenak orokortu daitezke ala beharrezkoa da horiek desberdintzea tartean dauden pertsonak gizonak edo emakumeak diren arabera?
3. Genero-rol tradizionalak daudela onartzea (emakumea: ama, emaztea/gizona: aita, etxeko burua), gure ikerketaren orientazioa aurrez zehaztu behar ez dutenak baina lanean zehar identifikatuak eta aitortuak izan beharko direnak.
4. Estatistika-lanaren kasuan, etengabe bereizi behar dira lortutako emaitzak, sexuaren arabera.
5. Emakumeen hitzari tradizionalki entzungor egin izan zaiola onartzea.
6. Emakumeen hitza eta haien giza eskubideen urraketa espezifikoa bistartzeko beharrezkoak diren mekanismoak garatzea (entzunaldi publikoak, prentsa-oharrak, hedapenerako materiala, etab.).

Hala, bere mandatuan agertzen ez bazen ere, EAB genero-ikuspegitik heldu zion indarkeria politikoari eta hori aurrekari garrantzitsua izan zen etorkizuneko batzordeetarako. Hala adierazi zuen Diane Orentlicher adituak Nazio Batuen Erakundearentzat egindako txostenean: “Jardunbiderik onenak estatuei beren gaitasun nazionala indartzen laguntzeko, zigorgabetasunaren alderdi guztiei aurre egite aldera”¹³.

13 E/CN.4/2004/88, 2004ko otsailaren 27koa.

3.2. Genero-dimentsioa Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen lanean

3.2.1. Organigrama, taldeak eta gaikuntza

EABren organigraman sektore akademikotik eta erakunde feministetatik etorritako emakumeek osatutako Genero Unitate Berezia eratu zuten. Julissa Mantilla Unitatearen buruak bere gain hartu zituen generoko azterketari lotutako jardueren ardura operatibo gehienak. Unitate horri aurrekontu-atal bat esleitu zitzaion, baita kokapen independente bat ere EABren organigraman. Gainera, “EABren eskualde-egoitza bakoitzak eta egoitza nagusiaren eremu guztiek pertsona bana aukeratzea xedatu zen; horiek -artekariak- erakundearen lanean genero-ikuspegia txertatzen lagunduko zuten, Limako genero-ildoaren koordinaziopean” (Mantilla, 2006: 351).

Unitate horrek, bada, erronka handiak izan zituen, hala nola, hauek: (1) mandatu neutroa generoari dagokionez eta, horrekin batera, EABren baitan, oro har, genero-ikuspegia hartzearen garrantziari eta inplikazioei buruzko kontzientziarik ez zegoela, hortaz, “azkenean, hura lan-karga gehigarri gisa ikusten da, berez nahiko gogorra dena, eta/edo inposizio eta eskakizun gisa, lan-tresna gisa baino gehiago” (*ibid.*); (2) indarkeriak kaltetutako emakumeen isiltasuna, hauek ez baitute beren historia kontatzen ezta beren giza eskubideen aurkako erasoak halakotzat hartzen (Guillerot, 2006); eta (3) lan-tresnak –batez ere datu-basea–, genero-aldagaia EABren ikerketetan sartzeko erabakia hartu aurretik diseinatuak izan ziren eta ez zuten zertan gizonen eta emakumeen historia eta ikuspegi desberdinak berreskuratzeko aukera ematen.

Erronka horiek gainditzeko, “lehen alderdietako bat elkarriketak egiteko eskuliburuan parte hartzea izan zen. Hala, elkarriketazaileak gaitzeko atal berezi bat sartu ahal izan zen. Horren helburua elkarriketazaileek sexu-indarkeriako kasuen ikerketa beren gain hartzea zen, seriotasunez eta gertaera horien biktima batentzat testigantza ematera zaila zela jakinda” (*ibid.*: 355). Lekukotzak jasotzeko eginkizuna zuten taldeak mistoak ziren eta Genero Unitate Bereziaren aldetik trebakuntza berezia jaso zuten. Trebakuntza hura emakumeen historiaren inguruan zegoen isiltasuna onartzea eskatzen zuen, batez ere sexu-indarkeria kasuetan, eta konfiantzazko eta entzute aktiboko giroa sortu nahi zuen. Horretarako, bada, arreta berezia eskaintzen zien erabili beharreko hitzei eta gorputz-adierazpenei.

Halaber, trebakuntza-tailerretan gomendatu zuten EABra hurbiltzen ziren emakumeen testigantzak jasotzeko ardura emakumeei ematea. Beharrezkoa

izan zen, gainera, “elkarrizketako galderen artean sexu-indarkeriako gertaerak zehazten lagunduko zuten zenbait galdera sartzea eta horiek EABra hurbiltzen ziren lagun guztiei egin behar zizkieten. Hala, oro har lekukotasuna ematen zuen pertsoneri beren komunitatean sexu-indarkeria kasuak ezagutzen zituzten galdetu behar zieten. Erantzuna baiezkoa izatekotan, elkarrizketan sakondu behar zuten kasu espezifikoren bat zehazten saiatzeko, biktimaren, erasotzailearen, tokiaren, dataren eta abarren identitateari buruzko ahalik eta informazio gehien jasoz” (*ibid.*: 356). Trebakuntza-tailerrak EABren eskualde-egoitza guztietan egin zituzten.

Barne-mailan, Genero Unitate Bereziak EABren esparruetako lan-bileretan parte hartu zuen genero-lana sendotzeko, aurkezpenak eginez eta lanerako materialak eskainiz. Halaber, posta elektronikoko bidezko barne-buletin bat egin zuten eta, horren bitartez, hainbat informazio-dokumentu eskaini zituzten Batzordearen arlo guztiei genero-ikuspegiaren garrantziaz jabetzen eta hura zabaltzen laguntzeko.

3.2.2. Zabalkundea eta komunikazioa

Kanpo-mailan, 2002ko martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna baliatuz, EABren garrantzizko lehen ekintza “Isiltasuna hautsiz” mintegia antolatzea izan zen. Horren bitartez, EABk bere ikerketa genero-ikuspegitik egiteko hartu zuen konpromisoa ofizialdu zuen. Gizarte zibileko hainbat erakunderen eta ordezkariaren elkarlanari esker, lekualdatutako emakumeen, kartzelan zeuden emakumeen eta desagertutako pertsonen amen errealitateen inguruko hausnarketa egin zuten.

Aldi berean EABk emakumeei zuzendutako komunikazio-kanpaina burutu zuen. Honen helburua emakume haiek EABren aurrean lekukotza ematera animatzea zen, familiako gizonei gertatutakoaz ez ezik, beren buruari gertatutakoaz ere hitz egin zezaten. Izan ere, giza eskubideen urraketak eta batez ere sexu-indarkeria pairatu dituzten emakumeen kasuan, beren burua biktimatzat hartzeko zailtasunaren arazoa agertzen da. Emakume askok ez dituzte krimen horiek giza eskubideen urraketatzat hartzen, batez ere ez dutelako beren burua subjektu eta eskubide-objektu den kontzientzia¹⁴. Sexu-

14 Oro har, “Peruko herritartasun nozioa eratzeko prozesuan (...) eskubide indibidual eta politikoak itxuragabetuak dira edota herritar gehienek kezka eta eskaeretatik kanpo (...). Peruko herritarren artean badirudi ez dagoela ‘eskubidea izateko eskubidearen’ kontzientzia hedaturik (...)” (Barrig, 2002: 21). Hori areagotu egiten da emakumeen artean, eta, bereziki, emakume nekazarien artean, pobrezia-egoeran eta isolatuta baitaude kultura-, politika- eta gizarte-arloetan.

indarkeriaren kasuan, hain zuzen ere, isiltasuna da nagusi; ez bakarrik errudun sentitzeagatik edo estigmatizatua izateko beldurragatik edo komunitatean izan dezaketen ostrazismoagatik, baizik eta edozein erreklamazio alferrikakoa izango dela uste dutelako, justizia-sistemaren arbitrariotasuna, zigorgabetasuna, ustelkeria eta eraginkortasunik eza direla-eta (Guillerot, 2006). Azkenik, emakumeek berek, maite dituzten pertsonen galeraren edo desagerepenaren aurrean edo sexu-indarkeria giza eskubideen beste urraketa batzuen esparruan ematen delako, askotan garrantzia kentzen diote norberak bizi izandakoari eta beste batzuek bizi izandakoaren kontakizuna lehenesten dute. Hala, beren sufrimenduak alde batera uzten dituzte.

Aurrekoarekin batera, gatazka armatuetan zein bake-garaian emakumeen aurkako indarkeria-moduak antzekoak dira eta badirudi hori beste faktore garrantzitsu bat dela bai gizarteak oro har, bai Estatuko zenbait erakundek emakumeak biktimizatzen ez hartzeko. Horrek, bada, agerian uzten du kultura-eredu sexisten hedapena. Gerrak eredu horiek larriagotzen ditu: emakumeen gorputza “gizentasuna” eta gizonezkoen nagusitasuna erakusteko lurralde bihurtzen da eta indarkeria erabiltzen dutenek, askotan, gizartearen onarpenarekin ere, hori “normalizatu” egiten dute¹⁵. Peruko gizartean nagusi den sen komunaren arabera, bada, gatazkako sexu-indarkeria, emakumeen giza eskubideen urraketa baino gehiago, bigarren mailako garrantzia duen albo-kalte bat izan zen; izan ere ez zion bizitzeko eskubideari eragin eta sozialki ikusezinak diren emakumei eragin zien (Guillerot, 2006). Horregatik, EABk sexu-bortxaketa konpondu beharreko krimen gisa sartzeari oso urrats garrantzitsua da baina ez osoa, aurrerago ikusiko dugunez.

Oztopo horiek gainditzen saiatzeko EABk emakumei zuzendutako komunikazio kanpaina handia egin zuen. Kanpainak erabilitako tresnen artean irrati-spotak, artikuluak, panfletoak, komikiak, leloak, eta abar aurkitzen dira¹⁶. Hala, EABk eta giza eskubideen defentsarako erakunde eta erakunde feministen arteko aliantzak kanpaina hura zabaldu zuen, eta tresna garrantzitsua izan zen emakumeak gatazkaren lekukotza ematera eta beren bizipenak kontatzera animatzeko. “EABk jasotako 16.885

15 Horrek azalduko luke, neurri batean, justizia-administrazioan sexu-bortxaketagatik aurkeztutako salaketa gutzi batzuek lortutako emaitza txikiak. Ikus: Defensoria del Pueblo (2004).

16 Hona hemen lelo batzuk: “Emakume perutarra, zatoz zure testigantza ematera”, “Zure testigantzarik gabe, egia ez da osoa izango”, “Emakumeen egia entzun egin behar da”, “Emakumeen egia gabe, historia ez da osorik egongo”.

testigantzen % 54 emakumeek eman zituzten. (...) [EABk ondorioztatu duenez,] emakumeak gertatutakoari buruz hitz egiteko prestuago egon ziren eta hura kontatzeko, negar egiteko, beren mina adierazteko edo kexatzeko premia handiagoa sentitu zuten” (IFCVR, 2003, VIII. liburukia: 64 eta 65) baita beren egoera eta beharrak azaltzeko ere. Hala ere, ez dago beren historia zuzenean kontatu zuten emakumeen ehunekoari buruzko datu estatistikorik¹⁷. Alabaina, emakumei zuzendutako komunikazio kanpaina honen eragina neurtzeko dago oraindik.

Azkenik, eta kanpaina horrez harago Genero Unitateak zabalkunde-material guztietan kontu handia izateko eskatu zion EABri; adibidez, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko, ekitate-mezua transmititzen duten ilustrazioak erabiltzeko, edo sexu-indarkeria ikertu beharreko krimen eta bortxaketen zerrendan sartzeko eskatu zion (EAB, 2002b).

3.2.3. Entzunaldi publikoak

EABk zenbait entzunaldi publiko antolatu zituen. Horien helburuak honako hauek ziren: lehenik, biktimen duintasuna aintzat hartzea eta hari gorazarre egitea eta, bigarrenik, partekatutako informazioa hezkuntza-tresna gisa erabiltzea, adiskidetzeari buruzko kontzientzia sortzeko eta elkarrizketa nazionala sustatzeko helburuarekin.

Entzunaldi publikoetako bat emakumei buruzkoa izan zen soil-soilik: 2002ko irailaren 10ean, “Indarkeria politikoa eta emakumearen aurkako krimenak” gaiari buruzko entzunaldia ospatu zuen¹⁸. Horretan zortzi emakume biktimak pairatutako indarkeriari, horrek beren bizitzan izandako eraginari eta justiziaren eta erreparazioaren arloan zituzten itxaropenei buruzko testigantza publikoa eman zuten¹⁹. Lekukotasunekin batera, adituen aurkezpenak ere izan ziren eta horiek, bi paneletan, indarkeria politikoari eta haren eraginei buruz hausnartu eta gomendioak eman zituzten. Entzunaldiak zenbait emakume animatu zituen EABra jotzeko eta beren esperientzia kontatzeko eta, halaber,

17 Aurkitutako informazio bereizi bakarraren arabera, “EABri testigantza eman zioten emakumeen laurdena (% 24) desagertutako biktimaren baten zuzeneko senidea zen” (IFCVR, 2003, VII. liburukia: 64).

18 Ikus Programa hemen: http://www.everdad.org.pe/apublicas/audiencias/atematicas/at02_index.php.

19 Entzunaldi publikoak irekiak izan ziren eta telebistaz ere eman ziren.

beste emakume batzuk sentsibilizatu zituen. Biktima ez ziren emakume hauek beren elkartasuna adierazi zuten²⁰.

Entzunaldi publikoak antolatzearen elementu garrantzitsu bat izan zen EABk gizarte zibileko erakundeen aliantza izan zuela, komunikazio-kanpainan bezala. EABk, bada, aldez aurretik aitortu zuen erakunde horiek konfiantzazko harremanak ezarri zituztela biktimekin eta haien familiekin, eta, horregatik, egoera hobean zeudela kasuak identifikatzeko eta biktimen parte-hartzea sustatzeko. Hala, gizarte zibileko erakundeek, kasuak eta pertsonak proposatzeaz gain, hauen testigantzak prestatzen lagundu zuten, horiek argiak eta koherenteak izan zitezten. Gainera, entzunaldiaren aurretik, entzunaldian bertan eta horren ostean, testigantza eman zuten lagunei laguntza psikologikoa eta emozionala eman zieten. EABko taldeek, aldiz, entzunaldien alderdi logistikoez arduratu ziren.

3.2.4. Ikerketa eta kapitulu espezifikoak: egiaren generoa

EABn genero-dimentsioa sartzetik honako hau ekarri zuen berekin: EABk indarkeriak gizonengan eta emakumeengan izan zuen eragin desberdinari eta emakumeek jasan zituzten giza eskubideen urraketek buruzko ikerketa espezifikoak egitea (Guillerot, 2006). Hala, Batzordeak emakumeek diskriminazioa, desberdintasuna eta bazterketa pairatzen zituztela aitortu zuen eta, hortik abiatuz, emakumeen esperientziak sartu zituen ikerketa-lanean. Genero Unitate Bereziak EABATaren genero-dimentsioari buruzko kapitulu biak zuzendu eta idatzi zituen²¹, berriz ere gizarte zibileko eta akademiako zenbait aholkulariren laguntzaz. Hauek aurretiazko ikerketak entregatu zizkieten Batzordeari (Henríquez, 2003; Henríquez eta Mantilla, 2003; Ruiz-Bravo eta Velásquez, 2003a eta Ruiz-Bravo eta Velásquez, 2003b).

20 Era berean, entzunaldiek testigantza eman zuten pertsonengan izan zuten berehalako eragina eta esanahia aztertu zituen entzunaldien ondorengo ikerketa batek. Haien parte-hartzea, entzunak eta sinestunak sentitzea, urrats garrantzitsua izan zen beren irudia berreraikitze bidean, hainbat urteko ukapenaren ondoren. Alde horretatik, testigantza ematea duintasuna berreskuratzeko, birgaitzeko eta aldarrikatzeko prozesu baten parte izan zen. Gainera, entzunaldietan parte hartzea agintariek biktimen justizia- eta erreparazio-eskaerak ezagutzeko bitarteko gisa ikusi zen eta hori, bada, zigorrak eta/edo erreparazioak gauzatzeko lehen urrats bat izan zen (EAB, 2003b).

21 EABATak emakumeen aurkako sexu-indarkeriari buruzko azterlan bat du, bai eta giza eskubideen urraketek emakumeengan duten eragin espezifikoari buruzko azterlan bat ere.

Lehen aipatu bezala, EABri hasiera eman zion Dekretuak bere lana honako hauetan zentratzeko agindu zion: hilketak eta bahiketak, desagertze behartuak, torturak eta beste lesio larri batzuk, Andeatako eta jatorrizko komunitateen giza eskubideen urraketak eta pertsonen eskubideen aurkako krimenak eta urraketa larriak; betiere hauek erakunde terroristei, Estatuko agenteei edo talde paramilitarrei egoztekoak baziren²². Talde guztien lana homogeneizatzeko, EABk giza eskubideen urraketak adierazteko oinarrizko tipologia interpretatu eta garatu zuen. Horrek honako esparru juridiko hau izan zuen: gizakiaren eskubideen gune indargabezinaren aldibereko aplikazioa, nazioarteko zuzenbide orokorraren, giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren eta Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen aginduzko arauak ezarritakoa (Genevako Hitzarmenek eta II. Protokolo Gehigarriak partekatzen duten 3. artikulua). Izan ere, Peruk horiek sinatuta zituen (IFCVR, 2003, I. liburukia: 203-232). Hortik aurrera, EABk gizateriaren aurkako krimen gisa tipifikatu zituen jokabide batzuk, eta bederatzi egitate larri hauek jasotzen zituen zerrenda batean sistematizatu zituen: hilketak eta sarraskiak; desagertze behartuak; exekuzio arbitrarioak; tortura eta tratu krudel, anker edo apalesgarriak; emakumearen aurkako sexu-indarkeria; behar bezalako prozesua urratzea; bahiketa; haurren aurkako indarkeria; eta eskubide kolektiboen urraketa, lekualdatze behartua barne (*ibid.*: 203)²³.

Torturari dagokionez, EABren arabera, hori “agentearen zaintzapean edo kontrolpean dagoen pertsona bati nahita mina edo sufrimendu larria eragitea” da (IFCVR, 2003, VI. liburukia: 201 eta 223). Tratu krudel, anker eta apalesgarritzat berriz, EABk honako hau ulertzen du: “Biktimarengan, umiliazio- eta degradazio-sentimenduz gain, beldur-, larritasun- eta gutxiagotasun-sentimenduak piztea bilatzen duten jardunbideak; hauek honela erabiltzen badira: larderia-bide gisa, zigor gisa, beldurtzeko edo hertsatzeko edo edozein motatako diskriminazioan edo antzeko xede batean oinarritutako edozein arrazoiengatik” (*ibid.*: 201 eta 204). Esparru horretan, EABk hainbat jokabide txertatu zituen, hala nola biluzte behartua, egin ez beharreko ukitzeak, kolpeak genitaletan eta sexu-bortxaketa, gizonei zein emakumei.

Tortura edo tratu krudel, anker edo apalesgarrien kontzeptuan sexu-indarkeriako formak sartzeaz gain, EABk atal berezi bat eman zion emakumeen aurkako indarkeriari. Batzordearen arabera, sexu-indarkeria da “pertsona baten edo gehiagoren aurka sexu-izaerako ekintza bat egitea edo pertsona hori(ek)

22 2001eko ekainaren 4ko 065-2001-PCM Dekretu Gorenaren 3. artikulua.

23 EABATaren VI. Liburukian giza eskubideen aurkako krimen eta urraketa hauen deskribapen zehatza dago.

sexu-izaerako ekintza bat egitera behartzea, indarraren bitartez edo mehatxu edo hertsapenaren bitartez; adibidez, indarraren beldurrak, hertsapenak, atxiloketak, zapalkuntza psikologikoak edo larderiak sortzen dutena, edo hertsapenezko testuingurua edo pertsona horiek askatasunez baimena emateko ezintasuna baliatuz” (*ibid.*: 273). Kontzeptuak hainbat modalitate eta antzeko jokabide barne hartzen ditu, hala nola prostituzio behartua, harreman behartua, sexu-esklabotza, behartutako abortuak, behartutako haurdunaldia, biluzte behartua eta sexu-bortxaketa (*ibid.*: 273 eta 274).

Interpretazio hori oinarri hartuta, EABATEan genero-azterketa duten kapitulu biek adierazten dutenez, emakumeak ez ziren talde matxinoek eta indar publikoek egindako giza eskubideen urraketen biktima nagusiak izan. Hala ere, beren duintasunaren eta giza eskubideen aurkako hainbat delitu eta eraso pairatu zituzten. Hauek, bada, aldez aurretiko etnia-, gizarte- eta genero-desberdintasuneko egoeretan eragin zuten eta generoagatik eragin berezia izan zuten emakumeengan. Zehazki, EABATaren arabera, emakumeek sexu-indarkeria modalitate desberdinak pairatu zituzten indar publikoen eta talde armatuen eskutik. Gainera, krimen horren azpi-erregistroa kontuan hartu behar dugu. Sexu-indarkeriak emakume horien gorputzean, osasun mentalean, sexualitatean eta ugalketa-osasunean eragina izan zuen. Era berean, familia eta komunitatearekin zuten harremanean eragin zuen; hala, emakume horiek bikotekidearen gaitzespen-, abandonu- edo indarkeria-egoerak, familiaren arbuioa eta komunitatean estigmatizazioa pairatu behar izan baitzituzten.

EABk identifikatu zuenez, giza eskubideen urraketak pairatutako emakumeen eta gizonen profil soziodemografikoa nahiko antzekoa da. Emakume gehienek (% 73) kitxua dute ama-hizkuntza eta % 80 landa-eremuan bizi dira. %34 analfabetoak eta gazteak dira (% 48k 10-30 urte ditu). Halaber, honako hauek dira erregistratutako emakume biktimek pairatu zituzten krimen nagusiak: hilketak eta epaiz kanpoko exekuzioak (% 50); atxiloketa arbitrarioak (% 27); eta tortura (% 23). Sexu-bortxaketa seigarrena da (% 10), bahiketaren (% 17) eta desagertzearen (% 16) atzetik.

Gatazka armatuko beste egoera batzuetan bezala, genero-rolak aldatu eta birdefinitu egin ziren, gizon eta emakumeak egoera ez-tradizionalean kokatuz. Gizonak indarkeriaren jomuga nagusi bihurtzeak eragin handia izan zuen emakumeen jardun tradizionalan, batez ere familiaren desintegrazioaren eta familia-ekonomiaren eta erakunde komunalen desartikulazioaren ondorioz. Sortutako baldintza berriek erronka berriak ekarri zituzten emakumeentzat; izan ere, emakumeak familiaren eta komunitatearen elementu egonkor bihurtu ziren eta, beraz, zailtasun handiei aurre egin behar izan zieten hauek mantentzeko.

Askotan, indarkeriaren ondorioz, beren familiak babestearren emakumeak lekuz aldatu edo biziraupeneko estrategia kolektiboak garatu behar izan zituzten. Estrategia horien bitartez, ordura arte bete ez zituzten ekoizpen eta gizarte-ordezkaritzako rolak garatu zituzten, eremu pribatutik publikora eta familiarik eremu komunalerara igaroz. Emakumeen herri-erakundeek gizarteratze-rol garrantzitsua izan zuten, eguneroko bizitza antolatzen eta gizarte-ehuna sendotzen lagundu baitzuten. Horrela, Sendero Luminosoren aurrean proposamen alternatibo bat eskaini zuten.

Bera, emakumeek rol protagonista izan zuten, bai indarkeriaren aurkako borrokan, bai giza eskubideen aldeko borrokan. Haiek hasi zituzten desagertutako senideak bilatzeko eta desagertze horiek salatzekeo prozesuak, preso zeuden senideen askatasuna eta hildakoen ehorzketa kudeatu zituzten, gertatutakoari buruzko egia eta justizia eskatu zuten eta, horren ondorioz, askotan biktima bihurtu zituzten berriro ere.

Hala ere, herrialdean nagusi den desberdintasun-, hierarkia harreman- eta diskriminazio- sistemak gatazka armatua gaingitu du eta hura gogoratzeko moduan eragina izan du. Desberdintasunaren iraupen horren eraginez, bada, ulergarria da emakumeak gatazkaren biktima gisa ikusezin bihurtu izana. Eragile politikoaren eta eragile armatuaren irudi nagusia gizonari dagokio. Gainera, gatazkaren biktimak populazio-sektore ahaztu eta diskriminatu batekoak izateak (txiroa, indigena, landakoa) horiek ikusezin bihurtzen laguntzen du. Horren ondorioz, alde batera utzi egin dira emakumeek jasan zituzten giza eskubideen urraketak, genero-urraketa espezifikoak izan ala ez, eta baztertu egin da haiek gizarte-ehuna leheneratzean izandako parte-hartzea ere. Hortaz, “EABren Txostenak honako hau azpimarratzea lortu du: emakumeen esperientziak gatazkan izan duen bazterketa egoera eta emakumeek indarkeriaren aurrean emandako erantzuna. Izan ere, txostenak emakumeek banaka zein tokiko erakundeetan garatu zituzten biziraupen-estrategiak azaltzen ditu” (Mantilla, 2006: 325).

3.2.5. Gomendioen generoa

EABren genero-ikuspegiari buruzko beste elementu bat batzordearen gomendioetan hura txertatu izanari dagokio. Emakumeek pairatutako indarkeriaren eta bere kausa eta ondorioen egiari eta memoriari buruzko lanari esker, azkenean, gomendioek kontuan hartu zituzten emakumeak.

EABATak, IX. liburukian, adiskidetzearen kontzeptuari buruz hitz egiten du eta erreforma instituzionalak hartzeari buruzko zenbait neurri

eta Erreparazio Programa Integral bat (EPI) gomendatzen ditu. Hala, herritarren iritzietan oinarrituz adiskidetze-prozesuaren mugak azaltzean, EABk emakumeen aurkako diskriminazioa aipatzen du (IFCVR, 2003, IX. liburukia: 55). Hori gizarte-sektore guztiak zeharkatzen dituela onartzen du baina, hala ere, emakume landatarrak pairatzen duten diskriminazio bikoitza azpimarratzen du, hauek landatarrak eta emakumeak diren heinean. Diskriminazio bikoitz hori familian bertan hasten da, gurasoen jokabidearen bitartez; eskolan jarraitzen du eta analfabetismo tasa handiagoa dakar neska eta emakumeen artean; eta komunitateetan eragiten du, baita lana lortzeko aukeretan eta gizarte-mugikortasunean ere (*ibid.*: 55-56). Adiskidetze-prozesu arrakastatsu baterako elementuak aztertzean, EABk emakumeen birbalorizazioa aintzat hartzen du, hau da, “emakumeek herritar bezala parte-hartze osoa eta ekitatiboa dutela aitortzea”. Horri gehitzen dio “herrialdearen demokratizazioak eta adiskidetzeak, era berean, gizonek gizartearen eta komunitatearen maila eta dimentsio guztietan betetzen duten eginkizuna berriz birbaloratzea dakarrela –ekitatezko, errespetuzko, justiziazko eta askatasunezko baldintzetan aurkako sexuarekin elkarbizitza lotura berriak eraikitzeari esker-” (*ibid.*: 106). Horren bitartez, emakumeei zuzendutako begirada eskusiboa baino gehiago, benetako genero-ikuspegi bat garatu nahi du. Adiskidetzea itun sozialaren birfundazio eta herritartasuna sortze bezala ulertzean, EABATak “desberdintasuna aintzat hartzea eta genero-ikuspegia errespetatzea” gomendatzen du (*ibid.*: 114). Nolanahi ere, aipamen horiek puntualak dira eta gomendioen eragina mugatua da.

Erreforma instituzionalei dagokionez, ez dago ia emakumeen edo genero-ikuspegiaren aipamen zehatzik. Espetxeko baldintzak hobetzea gomendatzean, EABATak honako hau azpimarratzen du: erditze aurreko eta ondoko aldian emakumeen osasuna eta oinarritzko premiak, beren behar fisiologikoak eta gaixotasun ginekologikoak aintzat hartzea (*ibid.*: 141). Hezkuntza-erreformei dagokionez, alfabetatze-plan bat sustatzeko gomendioa aurkitzen dugu, batez ere landa-eremuetako emakume nerabe eta helduei zuzenduta. Izan ere, kontuan hartu behar dugu, alde batetik, emakumeen hezkuntzak garapenean duen efektu biderkatzailea eta, bestetik, emakume analfabetoen ehuneko gizon analfabetoena baino askoz ere handiagoa dela (*ibid.*: 145). Hala ere, Txostenak ez du gai horietan gehiago sakontzen.

Erreparazio Programa Integralari (EPI) dagokionez, EABATaren arabera, “kaltetutako biztanleen erreparazio integrala beren garapenearen beste dimentsio batzuekin lotuta dago, hala nola familiarekin, lanarekin, nortasunarekin, kulturarekin, parte-hartze sozial eta komunitarioarekin eta eskubideen erabilerarekin” (*ibid.*: 163). Hala, Txostenak EPIa dimentsio

horiek kontuan hartzen dituzten zeharkako bost ardatz hauetan oinarrituta inplementatzea gomendatzen du: psikosoziala, parte hartzekoa, kulturartekoa, sinbolikoa eta genero-ekitatekoa. Azken honi dagokionez, EPIak “prozesu sozial, ekonomiko eta politiko desberdinetan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak aitortzen ditu. Hala, genero-ekitate ikuspegi bat sustatzen du, gizonak eta emakumeak inplikatzeko dituzten prozesuak sortzean oinarritzen dena. Genero-ekitate ikuspegi horrek, bada, baliabideak eskuratzeari eta erabakiak hartzeari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean dauden desabantaila- eta desberdintasun-egoerak aintzat hartzen ditu. Hala, emakumeek erabakietan eta EPIarekin lotutako beste jarduera batzuetan parte-hartzea eta presentzia izatea sustatzeko baldintza bereziak sustatzen ditu. Ikuspegiaren helburu nagusia, beraz, erabakitze prozesuetan emakumeen parte-hartzea handitzea da, hauek beren egoeraren baldintza orokorren gainean hitza izan dezaten. Aldi berean, ikuspegiak taldeko kide guztien artean komunitatearen baitan dauden genero-desberdintasunei edo genero-ekitate ezari buruzko kontzientzia sortu nahi du (*ibid.*: 165).

Gomendatutako erreparazio-neurriak jasotzen dituzten sei programak aztertzean²⁴, ikus dezakegu horietako gutxik aipatzen dituztela zehazki emakumeak, sexu-indarkeria edo genero-ikuspegia.

EABk, lehenik eta behin, erreparazio sinbolikoen programa bat gomendatzen du eta dei berezi bat egin du gomendatutako keinu publiko guztietan “une esanguratsu bat eman dakion beren etxeetan edo komunitateetan, kuarteletan edo espetxeetan izandako gertaerak eta abusuak azaltzeari, hain zuzen, emakumeen sexualitatearen, ohorearen eta duintasunaren aurka jokatu zutenak” (IFCVR, 2003, IX. liburukia: 169). Halaber, lider sozialak eta agintari zibilak aintzat hartzeko neurri bat ezartzean, EABk honako hau adierazten du: “garrantzitsua da gatazkan zuzendaritza-rolak izan zituzten emakumeak zerrendetan sartzea” (*ibid.*: 171). Kritikoki azpimarratzekoa da, hezkuntzan, erreparazio-programak ez dituela emakumeak aipatzen, nahiz eta alfabetatze-programen bidezko helduen hezkuntza aipatzen duen. Beraz, zentzu horretan, ez du erreforma instituzionaletan planteatzen denarekiko inolako koordinaziorik. Herritarrei eskubideak itzultzeko programak ere ez du emakumei zuzendutako neurri espezifikorik garatzen.

24 Sei programa dira guztira: erreparazio sinbolikoak, osasun-erreparazioak, hezkuntza-erreparazioak, herritarren eskubideak itzultzea, erreparazio ekonomikoak eta erreparazio kolektiboak.

Bestalde, erreparazio kolektiboen programari dagokionez, EABATak emakumeei “tratamendu berezia” eman behar zaiela gomendatzen du (*ibid.*: 200). Hala ere, komunitatea garatzeko edo berreraikitzeke ekimenak parte-hartzearen bitartez zehaztu behar direla proposatzen duenean, ez ditu emakumeen diskriminazio-faktoreak kontuan hartzen, ezta komunitate-batzarretan haien hitzari entzungor egin ohi zaiola ere. Erreparazio ekonomikoen programari dagokionez, EABk kalte-oraina gomendatzen du sexu-bortxaketa pairatu duten pertsonentzat, hauek gizonak edo emakumeak izan, baina balio-eskala bat ezartzen du erreparatu beharreko bortxaketen artean. Horretan, bada, sexu-indarkeria azken maila batean geratzen da; izan ere, batzordeak ulertzen du sexu -indarkeriak ez dituela bizitzeko eskubidea, diru-sarrerak lortzeko aukera edo bizi-proiektua urratzen. Beraz, agerikoa da ikuspegi horrek genero-joera argia duela; izan ere, ez ditu kontuan hartzen sexu-bortxaketak biktimaren osasun fisiko eta psikologikoan eta gizarte-mailan izan ditzakeen ondorioak; ez eta bigarren mailako beste ondorio batzuk ere, hala nola haurdunaldia edo sexu bidezko transmisioeko gaixotasunak. Hauek, izan ere, biktimen bizi-proiektuan eragin handia duten kalte larriak dira.

Zentzu horretan, osasun-erreparazioen programa da erreparatu beharreko krimenen estigmatizazio-efektua esplizituki aintzat hartzen duen programa bakarra, baita erreparazio-neurri bat jasotze hutsak izan dezakeen estigmatizazio efektua ere. Izan ere, programaren lerroek honako hauek identifikatu behar dela aipatzen dute: “emakumeen osasun psikologikoaren arazoaren berezitasunak eta eremu pertsonalean eta komunitarioan hauek osatze-prozesuan duten funtzioa”. Era berean hau saihestu behar dela aipatzen dute: “herritarrak estigmatizatzea (“bortxatuak” edo “buruko gaixoak” bezalako kalifikatzaileak ekidinez) edo hauek, programatik jasotzen duten laguntza dela-eta, bizi diren herrietan marjinauak izatea”. Kaltetutako biztanleen egoeraren diagnostikoa egiteko, honako hauek identifikatu behar direla aipatzen du programak: “haien familietan, pertsona arteko harremanetan eta genero-harremanetan dituen efektuak, indarkeriaren ondorioz familian izandako aldaketak edo arazo berriak [azpimarratuz]” (*ibid.*: 170 eta 175).

Dena den, populazio onuradunaren definizioan aurrerapen garrantzitsua dago: EABk gomendatutako kontzeptuak familia hartzen du baina kulturalki anitza izan nahi duen familia-nozio baten inguruan egituratzen da. Era berean, EABk, Peruko jaraunspen-arauak errespetatu beharrean, biktimaren gurasoak, ezkontideak -formalki ezkontuta egon edo ez- eta seme-alabak -ezkontzatik kanpo jaio edo ez- erreparazio-neurrien onuraduntzat hartzea erabaki zuen (*ibid.*: 158). Hura, emakume gehiagorengana iristeko neurria izan zen. Dena den, egokia izan zatekeen senide onuradunaren nozioa hildako biktimen

kasura ez mugatzea; izan ere, biktimen heriotza edo desagertzea ekarri ez duten bortxaketa askok ere kalte handiak eragiten dizkiete senideei.

Erreparatu beharreko krimenen zerrendari dagokionez, hainbat kritika egin dakizkioke EPIan jasotakoari: alde batetik, “tortura” erabiltzen du eta ez “tortura eta tratu krudel, anker edo apalesgarriak”, nahiz eta indarkeria-mota horiek EABATaren beste kapitulu batzuetan agertzen diren. Bestetik, “sexu-bortxaketa” erabiltzen du eta ez “genero-indarkeria” edo “sexu-indarkeria”; izan ere, azken horiek sexu-bortxaketaz harago doazen kategoriak dira eta emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuei edo emakumeengan duten eragin bereizgarriari ere dagozkie (hauek ere EABATaren beste kapitulu batzuetan agertzen dira, esate baterako: abortu behartua, elkartzeko behartuak, kontrazepzio behartua, etxeko lan behartua, sexu-mirabetza, sexu-laidoak, mutilazio sexualak, etab.). Hala eta guztiz ere, ikusi dugunez, Peruko gizarteak, oro har, sexu-bortxaketa gerraren alboko-kaltetzat hartzen du; beraz, hura erreparatu beharreko eta batez ere ordaindu beharreko krimenen zerrendan sartzea bera aurrerapauso handia da.

Arrazoi kontzeptual, etiko eta praktiko desberdinengatik, gomendioek eta batez ere erreparatu beharreko krimenen zerrendak ez dute krimen horien eta emakumeek eta neskek gatazkan pairatutako kalteen konplexutasuna adierazten; EABATak, ordea, bai jaso zituen horiek (Guillerot, 2006).

Diseinu instituzionalari dagokionez, honako hau ikusten dugu: datu-basea eta elkarrizketa-fitxa Talde juridikoak eta Genero-taldeak krimen horien zerrenda eta definizioak landu eta zabaldu aurretik egin ziren, baita gomendioak egin behar zituzten taldeek biktimen eta senideei buruzko informazio-beharrak identifikatzeko aukera izan aurretik ere. Aldi berean, barne-komunikazio txarrak eta lantaldeen aurkikuntzen zirkulazio horizontal eskasak eragina izan zuten EABren lanean. Horren ondorioz, ezin izan zituzten talde bakoitzaren aurrerapenak modu egoki eta sendo batean txertatu gainontzeko taldeen emaitzetan.

Maila teknikoan, nabarmena izan zen gomendioez arduratutako taldeen profil profesionalean ez zegoela generoan aditua zen pertsona bat ere. Are gehiago, genero-taldeak ez zuen jarraibide espezifikorik ikuspegi hori EABren gomendioetan txertatzeko. Gainera, gomendioez arduratutako taldeak sortu zirenean -berandu-, Genero-taldeak lan-saturazio izugarria zuen; izan ere sexu-indarkeriari eta indarkeriaren eragin bereizari buruzko kapituluak entregatzeko azken txanpan zegoen. Horren guztiaren ondorioz, EABATaren

azken bi kapituluetan generoari buruzko lan handia bazegoen ere, ez zen hura zeharkako bihurtzeko ahaleginik egin. Hori dela eta, gomendioek ez zuten genero-indarkeria argitzeko lanaren berri eman, azaletik baino.

4. Amaierako hausnarketak

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da EABk egin zuen ahalegina, bere mandatuan ezarritako krimenak eta giza eskubideen urraketak adierazteko oinarritzko tipologiaz harago joateko. Era berean, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaz gain, EABk beste indarkeria-mota batzuen genero-inpaktua dokumentatzeko ahalegina ere egin zuen. Gainera, EABATEan genero-indarkeriaren azterketa txertatzeari esker, problematika hori ezagutzera eman ahal izan zuten, Estatuaren erakunde²⁵ eta gizarte zibileko erakundeen arreta erakarriz. Zentzu horretan, beraz, ados gaude EABAen prozesua eta haren Txostena mugari eta abiapuntu berri bat direla. Alabaina, hura praktikan jartzean, genero-ikuspegiaren txertaketak mugak izan zituen. Txertaketa hori, bada, emakumeen giza eskubideen urraketak azaltzen zituzten bi kapitulueta mugatu zen eta ez zuen gomendioen diseinuan eragin handirik izan (ezta erreforma instituzionaletan eta erreparazioetan ere). Hau da, ez zuen nahi zuen zeharkakotasuna lortu.

Bigarrenik, Peruko esperientziaren zenbait irakaspen baliagarriak izan daitezke egiaren beste batzorde batzuen lanerako, bai emakumeek jasaten dituzten zapalkuntza-moduen zabaltasuna ikusarazteko, bai gatazketan giza eskubideen urraketek izan duten eragina ikusarazteko, bai oinarri horren gainean genero-ikuspegia gomendioetan sartzea lortzeko. Hain zuzen, EABk genero-ikuspegiarekin izandako esperientziatik kontuan hartu beharreko elementu hauek identifikatzen ditugu:

- batzordekideen arteko parekotasuna errespetatzea; horrek batzordearen erabaki-maila gorenetan emakumeak egotea ziurtatzen du, eta batzordearen lanean genero-ikuspegia sartzeko lagun dezake;

25 Herriaren Defendatzaileak, 2004an, genero-ikuspegian oinarrituz indarkeria politikora hurbiltzea proposatzen zuen azterlan bat argitaratu zuen, EABren aurretik beharitutako desagertzeen espedientei buruz egindako azterlan bat sakontzen zuena. Ikus: Defensoría del Pueblo (2002): *La desaparición forzada de personas en el Perú (1980-1996)*. Informe Defensorial n°55, Serie Informes Defensoriales, Lima.

- genero-azterketan espezializatutako aholkulariak eta perituak –sexu bietakoak– barne hartuko dituen genero-talde bat eratzea, talde berezi gisa. Horrek, bere lanaren hasieratik, kideak izango ditu Batzordearen gaikako talde bakoitzean. Hala, lan estrategia bikoitza bermatzen da: zeharkako ikuspegi sistematiko bat lanaren etapa guztietan eta horrekin lotutako gai guztiak eta zeharkakotasun hori zentzuz ezartzeko duen unitate espezializatua;
- genero-ikuspegi argi batekin lan-tresnak diseinatzea (batez ere datu basea, testigantzak jasotzeko fitxa, elkarrizketatzailearen gidaliburua eta haren gaikuntza); hau da, sexu- eta genero-indarkeria krimenak eta horiek lehen mailako eta bigarren mailako biktimengan dituen ondorioak aintzat hartuz;
- giza eskubideen urraketen ikerketa juridikoa garatzea; egitateak modu neutral eta orokorrean tratatu beharrean, gizonen eta emakumeen historia berreskuratzeko;
- elkarrizketatzaile- eta analista-taldeak genero-arloan gaitzea eta trebatzea, genero-indarkeriarekin zerikusia duten ebidentziak eta probak behar bezala balora ditzaten eta balorazio horiekin batera izan ohi diren zalantzak eta aurreiritziak gainditu ditzaten;
 - testigantzak eta elkarrizketak jasotzeari dagokionez: alde batetik, langileek prest egon behar dute testigantza ematen duen pertsonak biktimari buruz hitz egin nahi ez izateari aurre egiteko (ezkutuko mezuak deszifratu; balizko hertsapen psikologiko, sozial eta politikoaren ondorioak ezagutu; portaerari eta gorputz-hizkuntzari arreta berezia eskaini; testigantzaren barne- eta kanpo-koherentzia aztertu, etab.) eta, bestetik, elkarrizketak duen balio terapeutikoa aintzat hartu behar dute (testigantza ematen duten pertsonen konfiantzazko giroa eskaini, hala, errespetuz eta arretaz entzuteko jarrerari esker, beren historiak kontatzeko eta beren duintasuna edo biktimena, familia edo komunitateena aldarrikatzeko aukera izan dezaten; elkarrizketaren aurretik eta ondoren sentimenduak eta emozioak bideratzeko lagun egin; etab.).
 - ebidentziak eta frogak bilatzeari dagokionez, langileek zerrenda zabalak izan behar dituzte, informatzaile izan daitezkeen pertsonenak (biktimarengana eta zuzeneko lekukoengana mugatu barik) eta dokumentuenak (dokumentu ofizialak eta estraofizialak barne;

ziurtagiri eta historia medikoa; argazkiak; testigantzak; osasun mentaleko trebetasuna; jokabide-ereduak berreraikitzea, urraketa jakin batzuk egiten direnean presuntzio sistema egokia ezartzeko; sexu-indarkeriaren kasuan frogaren malgutasuna hartzea, etab.);

- emakumeei bereziki zuzendutako komunikazio-estrategia bat, beren lekukotzak eta beren bizipenak kontatu dituzten, eta ez soilik beren senide gizonek sufritutakoak;
- batzordearen barne-komunikazio metodologia bat, aurkikuntzen zirkulazio horizontala denbora errealean ahalbidetzeko.

Hirugarrenik, eta gaur egun dituen inplikazioengatik, EABren eta gizarte zibilaren (giza eskubideen aldeko erakundeak, erakunde feministak eta akademia) artean ezarri zen harreman estua nabarmendu behar da. Haatik, hainbat arrazoi tarteko, ez zen bide erraza izan. Esate baterako, gatazkan, Peruko erakunde feministek sexu- eta ugalketa-eskubideen inguruan zentratu zituzten beren eskaerak. Hala, nazioarteko mugimendu feministaren agendarekin bat egiten zuten baina, neurri batean, herrialdean bizi zen indarkeria politikoaren testuingurutik aldentu ziren²⁶. Bestalde, giza eskubideen aldeko erakundeek rol garrantzitsua izan zuten biktimei eta senideei lagun egitean, eta batez ere eraildako, desagertutako eta preso hartutako pertsonen arazoetan zentratu ziren. Beraz, emakumeekin zuzenean lan egin zuten, baina batez ere biktimen senide gisa, askotan emakume horiek ere biktima zuzenak izan zirela ahaztuz. Esan daiteke emakumeen eta giza eskubideen aldeko mugimendu bi horien artean ez zela benetako elkarrizketarik egon. Hala ere, biek nahi izan zuten EABren prozesua babestu, honen helburu nagusiak partekatzen baitzituzten: biktimak aintzat hartzea, birgaitzea eta gizarte-kohesioa.

Aldi berean, EABk bazekien bere helburuak lortzeko gizarte zibilaren indar horiek alde izatea beharrezkoa zela. Horri esker, hiru eragile horien (EAB, erakunde feministak eta giza eskubideen erakundeak) arteko aliantza estrategikoa sortu zen eta horrek honako hau ekarri zuen: prozesuan genero-ikuspegia kontuan hartzea, trebakuntza handitzea eta genero-ekintza bereizi eta espezifikoak garatzea eta, batez ere, ia nahi gabe, gizarte- eta elkarte-mugimendua indartzea.

26 Hori mugimendu feministaren jatorri sozialarekin lotuta egon daiteke. Mugimendu hori GKEetako emakume ekintzaileek, klase ertain eta altuko ikertzaileek eta ezkerreko alderdietako militanteek osatzen dute, eta batez ere hiri-mailan jardun zuten (Barrig, 2008).

Beraz, gizarte zibilak EABren zereginetan parte hartu zuen eta hori funtsezkoa izan zen honen jarduerak eta EABATak emakumeak bistaratu zitzen, baita EABren ondorengo prozesuan ere. Izan ere, gaur egun, giza eskubideen aldeko erakundeek eta erakunde feministek lan egiten dute — batzuetan eskutik helduta— gatazkan gertatzen diren sexu-indarkeriako kasuak auzitegietara eramateko. Mugimendu bi horiek EABATak defendatzen duen eragilean koalizioa osatzen dute eta Peruko gobernuari barne-gatazka armatuaren biktimen aldeko neurriak genero-ikuspegiarekin erabat ezartzeko eskatzen jarraitzen dute, hori EABren gomendioez harago badoa ere²⁷.

Hain zuzen ere, giza eskubideen aldeko erakundeek eta erakunde feministek EABren lanean izan zuten parte-hartzeari esker, beren burua prozesuaren parte aktibotzat hartu zuten, egindako lanaren jabe egin ziren eta EABATEan islatuta sentitu ziren. EABren izaeratik beragatik, bere mandatua aldi baterakoa izan zelako eta bere Amaierako Txotena entregatu ondoren desagertu behar zuelako, gizarte zibileko erakundeen koalizio horrek iraun izan ez balu ez zatekeen inor geratuko txostena defendatzeko eta gobernuari gomendioak inplementatzeko eskatzeko.

Bibliografia

Barrig, Maruja (2002): “La persistencia de la memoria. Feminismo y estado en Perú de los noventa”, in Panfichi, Aldo (koord.): *Sociedad civil, esfera pública y democratización en América Latina: Andes y Cono Sur*, Pontificia Universidad Católica del Perú eta Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 578-609.

27 EABren gomendioen eta Erreparazio Plan Integrala sortu zuen 28592 Legearen arabera sexu-bortxaketak bakarrik merezi zuen erreparazio-moduren bat, gainerako sexu-indarkeria motak alde batera utzita. Erreparazioen Kontseiluaren aurrean lobby-lan handia egin ondoren, emakumeen eskubideen aldeko hainbat erakunde feministak eta giza eskubideen aldeko hainbat erakunde lortu zuten Kontseilu horrek 28592 Legearen 3. artikulua interpretazio hedakorra egitea eta sexu-indarkeriaren beste forma hauek erregistratzea: sexu-esklabotza, elkartzeko behartua, prostituzio behartua eta abortu behartua (Biktimen Erregistro Bakarreko Inskripzio Erregelamenduen 17. artikulua), sexu-bortxaketaren saiakera edo mehatxua, egin ez beharreko ukitzeak edo sexu-jazarpena, emakume haurdunak torturatzea horrek haurdunaldia arriskuan jartzen duenean, gizon eta emakumeak sexu-organoetan torturatzea eta gizon eta emakumeak biluztera behartzea (Erreparazioen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 1eko 31-11-03 Erabakia). Ikus: Erreparazioen Kontseilua (2018).

Defensoría del Pueblo (2002): *La desaparición forzada de personas en el Perú (1980-1996)*. Informe Defensorial 55. zkia., Informes Defensoriales Seriea, Lima.

– (2004): *Violencia Política en el Perú: 1980-1996. Un acercamiento desde la perspectiva de género*, Informe Defensorial 80. zkia., Informes Defensoriales Seriea, Lima.

ECOSOC (1997): *Conclusiones acordadas*, E/197/1.30, Nazio Batuetako Erakundearen Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, New York.

Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (EAB) (2004): *Hatun Willakuy. Versión abreviada del Informe Final de la Comisión de la Verdad y Reconciliación*, Lima (1. edizioa).

– (2003a): *Informe Final de la Comisión de la Verdad y Reconciliación*, Lima (1. edizioa).

(2003b): *El impacto de las audiencias públicas en los participantes*, <http://cverdad.org.pe/apublicas/audiencias/impacto.php>.

– (2002a): *Acuerdo de Comisionados*, Genero Lerroa, maiatza, Lima, <http://www.cverdad.org.pe/lacomision/nlabor/documentos01.php>.

– (2002b): *La perspectiva de género en la Comisión de la Verdad y Reconciliación*, Genero Lerroa, uztaila, Lima, <http://www.cverdad.org.pe/lacomision/nlabor/documentos04.php>.

– (2002c): *Género en la comunicación*, Genero Lerroa, uztaila, Lima, <http://www.cverdad.org.pe/lacomision/nlabor/documentos03.php>.

Erreparazioen Kontseilua (2018): *Todos los Nombres. Memoria institucional 2006-2018*, Peruko Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioa, azaroa, Lima (2. edizioa).

Guillerot, Julie (2009): *Reparaciones con perspectiva de género*, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Mexikoko Bulegorako Aholkularitza, OACNUDH (1. edizioa).

– (2006): “Linking Gender and Reparations in Peru: A Failed Opportunity”, in Rubio-Marín, Ruth (argtz.): *What Happened to the Women? Gender and Reparations for Human Rights Violations*, Social Science Research Council, New York.

Henríquez, Narda (2003): *Todas las sangres, todas. Informe sobre mujer y violencia política*, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzorderako eginiko

Aholkularitza, Memoria Kolektiborako eta Giza Eskubideetarako Zentroa, Defensoría del Pueblo, Lima.

Henríquez, Narda eta Julissa Mantilla (2003): *Contra viento y marea: cuestiones de género y poder en la memoria colectiva*, Consultoría realizada para la Comisión de la Verdad y Reconciliación, Centro para la Memoria Colectiva y los Derechos Humanos, Defensoría del Pueblo, Lima.

Mantilla, Julissa (2006): “La Comisión de la Verdad y Reconciliación en el Perú y la perspectiva de género: principales logros y hallazgos”, *Revista IIDH*, 43. libk., 323-365.

Nazio Batuen Erakundea (1995): *Declaración y Plataforma de Acción de Beijing*, Cuarta Conferencia Mundial sobre la Mujer, Beijing, irailaren 4tik 15ra.


– (1993): *Declaración y Plataforma de Acción de Viena*, Conferencia Mundial sobre Derechos Humanos, A/CONF.157/24.

Peruko Errepublikako Lehendakaritza (2001a): *Crean Comisión de la Verdad*. Decreto Supremo N°065-2001-PCM, ekainaren 4.

– (2001b): *Modifican denominación de la Comisión de la Verdad por la de la Comisión de la Verdad y Reconciliación*. Decreto Supremo N°101-2001-PCM, abuztiaren 31.

Ruiz-Bravo, Patricia eta Tesania Velásquez (2003a): *Crímenes y violaciones de derechos humanos: diferencia de su impacto sobre los hombres y las mujeres*. Consultoría realizada para la Comisión de la Verdad y Reconciliación, Memoria Kolektiborako eta Giza Eskubideetarako Zentroa, Defensoría del Pueblo, Lima.

– (2003b): *La violencia política y su impacto en las mujeres*. Consultoría realizada para la Comisión de la Verdad y Reconciliación, Memoria Kolektiborako eta Giza Eskubideetarako Zentroa, Defensoría del Pueblo, Lima.



IV. Kapituluua
Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzearen
Batzordea: egia bilatzean genero-analisia
txertatzeko lehenengo urrats bat

IV. Kapitulu

Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea: egia bilatzean genero-analisia txertatzeko lehenengo urrats bat

iker zirion landaluze

1. Sarrera

Sierra Leonako gatazka armatua bere indarkeria, basakeria eta ankerkeriagatik da ezaguna. Izan ere, ondo gogoratzen ditugu gorputz-adar anputatuak, adin txikikoen erreklutamendu behartua, drogen eraginpean zeuden soldaduak edo emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria. Hain larriak izan ziren giza eskubideen urraketak non gobernuak eta *Revolutionary United Front* (RUF) talde armatuak sinatutako Lomeko Akordioan ere (1999) Egiaren eta Adiskidetzaren Batzorde (EAB) bat sortzea aurreikusi zuten. Akordio horretan, ordea, ez ziren EABren mandatuari, botereei, helburuei edo osarari buruzko zehaztasunak eman eta generoak gatazkan izan zuen eragina ere ez zen esplizituki aipatu.

Dena den, gatazkan sexu-indarkeria hedatua izan zela ikusita, EABk gai horren azterketa sartu zuen bere mandatuan. Hori, bada, aurrerapen bat izan zen aurretik izandako egiaren batzordeekin alderatuta, hauen mandatuak ez baitzuten aurreikuspen hori izan, ezta generoari buruzko beste bat ere ez. Kapitulu honen helburua, beraz, Sierra Leonako EABren lana eta amaierako txostena aztertzea da, bai sexu-indarkeria kontuan hartzeari eta bai, oro har, genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez.

Hala, gatazkaren testuingurua labur aipatu ondoren, EABri buruzko zenbait ideia nabarmenduko ditut, esate baterako Batzordearen sorrerak izandako oinarri juridikoa eta hura martxan jartzeko izan ziren zailtasunak. Gero, Batzordearen genero-analisiari dagokionez, honako hauek aztertuko ditut, hain zuzen ere: bere mandatuan sexu-indarkeriari dagokiona, bere metodologia, eta amaierako txosteneko emakumei eta gatazka armatuari buruzko kapitulu espezifikoa. Genero-ikuspegiaren txertaketaren balorazioan, Batzordearen bi ekarpen garrantzitsu hauek aztertuko ditut: alde batetik, gatazka armatuaren markoaz harago, emakumeen aurkako indarkeria-*continuum* bat dagoela adierazteko

ahalmena; eta, bestetik, emakumeen errealitateari buruz egiten duen azterketa, hauek gatazkan dituzten jarrera, rol eta esperientzien heterogeneotasuna aintzat hartuta. Azkenik, hainbat gogoetarekin amaituko dut lan hau.

2. Gatazka armatuaren testuinguru laburra

Sierra Leonak gatazka armatua izan zuen 1991tik 2002ra bitartean. Horretan, bi talde borrokatu ziren: alde batetik, armada nazionala dugu, honek *Civil Defense Force* (CDF) eta *United Liberation Movement of Liberia* (ULIMO) bezalako talde armatuen, nazioarteko indar militarren¹ eta mertzenarioz osatutako segurtasun pribatuko enpresen laguntza izan zuelarik; eta, bestetik, *Revolutionary United Front* (RUF) talde armatua dugu, *National Patriotic Front of Liberia* (NPFL), *Armed Forces Revolutionary Council* (AFRC) eta *West Side Boys* talde armatuen laguntza izan zuena.

Sierra Leonako gatazka armatua barne gatazkatzat edo gerra zibiltzat hartu izan bada ere, ezin da alde batera utzi bere eskualde- edo nazioarte-dimentsio garrantzitsua. Eskualde mailan, Liberiako gatazka armatuarekin izandako harremana eta Afrikako beste herrialde batzuen parte-hartzea erabakigarria izan zen; eta nazioartean, metropoli izandako Erresuma Batuen eta AEBren esku-hartzea nabarmendu beharra dago, gatazkaren alderdi desberdinak babestu zituztenak, eta baita diamanteen erauzketarekin eta legez kanpoko trafikoarekin lotutako hainbat enpresa transnazionalen esku-hartzea ere².

Ofizialki, gatazka armatua 1991n hasi zen, RUF taldearen erasoarekin. Hark, apurka-apurka, herrialdea konkistatzen joan zen eta Joseph Saidu Momohren gobernuaren ezegonkortzea lortu zuen, horren ordez junta militar bat ezarri zen arte. Junta haren izena Behin-behineko Kontseilu Errektore Nazionala izan zen. Hala, ezegonkortasun politikoak gora egin zuen baita talde armatu kopurua ere, eta horien artean harreman sare konplexua ezarri zen. 1996an, Ahmad Tejan Kabbahren gobernu hautetsi berriak Abijango Bake Akordioa sinatu zuen RUF taldearekin baina, berehala, akordioak porrot egin zuen eta, 1997an, estatu-kolpe berri baten ondorioz, egoerak okerrera

1 Besteak beste, ECOMOG (*Economic Community Cease-Fire Monitoring Group*) izeneko Afrikako eskualde-mailako indar armatu aldeaniztun bat, Mendebaldeko Afrikako Nazioarteko Erakundeak antolatuta (ECOWAS, *Economic Community of West African States*); eta Nazio Batuen Misioa Sierra Leonan (UNAMSIL).

2 Sierra Leonako kasua baliabide naturalen legez kanpoko trafikoaren eta Afrikako gatazka armatuen finantzaketaren arteko loturaren erakusle nagusietako bat da.

egin zuen. Urte horretan bertan bake-akordio berri bat sinatu zuten Konakryn baina honek ere porrot egin zuen. Horren ondorioz, nazioarteko erkidegoak, ECOMOG izeneko eskualdeko esku-hartze indar militarren eta segurtasun pribatuko enpresen laguntza militarraz, boterea itzuli zion Kabbahri.

Gatazkak 1999. urtera arte iraun zuen. Urte hartan, matxinatuek Freetown hiriburua hartu zuten eta bi astetan 6.000 zibil baino gehiago erail zituzten. Hilabete batzuk geroago, Togon, Lomeko Bake Akordioa sinatu zuten. Horrek gerra bukatutzat emango zuela zirudien baina gatazka 2000. urtean hasi zen berriro. Azkenik, Erresuma Batuak 1.200 soldadutik gorako esku-hartze militarra egin zuen Sierra Leonako gobernuaren alde eta horrela hiriburua babesten lagundu zuen eta RUF taldearen gainbehera militarra, haren buruzagi batzuen atxilotzea eta taldearen desarmatzea bultzatu zuen. Nazio Batuen UNAMSIL misioak, bada, 17.500 kasko urdin ekarri zituen herrialdera eta horrela Ahmad Tejan Kabbahren gobernuak 2002an hauteskundeetarako deia egitea eta gatazka armatuaren amaiera deklaratzeko sustatu zuen.

3. Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeari buruzko ideia nagusiak

1999ko uztailean Lomeko Bake Akordioa negoziatu aurreko testuinguruan, nazioeko eta nazioarteko hainbat foro sozialetan nabarmendu zen gatazka armatua amaitu ondoren egia, justizia eta adiskidetzeko sustatzeko batzorde bat abian jartzea komeni zela. Horregatik, hura akordioan sartzea eztabaidatzeko momentua heldu zenean, gizarte zibilaren rola funtsezkoa izan zen gaia negoziazio-agendan txertatzeko (ICTJ, 2004: 2; Sesay eta Suma, 2009: 16)³. Alabaina, Lomeko Akordioak 1991ko martxoaren eta 1999ko uztailearen artean egindako krimenen erantzuleei amnistia ematea aurreikusten zuen eta horrek kritikak ekarri zituen nazio mailan zein nazioartean⁴. Amnistia hori

3 Gizarte zibilaren beste ekimen batzuen artean hauek dira azpimarratzekoak: *Campaign for Good Governance*, *National Forum for Human Rights* eta *Manifesto 99*.

4 1999ko uztailearen 7an Bake Akordioa sinatu zenean Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiaren Ordezkarri Berezia bertan izan zen eta Akordioan honako ohar hau gehitu zuen eskuz: Nazio Batuen Erakundeak ulertzen du Akordioaren amnistia-aurreikuspenak ez zaizkiela aplikatuko genozidio krimenei, gizateriaren aurkako krimenei, gerra-krimenei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren beste urraketa larri batzuei”. Hala ere, EABren azken txostenak jasotzen duen bezala (III B liburukia, 6. kapituluua, 7. paragrafoa), ohar horren edukia gerora desagertu egin zen Nazio Batuek eurek argitaratutako testuan (UN Doc. S/1999/777).

defendatuz, Sierra Leonako gobernuak argudiatu zuen RUF talde armatuak ez zuela akordioa sinatuko honek taldeko kideen aurkako ekintza legalen bat aipatu izan balu⁵.

Beraz, une hartan, Bake Akordioaren aurreikuspenak trantsizioko justiziarri buruz honako hauetan gauzatu ziren: alde batetik, Giza Eskubideen Batzorde bat sortu zen eta, bestetik, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzorde bat (XXV. eta XXVI. artikulua, hurrenez hurren). Azken hau sortu zen “inpunitateari heltzeko, indarkeria-zikloa hausteko eta foro bat eskaintzeko, non giza eskubideen urraketen biktimek eta erantzuleek euren historia konta dezaten eta iraganaren irudi argia lortzeko; horren bitartez, benetako osabidea eta adiskidetzea errazteko”⁶.

2000. urtean, Sierra Leonako Presidenteak eta Parlamentuak Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen Legea promulgatu zuten. Honek Batzordearen mandatuari, osaerari, helburuei, amaierako txostenari eta gomendioei buruzko kontuak zehazten ditu⁷. Hura Batzorde independente gisa eratu zen, 7 kidez osatua (5 gizon eta 2 emakume; 3 nazional eta 4 nazioarteko). Bere sorreran, nazioarteko diru-laguntza eta laguntza teknikoa ezinbestekoa izan zen, esate baterako, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Goi Komisarioarena (garai hartan, Mary Robinson) eta Nazio Batuen Garapenerako Programarena (ICTJ, 2004: 1-3). Nolanahi ere, prestaketa-aldia zein lehenengo hilabeteak zailtasun administratibo eta finantzarioz beteta egon ziren eta gatazka armatua berriz hasiko zen zalantza etengabea izan zen. Horren ondorioz, EAB ez zen 2002ko uztailean arte lanean hasi.

Batzordearen mandatua oso handinahia zen, are gehiago bere lana egiteko zuen epe laburra kontuan hartuta (urte eta erdi, nahiz eta gero 2004 amaierara arte luzatu zen). EABren Legearen 6. artikulua aipatzen duen bezala, Batzordearen helburu nagusia da “Sierra Leonako gatazka armatuarekin lotutako giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketen eta abusuen erregistro historiko inpartziala sortzea, 1991n gatazka hasi zenetik

5 Bake Akordioak, “Barkamena eta Amnistia”ri buruzko IX. artikuluan amnistiaren beharra justifikatzen du alderdi guztietako borrokalarientzat, batez ere RUF taldeko kideentzat, “Sierra Leonara bake iraunkorra ekartzeko” eta “adiskidetze nazionalaren kausa sustatzeko”. Ikus: <http://www.sierra-leone.org/lomeaccord.html>.

6 Bake Akordioaren XXVI. artikulua lehen atala. Izenburuak ez du aipatzen Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea, baizik eta, oro har, “Giza Eskubideen urraketak”. Ikus: <http://www.sierra-leone.org/lomeaccord.html>.

7 Kontsultatu legea hemen: <http://www.sierra-leone.org/Laws/2000-4.pdf>.

Lomeko Bake Akordioa sinatu arte; zigorgabetasunari aurre egiteko, biktimen beharrei erantzuteko, osabidea eta adiskidetzea sustatzeko eta pairatutako bortxaketak eta abusuak errepika ez daitezen”.

Lanaren lehenengo fasean (4 hilabete), EABk herrialde osoan zehar lekukotzak jaso zituen (ia 8.000 jaso zituen, biktimenak zein biktimarioenak). Eginkizun hori aurretik trebatutako bertako langileek egin zuten eta informazioa giza eskubideen urraketa-moten arabera kodifikatu eta kategorizatu zuten, ikertzaileek (gehienak nazioartekoak) hura azter zezaten. Bigarren fasean (5 hilabete), hainbat gairi buruzko entzunaldi publikoak egin zituzten (gazteriari, ustelkeriari, baliabide mineralen kudeaketari, nazioarteko eragileen paperari eta emakumei buruzkoak, besteak beste). Horietan 500 lagunek baino gehiagok lekukotza eman zuten⁸. Entzunaldiak, bada, herrialdeko hainbat lekutan egin zituzten eta batez ere Freetown hiriburuan. Hauek osorik eman zituzten irratian eta, gauero, telebistako programa berezi batean horien laburpena eman zuten. Astearen amaieran, osatze-zeremonia bat egiten zuten eta horretan parte hartzen zuten biktimek eta krimenen erantzuleek, batzuetan elkarrekin ere. Kasu batzuetan (gutxitan), “garbiketa” eta berronarpen zeremoniak egin zituzten erantzuleen komunitateetan. Azkenik, Batzordeak txosten xehe bat argitaratu zuen 2004aren amaieran⁹. Txostenak 5.000 orrialde ditu eta hiru liburukiz eta hainbat eranskinez osatuta dago, horietako bakoitzak hainbat kapitulu dituelarik¹⁰.

EABren aldi berean, berriro hasi ziren liskarrak, 2000. urtean, eta azkenean, RUF taldeak galdu egin zuen eta desaktibatua izan zen. Horren ondorioz, Sierra Leonako gobernuak laguntza eskatu zion Nazio Batuen Erakundeari 90ko hamarkadan egondako krimen larrienak epaitu beharko zituen Zigor Auzitegi espezifikoak (*ad hoc*) sortzeko. Sierra Leonarako Auzitegi Berezia

8 EABren finantzaketa-arazoak zirela eta, gastuak murriztu behar izan zituzten eta horrek eragina izan zuen testigantzen bilketan eta entzunaldi publikoei emandako denboran (ICTJ, 2004: 3).

9 Ikus: <http://www.sierraleonetrc.org/index.php/view-the-final-report/download-table-of-contents>.

10 I. liburukiak, besteak beste, honako hauek jasotzen ditu: mandatua, Batzordearen abiaraztea eta metodologia; II. liburukian ondorioak, gomendioak eta erreparazioak, baita biktimen zerrenda ere; azkenik, III. liburukia bi zatitan banatuta dago: lehenengoa (III A liburukia) gatazkaren kausak aztertzen ditu, bere aurrekariei, gobernantzari, historia politiko eta militarri eta gatazkaren izaerari buruzko kapituluekin; eta bigarrenak (III B liburukia) honako hauei buruzko azterketa zehatzak hartzen ditu: baliabide mineralak, kanpoko eragileen papera, emakumeak, haurrak, gazteak, EABren eta Sierra Leonarako Auzitegi Bereziaren arteko harremana, adiskidetzea eta Sierra Leonarako ikuspegi nazionala.

(aurrerantzean SLAB) 2002an sortu zen, ordainsari-justizia batean oinarritutako organo juridikzional gisa, eta Lomeko Akordioan ezarritako amnistia atzera botaz auzitegi nazionalen aurrean zuen nagusitasuna adierazi zuen¹¹.

EAB eta SLAB herrialdean aldi berean martxan jarritako trantsizioko justizia estrategien parte diren arren¹², euren izaera, helburuak, garapena eta emaitzak oso desberdinak izan ziren. Izan ere, EAB justizia leheneratzaileari lotuta dago eta “gizarte zibilak bultzatutako proiektu bat” da (Sesay eta Suma, 2009: 16). Izan ere, hura jendartearen diskurtsoan eta agendan izan zen gatazka amaitu zenetik, komunitatean zentratzen zen eta, ondorioak ez ezik, gatazkaren kausak ere aztertu nahi zituen, halakorik errepika ez zedin. SLABk, ordea, parte hartze eta tokiko jabetze txikiagoa izan zuen; izaera hibridoa (nazionala eta nazioartekoa) zuen arren ekimen exogenoa zen, bakarrik indarkeriaren ondorioak eta horren atzean zeuden elite politiko-ekonomikoak eta militarrik ikertzen zituen. Bere eskumena 1996ko azaroaren 30etik aurrera egindako “Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Sierra Leonako Zuzenbidearen urraketa larrien erantzukizun handiena duten pertsonetara” mugatu zen¹³, eta azkenean, 10 pertsona besterik ez zituen epaitu (Benavides *et al.*, 2018: 132)¹⁴. Gainera, finantzaketari dagokionez, nabarmena izan zen mekanismo bien arteko aldea; EABk 6 milioi dolarreko aurrekontua izan zuen eta SLABren gastua 200 milioi dolarrekoa izan zen (Penfold [2009], Benavides *et al.*-en aipatua, 2018: 131). Horrek, beraz, argi adierazten du zeintzuk izan ziren gobernuaren eta nazioarteko lehentasunak herrialdeko trantsizioko justiziari dagokionez.

Aldi berean SLAB eta EAB egoteak, neurri batean, azken honen lana kaltetu zuen, batez ere bere ibilaldiaren hasieran. Erakunde bien harremana ez zegoen zehaztuta eta, Batzordearen aurrean testigantza konfidentzialtasuna eskatzeko aukera bazegoen ere, erantzule askok ez zuten hitz egin nahi izan Auzitegiak gerora epaituko zituen beldurratik (ICTJ, 2004: 5; Benavides *et al.*, 2018: 132). Geroago, SLABk gertatutakoan erantzukizun handia zuten pertsona gutxi batzuk bakarrik epaituko zituela argi eta garbi ezarri zuen eta, hortaz, erantzuleek pixkanaka batzordean parte-hartzera animatu ziren.

11 SLABren Estatutuaren 8. eta 10. artikulua. Ikus: <http://www.rscsl.org/Documents/scsl-statute.pdf>.

12 Beste toki batzuetan, egiaren batzordeak prozesu penal nazionalen aldi berean garatu dira, baina oso gutxitan, kanpotik lagundutako *ad hoc* zigor-uzitegiekin batera, Sierra Leonako eta Ekialdeko Timorreko kasuak kasu.

13 SLABren Estatutuaren 2. artikulua. Ikus: <http://www.rscsl.org/Documents/scsl-statute.pdf>.

14 Besteak beste, Charles Taylor Liberiako presidente ohiari, Sierra Leonako gerran parte hartu izanagatik.

Azkenean, bada, jasotako testigantzen %13 inguru – horietako asko, oso xeheak– erasotzaileenak izan ziren, eta horietako batzuek geroago entzunaldi publikoetan ere parte hartu zuten (ICTJ, 2004: 4).

4. Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen genero-analisia

4.1. Mandatua: sexu-indarkeriari lehentasuna

EABren Legeak ez du berariaz aipatzen ez generoa, azterketa-kategoria gisa, ez emakumeak, Batzordearen lanaren azterketa-talde espezifiko gisa. Aitzitik, gatazkan sexu-indarkeriak izan zuen garrantziagatik eta larritasunagatik, Legeak bi aldiz aipatzen du “sexu-abusuak” aztertu beharra. Alde batetik, 6.2(b) artikulua, Batzordeak “biktimen duintasuna leheneratzeko” duen eginkizuna aipatzen duenean, “sexu-abusuaren gaiari arreta berezia” eskaini behar diola azpimarratzen du. Bestetik, 7.4 artikulua testigantza ematerakoan edo entzunaldi publikoetan parte hartzerakoan biktima eta lekuko jakinen beharrei arreta ematea ahalbidetzen dio Batzordeari. Horretarako, bada, “sexu-abusuak pairatu dituzten horientzat” prozedura bereziak ezartzeko aukera ematen dio. Bere amaierako txostenean, Batzordeak argi adierazten du bere mandatuaren alderdi horri buruz duen iritzia. Bere hitzetan, “EABren Legeak emakumeak berariaz aipatzen ez baditu ere, hauek sexu-abusuen biktima gehienak diren heinean”, Batzordeak “arreta berezia eskaini behar die emakumeen eta nesken esperientziei” (III B liburukia, 3. kapitulua, 10. paragrafoa).

Sierra Leonako gatazka kaltetutako emakume kopurua aztergai dugu oraindik ere, baina giza eskubideen urraketen kontzeptua modu zabalean ulertzen badugu, argi dago kopuru hori izugarria dela. Sexu-indarkeriari bakarrik erreparatzen badiogu -EABk egiten duen bezala-, *Human Right Watch* nazioarteko GKEaren kalkuluen arabera, badirudi 275.000 emakume eta neska inguru bortxatuak izan zirela. Batzordeak berak kopuru hori onartzen du (*ibid.*, 7. paragrafoa).

EABk sexu-abusuak eta emakumeak eta neskak biktima gisa lotzea¹⁵ funtsezkoa da generoa Batzordearen lanean eta horren emaitzetan nola txertatu

15 “Erreparazioak” kapituluan (II. liburukia, 4. kapitulua, 95. paragrafoa), Batzordeak adierazten du sexu-indarkeriaren biktimak bahiketa, sexu-esklabotza, genitalen edo bularren mutilazioa eta bortxazko ezkontza jasan zuten emakumeak eta neskatoak direla. Gerora baino ez du aitortzen, “Haurrek eta gizonak sexu indarkeria jasan duten neurrian, horiek ere [erreparazio] programa horren onuradun izango direla”.

zen aztertzeko. Alde batetik, zentzu positibo batean; izan ere, Elisabeth Porterrek (2016: 43) nabarmentzen duen bezala, Sierra Leonako EABk inoiz ez bezalako ikusgarritasuna eman zion gatazkan emakumeen aurka erabilitako indarkeriari. Bestetik, zentzu negatibo batean; izan ere, emakumeei eta neskei indarkeriaren (batez ere sexu-indarkeriaren) biktima gisa emandako enfasiak genero-azterketa zabalago bat oztopatu zuen. Genero-azterketak, zenbait egilek defendatzen duten bezala, “emakumeetatik generora” pasatzeko aukera eman behar zuen (Simic, 2016: 2) eta botere-harremanak eta gizonen eta maskulinitateen eragina sakon aztertzea eskatuko zukeen (Porter, 2016: 36). Generoari, botere-harremani edo are emakumeei buruzko aipamenak, oro har, sexu-indarkeriaren azterketara mugatzen dira eta Batzordeak honako hau ulertzea bideratzen du bere lana: ”zergatik bihurtu ziren emakumeak eta neskak gaiztakeriaren eta indarkeriaren helburu gatazkan zehar” eta nola “haien zaugarritasuna nahita ustiatu zen, gizatasuna kentzeko eta giza eskubideen urraketa larriak egiteko” (III B liburukia, 3. kapitulua, 6. paragrafoa).

Hala ere, badaude bi kapitulu espezifiko –eta beste batzuen atal zehatzak ere¹⁶– non Batzordeak zehatz-mehatz aztertzen dituen genero-gaiak eta gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak, bai gatazka armatuan, bai EABren lan-prozesuan ere. Honako hauek dira: “Metodologia eta prozesua” (I. liburukia, 5. kapitulua) eta “Emakumeak eta gatazka armatua Sierra Leonan” (III B liburukia, 3. kapitulua), azken hau txostenaren luzeenetako bat (145 orrialde). Bi kapitulu hauek hurrengo epigrafeetan aztertuko ditut.

4.2. Genero-ikuspegia EABren metodologian

“Metodologia eta prozesua” kapituluaz gain (I. liburukia, 5. kapitulua), Batzordeak emakumeekin eta generoarekin zerikusia duten metodologia-gaiak jasotzen ditu “Emakumeak eta gatazka armatua Sierra Leonan” kapituluko atal batean (III B liburukia, 3. kapitulua, 16-34 paragrafoak). Atal horretan, bada, sexu-indarkeriari buruz jasotako mandatu espezifikoari dagokionez, Batzordeak bere ikerketa metodologia honako helburu hauek dituela aitortzen du: biktimak babestea; Batzordean konfiantza-giro bat sortzea; konfidentzialtasuna bermatzea; emakumeentzat giro segurua sortzea; eta ziurtatzea EABren lanean emakumeak eta neskak ez direla “birtraumatizatuak” edo “birbiktimizatuak” izango (*ibid.*, 16. paragrafoa).

16 Adibidez, kapitulu hauek: “Emaizak” (II. liburukia, 2. kapitulua, 496-552. paragrafoak), “Gomendioak” (II. liburukia, 3. kapitulua, 316-376. paragrafoak) eta “Erreparazioak” (II. liburukia, 4. kapitulua, 57., 64-65., 86., 95-96., 163-164. eta 229. paragrafoak).

Helburu horiek bilatzean, Batzordeak “generoa bere jarduera guztietan sartzeko asmoa” zuen (*ibid.*, 19. paragrafoa). Horretarako, hainbat neurri ezarri zituen EABren barneko prestakuntza sustatzeko, barne- eta kanposentsibilizazioa sustatzeko, emakumeek erakundearen egituretan eta prozesuaren faseetan parte hartzeko eta biktima diren emakumeak eta neskatoak berariaz babesteko. Jarraian, neurri horietako batzuk aztertuko ditut.

Hori prestatu eta abiatu bitartean, Batzordeak nazioarteko eta nazioko hainbat eragileri generoari buruzko laguntza eta gomendioak eskatu zizkien. Nazioartean, Emakumeentzako Nazio Batuen Garapen Funtza-UNIFEM eragile pribilegiatu bat izan zen (gaur egun NBE Emakumeak erakundean sartuta dago). Honek, generoari buruzko bi aholkularitza eskaini zituen (III B liburukia, 3. kapituluua, 32. paragrafoa), bai Batzordeko bai EABren prozesua lagundu zuten tokiko Gobernuz Kanpoko Erakundeetako (GKE) langileak trebatzen laguntzeko¹⁷. Nazio mailan, EABk, hasieratik, emakumetaldeekin harremanetan jarri zen (horietako asko gatazkak iraun bitartean oso aktibo egon ziren bakea eraikitzeko ekintzetan edo indarkeria pairatutako emakumeak laguntzen) eta kontsultak eta eztabaidak izan zituen haiekin. Horren ondorioz, EABn Emakumeen Lantaldea (*Women’s Task Force*) sortu zen, emakume-erakunde sare batez osatua. Horien artean zeuden *Forum for African Women Educationalists* (FAWE) eta *Women’s Forum*. GKE hauetako lehenengoak izaera panafrikarra du eta bigarrenak unibertsala. Batzordeak, bere txostenean, oso positibotzat hartu zuen erakunde horien laguntza (*ibid.*, 31-34. paragrafoak).

Emakumeek EABren egitura eta prozesuetan parte-hartzeari dagokionez, EABren zazpi kideetatik bi hauek besterik ez ziren emakumeak: Laura Marcus Jones Presidenteordea eta Sierra Leonako Auzitegi Goreneko epaile ohia eta Yasmin Sooka giza eskubideen abokatu hegoafrikarra, aurretik Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordean parte hartu zuena (ICTJ, 2004: 2). Gainontzeko bost kideak, gizonak, honako hauek izan ziren: EABko presidente Joseph Humper apaiz metodista; John Kamara Unibertsitate-fakultateko Zuzendaria eta albaitaritza-zirujaua; Sylvanus Torto, Administrazio Publikoko irakaslea (hiru hauek sierraleonarrak); Satang Jow Gambiako Hezkuntza Ministro ohia; eta William Schabas giza eskubideen abokatu kanadarra. Batzordearen osaerari (eta, hortaz, horren paritateari) buruzko erabakia ez

17 UNIFEMek ere laguntza finantzariora eta tekniko eman zien prozesu osoan zehar emakumetaldeen parte-hartzea sustatzeko EABk egin zituen sentsibilizazio-kanpainai.

zegoen Batzordearen esku¹⁸, baina honek bazeukan barne- eta lan-egituran emakumeen parte-hartzea erabakitzeke ahalmena. Zentzu horretan, bada, Batzordeak “genero-arekiko sentikor jokatu zuen” eta kargu gorenetan eta elkarrizketatzaile gisa emakumeak kontratatzeke “ahalegina egin zuen”, bere hitzetan. Azken hauek, beste emakume batzuen testigantzak jasoko zituzten, batez ere sexu-indarkeria pairatu zuten horienak (III B liburukia, 3. kapitulua, 19. paragrafoa). Horretarako, sexu-indarkeria pairatu zuten emakumeen testigantza jasoko zituzten elkarrizketatzaileen %40 gutxienez emakumeak izango zirela eta barruti bakoitzean elkarrizketatzaileen artean gutxienez bi emakume izango zirela bermatu zen¹⁹. Hortaz, emakume horiek heziketa espezifikoak jaso zuten; alde batetik, testigantzak jasotzean biktimak modu egokian laguntzeko eta, bestetik, eurek ere indarkeria-kontakizunak modu osasuntsuan barneratzeko (*ibid.*, 20. paragrafoa).

Aldi berean, Batzordeak testigantza ematen zuten lagunen artean parte-hartzea orekatua izatea nahi zuen, honako irizpide hauen arabera: eskualdea, talde etnikoa, adina, afiliazio politikoa eta generoa (I. liburukia, 5. kapitulua, 200. paragrafoa). Bere mandatuek gatazkako sexu-abusuak ikertzerara behartzen zuela kontuan hartuta, “izaera genero-espezifiko bortxaketak eta abusuak” pairatu zituzten emakumeen eta nesken testigantzei lehenetsuna eman zieten (*ibid.*, 8. paragrafoa). Aldi berean, garrantzitsua izan zen testigantza ematen zuten emakumeak eta neskak anitzak izaten saiatzea, hau da, haien artean biktimak eta biktimarioak egotea, eta -zenbait kasutan gertatu bezala-indarkeriaren bi alderditan izandako emakumeak²⁰.

EABren lanak bi fase nagusi izan zituen; testigantzak hartzea eta entzunaldiak, eta horietako bakoitzean neurri espezifikoak hartu ziren. Batzordeak, genero-indarkerian adituak ziren zenbait emakumeren laguntzaz, sexu-indarkeriari buruzko testigantzak hartzeko prozesuari buruzko hainbat jarraibide ezarri zituen, hala nola hauek: testigantzak banakako elkarrizketen bitartez jaso behar zituztela (bakarrik elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua); aita edo senarra

18 EABren Legeak haren osaera hautatzeko prozedura arautzen zuen, eta adierazten zuen bai Hautaketa Taldeak bai Hautaketa Koordinatzaileak “kontuan hartu behar zutela” genero-oreka kideak hautatzerakoan (herrialdeko presidentek formalki izendatu behar zituen). Hala ere, ez zuen kopuru edo ehuneko zehatzik ematen (3. atala, 1. azpiata, a.v).

19 Helburu hori herrialdeko barruti guztietan lortu zen, Kambiako barrutian izan ezik, non emakume bakarra aurkeztu baitzen elkarrizketatzaile izateko (I. liburukia, 5. kapitulua, 115. paragrafoa).

20 Emakumeen testigantzek gatazkan izandako esperientzien heterogeneotasuna adieraz zezaten lortzea zaila izan zen. Adibidez, nahiz eta Batzordeak emakume borrokalariekin harremanetan egon euren errealitatea bistartzeko, gutxi erabaki zuten euren testigantza ematea (III B liburukia, 3. kapitulua, 23. paragrafoa).

elkarrizketan egon ez zedin saiatzea (elkarrizketatutako emakumeak berariaz hura bertan izatea eskatzen ez bazuen); edo, lehen aipatu bezala, elkarrizketatuak elkarrizketatzailea gizon bat izatea eskatu ezean, testigantzak emakume batek jasotzea. Halaber, emakumeek euren testigantza konfidentzialtasunari buruz erabakitzeo aukera zuten; adin txikikoen kasuan, ordea, euren identitatea ez zen inoiz ezagutzera eman (*ibid.*, 20. eta 27. paragrafoak).

Hegoafrikako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen adibideari jarraituz, testigantza eman zuten emakumeei entzunaldietan modu publiko zein pribatuan parte hartzeko aukera eman zieten. Batzordeak sexu-indarkeriaren biktimentzat “entzunaldi bereziak” (publikorik gabekoak) egongo zirela erabaki zuen. Hauen helburua emakume eta neska horiei eremu seguru bat eskaintzea zen, estigmatizazioa edo biktimizazio gehiago ekarriko ez zuena (Sesay eta Suma, 2009: 24). Hala, entzunaldi itxiak EABko kideak ziren emakumek zuzendu zituzten eta horietan euren lantaldeko beste emakume batzuk bakarrik egon zitezkeen. Nahiz eta entzunaldiak erregistratu egin ziren, bideo-grabaketetan, biktimen identitatea zaindu zuten. Gainera, lekukotza eman zuten emakumeek behar bezala trebatutako aholkularien laguntza izan zuten une oro; entzunaldiaren aurretik, hura prestatzeko, entzunaldian zehar eta ondorengo egunetan ere (III B liburukia, 3. kapituluua, 21-27. paragrafoak). Entzunaldi itxietan parte hartzeko aukera izan arren, emakume askok jendaurrean eman nahi izan zuten euren lekukotza, batez ere landa-eremuetan, komunitateak euren kontakizuna entzun zezan. Gatazka armatuan sexu-indarkeria pairatu zuten emakume asko zeudenez, oso garrantzitsua izan zen emakume guztiek Batzordearen aurrean testigantza ematea eta/edo entzunaldietan parte hartzea, indarkeria horren izaera eta irismena ulertzeko (ICTJ, 2004: 4).

Gainera, EABk ospatutako gaikako entzunaldi publikoen parte bezala, 2003ko maiatzaren 22tik 24ra bitartean, Freetownen emakumeen eta nesken esperientziei buruzko saioa egin zuten. Saioa hasi aurretik, emakume-elkarteek, EABko langileek eta ehunka emakumek manifestazio batean parte hartu zuten, hiriko kale nagusietan zehar, entzunaldien aretora iritsi arte. Testigantzak entzun ostean, emakume-erakundeek, UNIFEMek eta beste agentzia emaile batzuek galderak egin zizkieten Batzordeari. Batzordearen kide guztiak izan ziren bertan, baina emakumeek bakarrik erantzun zieten galdera horiei (III B liburukia, 3. kapituluua, 29-30. paragrafoak).

Azkenik, Batzordeak egindako azterketa estatistikoari dagokionez, amaierako txostenak ez du sexu arabera bereizitako datu askorik ematen²¹.

21 Ikus: 1. Eranskina, estatistika-txostena.

Jasotako testigantzen heren bat baino gehiago emakumeenak izan ziren, hau da, 7.706tik 2.728. Testigantza asko biktima eta/edo giza eskubideen urraketa bati baino gehiagori buruzkoak izan zirenez, jasotako urraketen kopurua handiagoa izan zen. Oro har, Batzordeak erregistratutako giza eskubideen urraketen %32 (40.684tik 13.318) emakumeen aurkakoak izan ziren (*ibid.*, 201. paragrafoa). Urraketa mota gehienetan, biktimen artean emakumeak heren bat izan ziren eta gizonak bi heren. Joera hori, ordea, nabarmen aldatzen da sexu-genero joera argia duten urraketa jakinetan. Esate baterako, Batzordearen esanetan sexu-bortxaketa eta sexu-esklabotza kasuen %100 emakumeen aurkakoak izan ziren²²; aitzitik, beste urraketa-mota batzuk batez ere gizon eta mutilen aurkakoak izan ziren, hala nola erreklutamendu behartua (%89), bortxazko lana eta tortura fisikoa (biak, %73) edo hilketa (%74).

4.3. Emakumeei eta gatazka armatuari buruzko kapitulu espezifikoak

Amaierako txostenaren kapitulu honetan (III B liburukia, 3. kapitulua) azpimarratzekoa da EAB gatazkako sexu-indarkeriaren azterketari buruzko mandatuaz harago doala eta sakon aztertzen duela emakumeek eta neskek herrialdean izan duten egoera (gizartean duten tokia, gatazkan izandako esperientziak eta rolak, pairatutako inpaktuak eta hauen ondorioak, etab.). Jarraian, kapituluaren atal nagusiak identifikatu eta hauen edukia laburbilduko dut.

Sarreran EABren mandatua jasotzen da sexu-abusuak ikertzeari dagokionez, (1-15. paragrafoak). Hala, Batzordeak honako galdera honi erantzuna aurkitzeko erronka hartzen du bere gain: “Zergatik erabili zen indarkeria izugarri hori emakumeen aurka?”. Horri erantzuteko, beste galdera hauek ere egokitzat hartzen ditu: “Emakumeak gizonen menpeko egoera batean jarri dituen Sierra Leonako historia kulturalaren eta tradizionalaren ondorioa al da? Emakumeak helburu errazagoak al ziren, euren parte-hartze sozio-politiko txikiaren ondorioz? Gizonek emakumeak objektu, jabetza edo norbere ohorearen sinbolo gisa ikustea izan al zen hauek indarkeriaren nahitako

22 Zaila da azaltzea EABK jasotako 8.000 testigantzetatik bakar batek ere ez aipatzea Sierra Leonako gatazka armatuaren testuinguruan gizonen edo mutilen aurka egindako sexu-indarkeria, are gehiago beste iturri askok indarkeria horren existentzia aitortzen dutenean. Olivera Simicek (2016: 2, 4-5) trantsizioko justiziaren narratiben “gabezia” gisa aipatzen du gizonen eta maskulinitateek duten azterketarik eza.

helburu bihurtu zituena, etsaiaren ohorea suntsitzeko? (14. paragrafoa). Kapituluua galdera hauen erantzuna bilatzen ahalegintzen da.

Emakumeek gatazkaren aurretik Sierra Leonan zuten estatusa aztertzean (35-104. paragrafoak), EABk herrialdeko desberdintasun historikoetan sakontzen du, hauen jatorria eta izaera eta hauek gatazka armatuko emakumeen aurkako indarkeria azaltzeko duten ahalmena ulertzen saiatzeko. Horretarako, bada, emakumeek hainbat eremutan duten egoera aipatzen du, hala nola hezkuntza-, politika-, lege-, ekonomia-, osasun- eta gizarte- eta kultura-eremuetan. Izan ere, horietan emakumeek ez dute inoiz gizonen estatus berdina izan; aitzitik, diskriminatuak izan dira eta horrek ondorio negatiboak izan ditu euren egoera ekonomikoan, parte-hartze politiko eta publikoan, gizarte-ongizatean, osasunean, euren eskubideak babesteko gaitasunean, eta abarrean (41. paragrafoa). Kontu horiek guztiek emakumeen kalteberatasuna areagotu zuten gatazka armatuan.

Sierra Leonan emakumeen eta nesken eskubideen arloan aplikagarria den nazioko eta nazioarteko lege-esparruari dagokionez (105-199. paragrafoak), Batzordeak, lehenik eta behin, legeria nazionala (1991ko Konstituzioa eta lege nagusiak) aztertzen du, baita horrek esparru hauetan duen eragina: ezkontza, ugalketa-osasuna, ondasunen eta lurren jabetza, oinordetza, etxeko indarkeria, genero-indarkeria, sexu-indarkeria edo prostituzioa. Nazioarteko lege-esparruari dagokionez, eta nazioarteko giza eskubideen estandarrak “gutxieneko babes-estandarrak” direla eta sistema juridiko nazional guztiek onartu behar dituztela oinarri hartuta (153. paragrafoa), Batzordeak berariaz aipatzen ditu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Haurren Eskubideen Konbentzioa, Emakumeen aurkako diskriminazio-mota guztiak ezabatzeke Konbentzioa (CEDAW) eta Afrikako Giza Eskubideen eta Herrien Gutuna.

Aipatutako erreferentzia horiez gain, Batzordeak 90eko hamarkadan *ad hoc* eratutako nazioarteko zigor auzitegi bi hauen Estatutuei eta jurisprudentziari erreparatzen die: Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegia (ICTY) eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (ICTR). Era berean, Nazioarteko Zigor Auzitegia (NZA) sortu zuen Erromako Estatutua ere aztertzen du, 1998koa²³. Kasu horietan guztietan, gatazka garaiko emakumeen aurkako sexu-indarkeria epaitzeari dagokionez, Batzordeak auzitegi horiek ekarri dituzten aurrerapenak aztertzen ditu, baita Sierra Leonaren kasuan Nazioarteko Zigor

23 Nazioarteko Zigor Auzitegia 2002an hasi zen funtzionatzen, baina bere lehen epaia ez zen eman 10 urte geroagora arte; beraz, bere txostena egiteko unean, Sierra Leonako EABk bere estatutuari baino ez zion erreferentzia egin, eta ez bere jurisprudentziari.

Zuzenbidearen aurrerapen horiek nola aplika daitezkeen ere. Horretarako, bada, bortxaketa, sexu-esklabotza, bortxazko haurdunaldia, esterilizazio behartua eta beste sexu-indarkeria modu batzuk aztertzen ditu, baita aipatutako auzitegiek krimen horiek gerrako krimenez, gizateriaren aurkako krimenez eta/edo genozidio krimenez hartzen dituzten ere. Batzordeak nabarmentzen duenez, auzitegi horien jurisprudentziatik honako hau ondorioztatzen da: “emakumeen aurkako urraketak gerrako krimenak dira eta, seguruenik, horrela epaitu ahalko ditu Sierra Leonarako Auzitegi Bereziak” (169. paragrafoa)²⁴. Halaber, auzitegi horiek aplikatzen duten eta Nazioarteko Zigor Auzitegiak ere jasotzen duen “genero-integrazio printzipioaren” arabera, diskriminazioa saihesteko krimen hauek sexu-espezifikokoak ez diren indarkeria-krimen gisa epaitu daitezke -adibidez, kasua ezagutzeko ardura duen auzitegiari generoko mandatu espezifikorik eman ez zaionean-. Hori da, hain zuzen ere, sexu-bortxaketarekin gertatzen dena, hura tortura-krimenez hartzen baita eta hala epaitu baitaiteke.

Emakumeen aurkako bortxaketei eta abusuei buruzko hurrengo atal batean (203-328. paragrafoak), Batzordeak haien giza eskubideen urraketa nagusiak aztertzen ditu. Batzordearen ustez, jasotako testigantzek argi eta garbi frogatzen dute emakumeak erasotzeko nahitako estrategia bat izan zela, emakumeak izate hutsagatik (203. paragrafoa). Txostenaren arabera, generoagatik deshumanizatuak eta umiliatuak, emakumeek ankerkeria-maila “izugarriak” pairatu dituzte “epe luzeko ondorioei dagokienez” (318. paragrafoa), besteak beste, bahiketa; erreklutamendu behartua; mutilazioa, atxiloketa arbitrarioa, lekualdatze behartua²⁵; bortxazko lana; eraso, tortura, drogak behartuta hartzea (*forced drugging*); hilketa; emakume haurdunei tripak ateratzea; anputazioa; kanibalismo behartua; sexu-esklabotza; eta sexu-abusua.

Ondoren, kapituluak aktore armatuek sexu-indarkerian izandako papera aztertzen du (329-374. paragrafoak). Batzordeak onartzen du, testigantzen arabera, gobernuaren segurtasun-indarrek ere emakumeen aurkako urraketak

24 Nahiz eta EAB eta Sierra Leonarako Auzitegi Berezia erakunde independenteak eta izaera, mandatu eta helburu desberdinekoak izan, kasu honetan EABk bidea markatu zuen; izan ere, haren ondoren, Auzitegiak sexu-indarkeria mota desberdinak (bereziki sexu-bortxaketa eta sexu-esklabotza) “gerra-krimen”, “gizateriaren aurkako krimen” eta “Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren beste urraketa larri”tzat hartu zituen.

25 Barne-lekualdatzeak edo Liberia eta Gineako Errepublikak bezalako inguruko herrialdeetan babesa bikatzeak emakumeentzat izan zuen eraginaz gain, Batzordeak berariaz aipatzen ditu errefuxiatu-eremuetan langile humanitarioek egindako sexu-abusuak (6. eta 235-236. paragrafoak).

burutu zituztela (207. paragrafoa). Txostenak, ordea, ez du erantzukizun hori zehazten, estatukoak ez diren talde armatuekin egiten duen bezala: *Revolutionary United Front* (RUF), *Civil Defence Force* (CDF), *Armed Forces Revolutionary Council* (AFRC), *Sierra Leone Army* (SLA) eta *West Side Boys*. Erasotzaile gisa identifikatu zituen pertsonekin egin zuen bezala, Batzordeak talde armatuei sexu-indarkeria salaketei erantzuteko aukera eman zien (haien erantzunak txostenean sartu zituzten). Halaber, txostenak nazioarteko misioetako kide zibil eta militarrek gauzatutako sexu-indarkeria ere aipatzen du, nahiz eta horretan ez sakondu. Nazio Batuen Erakundeak ere indarkeria hori egiaztatu du (Nazio Batuen Goi Komisionatua Errefuxiatuentzat eta Save the Children, 2002; NBE, 2002: 9-11).

Emakumeak gatazka armatuaren biktima gisa identifikatzeaz gain, Batzordeak honako hau onartzen du: gatazka armatuak emakumeak rol desberdinak hartzera behartzen ditu, “izaera monokromatikoa ez dutenak” (398. paragrafoa), eta emakumeek gatazketan hartzen duten rol-aniztasun horrek genero-estereotipoak gainditzen ditu (401. paragrafoa).

Alde batetik, txostenak emakume erasotzaileak eta indarkeriaren laguntzaileak aipatzen ditu (388. eta 413. paragrafoak). Talde armatuek hainbat emakume bahitu eta/edo behartuta erreklutatu zituzten eta hauek indarkeria-egitateak gauzatzera behartuak izan ziren. Beste emakume batzuk, ordea, borondatez sartu ziren talde armatuetan (erabaki politikoagatik, justizia edo mendeku sentimenduengatik, segurtasuna bilatzeko, etab.). Talde horietan, beraz, emakume askok borrokalari gisa, laguntza medikoa emanez, elikatuz edo informazioa emanez parte hartu zuten eta horietako askok entrenamendu militarra eta armak erabiltzeko trebakuntza jaso zuten. Sierra Leonan 1998tik 2003ra bitartean egindako Desarme, Desmobilizazio eta Gizarteratze (DDR)²⁶ prozesuaren datuen arabera, 72.490 pertsonatik 4.651 emakumeak izan ziren (%6,5) (Mazurana eta Carlson, 2004: 6 eta 12). Hala ere, seguru asko, zenbatekoa handiagoa da, oso ohikoa baita borrokalari ohiak diren emakumeak DDR prozesuetan parte ez hartzea (Zirion, 2018: 157-158). Izan ere, zenbait iturriren arabera, talde armatuetan parte hartutako emakumeen ehuneko %20-30 da (Mateos, 2011: 327). Halaber, DDR prozesuetan parte hartutako 6.845 adin txikikoetatik 506 neska izan ziren; berriz ere, beste kalkulu batzuetan baino askoz gutxiago. Izan ere, beste kalkulu horien arabera 48.216 adin txikiko soldaduen %25 (12.056) neska izan ziren. EABren arabera, gatazkan

26 DDR siglak erabiliko ditugu, gaztelaniaz (*desarme, desmovilización y reintegración*), frantsesez (*désarmement, démobilisation et réintégration*) eta ingelesez (*disarmament, demobilization and reintegration*) sigla hauen erabilpena oso zabaldua dagoelako.

erasotzaile izandako emakumeek ere giza eskubideen urraketa larriak egin zituzten (394. paragrafoa).

Beste alde batetik, beste hainbat emakume bitartekari eta bakegile ibili ziren (414-428. paragrafoak), ia baliabiderik gabe, etengabeko mehatxupean eta hainbat modura (manifestazioak, hitzaldiak, irratsaioak, eragin politikoa, etab.). Gatazka armatuko eta gatazka armatu osteko testuinguruetan gertatu ohi den bezala, lan hori bakegintzaren eremu informaletan egin zuten, eremu formalak gizonen eskuetan geratu zirelarik (Mendia Azkue, 2014). Esate baterako, Sierra Leonako bi emakumek bakarrik parte hartu zuten Lomeko Akordioa lortzeko negoziazioetan eta gero bietako bat ere ez zen Akordioaren sinatzaile bezala agertu. Era berean, emakumeek ez zuten parte-hartze politiko handiagoa izan Akordioaren inplementazioan. Hori agerikoa da gatazka osteko gobernuan eta parlamentuan izan zuten ordezkari-tza ikusita, hain zuzen ere, 32 ministrotik 3, 30 ministrordetik 3 eta 120 parlamentaritik 16 (13. eta 424. paragrafoak).

Kapitulua, gero, gatazkak emakumeengan eta neskenengan izandako eragina aztertzen du (429-490. paragrafoak). Batez ere dimentsio fisikoari erreparatzen badio ere, beste eremu batzuetako ondorioak ere aztertzen ditu, hala nola ondorio sozio-kulturalak; estigmatizazioa, ostrazismoa eta isolamendua; familia-bizitza haustea; prostituzioa eta sexu-esplotazioa; eta, jakina, osasuna (batez ere sexuala eta ugalketakoa, mentala, sexu-indarkeriaren ondorioak, nahi gabeko haurdunaldiak, sexu-transmisiozko gaixotasunak eta GIB/HIESa). Ondorio horiek kontuan hartuta, kapituluak gatazka ostean emakume eta neskekin esku hartzeko mekanismoak proposatzen ditu (491-510. paragrafoak); batez ere, sexu-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak laguntzeko ekimenak, tokiko eta nazioarteko GKEek aplikatu behar dituztenak. Halaber, gatazkak emakumeengan duen eraginari lotuta (511-559. paragrafoak), Batzordeak honako hauek aztertzen ditu: ondorio ekonomikoak eta pobrezia-egoera; eskuratutako gaitasun berriak (etxebizitza gehien hornitzaile nagusi bilakatu izanagatik); lurraren edo etxebizitzaren jabe izateko dituzten zailtasunak; edo borrokalari ohiak diren emakumeen egoera eta gizarteratzeko erronkak.

Azkenik, emakumeek gerra ostean duten estatus juridikoa eta politikan eta erabakietan duten parte-hartzea aztertzen du EABk (560-579. paragrafoak) eta gatazka ostean emakumeen eta gizonen estatusa eta parte-hartze eta ordezkari-tza publikoa eta politikoa parekatu beharra azpimarratzen du.

5. Generoari buruzko beste ekarpen batzuk EABren amaierako txostenean

5.1. Emakumeen aurkako indarkeria-*continuum*a

Amaierako txostenaren hainbat ataletan –batez ere “Emakumeak eta gatazka armatua Sierra Leonan” kapituluuan–, EABk emakumeek gatazka aurretik, gatazkak iraun bitartean eta gatazka ostean pairatutako indarkeria anitzak aipatzen ditu, horrek “indarkeria-*continuum*” bat erakusten duelarik. Hau da, Batzordeak prozesu konplexu, etengabe eta integral gisa aztertzen du indarkeria; horretan bere forma desberdinak (fisikoa, estrukturala eta kulturala) hainbat eremutan (politikoa, soziala, ekonomikoa) eta momentutan (gatazkaren aurretik, bitartean eta ostean) ematen dira, *continuum* bat osatuz (Moser, 2001; Rehn eta Sirleaf, 2002: 9-10).

Alde batetik, txostenak nabarmentzen du sexu-indarkeria ez zela izan emakumeek pairatutako indarkeria bakarra. Hala, Batzordeak bere azterketan indarkeria zuzena, fisikoa eta agerikoa lehenesten duen arren²⁷, bere txostenak beste indarkeria hauek ere aipatzen ditu: izaera ekonomikoa dutenak, hala nola arpilatzea, estortsioa, ondasunak suntsitzea (III B liburukia, 3. kapituluua, 375-387. paragrafoak); egiturazkoak (parte-hartze eta ordezkartza politiko eta sozial falta, jaraunsteko zailtasunak, lurrak eta baliabide ekonomikoak izateko zailtasunak); eta kulturalak (bigarren mailako papera gizartean, estigmatizazioa, gizartearen arbuioa).

Beste alde batetik, Elisabeth Rehn eta Ellen Johnson Sirleafen ustez (2002: 13), “emakumeek gatazkan pairatzen duten izugarritzko indarkeria ez da gerrako baldintzetatik bakarrik sortzen; aitzitik, bake garaian emakumeen bizitzetan dagoen indarkeriari zuzenean lotuta dago”. Zentzu horretan, Sierra Leonako kasuan, Batzordeak lotura estua ezartzen du emakumeen estatus sozialaren eta gatazka garaiko haien aurkako indarkeriaren artean (III B liburukia, 3. kapituluua, 78. paragrafoa). Horren adibide da emakumeen eta nesken birjintasunaren eraikuntza soziala. Izan ere, hura honako hauen adierazlea da: emakumeen estatus soziala eta gizarteak haiei eta haien ama eta ahizpa, familia edo etniari ere dien aintzatespena. Emakume horien birjintasuna familiarena eta

27 Vasuki Nesiakh (2011:149) adierazi duenez, trantsizioko justizia-prozesuetan, Sierra Leonakoa barne, maiz jarri izan da arreta kalte fisikoetan, eta, horrekin batera, askotan baztertu egiten dira indarkeriak emakumeen bizitzetan dituen beste ondorio garrantzitsu batzuk, hala nola galera pertsonalengatik inpaktua eta mina edo inpaktu sozio-ekonomikoak.

komunitatearena da eta hauen ohorearen osagarri bat da. Horregatik, gatazka armatuan, beste etnia batzuetako birjinak (emakume gazteak eta neskek) bortxatzea arerioa zigortzeko eta haren ohorea erasotzeko modu bilakatu zen. Halaber, emakumeen sexualitatea gizonari lotzen duen eraikuntza historikoaren ondorioz, “komunitateko beste kide batzuek ez zuten ‘osotzat’ hartzen gizonik gabeko emakumea”. Faktore bi horiek lagungarriak dira gatazkan zehar emakume gazteen edo nesken aurka erabilitako sexu-bortxaketa jakin batzuk ulertzeko (bahiketa, ezkontza behartua, sexu-esklabotza) (*ibid.*, 81-85. paragrafoak), edo etxeko indarkeriaren (hori kontu pribatutzat hartzen da), bortxaketaren edo beste sexu-indarkeria mota batzuen aurrean nagusitutako “isiltasunaren kultura” ulertzeko ere (Stovel, 2010; Lambourne eta Rodríguez Carrión, 2016: 78). Aldi berean, faktore horiek oztopatzen dute emakumeek eta hauen inguruneek egitate horiek auzitegien aurrean salatzea edo indarkeriari sozialki aurre egitea eta, horren ondorioz, zigorgabetasun-maila handia sortzen da.

Horren guztiaren ondorioz, EABk hau ondorioztatzen du: emakumeen aurkako indarkeriaren alde aurreko kultura bat egotea eta historikoki indarkeria horren inguruan izan den isiltasuna lagungarriak dira emakumeek gatazka armatuan izandako basakeria ulertzeko. Zentzu horretan, bada, Sierra Leonako EABk, lehen aldiz, lotura argia ezarri zuen gatazka garaiko emakumeen aurkako “ezohiko” indarkeriaren eta gatazka aurreko eta osteko emakumeen aurkako “ohiko” indarkeriaren artean (Lambourne eta Rodríguez Carrión, 2016: 80). Ikuspegi sozial batetik, gatazka aurreko moraltasunarekin eta arauekin hautsi zuen. Hau da, emakumeen aurkako indarkeria gatazkaren aurretik bazegoen ere, gatazkan zehar babes legal eta sozial guztiak desagertu ziren eta haien aurkako indarkeria areagotu egin zen (III B liburukia, 3. kapitulua, 103. paragrafoa).

Aldi berean, gatazkan emakumeen aurkako indarkeria hedatu, orokortu eta normalizatu izanak familia eta komunitate barruko indarkeria handitzea eragin zuen. Gatazkan zehar egindako ikerketa batean, Ann Cokerrek eta Donna Richterrek (1998: 65) adierazi zuten bezala, ez da harrizkoa gatazkan zehar sexu-indarkeria maila hain altuak sortu dituen gizarte batek familia barruko abusu-maila altuak izatea ere.

5.2. Emakumeen esperientzia-heterogeneotasuna

Egoera gehienetan Batzordeak subjektu generiko gisa aipatzen ditu emakumeak eta ziurtzat jotzen du hauek hainbat elementu partekatzen dituztela (besteak beste, gizonen aurrean pairatzen duten diskriminazioa) baina, era berean, hori oso kolektibo heterogeneoa dela onartzen du.

Generoaz gain, beste inguruabar askok ere zerikusia dute eta diskriminazio berriak sortzen dituzte. Diskriminazio horiek intersektionatzen dute eta emakumeak modu desberdinean kokatzen dituzte gizartean eta gatazka armatuan (Simic, 2016: 3). Inguruabar horien artean daude, batetik, emakumeen ezaugarrietatik eratortzen direnak (etnia, adina, erlijio, hiri edo landa jatorria, gizarte-klasea, egoera zibila, etab.) eta, bestetik, gatazka armatuan zehar –nahita edo ez– bete zituzten rola. Faktore horiek, izan ere, egoera desberdinetan kokatu zituzten emakumeak gatazka aurretik eta horretan zehar eta, beraz, gatazkatik sortutako esperientziak, ondorioak eta eraginak eta horiei aurre egiteko moduak ere oso desberdinak izan ziren. Bere azterketan, Batzordeak esperientzia- eta bizipen-heterogeneotasun horren adibide asko ematen ditu.

Lehenik, Sierra Leonan 17 etnia dira aitortuak. Emakumeak, oro har, botere publikotik (governukoa zein tradizionala) baztertuak izan diren arren, euren parte-hartze politikoa desberdina izan da erregioaren eta etniaren arabera. Tradizioa eta kultura oztupo handiak izan dira emakumeen parte-hartzerako, batez ere probintzietan eta landa-eremuetan (III B liburukia, 3. kapituluua, 55. paragrafoa). Dena den, Krio etniako zenbait emakumek historikoki herrialdeko bizitza politikoan parte hartzeko aukera gehiago izan dituzte eta, hiriburuan, Mende eta Temne etnietako emakume batzuek ardua postuak hartu izan dituzte agintari tradizional gisa (*ibid.*, 43. paragrafoa). Horrek, bada, estatus eta aukera desberdinak eman dizkie gatazkari eta indarkeriari aurre egiteko. Ohiturazko zuzenbidean jaraunspena arautzen duten legeak desberdintasun etnikoei buruzko beste alderdi bat dira, gatazkaren aurretik, bitartean eta ondoren emakumeen artean egoera desberdinak sortu dituenak. Adibidez, etnia batzuen legeen arabera, alargunek ezin dute jaraunsi, edo berak dira hildakoaren anaiak edo seme nagusiak jaraunsten duen zerbait (*ibid.*, 123. paragrafoa).

Bigarrenik, emakumeen jatorri hiritar edo landatarrari dagokionez, gatazkek ez zituen ondorio berdinak izan hirietan eta landa-eremuetan. Izan ere, azken horietan estatus kanpoko talde armatuen presentzia eta emakumeen aurkako indarkeria handiagoa izan zen –1999an Freetown hiriburua hartu zutenean gertatutakoa salbuespen bat da–. Halaber, hezkuntzan, gizonak eta mutilak lehenetsi izan dituzte emakume eta nesken aurrean, baina landa-eremuetan hirietan baino gehiago (bertan daude eskola gehienak) (*ibid.*, 35-37. paragrafoak). Horrek, bada, ekarri du emakumeek, euren jatorri geografikoaren arabera, independentzia- eta ahalduzko-maila eta euren eskubideak babesteko eta aldarrikatzeko ahalmen desberdinak izatea. Egoera hori, argiagoa izan da emakume eta neska pobreen kasuan, hauek segurtasun-mekanismo gutxiago izan baitituzte indarkeriaren aurrean (*ibid.*, 101. paragrafoa).

Hirugarrenik, hainbat sinesmen erlijioso daude (islama, kristautasuna eta animismoa, nagusiki) hainbat sistema juridikorekin batera (*common law*²⁸, ohiturazko zuzenbidea²⁹ eta lege islamikoa). Horrek balio sozial eta moral desberdinak sortu ditu historian zehar eta, horren ondorioz, desberdintasun juridikoak izan dira arauketan, esate baterako, *common law* eta zuzenbide islamikoaren artean, ezkontzeko gutxieneko adinari edo sexu-indarkeria delituen zigorrari dagokienez.

Laugarrenik, eta aurrekoari oso lotuta, Batzordearen arabera, adinak emakumeek indarkeria pairatzeko duten arriskuan eragin zuen, batez ere sexu-indarkeria. Bai zuzenbide islamikoa (kristaua ere neurri txikiago batean), bai ohiturazkoa, malguak izan ohi dira ezkontzeko gutxieneko adinari dagokionez, eta hura onartu ohi dute nesken garapena fisikoki nabaritzen denean (bularrak hazi zaizkienean eta hilekoa heldu zaienean). Ideia horrek, emakume ezkonduak gehiago errespetatzen dituen gizarte-eraikuntzarekin batera, lagungarria da azaltzeko zergatik izan ziren ezkonduak ez zeuden neskatoak eta emakume gazteak bahiketa, bortxaketa edo sexu-esklabotzaren helburu espezifikoa, eta nola talde armatu batzuek ez zuten aberraziotzat jotzen emakume gazteak bortxatzea edo sexu-esklabo gisa erabiltzea (*ibid.*, 84-85). Aldi berean, gerrak gizartean errotuta zeuden balio sozial eta kulturalak hautsi zituen, hala nola emakume nagusiak errespetatzea eta zaintzea. Ondorioz, emakume horiek, askotan, babesgabetasun eta abandonu egoeran geratu ziren.

Azkenik, ezkontzari emandako garrantzi sozial eta erlijiosoa dela eta, gatazkaren ondorioz alargun geratutako emakumeak bereziki babesgabeak izan ziren genero-indarkerien aurrean. Gainera, indarkeria ekonomiko modu asko pairatu zituzten gatazka ostean, lege-sistemak ez baitie jaraunsteke edo lurren edo etxebizitzaren jabe izateko eskubidea aitortzen (II. liburukia, 2. kapitulua, 547-548. paragrafoak).

28 Erresuma Batuko iragan kolonialari jarraiki, Sierra Leonak sistema juridiko anglosaxoia (*common law*) erabiltzen du. Hura, Zuzenbide-iturri nagusi gisa, ohituran eta organo judizialen jurisprudentzian oinarritzen da, Europako Zuzenbide kontinentalarekin alderatuta, non legeak Zuzenbide-iturri funtsezkoenak diren.

29 Ohituran oinarritutako Zuzenbide-arauak, zenbait komunitatetan aplikatzekoak. Oro har, arau horiek ez daude idatzita, eta komunitateak nahitaezkoak direla onartzearen ondorio dira. Sierra Leonan, ohiturazko zuzenbidea, batzuetan, lege islamikoarekin lotzen da.

Laburbilduz, emakumeen esperientzia heterogeneoen artean, Batzordearen arabera, gerrako alargunak, emakume nagusiak, ama gazteak, emakume eta neska lekualdatuak eta borrokalari ohiak diren emakumeak bereziki kalteberak izan ziren, bai gatazkan zehar, bai gatazka ostean (*ibid.*, 3. kapitulua, 322 eta 357 paragrafoak).

6. Amaierako gogoetak

Sierra Leonako gatazkan aktore armatuek 1991tik 2002ra bitartean egindako giza eskubideen urraketan garrantziaren eta larritasunaren ondorioz, herrialdean hainbat trantsizioko justizia-mekanismo martxan jarri zituzten gertatutakoari heltzeko. Lan honek Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea izan du hizpide, 2002tik 2004ra bitartean aritu zena eta honako helburu hauek izan zituen: urraketa horiek erregistratzea eta aztertzea, biktimei erantzutea, inpunitateari aurre egitea eta ikaspenak ateratzea, indarkeria hura berriro errepika ez zedin.

Aipatu bezala, EABren lanean garrantzitsua izan zen nazioarteko erkidegoaren zein Sierra Leonako gizarte zibilaren laguntza. Azken honek, bada, Batzordea sortzeko presioa egin zuen eta horretan hainbat modura parte hartu zuen. Hala ere, EABk muga nabarmenak izan zituen, nahiz eta horiek ulergarriak izan testuingurua dela eta. Hala, Batzordearen hasiera atzeratu egin zen gatazka armatua berpiztearen eta ahultasun logistikoak eta teknikoak ekarri zituzten zailtasun finantzarioen ondorioz.

Bestalde, haren mandatua ezarri zuen Lege nazionalak ez zituen generoa edo emakumeak aipatu; bai aipatu zuen, ordea, EABk sexu-indarkeria aztertu behar zuela bereziki, batez ere gatazkan horrek izan zuen hedadura kontuan hartuta. Bere txostenean, bada, EABk aitortzen du indarkeria horren biktime gehienak emakumeak eta neskatoak izan zirela; eta emakumeen aurka zuzendutako indarkeria izugarria izan zela, emakume izate hutsagatik. Sexu-indarkeriari dagokionez, Sierra Leonako EABren lanak inflexio-puntu bat ezarri zuen aurreko beste EAB batzuekin konparatuta; izan ere, kasu honetan, sexu-indarkeriaren azterketa Batzordearen mandatuan agertzen zen. Eta, aldi berean, ondorengo batzordeen mandatuan generoa txertatzeko bidea seinatu zuen.

Bere metodologiari dagokionez, Batzordeak UNIFEMen aholkularitza eta trebakuntza izan zuen. Batzordekideen artean bi emakume besterik egon ez ziren arren, EABk ahalegin handia egin zuen zuzendaritza-postuetan eta langileen artean paritatea sustatzeko, baita testigantza eman zuten pertsonen

artean ere. Horretarako, bada, sentsibilizazio-lana egin zuen euren testigantza eman zezaketen emakumeekin (biktimak eta borrokalaria) eta EABren lana lagundu zuten tokiko GKEekin. Halaber, testigantzak jasotzeko eta entzunaldi publiko zein pribatuen prozeduretarako jarraibide espezifikoak ezarri zituen, honako helburu hauekin: emakumeen eta gizonen parte-hartze berdinerako oztupoak kentzea, emakume eta neskentzat konfiantzazko giro segurua sortzea eta hauen estigmatizazioa edo birbiktimizazioa saihestea. Emakumeen testigantzak eta entzunaldietan Batzordearen aurrean izan zuten parte-hartzea funtsezkoak izan ziren honek emakumeen aurkako indarkeriaren izaera eta zenbaterainokoa uler zedin.

Bere amaierako txostenean, EABk, sexu-indarkeriaren gaiak gain, honako hauek ere aztertzen ditu: emakumeek eta neskek herrialdean duten menpekotasun egoera, eurek gatazkan izandako esperientzia eta rol desberdinak, eta gatazka ostean pairatu dituzten ondorioak. Zentzu horretan, beraz, EABk, bere mandatuaz harago joanez, Sierra Leonako gizartean emakumeek eta neskek pairatzen duten desberdintasun egoeraren diagnostiko sakon, zabal eta multisektoriala egiten du. Horretan, genero-desberdintasuna aztertzen du, horren seinale argienetakoa den sexu-indarkeriaz harago. Izan ere, enfasia sexu-indarkerian kokatzeak ez du sustatzen genero-analisi bat, gatazka armatuetan emakumeen aurkako beste indarkeria-modu batzuk hartzen dituena, botere-harreman desberdinetan eragiten duena eta gizonak eta maskulinitateek testuinguru horietan duten papera azaltzen duena.

EABren amaierako txostenean azpimarratu beharreko beste bi kontu daude. Lehenik, nola seinalatzen duen bi hauen arteko lotura: herrialdean emakumeek historikoki pairatutako menpekotasuna eta gatazka armatuan zehar haien aurka erabilitako sexu-indarkeria. Aldi berean, txostenak gatazka ostean emakumeen aurka izandako indarkeria-maila altua saltzen du; izan ere, gomendioen kapituluan aitortzen du orduan ere emakumeek indarkeriaren helburu izaten jarraitzen dutela eta oraindik genero-desberdintasuna dagoela Sierra Leonako gizarte-, politika- eta ekonomia-bizitzaren esparru guztietan; lege, tradizio, ohitura, praktika eta jokabide diskriminatzaileen bitartez. Horrek guztiak erakusten duenez, indarkeria-*continuum* bat dago eta gatazka errepikatzea nahi ez badugu hura ulertu eta hautsi beharra dago. Bigarrenik, EABk ez ditu emakumeen esperientziak generoaren arabera sinplifikatzen edo bateratzen; aitzitik, beste faktore asko hartzen ditu kontuan (adina, etnia, erlijioa, egoera zibila, hiri edo landa jatorria, etab.) honako hau ulertzeko: nola intersektionatzen dute faktore horiek generoarekin eta nola eragin zuten emakumeen egoera sozialean eta gatazka garaian pairatutako indarkerietan.

EABren gomendioei erantzunez, Sierra Leonako gobernuak Liburu Zuri bat argitaratu zuen 2005ean. Horretan, gomendio horiek gehienak onartzen zituen eta horiek aplikatzeko erronka hartzen zuen bere gain. Ez da haatik horrela izan. Aurrerapenen bat izan bada ere, hala nola nesken bigarren hezkuntza sustatzea, gobernuak ez ditu pauso sendoak eman EABren beste gomendio batzuei dagokienez. Ez du aurrera egin, adibidez, sexu-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo ohiturazko legeetan sexu-irainak tratatzeko moduaren aurka borrokatzen duen legerik edo gobernuaren praktikarik sustatzen. Era berean, ez ditu emakumeek justizia izateko duten aukerak hobetzeko edo bizitza politikoan duten parte-hartzea handitzeko gomendioak ezarri (adibidez, hauteskunde publikoetan gutxienez emakumeen %30eko presentzia bermatuko zuen lege bat sortuz). Azkenik, ez ditu EABk oso kalteberatzen hartutako emakume horien beharrei erantzuna eman, hala nola, gerrako alargunena, borrokalari ohiena eta adineko andreena.


Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen amaierako txostena argitaratu zenetik urteak igaro diren arren eta txostenak gatazka armatuan zehar emakumeek pairatutako giza eskubideen urraketak ezagutzera eman zituen arren, emakumeentzat, neurri handi batean, justiziaren bidea ibiltzeke dago oraindik.

Bibliografia

- Benavides, Farid *et al.* (2018): “Límites y desafíos de la justicia transicional en las nuevas transiciones: un análisis crítico a partir de los casos de Sierra Leona, Marruecos y Colombia”, *Relaciones Internacionales*, 38, 121-145.
- Coker, Ann L. eta Donna L. Richter (1998): “Violence Against Women in Sierra Leone: Frequency and Correlates of Intimate Partner Violence and Forced Sexual Intercourse”, *Africa Journal of Reproductive Health*, 2, libk., 1. zkia., 61-72.
- Hayner, Priscilla B. (2011): *Unspeakable Truths: Transitional Justice and the Challenge of Truth Commissions*, Routledge, New York.
- International Center for Transitional Justice (ICTJ) (2004): “The Sierra Leone Truth and Reconciliation Commission: Reviewing the First Year”, *Case Study Series*, <https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-SierraLeone-Justice-Review-2004-English.pdf>.

- Lambourne, Wendy eta Vivianna Rodríguez Carreon (2016): “Engendering Transitional Justice: a Transformative Approach to Building Peace and Attaining Human Rights for Women”, *Human Rights Review*, 17, 71-93.
- Lomeko Bake Akordia (1999): <http://www.sierra-leone.org/lomeaccord.html>.
- Mateos, Oscar (2011): *La construcción de paz posbélica. Análisis de los debates críticos a través del caso de Sierra Leona*, Doktore-tesia, Universitat Autònoma de Barcelona. <http://www.sierraleonetrc.org/index.php/view-the-final-report/table-of-contents>
- Mazurana, Dyan eta Kristopher Carlson (2004): *From Combat to Community. Women and Girls of Sierra Leone*, Women Waging Peace, Washington, D.C.
- Mendia Azkue, Irantzu (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.
- Moser, Caroline O. N. (2001): “The Gendered Continuum of Violence and Conflict: An Operational framework”, in Moser, Caroline O. N. eta Fiona Clark (argtz.): *Victims, Perpetrators or Actors? Gender, Armed Conflicts and Political Violence*, Zed Books, Londres, 31-51.
- Nazio Batuen Erakundea (2002): *Investigation into sexual exploitation of refugees by aid workers in West Africa*, Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiaren txostena. A/57/465 dokumentua, <https://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/E1DF85F15B720D2E85256C5A0068E4D4-oios-westafrica-11oct.pdf>.
- Nazio Batuen Goi Komisionatua Errefuxiatuentzat (UNCHR) eta Save the Children (2002): *Sexual Violence and Exploitation: The Experience of Refugee Children in Liberia, Guinea and Sierra Leone*, https://www.savethechildren.org.uk/content/dam/global/reports/health-and-nutrition/sexual_violence_and_exploitation_1.pdf.
- Nesiah, Vasuki (2011): “Missionary Zeal for a Secular Mission: Bringing Gender to Transitional Justice and Redemption to Feminism”, in Kouvo, Sari eta Zoe Pearson (argtz.): *Feminist Perspectives on Contemporary International Law: Between Resistance and Compliance*, Hart, Portland, 137-159.
- Penfold, Peter (2009): “The Special Court for Sierra Leone: A Critical Analysis”, in Gberie, Lansana (argtz.): *Rescuing a Fragile State. Sierra Leone 2002-2008*, LCMSDS Press of Wilfrid Laurier University, Ontario, 53-72.

- Porter, Elisabeth (2016): “Gendered Narratives: Stories and Silences in Transitional Justice”, *Human Rights Review*, 17, 35-50.
- Rehn, Elisabeth eta Ellen Johnson Sirleaf (2002): *Women, War and Peace: The Independent Expert’s Assessment on the Impact of Armed Conflict on Women and Women’s Role in Peace-Building*, UNIFEM, New York.
- Sesay, Mohamed Gibril eta Mohamed Suma (2009): *Transitional Justice and DDR: The Case of Sierra Leone*, International Center for Transitional Justice, <https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-DDR-Sierra-Leone-CaseStudy-2009-English.pdf>.
- Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea (2004): *Amaierako txostena*, <http://www.sierraleonetr.org/index.php/view-the-final-report/table-of-contents>.
- Sierra Leonarako Auzitegi Berezia (2002): *Estatutua*, <http://www.rscsl.org/Documents/scsl-statute.pdf>.
- Sierra Leonako Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordearen Legea (2000): <http://www.sierra-leone.org/Laws/2000-4.pdf>.
- Simic, Olivera (2016): “Engendering Transitional Justice: Silence, Absence and Repair”, *Human Rights Review*, 17, 1-8.
- Stovel, Laura Anne (2010): *Long road home: Building reconciliation and trust in post-war Sierra Leone*, Intersentia, Oxford.
- zirion landaluze, iker (2018): *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.



V. Kapitulua
Emakumeak eta genero-ikuspegia
Kolonbiako Egiaren Batzordean:
egia argitzeko aurrerapenak eta erronkak

V. Kapitulu

Emakumeak eta genero-ikuspegia Kolonbiako Egiaren Batzordean: egia argitzeko aurrerapenak eta erronkak¹

Diana Marcela Gómez Correal

1. Sarrera

2016ko azaroaren 24an, Gatazka amaitzeko eta bake egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko Azken Akordioa sinatu zuten Kolonbiako estatuak -Juan Manuel Santos orduko presidentearen gobernuarekin- eta FARC-EP gerrillak. Akordioak negoziazio-agendaren 5. puntuan (gatazka armatuaren biktimei buruzkoa) jaso zuen Egia, Justizia eta Erreparaziorako eta Ez Errepikatzeko Sistema Integrala (SIVJRGNR) sortzeko erabakia. Sistema hura, bada, honako hauek osatzen dute: Bakerako Jurisdikzio Berezia (JEP), biktimen justizia lortzeko eskubidea bermatzeko ardura duena; Desagertuak Bilatzeko Unitatea (UNPD); Egiaren Batzordea (aurrerantzean EB); eta berriro ez errepikatzeko neurriak.

Negoiazioen esparruan, EBa sortzea izan zen, besteak beste, biktimen mugimenduen, emakumeen mugimenduen eta mugimendu feministen, mugimendu etnikoen, giza eskubideen eta bakearen aldeko mugimenduen eta mugimendu sindikalisten eskari nagusietako bat. Mugimendu horiek izandako eragin handiari eta trantsizioko justiziaren ildo orokorrei esker, Bake Akordioetan Egiaren Batzordea sartu zuten. Izan ere, 2017ko apirilko 588 Dekretuak “Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Ez Errepikatzeko Batzordea antolatzen du”. EBak, hortaz, 2018ko maiatzean hasi zen lanean. Bere prestaketak sei hilabete iraun zuen eta gero hiru urte iraungo dituen mandatua eman zitzaion, urte bereko azaroaren 28an hasi zena.

1 Kapitulu honek egilea egiten ari den beste ikerketa batzuen emaitzak biltzen ditu, batez ere Andeatako Unibertsitateak finantzaturako ikerketa honenak: “Peruko eta Kolonbiako Egiaren Batzordeetan emakumeek eta euren erresistentzia-prozesuek bizi izandako kalteak: trantsizioko justiziaren atzera eta aurrera begirakoak”. Eskerrak eman nahi dizkiot María Mónica Manjarresi, Andeatako Unibertsitateko Genero Maisutzako ikasle eta aipatu berri den proiektuaren ikerketa-laguntzaileari, dokumentu honetarako informazioa biltzen laguntzeagatik.

Bere ildo orokorretan, Batzordeak lurralde-ikuspegia era ikuspegi diferentzial eta generokoa sartu zituen, azken hau Kolonbiako emakume-mugimenduen, mugimendu feministen eta LGTBI mugimenduen eraginari esker. Batzordearen lan guztia mandatu honen inguruan egituratzen da: Kolonbiako gatazka armatuan gertatutakoa argitzea²; biktimak, hauen mina eta erresistentzia-prozesuak eta bakegintzari egindako ekarpenak aintzat hartzea; eta lurralde guztietan bizikidetzat sustatzea.

Kapitulu honek EBak genero-ikuspegia txertatzean egindako aurrerapen nagusiak deskribatzeko eta aztertzeke helburua du, baita geratzen zaizkion hilabeteetan dituen erronkak identifikatzeko ere. Horretarako, bada, honela egituratu dugu testua: lehenik, aztertuko ditugu Kolonbiako Egiaren Batzordearen aurrekariak eta, testuinguru horretan, bakearen aldeko emakumeen mugimenduen eta mugimendu feministen sorrera eta biktimizatutako emakumeen eskubideen aldarrikapena. Bigarrenik, genero-ikuspegiari dagokionez Egiaren Batzordearen funtzionamendua eta egitura labur azalduko ditugu. Hirugarrenik, genero-ikuspegia bere egitekoan txertatzeko prozesuan egindako aurrerapenak aztertuko ditugu. Azkenik, Batzordeak dituen erronkak identifikatuko ditugu emakumeek pairatutako indarkeria-egitateak bere mandatuan sartzeari dagokionez.

2. Kolonbian emakumeek pairatutako indarkeriak argitzeko aurrekariak

1980ko hamarkadan, Kolonbiako emakume-erakundeak eta erakunde feministak beren eskariak artikulatzen hasi ziren bakearen eta indarkeria etetearen inguruan. Testuingurua Estatuaren, talde paramilitarren, gerrillaren eta narkotrafikoaren indarkeria larrikoa zen. 1990ko hamarkadan, emakumeen erakundeak eta sareak finkatu ziren eta horien ekintza nagusietako bat izan zen barne-gatazka armatuari irtenbide negoziatua emateko eta emakumeen aurkako indarkeria aintzat hartzeko eskatzea. Aldi berean, akademian, ikasketa feministak eta generokoak sartu eta finkatu ziren eta, gatazka armatuan eta

2 Dekretuak esplizituki aipatzen du gatazkaren dinamikaren 13 alderdi zentral argitu behar direla, horien artean: giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak diren praktikak eta egitateak; FARC gerrillaren eta estatuaren erantzukizun kolektiboak; paramilitarismoa, lekualdatze behartua eta lurrak kentzea bezalako fenomenoak; eta gatazkak maila indibidual eta kolektiboan eta demokrazian dituen inpaktuak. Ikus: <https://comisiondelaverdad.co/la-comision/mandato-y-funciones>.

indarkeria soziopolitikoan³ emakumeen aurka erabilitako indarkeriaren gaineko ardura handitu zen.

Metaketa intelektual eta antolatzaile hori 1998tik 2002ra bitartean Andrés Pastranaren eta FARC-EP gerrillaren artean egindako bake negoziazioetan islatu zen. Bake-prozesu horren esparruan, hainbat emakume-erakunde eta erakunde feministak Caguáneko Entzunaldietan parte hartu zuten, emakumeen egoerari buruzko eskariekin (Wills eta Gómez, 2006)⁴. Negoziazio horretan izandako parte-hartzeak bakearen inguruan emakumeak antolatzeko beste prozesu batzuk finkatzea bultzatu zuen. Aurretik zeuden erakundeez gain (besteak beste, Emakumeen Ibilbide Baketsua eta Bake Egile eta Eragile diren Emakumeen Mugimendua), 2001ean, Bakearen aldeko Emakume Kolonbiarren Ekimena (IMP) aliantza sortu zen. Negoziazio-prozesu horrek porrot egin bazuen ere, IMPk 2002ko Emakumeen Eratzaile Emantzipatzailea eta Bakearen aldeko Emakumeen Oinarrizko Agenda Komuna sustatu zituen⁵. Geroago, Álvaro Uribe presidentek bere lehen agintaldian (2002-2006) burututako desmobilizazio paramilitarraren erdian, IMPk prozesu hori interpelatu zuen, emakumeek paramilitarismoaren indarkeriaren ondorioz pairatutako kalteak kontuan hartzen zituela bermatu nahian.

Horrek ekarri zuen, besteak beste, egia argitzeko lanean genero-ikuspegia txertatzea; eta eginkizun hori Memoria Historikoko Taldeari (GMH) eman zioten (2007-2011). Taldea, izan ere, Erreparazio eta Adiskidetzarako Batzorde Nazionalaren (CNRR) parte bezala sortu zen⁶. CNRR, bere aldetik, desmobilizazio paramilitarreko testuinguruan sortu zen eta gerora Memoria Historikoaren Zentro Nazional (CNMH) bilakatuko zen. Kolonbiak, bada,

3 Testu honetan nozio biak erabiliko ditut, gatazka armatua kategoriak ezin baitu Kolonbiak arrazoi politikoengatik bizi izan duen indarkeria guztia azaldu. Horrek ez du esan nahi gatazka armatua ukatzen dudarik, Álvaro Uribe (2002-2010) eta Iván Duque (2018-2022) presidentek eta gobernu bietako hainbat funtzionariok egin duten bezala.

4 Negoziazio mahaia San Vicente del Caguánen ezarri zen, Caquetáko departamenduan. Bake-prozesuaren parte bezala, entzunaldi publikoak antolatu zituzten eta horietan gizarte zibilak parte hartu zuen. Emakumeen eta feministen mugimenduak, emakumeak ez egotearekin eta bake-prozesuan genero-ikuspegiaren faltarekin kezkatuta, entzunaldi bat eskatu zuen gatazka armatuari irtenbide negoziatu bat emateko modu gisa eta bakea lortzeko gizarte-justizia eta genero-ekitatea beharrezkoak direla babesten duen tesia finkatzeko (Wills y Gómez, 2006: 307).

5 IMP bakearen aldeko eta gerraren kontrako emakumeen eta feministen mugimenduko erakundeak batzeko sortu zen. 2003an, Emakumeen Ibilbide Baketsua eremu horretatik irten zen pentsatzen zuelako 2002ko Emakumeen Eratzaile Emantzipatzailearekin IMPren helburua bete zela eta hobe zutela euren lana modu autonomo batean garatzea.

6 Eremu horretan IMPk gizarte zibila ordezkatzu parte hartu zuen.

iragan bortitza berreraikitze hainbat ariketa eginak zituen, horiek bake-akordio baten edo diktadura batetik demokraziara igarotzearen emaitza izan ez baziren ere. Hala, ariketa horiek ikasbide izan ziren GMH eta CNMH erakundeentzat. Jaramilloren arabera (2014), honako hauek dira gai horri dagozkion esperientzia garrantzitsuenak: Lurralde Nazionaleko Indarkeriaren Kausa eta Egoerak Ikertzeko Batzorde Nazionala (1958), Jorge Eliécer Gaitánen hilketaren osteko aldi historikoa (Indarkeria izenez ezagutzen dena) ikertzeko ardura zuena⁷; eta Indarkeriari buruzko Ikasketa Batzordea (1987), 1980ko hamarkadan Kolonbia astintzen zuten indarkeria desberdinak eraldatzeko agenda bat sortzeko ardura zuena.

GMHk, lehenengo, eta CNHMk, gero, biktimengan jarri zuten arreta, hauek eskubide-subjektutzat hartuz, eta genero-ikuspegia txertatu zuten. Azken hau oso berria zen egia argitzeko ekimen ofizialetan eta, lehen aipatu bezala, emakume-mugimenduen eta mugimendu feministen ekintzaren ondorio izan zen; haiek desmobilizazio paramilitarreko prozesua zuzenean interpelatu baitzuten. Era berean, hasiera batean zenbaitek prozesuari uko egin zioten arren, denboraren poderioz, trantsizioko justizia mekanismoak sortzea aukera gisa ikusi zuten. Horiek ere eragina izan zuten genero-ikuspegia txertatzean. Hala, emakumeek, afrikar jatorriko biztanleek, indigenek eta buruzagi politikoez gatazka armatua modu desberdinean bizi izan zutela onartu zuen GMHk (Jaramillo, 2014). Zalantzarik gabe, egia argitzeko esperientzia horiek guztiak balio handikoak dira EBarentzat, eta azken biak Generoko Lantaldearentzat bereziki.

Indarkeria ikertzeko mekanismoak sortzearekin batera, senideen eta giza eskubideen erakundeek 1970ko hamarkadaren amaieratik eskatu dute gertatutakoa argitzeko, giza eskubideak urratu direla onartzeko eta memoria-eta egia-prozesuak abian jartzeko. Egiaren Batzordea sortzea biktimen sektoreen, giza eskubideen erakundeen eta Herri Ikerketa eta Hezkuntza Zentroa (CINEP) bezalako pentsamendu-zentroen eskaera garrantzitsu bilakatu zen 1990ko hamarkadan. Hego Konoko demokraziarako trantsizio-esperientziak, eta Erdialdeko Amerikako bake-prozesuak ikasbidetzat hartu ziren. Testuinguru horretan, bada, 1996an, Colombia Nunca Más proiektua (PCNM) sortu zen hainbat erakundek bat egitean. Ekimen haren helburua estatuak eta egitura paramilitarrek egindako giza eskubideen urraketari buruzko informazioa biltzea, sistematizatzea eta babestea izan zen. Izan ere,

7 Ikerketaren emaitza bezala, *La Violencia en Colombia. Estudio de un proceso social* (Indarkeria Kolonbian. Gizarte-prozesu baten ikerketa) liburua herrialde horren indarkeriari buruzko lehen kontakizun akademikoa izango da.

informazio hura, garai hartan, salatzeke mekanismo bat izan zitekeen, baita gerora sor zitekeen Egiaren Batzorderako baliabide bat ere⁸.

Emakume-mugimenduen eta mugimendu feministen eremuan, 2000ko hamarkadak ekarri zuen emakume biktimizatuen eskubideen inguruko eskaerak sakontzea, horiek aurreko hamarkadan sortu baziren ere. Mende honen hasieran, bateratze-, prestakuntza- eta eragin-prozesuak egin ziren, baita ekitaldi publikoak eta mobilizazioak ere, emakumeen aurkako indarkeria bistartzeko eta egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko. Emakumeen eta feministen mugimenduarentzat oso garrantzitsuak izan ziren Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen ikaspenak. Izan ere, batzorde hori Kolonbiako kezka horien paraleloan sortu zen (2001-2003) eta genero-ikuspegia txertatu zuen bere mandatuan. Zeregin hori guztia eta horrek ekarri zituen ikaspenak baliagarriak izan ziren desmobilizazio paramilitarraren prozesuan emakume-erakundeek eragina izan zezaten. Trantsizioko justiziako zenbait tresnaren, hala nola GMHren mandatuan genero-ikuspegia txertatzea eta hau justiziako eta erreparazioko zenbait mekanismotan garrantzitsutzat hartzea izan ziren lehenengo lorpenak.

1990ko eta 2000ko hamarkadetan, emakume-erakundeek eta erakunde feministek eta generoko pentsamenduko eta pentsamendu feministako zentroek gatazka armatuan emakumeek pairatutako indarkeria berritzeko lanarekin jarraitu zuten. Emakumeengandik sortzen ari zen egia horren emaitzak honako hauen bitartez lortu ziren, besteak beste: tailerrak, bideoak, antzezlanak, performanceak, ekitaldi publikoak eta gertatutakoa berritzeko ahozko eta idatzizko memoria-ariketak. Idatzizko sistematizazio adibideen artean, aipatzekoa da Emakumeen Ibilbide Baketsuak proposatutako Kolonbiako emakumeen Egiaren eta Memoriaren Batzordea⁹.

2012an Santosen gobernuaren eta FARC-EPren arteko bake-prozesua hasi zenerako, emakumeen eta feministen mugimenduaren lehentasunen artean aurkitzen zen gatazka armatuan emakumeek pairatutako indarkeriak argitzea. Eskaera horrekin batera hainbat ziurtasun zeuden: emakumeek gogoratzeko modu berezia dutela, generoko egituraketarekin eta emakumeei sozialki eta kulturalki egokitutako zaintza-lanekin lotuta dagoena; haien aurka erabiltzen den indarkeriaren zati bat sexu-indarkeria dela; biktimen mugimenduetako kide gehienak emakumeak direla, hauen familietako, komunitateetako eta

8 Ikus: <https://movimientodevictimas.org/historia>.

9 Ikus: <https://www.rutapacifica.org.co/comision-de-la-verdad-y-memoria>.

erakundeetako gizonak baino ehuneko handiagoan iraun dutelako bizirik; eta beturreko feministak eta generokoak behar direla emakumeen aurkako indarkeriak eta horien inpaktuak ulertzeko.

Hala, emakume-erakundeak eta erakunde feministak ezagutza eta ekintza ugarirekin heldu ziren Santosen gobernuaren bake-prozesura. Hori, gainera, nazioarteko arauak indartu zuten, hala nola Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak; izan ere, horrek emakumeek negoziazioetan eta bakearen eraikuntzan parte hartzea eskatzen du. Gainera, bake prozesuaren erdian erakunde berriak sortu ziren, hala nola, Bakearen aldeko Emakumeak, eta emakume-erakunde feministen arteko aliantza zabala Emakumeen eta Bakearen Goi Bilera Nazionalaren itzalpean. Bilerari esker, mugimenduak eragin handiagoa izan zuen Habanan egindako bake-negoziatioetan¹⁰.

Emakume-mugimendu feministen eragin-prozesu handi baten eta gobernu eta FARC-EP gerrillako negoziatzaileen arteko aliantza baten ondoren, Akordioaren Generoko Azpibatzea sortu zen. Hura, genero-ikuspegia Azken Akordioaren sei puntuetan (eta hortaz Egiaren Batzordean) txertatzeaz arduratu zen, biktimei buruzkoa barne. Izan ere, genero-ikuspegiari garrantzia gehien ematen dion puntuetako bat da hori.

Azpibatzaordeak 2016ko Plebiszitu¹¹ izandako paperaren ondorioz mehatxu larriak jaso zituen, hain zuzen, emakume-mugimendu feministek eta LGTBI mugimenduek bezalaxe; baina, hala ere, bere helburua lortu zuen. Testuinguru horretan, negoziatioen eta lortutako akordioaren aurka agertu ziren sektoreek aldarrikapen feministen eta generoko aurkako argudioak erabili zituzten, Akordioan “generoko ideologia” bat zegoela argudiatuz. Jokabide horrekin botoak lortu zituzten ezezkoaren garaipen estua lortuz (Viveros eta Rodríguez, 2017). Horren ondorioz, birnegoziatio prozesu bat abiatu zen, emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideak kaltetu zituena, baita estatuaren indarkeriaren biktimek ere (Gómez, 2017a eta Gómez, 2017b). Orduz geroztik, Bake Akordioaren ezarpena tentsioan egon da etengabe,

10 Bilera zortzi emakume-erakunde, -sare eta -plataforma daude. Horietan, emakume mistoen, etnikoen, nekazarien, indigenen, afrikar jatorrikoen, ikasleen eta gazteen 1.500 erakunde baino gehiagok parte hartzen dute. Magda Alberto Bakearen aldeko Emakumeak eta Emakumeen eta Bakearen Goi Bilera Nazionala erakundeetako kidea eta Habanako Akordioan genero-ikuspegia txertatzearen segimendurako Goi Instatzaian emakumeen ordezkaria, Diana Gómezekin 2020ko urtarrilaren 23an izandako elkarrizketa pertsonala.

11 Santos presidenteak Plebiszitu batera deitu zuen urriaren 2an. Horretan Kolonbiako herritarrei galdetu zien ea estatuak eta FARC-EP gerrillak sinatutako Bake-Akordioekin ados zeuden. Ezezkoak irabazi zuen, botoen %50,21ekin.

hura babesten dutenen eta negoziazioaren aurka daudenen eta hura zalantzan jartzen dutenen artean.

3. Genero-ikuspegia Egiaren Batzordearen mandatuan eta funtzionamenduan

Egiaren Batzordea arautzen duen 2017ko 588 Dekretuak lurralde-ikuspegia eta ikuspegi diferentzial eta generokoa ditu. Lurralde-ikuspegiak honako hauek bideratzen ditu: alde batetik, Batzordearen lurralde-egituraketa hamabi makro-eskualdetan, kanpoan dagoen Kolonbiako diaspora eta lurralde etnikoak barne; eta, bestetik, tokiko alderdian eta haren berezitasunetan jarritako enfasia, Batzordearen mandatura gauzatzeko orduan. Genero-ikuspegi diferentzial eta generokoari dagokionez, Dekretuak honako hau ezartzen du bere 8. artikuluan: “Bere mandatura eta eginkizunak garatzean, EBak kontuan hartuko ditu diskriminazio-egoeran, ahultasun-egoeran edo gatazkak bereziki eragindako egoeran dauden pertsonen, herrien edo sektoreen esperientziak, eragin diferentziala eta baldintza bereziak. Arreta berezia jarriko da emakumeek jasandako biktimizazioan”¹².

Eragin diferentzialaz eta diskriminazio eta ahultasun baldintzez hitz egitean, Dekretuak genero-ikuspegia txertatzeko elementuak ematen ditu, baita ikuspegi etnikoa eta arrazakeriaren aurkakoa, ikuspegi psikosoziala eta bizitzaren ibilbidearen eta desgaitasunaren ikuspegia txertatzeko ere (Gómez *et al.*, 2020)¹³. Zalantzarik gabe, Dekretuan garrantzi handiena duen ikuspegia generokoa da eta berariaz aipatzen dira emakumeak, ez ordea populazio etnikoak. Gainera, EBaren eginkizunetan genero-ikuspegia zeharkakotzea eta generoko lantalde bat sortzea proposatzen da. Etnia eta arraza kontzeptuak ez dira dekretuan ageri; horien ordez, antza, ikuspegi diferentziala ageri da.

12 Ikus Dekretua hemen: <http://es.presidencia.gov.co/normativa/normativa/DECRETO%20588%20DEL%2005%20DE%20ABRIL%20DE%202017.pdf>.

13 Bizitzaren ibilbidearen ikuspegiaren helburua da gatazka armatuak sortutako kalteak eta ondorioak lantzea eta gatazkak biktimen bizi-unearen arabera hartu zituen espezifikotasunak argitaratzea. Ikuspegi horrek haurren, nerabeen, gazteen eta adinduen bizipena lehenesten du. Desgaitasunaren ikuspegiaren bitartez, bistaratu nahi da entzumeneko, ikusmeneko edo buruko osasuneko gaitasun diferentzialak dituzten pertsonen nola espermentatu zuten gatazka eta zeintzuk diren baldintza espezifiko horren ondorioz jasan zituzten kalteak eta inpaktuak. Informazio gehiago nahi izanez gero, entzun: <https://podcasts.apple.com/us/podcast/enfoque-de-curso-de-vida-y-discapacidad/id1483008587?i=1000454039934>.

Zorionez, falta hori EBaren prestakuntza-fasean eta ezarpenean zuzendu zen, Bakerako eta Lurralde Eskubideen Defentsarako Batzorde etnikoan antolatutako mugimendu etnikoaren eraginari eta Patricia Tobón eta Ángela Salazar batzordekideei esker. Izan ere, haiek beren gain hartu zuten mugimendu, prozesu eta komunitate indigena, beltz, afrikar jatorriko, raizal, palenkero eta Romekiko harremana.

Dekretuan, bi ikuspegi horien -genero eta etnia ikuspegi- zentraltasuna desberdina da eta horrek erakusten du aurrerapen nabarmenak egin direla emakumeen eta feministen mugimenduaren eskaerak jasotzeari dagokionez, mugimendu etnikoen eskaerekin ez bezala. Aldi berean, erakusten du herrialdean oraindik ez direla guztiz aintzat hartzen desberdintasun etnikoa eta arrazakeria. Beraz, “ikusezina” den baina eragin eta ondorio garrantzitsuak dituen arrazakeria erakusten du baina. EBaren arauketaren desberdintasun horren ondorioz, prestakuntza fasetik, ikuspegi horiek koordinatzen dituzten zuzendaritzen artean eztabaida bat izan da, askotan tirabiratsua ere izan dena. Ikuspegi bien oinarrian dagoen emakumeen dibertsitatea ulertuta, Batzordean joera horiek ordezkatzeko dituztenek arreta berezia jarri dute lurralde-ikuspegian eta belaunaldi-ikuspegian (haurrak, nerabeak, gazteak helduak eta adinduak). Azken horri dagokionez, aitortzen da indarkeria modu partikularrean jasaten dela, biktimizatutako emakumeek indarkeria pairatu zutenean zituzten bizi-zikloen arabera. Zuzendariordeak Etnikotik honela aipatzen da generoari dagokiona; “generoa, emakumea, familia, belaunaldia eta lurraldea”¹⁴.

Lehen aipatu bezala, 588 Dekretuak Generoko Lantalde bat sortzeko agindua eman zuen, “Egiaren Batzordearen lan-eremu osoan *genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna* bermatzeko”. Lantaldeak Salomé Gómez Corrales du koordinatzaile eta hori osatzen duten kideak emakumeen eta feministen mugimendutik datoz. Hala, Batzordearen lan osoan genero-ikuspegia txertatzeko beharrezkoak diren eginkizun teknikoak eta ikerketakoak sustatzeko ardura du lantaldeak. Halaber, Lantaldeak gatazka armatuan gertatutako indarkerien kausak, ondorioak eta lanketak ulertzeko asmoa du, generoa zeharkako elementutzat hartuz eta emakumei eta LGTBI pertsoneri gertatutakoa bistartzeko helburuz (EB, 2019a).

Gainera, Lantaldeak emakumeen, lesbianen, gayen, bisexualen, transgeneroen eta intersexualen erakunde eta plataformekiko harremana dinamizatzeko ardura du (EB, 2019b). Horretarako, Lantaldeak, 2018an,

14 Ángela Salazar Egia Argitzeko Batzordeko kidea, Diana Gómezekin eta Diana Montealegrerekin 2019ko irailaren 3an Bogotan izandako elkarrizketa.

elkarrizketak hasi zituen generoko eta gatazka armatuko adituekin, GMHn eta CNMHn genero-ikuspegia txertatzeaz arduratzen diren akademikoak, aktibistak eta funtzionarioak barne. Topaketa horiek Generoko Taldearen lana elikatzeko balio izan zuten eta, gainera, lortutako ikaspenen eta galderen balantze- eta sozializazio-prozesu izan ziren, baita emakumeek eta LGTBI pertsonak pairatutako indarkeriari dagokionez landu beharreko azterketa-lerroena ere.

Gainera, 2018ko irailean Aholkularitza Teknikoko Mahaia sortu zen, emakumeen, feministen eta LGTBI mugimenduekin eta ikasketa feministen eta generokoen zentroekin harreman iraunkor bat ezartzeko eta instituzionalizatzeko. Mahaiaren helburua honako hau da: “Egiaren Batzordearentzat garrantzitsuak diren gaiak eztabaidatzea, generoko lantaldearen eginkizunerako erabilgarriak diren tresna kontzeptualak sortzea eta LGTBI pertsonengan eta emakumeengan inpaktu berezia duten gatazka armatuko ereduak buruz eztabaidatzea” (EB, 2019c).

Generoko Lantaldeak honela definitzen du generoa: “Azterketa-tresna bat, gatazka armatuak emakumeen eta nesken bizitzan duen eragin neurrigabea aintzat hartzen duena, eragile armatuek beren generoagatik haien aurka erabili zuten indarkeriaren ondorioz, baita lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen bizitzan ere, beren sexu-orientazio eta genero-identitateagatik” (EB, 2019c). Horrez gain, tresna honako hauetarako erabilgarria dela onartzen du lantaldeak: a) bizi izan zituzten indarkeria-ereduak argitzeko; b) beren duintasuna aintzat hartzea sustatzeko; c) erasotzaileen erantzukizuna aitortzea sustatzeko; eta d) lurraldeetan bakea etengabe eraikitzeke sortu zituzten eguneroko mekanismoak bistaratzeko.

Lantaldeak hurbilketa teoriko feminista, interseksional eta arrazakeriaren aurkako batekin eta emakumea, belaunaldia eta familia babesteko ikuspegiarekin lan egiten du. Azken hori ikuspegi etnikoa koordinatzen duen Herri Etnikoen Zuzendaritzak proposatu zuen eta zenbait prozesu etnikok emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako hurbilketen ondorioa da. Hurbilketa horiek, bada, belaunaldien berezitasunei erantzun behar diete eta familia gizartearen funtsezko nukleo bezala errespetatu behar dute. Gainera, Generoko Lantaldeak sexu-generoa, sexu-orientazioa, identitatea eta genero-adierazpena kategoriak erabiltzen ditu, baita emakumeek pairatutako indarkeriei dagozkion beste batzuk ere (generoan oinarritutako indarkeriak, emakumeen aurkako indarkeriak, aurreiritziaren ondoriozko indarkeria, sexu-indarkeriak eta indarkeria-*continuuma*) (Gómez *et al.*, 2020).

EBak Dekretuak emandako ikuspegi eta helburuen arabera egituratu du bere lana. Lantaldeak proposatzen duen generoaren ulermenetik abiatuta, batzordekideek Batzordearen lau helburu hauei ekarpenak egin nahi dizkiete: a) gertatutakoa argitzea; b) biktimak eta erasotzaileen erantzukizunak aitortzea; c) elkarbizitza; eta d) ez errepikatzea.

Genero-ikuspegia Batzordearen ardura da, ez soilik Generoko Lantaldearena edo batzordekide batena¹⁵. Horren zeharkakotasuna burutzeko, beraz, EBaren lan-eremu guztietan txertatu da genero-ikuspegia, azterketa-tresna bezala. Halaber, Generoko Lantaldeko kideek Batzordeak ezarritako azterketa-nukleo¹⁶ guztiei laguntza emateko ardura dute, haren txertaketa bete dadin. Nukleo horiek, bada, lotura zuzena dute Dekretuak egia argitzearen aukeratutako gaiekin. Azterketa-nukleoetan, Generoko Lantaldeko kideek aholkularitza teknikoa ematen dute, gaika ikerketa-galderak diseinatzen dituzte, elkarrizketak egiten dituzte, azterketa-dokumentuak egiten dituzte eta genero-ikuspegia zeharkakotzen dute¹⁷. Genero-ikuspegia, gainera, Batzordearen osaeran ere gauzatu da, horretan hainbat emakume daude eta. Halaber, instituzioaren arauak Batzordearen barruan sexu-jazarpena prebenitzeko helburua dute, besteak beste¹⁸.

15 Emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideak dinamizatzeko eta genero-ikuspegia zeharkakotzeko, emakumeen eta feministen mugimenduak proposatutako batzordekide bat dago batzordekideen osoko bilkuran, Alejandra Miller, alegia. EBa hamaika kidek osatzen dute, sei gizonak eta bost emakumek. Bost emakumeetatik hiru historikoki diskriminatutako subjektuen egiarako eskubidea gauzatzear arduratzen dira, hala nola emakumeenak eta komunitate etnikoenak. Millerrez gain, emakumeen eta biktimen mugimenduetan ibilbide nabarmena duen Angela Salazar eta mugimendu indigenatik datorren Patrizia Tobón daude. Horiek biak Herri Etnikoen Zuzendaritzako arduradunak dira.

16 Honako hauek dira nukleoak: 1) Demokrazia eta gatazka armatua; 2) Estatuaren erantzukizunak; 3) Eragile armatuak eta gerrako dinamiken beste erantzule batzuk; 4) Garapen-ereduak/Dinamika ekonomikoak; 5) Desjabetzeak eta lekualdatzeak; 6) Droga ilegalekin ekonomia; 7) Aurre egitea, indarkeriarik gabeko erresistentziak eta bakerako eraldaketak; 8) Gatazkaren kausak, dinamikak eta ondorioak herri etnikoetan; 9) Nazioarteko dimentsioak eta erbesteratzea; eta 10) Gizartea eta kultura.

17 Alejandra Coll Egia Argitzeko Batzordearen Generoko Lantaldeko analista, Diana Montealegrerekin 2019ko urriaren 11n Bogotan izandako elkarrizketa pertsonala.

18 Alejandra Miller Egia Argitzeko Batzordeko kidea, Diana Gómezekin 2019ko otsailaren 13an Bogotan izandako elkarrizketa pertsonala.

4. Egiaren Batzordean genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak

Prestakuntza-fasean eta jardueraren lehen urtean, EBak aurrerapauso nabarmenak eman ditu genero-ikuspegia txertatzeko. Lehenik, Batzordearen sorrera arautzen duen 588 Dekretuan genero-ikuspegia aipatuzetik, hura gauzatzera igaro zen. Hala, hura abian jartzeak berekin ekarri du ikuspegiaren gaineko eztabaida eta definizio espezifikoak sortzea; kontzeptu-esparruak eta kategoria garrantzitsuak hautatzea; unitate berezi bat sortzea, aipatutako Generoko Lantaldea, alegia, berezko langileak ere dituen; Batzordearen helburuetan generoa zeharkakotzeko prozesuak sortzea; eta EBaren barruan emakumeak eta sexu-aniztasuna errespetatzen duen kultura instituzionala sortzeko helburua duten ildoak ezartzea.

Bigarrenik, indartu eta instituzionalizatu da emakumeen eta feministen mugimenduarekiko harremana, baita emakumeen eta LGTBI pertsonen egoera aztertzen duten pentsamendu zentroekiko harremana ere. Horrek, bada, zilegitasun nabarmena eman dio Generoko Lantaldeari eta Egiaren Batzordeari. Aktore anitz horiek Batzordearen mandatuari ekarpenak egiteko izan duten borondatearen eta genero-ikuspegia txertatzearen ondorioz harreman hori indartu da. Izan ere, horren adibide dira Generoko taldeak eta EBak jasotako txostenak, emakumeek gatazka armatuan bizi izandako egoeraren berri ematen dutenak. Horien artean ditugu, alde batetik, Corporación Humanas erakundeak Montes de Marían, Santanderren, Nariñon, Putumayon eta Cesarren gertatutakoa sexu-indarkeriei buruz egindako txostenak; Emakume Biktima eta Profesionalen Sareak sexu-indarkeriari buruz egindako “Mi verdad transforma” (Nire egiak eraldatzen du) txostena; Caucako Iparraldeko Afrikar jatorriko Emakumeen Elkarteak eta Women’s Link Worldwide erakundeak egindako “Voces valientes” (Ahots ausartak) txostena, Caucako Iparraldeko afrikar jatorriko emakumeen aurkako sei indarkeria-egitate biltzen dituen; eta Sisma Mujer eta Emakume Defendatzaileen Sareak lekualdatze behartuari eta emakume defendatzaile, indigena, beltz, erbesterratu eta errefuxiatuen aurkako beste indarkeria batzuei buruz egindako lau txosten. Beste alde batetik, Caribe Afirmativo erakundeak “¡Nosotras Resistimos! Informe sobre violencias contra personas LGBT en el marco del conflicto armado en Colombia” (Eutsi egiten dugu! Kolonbiako gatazka armatuan LGTBI pertsonen aurkako indarkeriei buruzko txostena) dokumentua eman zuen. Horrek LGTBI pertsonen aurka erabilitako indarkeriak ditu hizpide eta sexu-indarkeria arma gerratzat jotzen du, pertsona horiek bizi izandako indarkeria sistematikoak eta Kolonbiako Karibeko erresilientzia eta erresistentzia historiak aztertzen ditu eta erreparazio kolektiboko moduak proposatzen ditu.

Beste alde batetik, EBko Generoko Lantaldearen eta emakumeen eta feministen mugimenduaren arteko aliantza elkarri ulertzeko akordioak sinatzean ere gauzatzen da. Horien artean ditugu Emakumeen Ibilbide Baketsuarekin sinatutakoa. Erakunde horrek Batzordeari laguntzeko konpromisoa hartu zuen, herrialdeko bederatzi eskualdetan 2.000 emakume biktima baino gehiago elkarriketatuz. Horretarako, bada, erakunde horretako dokumentalistak EBaren metodologian eta ikerketa-tresnen erabileran trebatu zituzten (EB, 2019a). Halaber, Emakumeen Ibilbide Baketsuak Emakumeen Egiaren Batzordeak 2010ean abiarazitako ikerketaren emaitzak ere eman zizkion EBari. Gatazka armatuan giza eskubideen urraketak pairatutako 1.000 emakumek parte hartu zuten ikerketan eta horren txostena 2013an argitaratu zen.

Emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako indarkeria aztertzen duten txosten horiez gain, Generoko Lantaldeak hainbat zentro akademikoren laguntza du. Adibidez, Kolonbiako zenbait Unibertsitatek, Andeetako Unibertsitateko Garapenari buruzko Ikasketen Diziplinarteko Zentroaren (CIDER) koordinaziopean eta hainbat emakume-erakunderekin batera -hala nola Emakumeen Sarea eta Kolektibo Feminista Emantzipatorioa-, Batzordearen mandatuan generoa eta batez ere emakumeen bizipenak sartzeko gomendioak zituen dokumentu bat egin zuten¹⁹, Kolonbiako Karibean EBaren ezarpena lagundu zuen landa-lanaren ondoren. Horrelako lanek Batzordearen

19 *Las mujeres y la construcción de paz: recomendaciones para la Comisión de Esclarecimiento de la Verdad en el proceso de inclusión de la perspectiva de género en el Caribe colombiano* (Emakumeak eta bakegintza: Egia Argitzeko Batzordearentzako gomendioak Kolonbiako Karibean genero-ikuspedia txertatzeko prozesuan) dokumentuak azpimarratzen du EBak abian jarri duela Karibeko makro-eskualdea benetako bihurtzen duen erakunde-azpiegitura guztia, genero-ikuspedia txertatzearen lorpenak eta erronkak ebaluatzen dituen, eta gomendioak egiten dituen (Gómez *et al.*, 2020). Dokumentu horretan Andeetako Unibertsitateak, Jorge Tadeo Lozano Unibertsitateak, Unibertsitate Nazionalaren Karibeko egoitzak eta Atlantikoko Unibertsitateak parte hartu zuten. Andeetako Unibertsitateak EBarekin lan egiteko hitzarmen bat du eta CIDERen lan hau horretan txertatzen da. Bakerako Institutuarekin (CAPAZ) aliantzan, ikerketa-talde bera *Comisiones de la Verdad y género en el sur global: miradas retro y prospectivas de la justicia transicional. Aprendizajes para el caso colombiano* (Egia eta generoa hegoalde globalean : trantsizioko justiziaren atzera eta aurrera begirakoak) liburua prestatzen ari da. Horren helburua da Kolonbian Egiaren Batzordearen garapena laguntzea eta beste leku batzuetan gertatutakoa gogoratzeko eta argitzeko ariketei ekarpenak egitea. Bristolgo Unibertsitateak ere EBaren Generoko Lantaldearekin lan egin du ikerketa-lankidetzak akordio baten bitartez. Akordio honako hauek jasotzen ditu: testigantzak biltzea; Generoko Lantaldearen ikerketa-lanak indartzea; eta mundu osoko egiaren batzordeetako kideen sare bat sortzea, hauek “beste prozesu batzuetako esperientziak eta ikaspenak partekatzeko aukera izan ditzaten” praktika onak sortzeko (EB, 2019d).

eginkizuna elikatzeke eta emakumeen aurkako indarkeriak argitzeko helburua dute, batez ere lurraldeetan antolatutako eta beren lidergoagatik indarkeria pairatutako emakumeen aurkakoak.

Hirugarrenik, Generoko Lantaldeak eta Batzordeak aurrera egin dute Batzordearen helburuak betetzeko jardueretan. Helburu horietako bat aintzatespena da eta horren inguruan Egiaren Topaketak egin dira. Hauek, bada, “aintzatespen-ekintza publiko zein pribatuak dira, gertatutakoa kolektiboki ulertzeko balio izango dutenak” (EBa, 2019e: 12).

Ospatutako lehen topaketetan, emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako sexu-indarkeria eta emakumeek desagertuen bilatzaile bezala izandako rola lantzea eta bistaratzea lehenetsi zuen Batzordeak. Topaketa horietako lehenengoa “Nire gorputzak egia dio” deitu zen eta ekainaren 26an ospatu zen Cartagenan. Horretan, Generoko Lantaldeak eta Batzordeak agerian utzi zuten emakumeen eta LGTBI pertsonen gorputza borroka- eta indarkeria-eremua izan dela, sexu-indarkeriak sortutako mina gorputzean geratzen dela eta horrek indarkeria haren berri ematen duela.

Bigarren topaketa Paston ospatu zen 2019ko abuztuaren 26tik 28ra bitartean eta “Haien bilaketa aintzat hartzen dugu: desagertutako pertsonak bilatzen dituzten amen eta familien ekimenaren aintzatespena” deitu zen. Horretan emakumeek desagertutako senideen bilaketan izandako paper garrantzitsua nabarmendu zen. Izan ere, topaketak gizonen papera ere azpimarratu bazuen ere, bilatzen duten gehienak emakumeak dira. Egiaren Topaketen aurretik hainbat batzar eta jarduera egin ziren biktimekin. Horien helburua, nolabait, biktimak prestatzea zen, indarkeria horri heltzen dioten agertoki publikoetan parte hartzeko.

Beste alde batetik, EBaren metodologia zehazten duten beste jarduera batzuetan ere parte hartu dute emakumeek, hala nola Egiaren etxean inaugurazioa, parte-hartze bidezko diagnostikoak, foro publikoak eta gizarte-elkarrizketa modu desberdinak, banakako testigantzak eta testigantza kolektiboak, eta elkarrizketa sakonak²⁰. Azken hauei buruz, Alejandra Coll Generoko Lantaldeko kideak aipatzen du EBak egindako elkarrizketen % 60 emakumeei egin zaizkiela²¹.

20 Egiaren Etxeak “Batzordea lurraldeetan hartzeko guneak dira. Herrialde osoko biktimek eta testigantza eman nahi duten erantzule eta lekukoentzat zabalik daude” (EB 2019e).

21 Alejandra Coll Egia Argitzeko Batzordearen Generoko Lantaldeko analista, Diana Gómezekin 2020ko otsailaren 20an eta martxoaren 17an Bogotan izandako elkarrizketak.

Laugarrenik, Generoko Lantaldea eta Batzordea ikuspegi interseksionala eta lurralde-ikuspegia txertatzen ahalegindu dira. Ikuspegi interseksionalari dagokionez, oinarritzko ezagutza bat dago eta, horri esker ulertzen da emakume guztiek ez dutela gatazka modu berean bizi izan. Beraz, batzordearen mandatuan garrantzitsua da horietako bakoitzaren berezitasunak aztertzea hainbat aldagai aintzat hartuz, hala nola etnia, gizarte-maila, bizi-zikloa eta jatorri geografikoa. Lurralde ikuspegiari dagokionez, adierazle bat Genero Lantaldeak makro-eskualdeetan duen parte-hartzea da, baita Batzordeak Kolonbiako hainbat lekutan egiten dituen ekitaldiak eta jarduerak ere.

Bosgarrenik, EBak emakumeen egoera bistaratzeko eta zabaltzeko ahalegin bat egin du hainbat ekitaldi eta jardueraren bitartez, nazioko, eskualdeko eta tokiko mailan. Horien helburua, bada, Kolonbiako jendartea sensibilizatzea eta biktimekiko enpatia sortzea izan da, batez ere emakumeekiko eta LGTBI pertsonekiko. Hala, Egiaren Topaketak telebistaz eta internet bidez transmititu dira eta horiek zabaltzeko komunikazio-estrategiak sortu dituzte, genero-eta sexu-indarkeriari, desagertze behartuari eta emakumeek desagertutako pertsonak bilatzean duten rol garrantzitsuari buruzko eztabaida publikoa sustatzeko helburuz. Horri guztiari esker egoera horiek ezagunak dira nazio-mailan eta une batzuetan interes nazionalekoak ere dira, nahiz eta horietaz jabetzeko eta horiek ulertzeko mugak badauden.

Emakumeen Instantzia Berezia genero-ikuspegiaren txertaketaren segimendua egiteko eta Akordioan emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko sortu zen. Hark onartzen du Generoko Lantaldeak eta Batzordeak aurrerapauso handiak egin dituztela genero-ikuspegia euren metodologian eta eginkizunean txertatzeari dagokionez. *Enfoque de género y paz territorial: balance a tres años de la firma del Acuerdo* (Genero ikuspegia eta lurraldeko bakea: balantzea Akordioa sinatu zenetik hiru urtera) (2019) txostenean, Instantziak genero-ikuspegia SIVJRNRRan ezartzeko egindako aurrerapenak azpimarratzen ditu; izan ere, “honako baliabide hauek dituzte: emakumeen eta LGTBI pertsonen eskaerei erantzutera bideratutako lan-ildoak, lantaldeak eta langileak; pertsona horien lotura egokia sustatzeko helburua duten metodologiak; eta gatazkan gertatutakoaren berri emateko helburua duten ikerketa-tresna espezifikoak” (Emakumeen Instantzia Berezia, 2019).

Generoko Lantaldeak eta EBak nazioko eta nazioarteko ekarpen esanguratsuak biltzen dituzte, genero-ikuspegia eta emakumeen eskubideak txertatzeko mandatuari abiapuntu sendo bat ematen diotenak. Alde batetik, ekarpen nazionalak zerikusia du emakumeen eta feministen mugimenduak

emakumeen eskubideak eskatzeari eta bermatzeari buruz duten ezagutza eta esperientziarekin, baita gatazka armatuaren eta indarkeria soziopolitikoaren erdian emakumeek dituzten errealtateak ulertzearekin ere. Halaber, oraindik neurri prekario batean bada ere, Kolonbiako estatuak trantsizioko justiziamekanismoak genero-ikuspegiaren arabera ezartzeko lehen esperientzia bat burutu du. Halaber, hainbat funtzionariok genero-ikuspegiarekin eta emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideekin duten borondatea eta konpromisoa Sistema Integralaren esku jartzen dute. Gainera, gatazka armatuan emakumeekin eta LGTBI pertsonekin gertatutakoari buruzko ekarpen kontzeptual, metodologiko eta azalpenekoak ditu Batzordeak. Ekarpene horiek GMH eta CNMHren generoko taldeek eta akademiak egin dituzte, jakintza feministatik eta genero-ikasketetatik abiatuta.

Beste alde batetik, nazioarteko ekarpenak Guatemalako, Peruko eta Hegoafrikako egiaren batzordeetan genero-ikuspegia txertatzearen esperientzia jasotzen du (Bueno-Hansen, 2017), baita Argentinako kasuan bezala genero-ikuspegia ez izateak emakumeentzat esan nahi duen eskubideen azalpen- eta gauzatze-hutsuneari buruzko gogoeta ere. Aurrekoari esker, Kolonbiako esperientzian baliaagarriak diren ikaspenak identifikatu ahal izan dira. Ikaspen horiek dimentsio kontzeptual, metodologiko eta instituzionalari buruzkoak dira eta EBko Generoko Lantaldeari aukera eman diote, ekarpen nazionalen oinarrituta, genero-ikuspegia aplikatzeko ibilbidea eraikitzean denbora “aurreztu” zezan; bere lana egiteko proposamen zehatzak izan ditza; eta EBaren helburu guztiak betetzeko, emakumeen errealtatea eta irakurketa feministak eta generoko ikasketak sartu behar direla proposatzeko zilegitasuna izan dezan.

Hala ere, esaera zahar batek dioenez, “inork ez du besteen gorputzean ikasten”. Kolonbiako kasuan, horrek esan nahi du Generoko Lantaldeak eta Batzordeak, nazioko eta nazioarteko ikaspenak dituzten arren, hainbat erronkari aurre egin behar dietela. Horietako batzuek zerikusia dute genero-ikuspegia eta emakumeen eskubideak txertatzeari buruzko estatuko eta estatuz kanpoko beste esperientzia batzuetan sortu diren erronkekin. Izan ere, erronka horiek zerikusia dute emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideak aitortzeko oraindik dagoen zailtasunarekin, baita (nahiz eta aurreko urteetan baino neurri txikiagoan izan) genero-diskriminazioa edo subjektu horien egoerei neurri zehatzen bitartez heltzeko beharra ez onartzearekin ere. Beste erronka batzuk honako hauekin lotuta daude: pentsamendu feministak eta generoko ikasketek errealtatea ulertzeko egindako ekarpen garrantzitsuak ez onartzearekin; egiaren batzordeen eta trantsizioko justiziaren funtsezko logikarekin; eta Batzordea Kolonbian ezartzeko testuinguruaren berezitasunarekin.

5. Genero-ikuspegia Egiaren Batzordearen lanean txertatzeko erronkak

Generoko Lantaldeak eta EBak hainbat erronka dituzte genero-ikuspegia txertatzeko. Atal honetan, lau erronka aztertuko ditugu. Horiei heltzea ezinbestekoa da EBak bakegintzari ekarpen eraginkor eta benetako bat egon diezaion, ikuspegi feminista eta generoko batetik. Erronka horietako lehena emakumeek Batzordearen eginkizunean parte-hartzearen zentzuari dagokio; bigarrena EBaren dimentsio instituzionalei; hirugarrena barne gatazka armatuaren azalpen-esparruei; eta azkena Batzordearen lanaren inplementazioaren bigarren erdiak izango duen testuinguruari.

5.1. Emakumeen parte-hartzearen zentzuak

Biktimen parte-hartzea funtsezkoa da batzordearen mandatua eta trantsizioko justiziaren premisa nagusietako bat zehazteko, hain zuzen ere, biktimen zentraltasuna. Lehenik eta behin, parte-hartzea “kalterik gabeko ekintza” ikuspegi baten araberakoa izan behar da eta segurtasun-baldintzak eta berme materialak izan behar ditu (Gómez, 2016a eta Gómez *et al.*, 2020). Abiapuntu horiez gain, parte-hartzeak zentzu zehatzak izan behar ditu. Horien artean hiru azalduko ditut: biktimen egiarako eskubidea gauzatzea, haien atsekabea transmutatzeko prozesuei egindako ekarpena eta biktimak eraldaketarako subjektu politiko gisa finkatzea.

Proposatutako lehen zentzua betetzeko, parte-hartzeak informatua eta benetakoa izan behar du (Gómez *et al.*, 2020). Alde batetik, parte-hartze informatuak eskatzen du EBaren eta biktimen arteko komunikazio prozesu bat, oso pedagogikoa dena eta biktimizatutako subjektuei Batzordearen eta parte-hartzen duten eremu guztien helburuak eta irismena argi izateko aukera ematen diona²². Bestalde, COVID-19 pandemiaren ondorioz, EBak biktimekin informazioa biltzeko prozesua ixtea erabaki zuen. Baina itxiera-egutegi horiek gorabehera, komunikazio-prozesu horrek etengabea izan behar du eta mandatuaren amaierara arte iraun behar du, hainbat eremutan eman

22 Kolonbiako Karibean EBaren lehenengo 11 hilabeteetan bere ekitaldi eta jardueretan parte hartu duten emakumeekin hizketan, horietako batzuek adierazi zuten ez zutela ondo ulertzen euren parte-hartzearen helburua.

behar da eta hainbat komunikazio-kanalen bitartez²³. Komunikazio-prozesu horrek, beraz, zehatz-mehatz azaldu eta argitu behar ditu EBaren ekitaldi eta prozesu guztietan erabiliko diren metodologiak. Era berean, Batzordearen erronkei, ahalmenei eta aukerei buruz hausnartu behar du. Hori, izan ere, garrantzitsua da, Kolonbiako gizarteak ez baititu oraindik ondo ulertzen trantsizioko justiziaren printzipioak eta logikak; zenbait kasutan, logika hori biktimen justiziari eta egiari buruzko ikuspegien aurkakoa dela; eta horietako gehienentzat, egia biktima bezala duten eskubideak gauzatzeko sarbidea dela.

Beste alde batetik, Batzordearen mandatuari eta helburuei dagokienez, parte-hartzeak efektiboa izan behar du. Hala, biktimizatutako subjektuen rola ezin da euren testigantza ematera mugatu, horren bertsioa edozein dela ere (elkarrizketa, performancea, ekitaldiak)²⁴. Benetako parte-hartze batek gertatutakoa azaltzeko duten gaitasuna aintzat hartzea eskatzen du, baita honako hauetan biktimen presentzia aktiboa sustatzea ere: biktimak aintzat hartzeko eta erantzukizunak ezartzeko ekitaldietan, bizikidetzara bideratutako prozesuetan eta ez errepikatzeko neurriak zehaztean²⁵. Gainera, benetako parte-hartze hori lortzeko, indarkeriaren arduradunekin elkartzean, indarkeriaren oinarri izan ziren botere-egiturak (aktore armatuaren hierarkiak eta logika hetero-patriarkalak) ez errepikatzeko baldintzak sortu behar dira²⁶.

Proposatzen dugun parte-hartzearen bigarren zentzua atsekabearen transmutazioari dagokio. Hala, EBak gizartearen arreta piztu behar du biktimen atsekabearen, horren arrazoen, horren ondorioen eta indarkeriak biktimen bizitza indibidual eta kolektiboan sortutako inpaktuen gainean. Batzordeak,

23 Parte hartzea probetxugarriagoa izan daiteke EBaren jardura eta ekitaldi desberdinen arteko kateamendua lortzen bada, subjektu biktimizatuek euren lana prozesu-logika bati dagokiola senti dezaten.

24 Adibidez, Desagertze behartuari buruzko egiaren aldeko ekitaldian, emakumeek maite zuten pertsona baten galeraren eta euren erresistentzia-prozesuen ondorioak kontatu zituzten, kontakizun kolektiboko *performance* baten bidez. Formatua desberdina bada ere, testigantza logikarekin bat dator.

25 Aipatutako “Nire gorputzak egia dio” Egiaren Topaketan, biktimek zentraltasuna galdu zuten arratsaldeko jardunaldian; izan ere, sexu-indarkeriaren biktimak eurak baino gehiago, nazioarteko artista ezagunen presentzia izan zen publikoa erakarri zuena.

26 Testuinguru batzuetan, bereziki Kolonbiako Karibearen, kezkaz ikusi dira indarkeriaren erantzuleekin egindako ekitaldiak; izan ere, horietan biktimak ez zeuden benetan ekintzaren erdigunean eta ez ziren gertatuko zenaz behar bezala informatuak izan. Batzuetan, zenbait biktima erasotzaileekin adiskidetze-keinuak egitera behartuak sentitu dira, hala nola jendaurrean besarkadak ematera. Beraz, ez da kontuan hartu izan, jendaurrean egotean, indarkeriaren erantzuleen eskaerei erantzutera behartuak senti daitezkeela biktimak, nahiz eta horiekin ados ez egon.

bada, atsekabea despribatizatzeko prozesu bat sustatzeko aukera du, non, aldi berean, biktimek Kolonbiako jendarteari emandako *dohaina* elkarrekikoa izan daitekeen (Gómez, 2016b).

Atsekabearen transmutazioak eskatzen du EBaren ekitaldietan parte hartzeak sendatze-prozesuak sustatu eta birbiktimizazioa ekidin behar dituela ere. Horretarako, beraz, ikuspegi psikosoziala Batzordearen jarduera guztietan zeharkakotu beharra dago, baita taldeak trebatu ere, biktimen egunerokoa modu egokian lagun dezaten, gorputzaren entzute aktibo eta ez-logozentrikoa egin dezaten, eta sendatze-prozesuetan aurrera egitearren irmotasunez ekin dezaten. (Gómez *et al.*, 2020). Oro har, lan zaila da hori, Kolonbian erreprimituta dagoen min guztiagatik eta Batzordearen denbora eta erritmoengatik.

Parte-hartzearen hirugarren zentzua biktimak subjektu politiko bezala finkatzeari dagokio. Horrek honako hau eskatzen du:

- a) Biktimak izaki pasibo, agentziarik gabeko, atsekabe hutseko eta apolitikotzat hartzen dituzten estereotipoak alde batera uztea, baita emakumeen eta LGTBI pertsonen estereotipoak ere, horiek kultura patriarkala eta heteronormatiboa errepikatzen baitute.
- b) Biktimen herritar izaera eta eztabaidarako subjektu izaera sustatzea. Horretarako, garrantzitsua da biktimak gertatutakoa ulertzen lagunduko duen jakintzaren ekoizle bezala ulertzea.
- c) Gizarte aldaketari irekia den subjektua sortzen edo finkatzen laguntzea, Kolonbiak behar dituen eraldaketak aurrera eramateko konpromisoa hartzen duena (Gómez, 2017c).
- d) Subjektu biktimizatuen artean hitza birbanatzeko aukera ematen duten parte-hartze estrategiak abiaraztea, hitza gutxi batzuen eskuetan gera ez dadin eta jada ibilbide bat duten lidergoak eta lidergo berriak finkatzen laguntzeko. Zentzu horretan, antolatu gabeko biktimekin ere lan egin beharra dago.
- e) “Emakumeak” subjektuaren aniztasuna eta euren subjektibitateen izaera anitza aintzat hartzea. Horrek eskatzen du biktimekin etengabe hitz egitea, horien nortasun bakarra ez baita biktimarena; aitzitik, subjektu bezala beste izaera batzuk dituzte eta hauekin hitz egin beharra dago biktimak subjektu politiko bezala sendotzeko

eta atsekabearen transmutazio-prozesuak errazteko. Subjektuaren aniztasunean oinarritutako parte-hartze batek eskatzen du biktimen parte-hartzea sustatzea hainbat aldagai kontuan hartuz, hala nola gizarte-maila, generoa, etnia, sexu-orientazioa, jatorri geografikoa, adina, lanbidea, ideologia, izan dituzten biktimarioak eta familian betetzen dituzten rolak.

- f) “Emakume antolatua” subjektuaren aniztasunarekin elkarrizketak sortzea. Generoko Lantaldeak herrialde osoko erakundeekin eta erakunde akademikoekin hitz egin behar du, ez bakarrik hiriburukoekin. Izan ere, gaur egun, hiriburuan kontzentratzen da Generoko Lantaldearen Aholkularitza Teknikoko Mahaia. Halaber, garrantzitsua da Batzordeko taldeek antolaketa-prozesu jakin batzuk modu pribilegiatuan ez tratatzea (Gómez *et al.*, 2020), adibidez, erakunde jakin batzuei lehentasuna emanez, prozesu jakin batzuen ekarpenak bistaratu eta pertsona eta, hortaz, erakunde espezifiko jakin batzuei protagonismoa emanez. Hori ulertzea funtsezkoa da botere-harreman asimetrikoak ez erreproduzitzeko; harreman horiek pentsamendu-zentro, emakumeen eta feministen erakunde jakin batzuk ikusezin bihurtzen baitituzte.
- g) Emakumeen aurkako indarkeriak, euren erresistentziak eta bakeari egindako ekarpenak ikuspegi politiko batetik irakurtzea. Batzordearen lanak subjektu biktimizatuaren eragiletasuna bistaratu behar du eta emakumeek pairatutako indarkeriaren arrazoiak aztertu eta zabaldu. Kolonbiako biktimizazioetako askok, emakumeen aurkako indarkeriak barne, zerikusia dute helburu politikoekin, lurraldea kontrolatzearekin eta botere-gatazkekin. Horiek, bada, emakumeen eta gizonen lidergoaren indarra eta botere komunitarioa murrizteko helburua izan dute eta logika patriarkal, heteronormatibo, klasista eta kolonialetan oinarritzen dira. Erantzukizunak banatzeko ekintzek azalpen- eta argitze-logika horren arabera izan behar gute eta onartu behar dute emakumeen aurkako egitate horiek krimen gaitzesgarriak eta giza eskubideen urraketa larriak direla, errepikatu ezin direnak.

Oro har, Egiaren Batzordeen behin-behinekotasuna egiturazko arazo bat da azkenean eta ez du laguntzen hemen proposatutako parte-hartzearen zentzu guztiak lortzen. Izan ere, horretarako, EBak, bere zeregina egiteko ezarritako denboran, bere eginkizuna orekatu behar du, biktimen eskubideak gauzatu eta atsekabea transmutatzen laguntzeko eta subjektu politiko bezala finkatzeko.

5.2. Egiaren Batzordearen dimentsio instituzionalak eta generoarekiko harremana

EBak modu erabakigarrian txertatu du generoa bere eginkizunean baina, hala ere, Generoko Lantaldeak hainbat erronka instituzionali aurre egin behar die bere helburuak betetzeko. Honako hauek dira erronka horietako batzuk: a) langile gutxi ditu; b) EBko langile guztiek jakintza feministak eta generoko ikasketen jakintzak gehiago bereganatu behar dituzte; c) jakintza horiek aintzat hartu behar dira, Batzordekideen osoko bilkurak, argitzeko lantaldeek eta eskualdeko eta tokiko koordinatzaileek gatazka armatua hobeto uler dezaten; eta d) ikuspegi feministen eta ikuspegi etnikoen arteko tirabirak landu behar dira Batzordearen baitan.

Lehenari dagokionez, Generoko Lantaldeak sei kide besterik ez ditu. Horiek nagusiki Bogotan kokatzen dira eta genero-ikuspegia helburuetan, azterketa-nukleoetan eta eskualdeetan zeharkakotzeko ardura dute, hau da, Batzordearen zeregin guztian. Hala ere, Generoko Lantaldeak kualifikazio handia du; generoko adituak biltzen baititu, emakumeen, bakearen aldeko eta gerraren kontrako mugimenduetatik, komunitate indigenetatik eta afro prozesuetatik datozenak, eta ondo ezagutzen baititu teoria feministak eta generokoak, sexu-indarkeria eta interseksionalitatea. Gainera, Lantaldeak generoan adituak diren beste hiru emakumerekin lan egiten du, horietako batzuk CNMHren esperientziatik etorriak. Aditu horiek gertatutakoa argitzeko Amaierako Txostenaz arduratzen den Ezagutza Zuzendaritzan daude²⁷. Hala eta guztiz ere, trebakuntza-maila handi hori ez da nahikoa lurralde-ikuspegia abian jarri duen Egiaren Batzorde batek dituen beharrei erantzuteko. Berezi kezkagarria da eskualdeetan ez dagoela genero-ikuspegia aplikatzeaz eta emakumeek pairatutako indarkeriak aztertzeaz arduratzen den bitarteko formalik. Aitzitik, gaur egungo lan egiteko moduan, EBari lotuta dauden eta emakumeen egoera ezagutzen eta horretaz kezkatzen diren horiek dira generoa euren lan-eremuetan txertatzeaz arduratzen direnak.

Bigarrenik, ezagutza egokirik gabe eta horretaz jabetu gabe, generoa azalpen-kategoria huts bezala erabiltzeko arriskua dago, bere azterketa-zentzua eta -oinarria galtzen duena. Hala, bere azterketa- eta eraldaketa-ahalmena galduko luke (Gómez, 2019). Esate baterako, Kolonbiako Karibean, aipatutako *Inclusión de las afectaciones vividas por las mujeres y sus procesos*

27 Alejandra Coll Egia Argitzeko Batzordearen Generoko Lantaldeko analista, Diana Gómezekin 2020ko otsailaren 20an eta martxoaren 17an Bogotan izandako elkarrizketak.

de resistencia en las Comisiones de la Verdad de Perú y Colombia: miradas retro y prospectivas de la justicia transicional (Peruko eta Kolonbiako Egiaren Batzordeetan emakumeek eta euren erresistentzia-prozesuek bizi izandako kalteak: trantsizioko justiziaren atzera eta aurrera begirakoak) ikerketaren landa-lanean, agerian geratu zen zenbait funtzionarioek ez dutela behar bezala ulertzen genero-kategoriaren, interseksionalitatearen eta teoria feministen esanahia eta garrantzia. Hori garrantzitsua da bi arrazoiengatik. Lehenengoa, gatazka armatua ikuspegi feministatik eta generoko ikasketen ikuspegitik ulertzeak herrialdeko indarkeriari buruzko begirada berritzaileak ekartzeko aukera ematen duelako; eta bigarrena, Egiaren Batzordeak, bakea eraikitzeko lanean, genero-berdintasunera bideratutako gizarte-aldaketa prozesuak abiarazi behar dituelako. Emakumeek indarkeria modu berezi eta neurrigabeen bizi izan dutela onartzea ez da nahikoa; aitzitik, beharrezkoa da zergatik gertatu den ulertzea eta aurrera egitea, emakumeek gizartean jasaten dituzten diskriminazioak desagiteko ekintza zehatzetatik abiatuta, egoera horiek errepika ez daitezen.

Hirugarrenik, Batzordeak, bere mandatua betetzeko, lurralde-hedapena indartu behar du, azpiegitura fisikoa zabalduz eta eskualde-taldeak handituz, bai kopuruari²⁸ eta bai trebakuntzari dagokienez (Gómez *et al.*, 2020). Horrek esan nahi du beharrezkoa dela Batzorde osoa trebatzeko prozesu etengabea garatzea, ikasketa feminista eta generokoek ekarpenak ezagutzeko eta gizarte-aldaketa sustatzeko. Trebakuntza-prozesuek ikasketa feminista eta generokoek, ikuspegi interseksionalaren, teoria deskolonialaren eta queer teoriaren printzipio orokorrak landu behar dituzte; izan ere, azken hirurek gatazkaren dinamikak eta emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako indarkeriak hobeto ulertzen laguntzen dute. EBaren eginkizunean genero-ikuspegia txertatzearekin batera, maskulinitateak eta gizonen esperientzia ere aztertu beharra dago. Alabaina, hori ez da argi ikusten Generoko Lantaldeak genero kategoria erabiltzen duenean eta, orokorrean, EBaren jardueretan. Hala ere, ez dugu ahaztu behar emakumeen eta LGTBI pertsonen errealitatea ulertzea dela genero kategoria erabiltzearen lehentasunetako bat (Gómez, 2019).

28 Gobernuak aurrekontua nabarmen murriztu zion EBari eta horrek eragina izan zuen bere nazioarteko, nazioiko eta eskualdeko hedapenean. Izan ere, bere nazioarteko hedapena indartzeko nazioarteko erkidegoaren, gizarte-erakundeen eta GKEen, akademiaren eta gizarteko beste sektore batzuen laguntza beharrezkoa da. Egokiena izango litzateke gobernu nazionalak dagoeneko konprometituta dauden aurrekontu-partidak mantentzea eta handitzea Batzordearen helburuak betetzeko sortzen diren erronken arabera (Gómez *et al.*, 2020).

Aurrekoak, bada, zerkusia du, alde batetik, kontzeptu-esparru feminista eta genero kategoria gatazka armatua interpretatzeko eta gertatutakoa argitzeko aintzat hartzearekin. Izan ere, Kolonbian eta gizarte-zientzietan, oraindik ez da atera teoria feministetatik atera litekeen etekin guztia. Teoria hauek, bada, patriarkatu diferentzialen existentzia eta genero-moldaketa jakin batzuen egituraketa erdigunean jartzen dituzte indarkeria ulertzeko²⁹. Ondorioz, tirabirak daude Batzordearen baitan; izan ere, horretan, ikuspegi oso desberdinak daude; gatazka armatuari buruzko ikuspegi klasikoetatik generoa eta arrazakeria indarkeriaren kausa estrukturaltzat hartzen dituzten ikuspegietara.

Azkenik, elkarrizketa tirabiratsua baina probetxugarria egon da etnia- eta genero-ikuspegien artean. Tirabirek, bada, zerkusia dute feminismoei buruzko estereotipoekin (“famiaren suntsitzaileak”, “Proabortistak *per se*”, “sexu-askatasunen defendatzaileak”,...) eta 1970ko hamarkadaz geroztik feminismo batzuek euren agendetan jarri duten enfasiarekin; izan ere, horietako batzuek, besteak beste, komunitate nekazari, indigena, afro, Rom eta palenkeroen kultura-berezitasunak eta etnia- eta arraza-berezitasunak aintzat ez hartzea ekarri zuten, baita arraza-, klase-, jatorri-, eta ideologia-dimentsioak ere. Tirabira hori konpontzeko, baita etnia- eta arraza-ikuspegia sendotzeko ere, kulturarteko elkarrizketa bat abiatu beharra dago, herri etnikoen mundu-ikuskerak eta errealitateak bere modura entzuteko gai dena -nagusi den itzulpen intelektuala egiteko asmorik gabe-, baita emakumeen esperientziaren berezitasunak ere. Aipatutakoak Kolonbian eta batez ere Batzordean ezagutzaren ekoizpenaren gaineko begirada androzentrikoa, andino-zentrista³⁰ eta akademikoa bazterzea eskatzen du (Gómez *et al.*, 2020).

29 Patriarkatu diferentzialen ideia proposatzen da (Gómez, 2017d) emakumeak eta subjektu feminizatuak menperatzeko ariketetan ardatzen den menperatze-egituraren berri emateko. Patriarkatu horiek diferentzialak dira bereziki bizi-historien inguruan egituratzen direlako, beste menperatze-egitura batzuekin gurutzatuz, hala nola kolonialismoarekin eta kapitalismoarekin, baita beste botere-harreman eta aldagai kultural batzuekin ere. Patriarkatuak generoko-moldaketa jakin batzuen arabera hartzen dute forma, hau da, gizonak eta emakumeek zer egin behar duten eta egin dezaketena eta egin ez dezaketena antolatzen dituzten formak.

30 Dinah Orozco (2019) aktibista afro eta olerkariak andino-zentrista esamoldea erabiltzen du Kolonbian nagusi diren ikuspegiak aipatzeko. Izan ere, horiek Andean kokatzen dira eta batez ere herrialdeko hiriburuan, Bogotan, alegia. Ikus: Orozco (2019).

5.3. Barne gatazka armatuaren azalpen-esparruak

Egiaren Batzordeen helburu nagusietako bat gertatutakoa argitzen laguntzea da. Ikasketa feministak, generokoak, queer-ak, arrazakeriaren kontrakoak eta deskolonialak lagungarriak izan daitezke helburu hori lortzeko. Kolonbian, bada, gertatutakoa argitzeko egindako ahaleginek aukera eman dute hainbat diziplinatik honako hauek argitzeko: gatazka armatuaren eta indarkeriaren dimentsio garrantzitsuenak, bere kausak eta ondorioak, subjektu biktimizatuak eta indarkeriaren erantzuleak. Ikerketa horietan aurrera egitea ondare garrantzitsua da EBarentzat. Herrialdeak jada azterketa horiek dituzenez, Batzordeak horietan sakontzeko erronka du orain.

Zentzu horretan, oso erabilgarria litzateke esparru epistemologiko feminista deskolonial bat garatzea, emakumeen aniztasunetik abiatuta euren errealitatearen eta indarkeriaren dimentsio kolonial, patriarkal eta heteronormatiboaren konplexutasunaren berri emateko gai dena, baita kontzeptu-esparru horrekin bat datorren informazioa biltzeko eta aztertzeko prozesua orientatzeko gai dena ere, hain zuzen ere, ezagutza-praktika ez logozentrikoak hartzen dituen informazioa.

Proposatzen dugun esparru epistemologiko feminista deskolonialak³¹ errealitatearen hurbilketa jeneralistak, abstraktuak eta dikotomikoak errepikatzen ez dituen ezagutza-ekoizpena sustatuko luke; hau da, indarkeriaren berezitasunak eta sakontasuna azpimarratzen dituena. Horretarako, beharrezkoa da zapalkuntzen begirada interseksional bat, hau da, Kolonbian gertatutako indarkeria bere benetako dimentsioetan ulertzen laguntzen duen mikro eta epe luzeko ikuspegi bat (Gómez, 2015). Esparru horrek, emakumeekin eta LGTBI pertsonekin gertatutakoa argitzeaz gain, indarkeria soziopolitikoaren erdian eta, oro har, barne gatazka armatuan gertatutakoa argitzen lagunduko luke, baita horren kausak eta ondorioak ere. Halaber, hurbilketa horrek emakumeek pairatutako indarkeriei buruzko irakurketa feminista klasikoetatik irtetera gonbidatzen gaitu. Izan ere, irakurketa horiek asko zentratu dira, adibidez, sexu-indarkerian eta indarkeria horren arrazoietan eta irismenetan. Hemen

31 Deskoloniala modu zabalean ulertzen da. Horrek esan nahi du Arturo Escobarrek, Aníbal Quijanok, María Lugonesek, Catherine Walshek, Walter Mignolok eta beste batzuek osatzen duten modernitate/kolonialitate taldearen ekarpenak aintzat hartzen direla; baita epistemologia indigena, afro eta feministetatik eta gizarte mugimenduen eta menpeko beste subjektu batzuen epistemologietatik datozenak ere, euren azterketaren erdigunean esperientzia kolonialak gaur egun hegoalde globaleko lurraldeetan dituen ondorioak jartzen dituztenak.

proposatutako mugimendu epistemologiko eta analitikoek (ikasketa feministak, generokoak, queer-ak, antiarrazistak eta deskolonialak), bada, honako aukera hauek emango lituzkete:

- a) Ulertzea herrialdeko indarkeria soziopolitikoaren eta gatazka armatuaren muinean “ontologia patriarkal” bat abian jartzea dagoela, “menperatze espezifikoko patrix” bat erreproduzitzen duena” (Gómez, 2017d)³².

Ontologia patriarkal eta menperatze-patrix bezalako kategoriek lurraldeetan gertatutako indarkeriaren beste irakurketa bat egiteko aukera ematen dute, baita indarkeria horrek ingurumenean eta espirituan izan dituen eraginak identifikatzeko ere. Horri esker, gatazka armatuari buruzko iraupen luzeko azterketa bat egin daiteke, herrialdean esperientzia kolonialean oinarritutako indarkeria estruktural eta sakona dagoela agerian uzten duena (Gómez, 2015). Feminista komunitarioek indarkeria horren zenbait gako ematen dituzte. Paredesen ustez (2008), esaterako, gizonak emakumeen gorputzen aurkako indarkeria-ariketen bitartez ikasi zuten menperatzen, esperientzia kolonialean errepikatuak izan zirenak. Hala, indarkeria horiek bi lurralde zehatzetan gorputzu ziren: emakumeen gorputz-lurraldea eta lur-lurraldea. Azken hau, izan ere, entitate femeninotzat hartzen dute hainbat gizartetan.

Kolonbiako indarkeria horretara honela hurbiltzean, generoa azterketa-kategoria gehigarri bezala ulertzea saihesten da. Gauza bera gertatzen da arrazarekin edo klasearekin. Hala, generoa zeharkakotu baino gehiago, EBaren argitze lanean kategoria horiek barne gatazka armatua eta indarkeria soziopolitiko azaltzeko elementu estruktural bilakatu behar dira. Hiru botere-harreman horiek (generoa, klasea eta arraza) erabat teilakaturik daude gaur egungo Kolonbiaren sorreran eta indarkeriaren oinarrian dagoen logikan, hau da, ontologia patriarkalean. Kolonbiako egoeraren ikertzaile askok hala adierazten dute: Kolonbiako estatu-

32 Prozesu kolonialak ezarritako *ontologia patriarkalak* existitzen dena, bere estatusa, hura existitzeko baldintzak eta existitzen denaren arteko harreman-mota zehaztu zuen. Prozesu horretan, gorputz feminizatuak (lurra barne) salerosgai bilakatu ziren, aldi berean errentagarriak eta erabili eta botatzekoak. Ontologia horren funtsezko zati bat indarkeria gizartea antolatzeko tresna gisa erabiltzea da. Izan ere, horrek materialtasuna ematen dio botere-patrixari, hau da, hainbat botere-egitura gurutzatzearekin batera azaleratzen den menderatze-sistema konplexuari (moderno-koloniala), hala nola kapitalismoa, heteropatriarkatua, kolonialismoa eta inperialismoa (Gómez, 2017d). Botere-patrixa erabiltzen dugu botere-matrizearen ordez, bere izaera eta jatorri patriarkala agerian uzteko, Paredesek egin bezala (2011).

nazioa patriarkatuan, heteronormatibitatean, arrazakerian eta klasismoan oinarritzen da (Wills, 2007; Curiel, 2011; Gómez, 2015). Zentzu horretan, patriarkatua, heteronormatibitatea, arrazakeria eta klasismoa gatazka armatuaren eta indarkeria soziopolitikoaren ondoriozko indarkeria-fenomenoekin bat egiten duen aldagai soil gisa ulertu behar dira. Emakumea, indigena, beltza edo pobrea izateak helburu militar bihurtu ditu subjektu batzuk, eta, beraz, nortasun horiek sortzen dituzten egiturak indarkeriaren oinarritzat hartu behar dira, hau da, erasoak eragiten dituen eta beste kausa batzuekin elkartzen den kausatzat. Indarkeria garatzearekin batera, borroka ontologikoak, munduaren ikuskerak eta errealtate espezifikokoak egon dira, existitzen dena eta existentzia hori aitortzen zaien erakundeen artean ezartzen diren harremanak zehazten dituztenak. Borroka horiek presentzia dute trantsizio politikoan eta bakearen eraikuntzan ere (Gómez, 2016c). Horregatik da hain garrantzitsua, hain zuzen ere, bizikidetzako eta ez errepikatzeko zereginetan aurrera egitean, EBak ontologia patriarkala eta menperatze-patrixa seriotasunez hartzea, indarkeriaren izaera patriarkala eta egungo gizartearen egunerokotasuna desegituratzen laguntzeko.

- b) Bistaratzea emakumeen eta LGTBI pertsonen gorputzak bere genero konnotazioengatik indarkeria eta ankerkeria pairatu duela, baina gizonena ere bai. Hori, hilketa selektiboetan ez ezik, sarrasketan eta desagertze behartuetan gizonen gorputzak tratatzeko moduan ikusten da. Haien gorputza, lurralde bezala, torturatu, kontrolatu eta menperatu egiten da etsaitzat hartzen den heinean. Prozesu horretan, bada, gizonei ere gizatasuna kentzen zaie.
- c) Emakumeek pairatu dituzten indarkeria guztiak aintzat hartzea, ez soilik sexu-indarkeria eta honen ondorioak (haurdun geratzea, abortuak, esterilizazioa, biluztasun eta prostituzio behartuak; etxeko esklabotza, sexu-jazarpena, kolpeak, genitalen mutilazioa, etab.). Zentzu horretan, bereziki garrantzitsua da, esaterako, emakumeek ere pairatu dituzten beste indarkeria hauen berri ematea: desagertze behartuak, hilketa selektiboak, sarraskiak, lekualdatzeak eta erbesteratzea. Batzuetan, badirudi emakumeek sexu-indarkeria besterik ez dutela pairatzen, nahiz eta horrekin batera beste urraketa batzuk gertatzen diren eta batzuetan beste urraketa horiek bakarrik gertatzen diren, sexu-indarkeriarik gabe.
- d) Emakume biktimizatuek zuten gizarte-maila eta maila horietako bakoitzak ekarritako indarkeria-mota espezifikokoak aztertzea (Gómez

et al., 2020). Kasu honetan, mailaz ari garenean, honako hauetaz ari gara: bai emakumeek euren inguruneetan betetzen zituzten rolez (liderrak, politikariak, amak, irakasleak, etab.), bai botere-egituretan zuten lekuaz, hala nola kolonialismoan, kapitalismoan, patriarkatuan, heteronormatibitatean, eremu ideologikoan eta geopolitikoan. Hori oso garrantzitsua da, emakumeek biktimizatuak izan baitziren ez komunitateetako osagai femeninoa, emazteak, amak edo rol politikoa duten gizonen senideak izateagatik bakarrik, baizik eta eurak ere gizarte-liderrak zirelako eta horregatik zigortuak izan zirelako.

- e) Biktimizatutako emakumeak subjektu politiko bezala aintzat hartzea eta, horrekin batera, gehienetan gizonei lotutako indarkerien (adibidez, desagertze behartuak) genero-azterketa txertatzea.

Genero-dimentsioa barne hartu duten Egiaren Batzordeek ere emakumei buruzko estereotipoak erreproduzitu dituzte, hauek indarkerien biktima-pasibotzat eta subjektu apolitikotzat hartzen dituen ikuspegia indartuz. Azken horrek biktima subjektu “errugabetzat” hartzen duen ideia indartzen du. Horren arabera, biktima ez omen da politikoki konprometitua egon, hau da, ez du alderdi politikoetan, gizarte mugimenduetan edota egitura militarretan parte hartu. Kolonbiako kasuan, ordea, ikuspegi hori ez da baliagarria; izan ere, zuzenean biktimizatutako emakume askok lidergo-rolak betetzen zituzten beren komunitateetan eta/edo afiliazio politiko argiak zituzten. Beraz, premiazkoa da genero-azterketa erabiltzea; indarkeriari buruzko begirada deskribatzaile bat edukitzeko, biktimizatutako emakumeen kopurua eta indarkeria-mota identifikatzen dituen, eta hainbat fenomeno hobeto ulertzeko, hala nola desagertze behartua, genozidio politiko eta herri etnikoen aurkakoa, indarkeria sindikala, oposizio politikoaren aurkako indarkeria, antolatutako biktimen aurkako indarkeria eta, orokorrean, Kolonbian indarkeria soziopolitiko deitu izan dena.

5.4. Egiaren Batzordea ezartzeko testuinguru nazionala: generoko ideologiaren, negazionismoaren eta argitzearen artean

Kapitulu hasieran Plebisituaren gainean adierazi bezala, ezezkoaren aldeko sektoreek Bake Akordioa “generoko ideologiarekin” lotu zuten. Horrek emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideak eliteen arteko

negoziazioan kokatu zituen (Gómez, 2017b). Hala, Akordioaren genero-dimentsioa gauzatzean zailtasunak izan dira, aurrekontu-esleipen eskasagatik, bere aplikazioari buruzko argitasun epistemologiko faltagatik eta gobernuaren borondate ezagatik eginkizun garrantzitsu horretan aurrera egiteko. Batzuetan ikuspegi alderdikoia erabili da sexu-indarkeria bezalako gaien inguruan. Izan ere, maiz, FARC-EP gerrillak emakumeen aurka erabilitako indarkeria azpimarratzen da Estatuak erabilitakoa aitortu gabe.

Aurrekoak lotura du bake negatiboaren ikuspegiarekin eta gaur egun gobernuak duen jarrerarekin, gatazka armatua ezeztatzen duena. Jarrera horrek, bada, Bogotako Colón Antzokian sinatutako Bake Akordioaren eraldaketa-dimentsioa murrizten du; izan ere, hura ezartzeko aurrekontua nabarmen murrizteaz gain, ikuspegi-aldaketak eta JEP eta EAB bezalako mekanismoak ezabatzeko, aldatzeko edo blokeatzeko neurriak martxan jartzea eta bakeari buruzko ikuskera aldatzea ekarri du. Bakearen ikuskera negatiboak gerrillak fisikoki eta sinbolikoki ezabatzea dakar, hitzartutako akordioak eta bake-akordioen logika kontuan hartu gabe. Kolonbian, bake negatibo hura gatazka armatua, estatuaren indarkeria eta horren biktimak ukatzen dituen politikarekin batera doa; eta herrialdeko indar armatuak eta indarkeria estatalaren eta paramilitarraren erantzule diren eliteak biktimatzat hartzen ditu.

Iragana eta egia bereganatzeko borroka, berez, oraina eta etorkizuna kontrolatzeko borroka da eta, horretan, Memoria Historikoaren Zentro Nazionala ideologikoki kontrolatzeko asmoa ere dago. Hasieran aipatu bezala, CNMHk paper garrantzitsua izan zuen Justiziaren eta Bakearen Legearen esparruan gatazkaren dinamikak argitzean. Bere mandatuan, CNMHk paramilitarren, gerrillaren eta estatuaren indarkeria-dinamikak argitu zituen. Izan ere, nahiz eta bere mandatuan estatuaren indarkeria aztertzeke eginkizuna ez egon, hori saihestezina da paramilitarren jarduera zuzenean estatuarekin lotuta egon den herrialde batean. Gaur egun gobernuan dagoen alderdiak adierazi du CNMHko lehen administrazioak Kolonbiako historia desitxuratu zuela. Izan ere, bere ustez CNMHk kategoria oker bat erabiltzen du, barne gatazka armatua, alegia; eta horrek biktimario bezala aurkezten omen ditu estatua eta gizarteko beste sektore batzuk eta erantzukizuna kentzen omen die gerrillei. Aitzitik, hori ez da egia, CNMHk, bereziki *¡Basta ya!* (Aski da) txostenean (CNMH, 2013), gerrillek erabilitako indarkeria argitzen laguntzen duen ariketa egiten baitu.

CNMHri egindako kritika horien ondorioz, Dario Acevedo zuzendari berriak indar armatuak biktima bezala aurkezten, estatuaren indarkeriaren

biktimak baztertzen eta elite nazionalekin aliantzak egiten dituen politika bat abiarazi du. Horrela, Kolonbiako historiografiaren eta memoria kolektiboaren ustezko hutsunea bete nahi du, hau da, gerrillen indarkeria argitu. Zentzu horretan, hori ikertzea garrantzitsua bada ere, gobernuaren benetako asmoa estatuaren indarkeriaren existentzia eta horretan elite politiko eta ekonomikoek duten erantzukizuna ezabatzea dirudi. Horren bitartez, CNMHk eta gobernuak kontrapisu bat sortu nahi dute EBak egia argitzeko egin behar duen lan garrantzitsuari aurre egiteko. Hori Kolonbiako historian aurrekaririk ez duen une historiko batean gertatzen da; alde batetik, egiaren Batzorde bat ezartzen da, FARC-EP gerrillaren eta Kolonbiako estatuaren indarkeria ikertzea helburu duena; eta, bestetik, estatuaren indarkeriak ikusgarritasun handia du, eta gero eta herritar gehiagok aitortzen du halakotzat. Testuinguru hori dela eta, Batzordeak kontu handiz pentsatu behar du zer lan pedagogiko egiten duen gertatutakoa zabaltzeko eta subjektu kritikoa, eztabaidatzailea eta gizarte-aldaketara irekia sortzeko (Gómez, 2017c). Ez da kasualitatea EBak bultzatutako jardueretan gaur egungo gobernuak goi-funtzionarioirik ez egotea, presidentea barne.

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu gaur egun Batzordeak ez duela legitimitate oso handia. Legitimitate hori handitzeko eta finkatzeko, EBa gertatutakoaren inguruko elkarrikeria nazionala abian jartzen saiatu behar da, bake eraldatzailea sustatzeko duen bokazioa esplizituki erakusteko. Gainera, Batzordeak estatuaren presentzia izan behar du eskualdeetan eta tokiko-mailan; izan ere, hau erakunde monolitikoa eta uniforme ez den heinean, lurraldeetan biktimen aniztasunarekin eta bakearekin konprometituta dauden funtzionarioak izateko aukera dago. Azkenik, EBak bere legitimitatea indartzeko aukera du, biktimek bere lana ontzat ematen badute eta azken txosten baten bitartez, Kolonbian gertatutakoa argitzeko lan garrantzitsuan azterketa-elementu berritzaileak aurkezten baditu. Gauza bietarako premiazkoa da hemen aurkeztutako erronkei aurre egitea.

6. Ondorioak

Zalantzarik gabe, EBak aurrekari garrantzitsu bat ezartzen du egiaren batzordeen munduko esperientzietan; izan ere, abian jarri zenetik genero-ikuspegia modu erabakigarrian sartzen du; txikia izan arren, ikuspegi horren zeharkakotasuna dinamizatzen duen lantalde bat du; eta bere mandatua garatzeko, beste ikuspegi batzuekin hitz egiten du, hala nola interseksionalarekin eta etnia- eta arraza-ikuspegiekin. Aldi berean, Generoko Lantaldeak nazioarteko eta nazio-mailako ekarpenak biltzen ditu, bere lanari

abiapuntu oso lagungarria ematen diotenak, eta lan egiten duen testuinguruaren berezkoak diren erronkei aurre egiten die.

Bereziki, biktimizatutako subjektuen parte-hartzearekin zerikusia duten lau erronka hauek dira garrantzitsuak: EBaren dimentsio instituzionalak eta generoarekin duen harremana; gatazka armatua azaltzen duten esparruak; eta Bake Akordioa eta EBa ezartzearen aurkako testuinguru nazionala. Testu honetan landu ez bada ere, Batzordeak erronka berri bat du honako hauei dagokiona: COVID-19aren pandemia, berrogeialdiek dakartzaten mugikortasun-murrizketak eta itxialdiak, eta historikoki diskriminatutako subjektuek testuinguru honetan bizi duten indarkeria- eta bazterketa-egoeren larriagotzea.

Erronka horiei aurre egiteko modu bat da prozesuaren falta den zatian, amaierako txostenean eta egin behar dituen gomendioetan bakearen eta EBaren dimentsio eraldatzailea sustatzea; izan ere, batzordekide gehienek hura onartzen dute. Halaber, COVID-19aren testuinguruan sormen handia behar da EBak planteatutako lanekin jarraitzeko. Izan ere, testuinguru horrek kalte egingo diete EBaren eta biktimen arteko elkarrizketari eta topaketa horien sakontasunari, topaketa horietako askok birtualak izan beharko baitute.

Bibliografia

- Bueno-Hansen, Pascha (2017): “The emerging LGBTI Rights Challenge to Transitional Justice in Latin America”, *International Journal of Transitional Justice*, 12. zkia., 126-145.
- CNMH (2013): ¡Basta Ya! Colombia: memorias de guerra y dignidad. Informe general Grupo de Memoria Histórica, Centro Nacional de Memoria Histórica, Bogota.
- Curiel, Ochy (2011): “El régimen heterosexual y la nación. Aportes del lesbianismo feminista a la Antropología”, *Feminismos y Poscolonialidad. Descolonizando el feminismo desde y en América Latina*, 49-93, Colección Crítica, Buenos Aires.
- Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Berriro Ez Gertatzeko Batzordea (EB) (2019a): *Así avanza la alianza entre la Ruta Pacífica de las Mujeres y la Comisión de la Verdad*, <https://comisiondelaverdad.co/actualidad/noticias/asi-avanza-la-alianza-entre-la-ruta-pacifica-de-las-mujeres-y-la-comision-de-la-verdad>.

- (2019b): *Enfoque de género*, <https://comisiondelaverdad.co/en-los-territorios/enfoques/de-genero>.
- (2019c). *Grupo de Trabajo de Género*. Bakea Eraikitzen duten Emakumeen Eskualdeko Topaketan aurkeztutako diapositibak, Macrorregión Antioquiako Makroeskualdea eta Ardatz Kafetarioa, urriaren 18.
- (2019d): *Comisión de la Verdad y Universidad de Bristol firman acuerdo de apoyo investigativo*, <https://comisiondelaverdad.co/actualidad/noticias/comision-de-la-verdad-y-universidad-de-bristol-firman-acuerdo-para-apoyo-investigativo>.
- (2019e): *21 claves para conocer a la Comisión de la Verdad*, Bogota.
- (2019f): *Enfoque de curso de vida y discapacidad*, <https://podcasts.apple.com/us/podcast/enfoque-de-curso-de-vida-y-discapacidad/id1483008587?i=1000454039934>.

Gómez, Diana (2019): “De la inclusión del género a la estructuración de la paz feminista”, XVII Congreso de Antropología en Colombia. Simposio “De la guerra a la paz: incertidumbres, ¿oportunidades? Para la perspectiva de género”, ekainaren 13, Cali.

- (2017a): “Les droits des victimes dans les accords de paix de La Havane”, *IdeAs*, 9. zkia., <https://journals.openedition.org/ideas/1846>.
- (2017b): “Mujeres, Género y el Acuerdo de La Habana”, *LASAFORUM*, XLVIII. libk., I. zkia. <https://forum.lasaweb.org/files/vol48-issue1/Debates-ProcesosPaz-5.pdf>.
- (2017c): “Trilogía para ser y caminar: memoria, verdad e historia en la Comisión de Esclarecimiento de la Verdad en Colombia. Posibilidades y Retos”, *Documentos de Política*, Andeetako Unibertsitatea.
- (2017d): “Violencia estructural y encarnada: aportes de los feminismos al entendimiento del presente”, Simposio “Cuerpos, emociones, feminismos e investigación en situaciones de violencia”, Kolonbiako XVI. Antropologia Biltzarra eta Latinomerikako Antropologia Elkartearen V. Biltzarra, ekainaren 7, Bogota.
- (2016a): *Transformación y vida: propuesta metodológica de memoria histórica desde las mujeres sindicalistas*, Codhes, Iscod, Agencia Asturiana de Cooperación al Desarrollo y Gobierno del Principado de Asturias, Bogota.

- (2016b): “De amor, vientre y sangre: Politización de lazos íntimos de pertenencia y cuidado en Colombia”, *Revista en Otras Palabras*, 23. zkia., Kolonbiako Unibertsitate Nazionala.
 - (2016c): “Disputas ontológicas en curso en la coyuntura transicional”, in Pardo, G. y J. Celis (argtz.): *Las Víctimas, la memoria y la justicia en el contexto de la globalización. Aproximación al debate actual*. Instituto de Estudios en Comunicación y Cultura (IECO), Kolonbiako Unibertsitate Nazionala eta Diskurtsoaren analisten Latinomarikako Sarea (REDLAD), Bogota.
 - (2015): *Of Love, Blood and the Belly: Politicization of Intimate ties of Caring and Belonging in Colombia* (argitaratu gabeko doktorego tesia). Antropologia Saila. Ipar Karolinako Unibertsitatea, Chapel Hill, Estatu Batuak.
- Gómez, Diana *et al.* (2020): “Las mujeres y la construcción de paz: recomendaciones para la Comisión de Esclarecimiento de la Verdad en el proceso de inclusión de la perspectiva de género en el Caribe colombiano”, *Documentos de Política*, Andeetako Unibertsitatea.
- Emakumeen Instantzia Berezia Genero-ikuspegiarako Bakean (2019): *Enfoque de género y paz territorial. Balance a tres años de la firma del Acuerdo de Paz*, <http://www.codajic.org/sites/www.codajic.org/files/Informe-final-Instancia-Especial-de-Mujeres-para-el-Enfoque-de-G%C3%A9nero-en-la-Paz.pdf>.
- Jaramillo, Jefferson (2014): “Las Comisiones de estudio sobre la violencia en Colombia. Un examen a los dispositivos y narrativas oficiales sobre el pasado y el presente de la violencia”, in Allier Montaño, Eugenia eta Emilio Crenzel (koord.): *Las luchas por la memoria en América latina. Historia reciente y violencia política*, Instituto de Investigaciones Sociales de la Universidad Nacional Autónoma de México eta Bonilla Artiga Editores, https://www.researchgate.net/publication/302028608_Las_Comisiones_de_estudio_sobre_la_violencia_en_Colombia_Un_examen_a_los_dispositivos_y_narrativas_oficiales_sobre_el_pasado_y_el_presente_de_la_violencia.
- (2011): “Expertos y comisiones de estudio sobre la violencia en Colombia”, *Estudios Políticos*, 39. zkia., Instituto de Estudios Políticos, Antioquiako Unibertsitatea, 231-258, http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0121-51672011000200010.
- Mauss, Marcel [1954] (2000): *The Gift. The Form and Reason for Exchange in Archaic Societies*, W.W. Norton, New York, Estatu Batuak.

Orozco, Dinah (2019): Dinah Orozcori, “Ashanti”ri elkarrizketa, Diana Gómezek egina, <https://vimeo.com/325187256/708590083b>.

Paredes, Julieta (2008): *Hilando fino desde el feminismo comunitario*, Cooperativa El Rebozo, La Paz, Bolibia, <http://glefas.org/download/biblioteca/feminismo-movimientos-sociales/Julieta-Paredes-Hilando-Fino-desde-el-Fem-Comunitario.pdf>.

Ruta Pacífica de las Mujeres (2013): *Comisión de la Verdad y Memoria*, <https://www.rutapacifico.org.co/comision-de-la-verdad-y-memoria>.

Viveros, Mara eta Manuel Rodríguez (2017): “Hacer y deshacer la ideología de género”, *Sexualidad, Salud y Sociedad*, 27. zkia., 118-127, <https://doi.org/10.1590/1984-6487.sess.2017.27.07.a>.

Wills, María Emma (2007): *Inclusión sin representación. La irrupción política de las mujeres en Colombia. 1970-2000*, Editorial Norma, Bogota.

Wills, María Emma eta Diana Gómez (2006): Los movimientos sociales de mujeres (1970-2005). Innovaciones, estancamientos y nuevas apuestas”, in Leal, Francisco (argtz.): *En la encrucijada. Colombia en el siglo XXI*, Editorial Norma, Bogota, 291-321.

Egia, justizia eta erreparazioa oinarritzko hiru printzipio dira giza eskubideen urraketa larrien zigorgabetasunaren aurkako borrokan. Gatazka armatuek eta errepresioak eragindako herrialde askotan, egiaren batzordeak izan dira indarkeria-gertaerak ikertzeko eta biktimen egiarako eskubidea bermatzen saiatzeko tresna nagusia. Argitalpen honek maila ezberdinetan beren ikerketetan genero-ikuspegia kontuan hartu duten hainbat egiaren batzorde aztertzen ditu: Hegoafrika, Guatemala, Peru, Sierra Leona eta Kolonbia. Esperientzia horien eta kasu bakoitzean izandako arrakasten, okerren, lorpenen eta zailtasunen gainean eskuratutako ezagutzak irakaskuntzarako balio dezake horrelako tresnetara jotzea erabakitzen duten herrialdeentzat eta, batez ere, diskriminaziorik ezaren printzipioa eta biktima guztien babesa bete nahi duten horientzat, genero-arrazoiengatiko hierarkiarik eta bazterketarik gabe.